

1. *Euskal Herriko udalen izendegia*
Euskaltzaindia, 2011
2. *Leioako leku-izenak*
Mikel Gorrotxategi - Iratxe Lasa -
Goizalde Ugarte, 2011
3. *Aiarako toponimia nagusia*
Patxi Galé - Mikel Gorrotxategi -
Felix Mugurutz, 2013
4. *Euskal Herriko ibaiak*
Euskaltzaindia, 2014
5. *Araba / Álava. Los nombres de
nuestros pueblos*
Patxi Salaberri Zaratiegi, 2015
6. *Sestaoko toponimia*
Jorge Luis Tejedor, 2016
7. *Sierra de Toloño, nexa de la
Montaña y la Rioja Alavesa*
José Ángel Chasco Oyón, 2017
8. *Kale eta karriken izenak
hautatzeko eta idazteko irizpideak*
Euskal odonimiako eskuliburua
Onomastika batzordea;
Euskaltzaindia, 2019
9. *Gipuzkoako herrien izenak.
Lekukotasunak eta etimologia*
Patxi Salaberri Zaratiegi - Luis Mari
Zaldua Etxabe, 2019
10. *Gipuzkoa Antzinaroan: hizkuntzak
eta eremu linguistikoak onomastikaren
argitan*
Luis Mari Zaldua Etxabe, 2020
11. *Euskal Herriko Antzinaroko
jainko eta jainkosen izenak*
Luis Mari Zaldua Etxabe, 2022

La labor de Onomástica de Euskaltzaindia tiene como finalidad el estudio de los nombres, tanto antropónimos (nombres de pila, apellidos...) como topónimos (mayores, menores, exónimos, callejeros, oicónimos...). Tras recoger, clasificar, analizar y establecer la forma normativizada de los nombres, Euskaltzaindia considera imprescindible darlos a conocer, a fin de que las formas correctas vayan implantándose en el uso habitual, al igual que ocurre en toda lengua normalizada. Ese es el objetivo de la presente colección *IZENAK*.


Le travail d'Onomastique d'Euskaltzaindia a pour but l'étude des noms, aussi bien des anthroponymes (prénoms, noms de famille...) que des toponymes (principaux, secondaires, exonymes, noms de rue, noms de maison...). Après les avoir répertoriés, classés, analysés et établis selon les normes, Euskaltzaindia considère indispensable de les faire connaître, afin de favoriser l'emploi habituel des formes correctes, comme c'est le cas de toutes les langues normalisées. Voilà l'objectif de cette collection *IZENAK*.

The main aim of Euskaltzaindia's Onomastic work is the research of basque names that are classified in proper nouns (names of persons, surnames...) and place names (main and minor toponyms, exonyms, street names, house names...). After collecting, classifying, analyzing and deciding the standardized form of those names, Euskaltzaindia considers it is a must to announce them, so that the correct forms are adopted in the every-day use as it happens with any standardized language. That is the purpose of this *IZENAK* collection.



Luis Mari Zaldua Etxabe

EUSKAL HERRIKO ANTZINAROKO JAINKO ETA JAINKOSEN IZENAK



EUSKAL HERRIKO ANTZINAROKO
JAINKO ETA JAINKOSEN IZENAK



Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (ponte izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.

ONOMASTIKA BATZORDEA:

BURUA:

González de Viñaspre, Roberto

IDAZKARIA:

Mujika, Alfontso

TEKNIKARIA:

Gorrotxategi, Mikel: Onomastika
zerbitzuaren arduraduna

KIDEAK:

Alberdi, Mirari
Bidart, Asier
Galé, Patxi
Larrañaga, Josu
Martínez de Madina, Elena
Mujika, Nerea
Rekalde, Paskual
Videgain, Xarles
Zaldua, Luis Mari

AHOLKULARIA:

Mugurutz, Felix





EUSKAL HERRIKO ANTZINAROKO JAINKO ETA JAINKOSEN IZENAK



Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka-ko katalogoan: www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA).

© Luis Mari Zaldia Etxabe

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / A.L.B.

Plaza Barria, 15

48005 BILBAO

Tel. 94 - 415 81 55

Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: info@euskaltzaindia.eus

Webgunea: <https://www.euskaltzaindia.eus>

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Azaleko irudia: Errezuko aldarea.

Diseinua: IKEDER

Maketazioa: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia: GZ PRINTEK, S.A.L.

ISBN: 978-84-125463-9-2

Lege-gordailua: LG BI 01599-2022

Joakin Gorrotxategi Txurrukari



Aurkibidea

Aurkezpena	11
Atarikoa	13
0. Aitzinsolasa	19
1. Erromatar garaian Euskal Herrian jauresten ziratekeen jainko-jainkosak	23
1.1. Antzinateko geografoen eta historialarien liburuetan ahotan hartzen diren izaki gorenak	23
1.2. Epigrafian lekukoturiko Hispaniako eta Akitaniako jainko-jainkosa indigenak	24
1.3. Latinaren aurreko izen indoeuroparrak dituzten Euskal Herriko numenak	26
1.4. Latinezko izenak dituzten jainko-jainkosak Euskal Herrian	26
1.5. Sinkretismoa	29
1.6. Euskal mitologia	32
1.7. Antzinateko Euskal Herriko panteoia	36
2. Euskal ondareko jainko-jainkosa izenen aztarnak epigrafian	39
2.1. <i>Errensae</i> (Larraga, Nafarroa)	39
2.2. <i>Helasse</i> (Miñao, Araba)	40
2.3. <i>Herauscorritsehe</i> (Atharratze-Sorholüze, Zuberoa)	43
2.4. <i>Itsacurrinne</i> (Izkue, Nafarroa)	46
2.5. <i>Lacubegi</i> (Uxue, Nafarroa)	48
2.6. <i>Larrahi</i> (Muruzabal Andion [Mendigorria], Nafarroa), <i>Larahe</i> (Iruxo, Nafarroa), <i>Larahi</i> (Errezu, Nafarroa)	51
2.7. <i>Losae</i> (Lerate, Nafarroa), <i>[L]osae?</i> (Zirauki, Nafarroa), <i>Losae</i> (Burumendi [Lerate-Allotz, 44 elkarrekikoa], Nafarroa), <i>Loxae</i> (Argiñaritz [Girgillao], Nafarroa), <i>Losae</i> (Anitz [Zirauki], Nafarroa)	54
2.8. <i>Selaitse</i> , <i>Selatse</i> , <i>S(ela[fi]tse?)</i> (Barbarin, Nafarroa)	61
2.9. <i>Urde</i> (Muzki, Nafarroa)	66
3. Sinestunak eta agintzak	69
3.1. Hizkuntza ingurumaria	69
3.2. Onomastika testuingurua	73

3.3. Aldareen eskaintzaileak	76
3.4. Aretako botoak	82
4. Teonimia eta toponimia	87
4.1. Jainko izenen zenbait ezaugarri	87
4.2. Teonimoen eta toponimoen arteko loturaz	89
4.3. Jainko izenetako <i>-sa</i> akabaila eta toponimiako <i>-(t)za</i> atzizkia	94
4.4. Leku izenetako <i>-osa</i> berrekailua	96
4.5. Amaieran <i>-sa</i> duten beste toponimo batzuk	98
5. Zenbait galdera eta azterkizun	101
5.1. Teonimoen akaberak eralkitzearen garrantziaz	101
5.2. Izen berezien deklinabidea Akitanian eta Sorian	103
5.3. Datiboko <i>-(h)e</i> hondarkiaren arrazoia	106
5.4. <i>-(H)e</i> datiboko desinentziatzat onartzeko gainditu beharreko oztopo eta erantzun beharreko galdera batzuk	110
5.5. <i>Erge</i> izen geografikoaren kasua	113
5.6. <i>-(H)e</i> elementuari buruzko argibide gehiago	117
5.7. <i>-(H)e</i> elementuaren izaeraz	120
6. Jainko-jainkosen izenen etimoak	125
6.1. <i>Errensa-</i> (Larraga)	125
6.2. <i>Helasse</i> (Miñao)	127
6.3. <i>Herauscorritshe</i> (Atharratze-Sorholüze)	131
6.4. <i>Itsacurrinne</i> (Izkue)	134
6.5. <i>Lacubegi</i> (Uxue)	137
6.6. <i>Larahi</i> (Muruzabal Andion [Mendigorria]), <i>Larahi</i> (Errezu), <i>Larahe</i> (Iruxo)	139
6.7. <i>Losa-</i> (Lerate), <i>[L]osa-?</i> (Zirauki), <i>Losa-</i> (Burumendi), <i>Loxa-</i> (Argiñaritz [Girgillao]), <i>Losa-</i> (Anitz [Zirauki])	148
6.8. <i>Selaitse</i> , <i>Selatse</i> , <i>S(ela[i]tse)?</i> (Barbarin)	150
6.9. <i>Urde</i> (Muzki)	153
7. Ondorio orokor (xume) batzuk	155
7.1. Euskal ondareko jainko-jainkosen izenen inskripzioak dituzten aldareen banaketa eta ezaugarri nagusiak	155
7.2. Erromatarren garaian Euskal Herrian gurtzen ziratekeen numenak	157
7.3. Fededunak eta botoak	159
7.4. Toponimia eta teonimia	161

7.5. Antzinateko euskal hizkuntzaren tasun batzuk teonimiaren arauaz . . .	162
7.5.1. Grafiak eta soinuak	162
7.5.2. Izenen eraketa	165
7.5.3. Morfologia	166
7.6. Erromatar garaiko euskal mintzairaren izaeraz eta hedaduraz	167
Ikurrak eta laburdurak	171
Erreferentziak	173
Irudiak	189
Eskerren ematea	191



Aurkezpena

Roberto González de Viñaspre

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko burua

Luis Mari Zaldua Etxabe euskaltzain urgazle eta Onomastika batzordeko kideak idatzi duen liburu hau ezinbesteko irakurgai du euskararen iraganaz jakiteko gogoz Euskal Herriko Antzinaroan diratekeen euskal ondareko jainko eta jainkosen izenen berri gaurkotua erdietsi nahi duenak. Orrialdeotan egileak aditzera ematen duen bezala, halako teonimoak aztertzeak helburu bikoitza du berarentzat: erromatar garaiko euskal hizkuntzaren bereizgarrien ezagutzan ahalaz aitzinatzea eta garai hartan euskal mintzairak zukeen lurralde-hedadura finkatzen saiatzea.

Eskuartearen dugun ikertzaile urnietarraren ekarri berri hau duela bi urte baino gutxiago *Izenak* bilduma honetan bertan argitara eman zuen lanaren lorratz bertutik dator. Izan ere, aurreko liburu hartan ere bi helburu horiexekin landu zuen Antzinaroan Gipuzkoan izan zitezkeen hizkuntzen eta eremu linguistikoen gaia. Oraingoan, aldiz, onomastikaren arloan berezko tokia duen teonimiaren argitan egin du azterketa. Gainera, aztergaiaren lurralde-eremua egungo Euskal Herrira zabaldu du, bere esanean «Aturri, Aragoi, Ebro eta Barbadun ibaiek inguratzen duten barrutira».

Egileak bere gain hartu duen eginkizun handi honi ez zaio zailtasunik eta behaztoparik falta. Guztietan nabariena da euskal jatorkikotzat har daitezkeen teonimoen corpus urria. Zalduak gaurdaino ezagutzen diren hamazazpi idazkunak aztertu ditu, zehatz-mehatz, horien artean berak liburu honetan aurkezten dituen bi inskripzio argitaragabeak barne. Lekukotasun-kopuru txiki horretan, orotara, bederatzi bat teonimo desberdin dira. Gehienak ilunkarak izanik eta konparaketarako euskal hizkuntzak antzinako ahaidetasun linguistikorik ez duelarik, egileak aitortzen du zail eta neketsua dela ikerketan aurrera egitea.

Hala ere, onomastikari gipuzkoarrak argi izpia eman dezaketen alde guztietatik aztertu ditu izen horiek denak, eta ikerlana zimentarri sendoen gainean eraikitzea bilatu du. Lehenik, jainko eta jainkosen izenak erromatar garaiko testuinguruan kokatu ditu, eta gero teonimiaren eta toponimiaren arteko harremana jorratu du. Antzinaroko euskal ondareko elementu onomastikoak antroponimia eta toponimia zaharrenarekin harremanetan jartzea emankorra izango dela iritzita, egileak azterbide hori ibili beharra dakusa etorkizuneko urratsak egiteko. Orain arte teonimo horiezaz ospe handiko autoreek emandako uste eta proposamenak bildu eta bahetu

ditu. Bere ekarpena erantsi du, zenbaitetan aurrekoenak osatuz eta izan daitezkeen eragozpenak azalduz. Zenbait etimo proposatzen ditu, baita «ondorio orokor (xume) batzuk» bildu ere.

Ezbairik gabe, arreta merezi duen ikerlan baten aurrean gaude, jakintza-atal honen garapenean lagungarri izatera datorrena.

Atarikoa

Joakin Gorrotxategi

UPV/EHUko Hizkuntza Indoeuroparretako katedraduna

Azken urteetan nahiz Euskal Herrian zein atzerrian gure antzinateko erlijio eta sinesmenen gainean areagotuz joan den jakin-minari erantzun bat emateko asmoarekin idatzi du Zalduek liburu hau. Duela hamar bat urte, orain oroitzen ez dudana argitaratzaile batek antzeko liburu bat idaztea eskatu zigun Jose Luis Rodriguez Sada-bari eta bioi, 2013ko artikuluan esaten genuena oinarritzat hartuz azalpen zabalagoa eta neurri batean dibulgatiboagoa emango zuena. Erakargarria zen egitasmoa, baita ere zaila, ezen, datuen eta jainkoen izenen bilketaz eta bere azalpen linguistikoaz gain, numen horien ezaugarriak eta funtzioak deskribatu eta aldare-eskaintzaileen sinesmenen berri eman behar zen. Aipatu artikuluan arazo horiek iradoki besterik ez nituen egin, jakinda bide horretan aurrera egiteko beharrezkoak zirela gure herri sinesmenen, mitoen eta gizakiaz gaineko izakien inguruko ipuinen ikerketa antropologiko sakonak. Premia horretaz jabetu ondoren, Zalduek saiatu da, arazoak arazo, antzinateko harrietan lekukotzen diren jainkoak geroko euskal ipuinetan agertzen diren izakiekin alde-ratzen.

Hala ere, liburuaren mamia eta zatirik garrantzitsuena antzinateko jainko eta jainkosen onomata edo izenei eskainitakoa da, liburuaren izenburuak zuzen adierazten duen moduan.

Esan behar da egileak gaia, finkatutako esparruan, osoki eta sakonki tratatu duela. Aurreko bibliografian oinarrituz euskal jatorriko jainko izenak lekukotzen dituzten aldare ezagun guztiak aurrez aurre ikusi eta deskribatu ditu, iruzkinak argazkiekin aberastuz. Azken urteetako aurkikuntzei esker, izen hauen zenbatekoa nire tesian jaso nituen lau teonimotik (bederatzi aldaretan) orain ezagutzen diren bederatzira (hamazazpi aldaretan) hazi dela ikusita, behar-beharrezkoa zen aldare guztiak elkarren ondoan batzea eta modu egoki batean euren berri ematea. Baina argitalpen askotan sakabana-tuta zegoen informazioa bildu eta aztertu bakarrik ez du egin, baizik eta ikerketaren haritik tiraka, ikertzaile tematiei gertatzen zaien bezala, bi aldare ezezagun ere aurkitu ditu jainkoen izenen kopurua halan apurtxo bat handituz.

Azterketari dagokionez, gaiak izan ditzakeen alde guztiak jorratu ditu, lehendabizi euskarriekin zerikusia dutenak, hala nola aldareen aurkiguneak eta beren ezaugarri fisikoak, gero testuaren irakurketa eta edizioa, azkenik izenen azterketa linguistikoa. Ikerketa honetan egileak arreta handiz tratatu dituen gaiak izan dira, besteak

beste, grafiazko kontuak, ezaugarri fonologikoak, izenen osagaiak eta hauen etimologiak. Horrez gain, ez du baztertu aldare-eskaintzaileen nortasuna eta nolakotasuna aztertzea, batez ere haien jatorria eta egoera juridikoa adieraz ditzaketen ezaugarriak garbiro erakutsiz. Ikusten denez, Antzinaroko lekukotasunak azaltzean, diziplina asko daude tartean eta ez da erraza izaten guztietan gutxieneko ezaguera izatea; esan behar dut, alabaina, Zaldua jaunak Antzinaroko gaietan murgilduta denbora gutxi eraman arren, zuzenki ulertu dituela arazoak eta problemak, eta zehazki erabili jasotako datuak.

Goian aipatu badut ikerlan honen ezaugarrietako bat antzinateko teonimiaren azalpenerako geroko euskal mitologiak eman dezakeen laguntza aintzakotzat hartzea dela, dudarik gabe bigarren ezaugarria toponimiaren informazioaz baliatzea da. Aspalditik ezagutzen da zenbait jainko izenen eta leku izenen arteko lotura. Gure artean Toloño / Doloño mendia eta Dulantzin agertutako *Tullonio* jainkoa alderatu daitezke, eta Akitanian garbia da Rapp mendiko harrobien eta bertan gurtzen zen *Erriappo* jainkoaren arteko erlazioa. Lotura aurkituta ere, zailagoa izaten da jakitea zerk eman zion izena zeri, jainkoak tokiari edo tokiak jainkoari, etimologiak lagun dezakeen arren, Deba ibaiaren kasuan bezala. Aise moldatzen da egilea toponimoen artean. Jainko izen bakoitzarekin lotura izan dezaketen toponimo asko aipatzen ditu, antzinako izenaren bertakotasunaren alde mintzo diratekeenak. Ez dakit aipamen horiek guztiak ondo ekarrita dauden, aldi oro teonimoekin zerikusi zuzena ote duten, baina iluntasuna handia denean zilegi da argi pixka bat eman dezaketen datuez baliatzea. Egia da alderatze batzuk onargarriagoak diruditela beste batzuk baino; ez dut ikusten eragozpenik *larra/larre* hitzetik eratutako toponimoak *Larrahe/i* jainkoarekin lotzeko, eta alor horretan bertan erakargarria da *Erge* akitaniar jainkoaren izena *erge* ‘saroi’ esan nahi duen euskal hitz zaharrarekin lotzea, egileak Salaberriren iradokizun bat landuz egin duen bezala. Beste alderatze batzuek, ostera, arazo gehiago dituzte, batzuetan aipatu leku izenak ez direlako Euskal Herrikoak eta bestetan arrazoi fonetikoengatik; *Itsacurrinne* teonimoaren kasuan, adibidez, lehen zatia euskarazko *itsats*-ekin lotu nahi bada, azaldu beharra dago jainko izenean zergatik falta den hitz horren azken palatala.

Izenen azterketa linguistikoari dagokionez, Zaldua saiatu da, plazaratu diren hipotesi eta iritzi guztiak bildu ondoren haien alde sendoak eta ahulak agerian jarrita, bere azalpen propioak proposatzen. Izenen analisisian, hau da, izenetan egon daitezkeen osagaien identifikatze lanean, aukera guztiak erakusteko joera du, askotan, dagoen informazio faltagatik haietako baten alde egin gabe. Joera honek, garbi dago, analisi bide berri batzuk irekitzen ditu, baina aukera guztiak aztertu nahiak testua batzuetan nahastu eta ilundu egiten du. Proposamen berrien artean *Sela(i)tse*, *Helasse* eta *Heraus-corritse* izenetako *-tse* akabaila jainkosen, hau da, emakumezkoen markatzat hartzeko aipatuko nuke. Nik izen horietan Akitaniako *Garre*, *Andosse* edo *Artahé* teonimoetan isolatzen nuen *-(h)e* desinentzia bera ikusi nuen. Egia da ez dudala inoiz garbi izan

nola zatitu behar den *Heraus-corritse* izenaren *-tse* akabaila: *Bai-corrixo*-n dugun *-xo* akabailaren (pertsona-izen askotan, datibo markarik gabe, aurkitzen dugun *-x(s)o* atzizkiaren) aldaera bezala edo *gorri* oinari luzapen gisa atxikitako *-tz-* (*bel-* /*bel(e)x-* en antzera) gehi beste adibideetako *-e* desinentzia moduan? Analisia garbia izan ez arren, bigarren aukera hobetsi izan dut, batez ere *-(h)e* desinentzia Baskoien jainkoen izenetan ere lekukotzen dela onartzeak baskoieraren eta akitanieraren arteko erlazioa ziurtatzeko duen indarragatik. Ez dut ukatzen *-tse* akabaila emakumezkoen marka izan zitekeenik, baina zailtasun batzuk ere ikusten dizkiot: ez dagoela momentuz *deae* hitz generikoaren bidez horren konfirmaziorik, adibide guztietan izenek ez dutela latinezko desinentziarik hartzen eta, azkenik, atzizkiaren zentzua ez litzatekeela bat etorriko *Heraus-* oinari eman izan zaion azalpenarekin.

Garbi dago, bestalde, *-tse* emakumezkoen marka bezala hartzeak edo, hautabide modura, *-tsa* atzizkiaren latinezko genitibo forma berantiarra (*-tsae* > *-tse*) dela uste izateak *-e* desinentziaren presentzia gutxiesten dutela. Dena dela, uste dut nahiz Akitaniako izenetan zein baskoien lurraldetakoetan *-(h)e* desinentziaren erabilera ukaezina dela. Hasteko *-o/-e* txandaketa dugu, *Erriappo* /*Eriappe* eta *Andosso* /*Andosse* jainko (eta ez jainkosen) izenek adierazten duten bezala, *Garri* /*Garre* izenetan antzeman daitekeen *-i/-e* txandaketaren pareko dena. Arrazoi askorengatik izen hauetan *-e* akabaila ezin da latinaren lehendabiziko deklinabidearen *-ae* > *-e* desinentziatzat hartu. Horregatik pentsatu izan dugu batzuk bertako hizkuntza indigenaren ezaugarri bat dela, latinezko datibo desinentziaren ordez jainko-jainkosen izenetan azaleratzen dena. Latinezko gramatikaren aldetik datiboaren funtzioa betetzen du, baina bertako hizkuntzan beste kasuren baten marka izan zitekeen, agian (geroko) genitiboarena. Latinaren eta euskara historikoaren ikuspuntutik genitiboaren funtzioa garbiago agertzen zaigu Atharratze-Sorholüzeko eskaintzan non *Fano Herauscorritsehe* “Herauscorritseren santutegiari” bezala uler daitekeen. Gure hemen-go lekukotasunetara itzuliz, desinentzia garbi agertzen zaigu Iruixoko *Lar(r)ahe* izenean. Egia da teonimoak *Larrahi* forma erakusten duela Muruzabal Andiongo eta Errezuko aldareetan, lehendabizikoan *Larrahe* irakurketa baztertu ezin bada ere. Txandaketa honen azalpenerako Zalduek irtenbide asko saiatu ditu, batzuk besteak baino sinesgarriagoak, asko aldiz ondorio garbi batera heldu gabe. Nik, gauzak erraztearren, *-(h)e* hartuko nuke jatorrizko desinentziatzat, eta hark latinaren deklinabidearen eraginez hartu duen forma izango litzateke *-(h)i*, hau da, *Garre* eta *Garri*-ren arteko txandaketaren parekoa izango genuke.

Larregi luzatu naiz detailezko iruzkinetan, Zalduek iradokizunez beteriko tesu aberatsak hortara bultzatu banau ere. Irakurle euskaldunak badu liburu honetan, txukun idatzita, Euskal Herriko Antzinaroko jainko eta jainkosen izenen gainean esan dena eta esan datekeena. Seguru nago batzuek ondorio garbiagoak nahiko lituzketela izenen euskaltasunari buruz, baina hori da nire ustez liburu honen alde ona, oso argi uzten duela, antzinateko izenen eta geroko euskararen artean harremanak eta loturak

egon arren, ez direla gauza bera. Liburu hau irakurtzen duena ez da Saint-Bertrand-de-Comminges edo (egileak okzitanieraz idazten duen bezala) Sent Bertran de Comengeko museora joango, hango euskal inskripzioak ikusi nahi dituela eskatzera, bertako funtzionarioarengan sekulako harridura, haserrea ez bada, sorraraziz. Antzinateko euskarari buruz oso gutxi dakigu, baina aurkikuntza berriek argi gehiago ematen ez diguten bitartean, ez zaigu gelditzen beste biderik ezagutzen ditugun datu urri eta zailak behin eta berriro aztertzea baino, Luis Mari Zalduak egin duen bezala.

Euskal Herriko Antzinaroko jainko eta jainkosen izenak

Erromatar garaiko euskal mintzaira teonimiaren argitan





0. Aitzinsolasa¹

Aturri, Aragoi, Ebro eta Barbadun ibaiek inguratzen duten barrutian gaurdaino ediren diren Antzinaroko euskal ondareko hizkuntza aztarna gehienak jainko-jainkosen izenak dira. Orotara, bederatzi bat teonimoren berri ematen duten hamazazpi inskripzio plazaratu dira gaurdaino, liburuño honetan aurkezten ditudan bi argitaragabeak barne. Pirinio Garaietan eta Garona Garaian dagoen lekukotasun multzoarekin alderatuz gero, sortatxo hori hutsaren hurrengo da; kontu egin Akitanian badirela gurean idoro den azao guztiak baino erakuskari gehiago dituzten erromatarren garaiko jainko izen indigenak. Alde guztietara, jakinik jende izenen laginak are urriago direla, garbi ageri da teonimoak direla behialako hemengo euskal mintzaira ikertzeko iturri nagusia.

Euskal jatorkikoak diren, diruditen nahiz diratekeen jainko izenak ez dira goian aipatu eremu osoan era uniformean banatzen. Kopuru nagusia Nafarroa Garaiko erdialdean kausitu da eta Zuberoan zein Araban mostra bana baizik ez dago; bestela esanda, gaur arte Bizkaian, Gipuzkoan, Lapurdin eta Nafarroa Beherean alerik ere ez da topatu.

Lehen begiratuan, erabiliko ditugun deizio gehienak ilunkarak dira eta ez dute Akitaniakoen antz handirik; arruntean, onenera jota ere, zati edota soinuren bat emateko grafia besterik ez dator bat hangoekin. Esan nahi dut hondarkiren bat nahiz alegiazko hotsen baten adierazpena dela, eskuarki, euskal sustraikotzat jotzeko arrazoi nagusia eta, batzuetan, bakarra.

Aldareak eskaini zituztenen izenak, batena izan ezik, ez dira euskal enborrekoak eta, hori gutxi balitz, gurean jauresten ziren bertako jainko-jainkosen nolakotasuna arras ezezaguna zaigu, ezer ez dakigu ia erromatarren garaian sartaldeko Pirinioen bi aldeetan bizi ziren gizon-emakumeen sinesmenei buruz. Mitxelenak esan zuen gisan, zaila da nolakoa den ez dakigun zerbait aurkitzea, ezta badenik ere ez dakigunean. Ez dago hemen egjari uko egiterik: antzinateko euskal dibinitateen izenen azterketa buruz gaineko aizkolketa da.

Teonimo batzuen testigantza bat baino gehiago dago, zorionez, eta gehienak nahiko esparru txikian azaldu dira. Ikertu beharreko eremu onomastikoaren muina nabaria da, horrenbestez, eta, gainera, ez oso zabala.

¹ Esker ona adierazi nahi diet Joakin Gorrotxategi Txurruka eta Patxi Salaberri Zaratiegi irakasleei lan honi egindako ohar eta ekarpenengatik.

Badira errepikatzen diren forma eta grafema batzuk. Orobat, badaude ondoko lurraldeetako (Akitaniako, Soriako) euskal jatorriko teonimoetan eta antroponimoetan sumatzen direnekin konpara daitezkeen zenbait elementu. Bestalde, boto egileen izenen molde onomastikoez eta osagaiek haien gizarte mailari edo estatusari buruzko informazio adierazgarria eskuratzen dute.

Gorde den euskal mitologian badira zahar samarrak diratekeen gizakiaz gaineko izakien arrastoak (erromatarren garaitik datozkeenak), laminenak kasu, eta horri eskerrak –hizkuntzalaritzaren arloan antroponimoekin egiten den eran– aro aldaketaren sasoiko bertako jainko–jainkosak Erdi Aroan eta Aro Modernoan dokumentaturikoe-kin erkatzeko ahalegina egin daiteke.

Teonimiaren eta toponimiaren arteko balizko lotura da beste heldulekua. Izan ere, gauza ziurra da, jainkoen eta santuen izenen oinordeak diren toponimoak ez ezen, han eta hemen badaudela gorazarrea burutzen zen tokiaren izena atxiki duten izaki gorenak. Beraz, bada, dibinitateen izenen azterbidean toponimiari erreparatzea lagun-
garria izan daiteke, printzipioz.

Teonimoen garaiko bertako leku izenen arrastorik ez dago epigrafian, baina erromatar aldiko geografo eta historialariek aipaturikoen artean badira bizirik dirauten bakan batzuk, iradokitzen dutenak Erdi Aroan eta Aro Modernoan ikusten diren hainbat osagai onomastiko Antzinaroan ere bazirela eta, ondorioz, ikergai ditugun deizioen nondik norakoa argitzeko komenigarria dela euskal toki izenen corpus abe-
ratsa arakatzea.

Baditugu, era berean, bi erraztasuntxo gehiago. Idazkun guztiak (gutxienez) Erdi Aro arte euskara mintzatu den alderdian edo haren mugan edirendakoak dira eta, gutxiago edo gehiago, ospe handiko autoreek ahotan hartu dituzte. Luchairez, Mitxelenaz, Gorrotxategiz, Salaberri Zaratiegiz, Lakarra Andrinuaz edo Velazaz ari naiz; haiei jarraiki natzaie. Horrez gain, lana asko samurtzen duten datu baseak balia dai-
tezke egun: *Hesperia* delakoa Hegoaldeko epigrafia lekukotasunak husteko, eta Eduar-
do Orduñak paraturikoa Iparraldeko eta Akitaniako laginak begiratzeko. Azkenik, aitor dezadan luzatu gabe landa lana egiteko, besterik ez bezalako den Pedro Argan-
doña etnografo lezaundarraren laguntza izan dudala; beharrik! Hain zuzen, hari zor diot (eta diogu) bi ara ttipi berriren argitalpena.

Esanak esan, lan honen helburua da, bertakoak diratekeen jainko–jainkosen ize-
nen tasunak eralkiz, antzinateko euskal hizkuntza ezaugarritzen laguntzea eta, bide-
nabar, ahal den neurrian, mintzaira hark Euskal Herrian harrapatzen zuen lurraldea
finkatzen saiatzea.

Mamiari dagokionez, aitzinsolas hau eta erreferentzia bibliografikoak jasotzen
dituen atala alde batera utziz gero, liburuñoak hiru sail nagusitan bana daitezkeen
zazpi parte dauzka. Lehenbiziko hiruretan Euskal Herriko numenei eta haien izenei
buruzko datuak, iritziak eta haien eskutik osa daitezkeen aierua jakitera ematen ditut.

Hurrengo hirurak onomastikaren alorrekoak dira bete-betean. Preseski, laugarren kapituluaren teonimiaren eta toponimiaren arteko harremana jorratzen dut batez ere, eta bosgarrenean gure aurretik jainko izenak erabili dituzten ikertzaileek egindako zenbait proposamenik ikusten dizkiedan eragozpenak adierazten ditut. Seigarrenean zenbait etimo proposatzen dira. Amaitu aitzinetik, atera ditudan ondorio orokor (xume) batzuk biltzen ditut eta, bukatzeko, esker ona erakusten dut, gogora ekartzen ditudan jende guztien partaidetza gabe esku artean duzun testu hau ezinezkoa baitzatekeen.



1. Erromatar garaian Euskal Herrian jauresten ziratekeen jainko-jainkosak

Alaere ausarditsu batzuek landa inor ezta Aketegian² sartu, ezta ortik ez urrin igarotzen dan bide txidorretik ibili ere, -ezin bestez ezpada- sorgiñori bádagoela geyenek sendaro sinisten baitute.

G. Bähr (1920; *apud* Jauregi, 2002, 27. or.).

1.1. Antzinateko geografoen eta historialarien liburuetan ahotan hartzen diren izaki gorenak

Gauza gutxi dakigu erromatarren garaian Euskal Herrian gurtzen ziren gizakiaz gaineko izakiez, ezer ez dakigula ez esateagatik. Ezezaguna zaigu, adibidez, erromatartzea hasi zen sasoian gurean zenbat erlijio zeuden eta orobat –zeltiberiar, galiar edota iberiarren eraspeneekin konparatuz gero– bestelakoa edo berezkoa zen sineste eta zeremonia multzoren bat ba ote zegoen, alegia, bertako debozio berezirik edo jatorrizkorik bazen. Balizko jainko-jainkosa haiek zer eginkizun zuten, beren artean nahiz gizakiekin nolako harremana zuketean, non izaten ziren eta nola jauresten zituzten ezin da igarri.

Antzinaroan, Aturri, Aragoi, Ebro eta Barbadun ibaiek inguraturiko barrutian adoratzen ziren jainko eta jainkosen nolakotasunaren berri jakiten saiatzeko iturri bat baino gehiago huts daitezke, izan tokikoak, izan ondoko lurraldeetakoak edota urrutikoak. Batzuek, gutxiago edo gehiago, erromanizazioa hasi aurreko debozioak adieraz ditzakete eta beste batzuk, ostera, egoera «berriaren» lekukoak dirateke. Beranduagoko informazioa dakarten erreferentziak ere balia daitezke.

Lehenengo eta behin, literaturaren alorreko iturriak daude, hau da, antzinateko geografoen eta historialarien liburuak. Bigarrenik, arkeologia eremuko informazioa dugu eskura, baina ez naiz sail horretan sartuko, nire arloa ez delako; argibide gehiago behar duenak jo beza, esaterako, Tobalinak (2009, 482–486. or.) Nafarroako tenpluei eta gurtza tokiei nahiz eskultura, apaingarri, mosaiko eta zeramikari buruz argitaraturikora. Inskripzioen euskarrietatik (aldareetatik) ere –dauzkaten apaindura

² Udanan (Legazpin) jaiotako hizkuntzalari alemana Aketegiko damaren bizilekuaz ari da, Aizkorrin (Zegaman) dagoen kobaz, alegia.

eta gainetiko osagaiengatik— jakite esanguratsua atera daiteke. Azkenik, epigrafeak daude, noski. Lehenbiziko atal honetan euskal sustraia ez duten sartaldeko Pirinioetako teonimoei eta ondoko herrialdeetako euskal jainko eta jainkosen izenei bakarrik begiratuko diegu, euskal ondarekoak eta hemengoak direnak edo diratekeenak bigarren eta seigarren kapituluetan espresuki jorratuko baititugu.

Badira argi pixka bat egiten duten suhar batzuk aitzinean dugun testuinguru ilun honetan, Estrabonen aipamenak kasu, baina greziarraren ekarpena tentuz baliatu beharrekoa da, besteak beste, Pirinioen sartaldeko eremuaz dioena ez zuelako aurrez aurre ikusi, bestek jakinarazitakoa edo liburuetan irakurritakoa delako (ikus Zaldúa, 2020, 37. or.). Gainera, Hispaniako iparraldean bizi ziren herri guztiak (galaikoak, asturrak, kantabriarrak, barduliarrak [*bardyetak*] eta baskoiak) zaku berean sartzen ditu Amaseiako geografoak, bere ustetan, antzeko ohiturak zituztelako. Gure azterkizunaz diharduen denbora joanetako beste libururik ez dagoenez gero, K.a. 29. eta K.o.18. urteen artean izkiriaturiko *Geografia*-rekin ase (edo etsi) beharko.

Estrabonek (III, 3. 7) diosku Hispaniako iparraldeko menditarrek Ares jainkoari akerrak, zaldia eta gerrako presoak eskaintzen zizkiotela, esan nahi baita haren laudorioz sakrifikatzen zituztela. Greziarren antzera, opagai horien sarraskiak egiten omen zituzten. Pentsa daiteke, beraz, apika, Marteren gisako gerlaren jainkoren bat gurtzen zutela eta «esku erakutsiak» jendaurrean egiten zizkiotela.

Beste pasarte batean (III, 4. 16) Amaseiako geografo eta historialariak jakitera ematen du, zenbait autoreren arabera, galaikoak (*kallaikoí*-ak) ateoak zirela; ez, ordea, zeltiberiarrak (*keltiber*-ak) eta haien ondoan (iparraldean) zeuden gainerako herriak (baskoiak?), guztiek jainko izengabe bat laudatzen baitzuten. Ilargi beteko gauetan familiek egunsentira arte dantzatuz adoratzen omen zuten, beren etxeetako atarietan adonatu ere. Caro Barojaren (1973, 92. or.) iritzirako, jainko-jainkosa hori, zalantzarik gabe, ilargia zen, baina haren izena ezin zen esan, tabua zatekeelako—edo (*cfr.* Blázquez, 1991, 62. or.); Mitxelena (1954, 440. or.), baina, ez dator bat ustekizun horrekin, erabat ez behintzat. Guztiarekin ere, dena delako izaki (izendaezin?) hura ez zatekeen —Ares bezala— publikoan goretsi, etxean (familian) baizik.

1.2. Epigrafian lekukoturiko Hispaniako eta Akitaniako jainko-jainkosa indigenak

Iberiar penintsulako iparraldeko biztanleen erlijio jarduna ez zatekeen goiko atalean erabili ditugun jainko-jainkosen gorazarrera murriztu, Blázquezek (1991, 67-68, 80-81, 180. or.) biltzen duenez, Zeltiberian, adibidez, hogeita hamar bat teonimo indigena dokumentatu baitira. Izaki garrantzitsuen *Lug* omen zen eta, ondoren, *Matrae* direlakoak.

Zenbait autore, hilarri eta aldareetan dauden irudietan oinarri hartuz, Hispaniako iparraldeko antzinategi dibinitateen ezaugarriak zehazten ahalegindu dira. José María Blázquez historialaria da entzutetsuenetariko bat. Asturiarrak (1991, 42-60, 144. or.), esate baterako, belearen irudia *Lug*-ekin –Apolo bezala, argiaren izaki gorena zatekeenarekin– lotua dagokeela idazten du. Era berean, oreinen marrazkiek Artemis–Dianaren pareko jainkosa batekin harremana lukete, haren ustez. Zezena (indar ernaltzailearen sinbologia), berriz, hilezkortasun sinesmen astralei legokieke. Basurdeak ere hiletekin eta beste munduarekin zerikusia izango luke, *Endovellico*-ri³ (dat.) (Hispaniako jainko ezagunenetariko bati) eskainitako aldare batean haren irudia baitago, antza. Orobat, osoak garrantzia izan bide zuen Antzinaroko Hispaniako erlijioan, agidanez.

Penintsulako sortaldeari dagokionez, ezer gutxi dakigu iberiarren fedeei buruz. Gaur arte hiru jainko izen besterik ez dira ezagutzen, *Betaton*, *Salaeco* eta *Sertundo* (Javier Velazaren ahozko adierazpena).

Akitaniara begiratuz gero, ikusirik badirela *Ar(e)ix-/Arix-/Harexu-* (Lodenvièla⁴ [Loudenvielle], Biec [Vignec]), *Arta-/Arte-* (Sent Pè d’Ardet [Saint-Pé d’Ardet], Lurda) nahiz *Fagus* (Tibirán–Generest [Générest], Generest, Sent Beath [Saint-Béat]), *Abellio-* (Havarst [Fabas]) eta *Sex Arbor*-en (Castèthviague [Castelbiague], Montspan, Arbàs [Arbas]) ohorez egindako inskripzioak, Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 130-131. or.; *cf.* Gorrotxategi, 2020, 20. or.) pentsatzen dute alderdi hartan zuhaitzak (haritza, artea, pegoa, sagarrondoak) gorenaren zituzketela erromatarren garaian. Besteak beste, *Fagus* (la ‘pegoa’) adoratzen zela eta *Ar(e)ix-/Arix-/Harexu*-ren pean haritzaren irudikapen jainkotiarra egon daitekeela uste dute, *Arta-/Arte*-ren kasuan artearena dagokeen bezalaxe. *Sex Arbor* delakoaren testigantzek, gainera, horrelako eraspenak nahiko zabalduak zeudela adieraziko lukete. Damurik, ezin da jakin sei zuhaitz bereziki gorazarre egiten zieten edota landare horiek eremu sakratua mugatzeko balio zuten, hau da, sei arbolak finkaturiko santutegia ba ote zegoen (*cf.* Caro Baroja, 1945, 137. or.).

Azken horren harira, Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 129. or.) agerian ipintzen dute hegoaldeko Akitanian ziren *Mars Leherenno/-i* (dat., Ardièja [Ardiège]), *Erriapo* (dat., Sent Beath) eta *Erge*-ren (Montcirèr [Montsérié]) santutegiaren garrantzia, ez delako arrunta –hiru etsenplu horietan bezala– aldareak topaturiko eremuan izaki gorenak gurtzeko lekuren bat zegoela aditzera ematen duten (teonimo beraren) testigantza multzoak edo corpus txikiak kausitzea.

³ Zaila da idazkuretako teonimoak nola eman asmatzea, besteak beste, izen indigenen nominatiboa zein den jakitea ez delako erraza. Latinista eta Antzinaroan aditu askok latinezko nominatiboan adierazi ohi dituzte (ikus, esaterako, Rodríguez & Sablayrolles, 2008, edota, Zenbaiten artean, 2008), baina autore gehienek (Joakin Gorrotxategi barne) dauden–daudenean aipatzen dituzte, berreraiki gabe, nolabait esan. Lan honetan Eibarko maisuaren irizpideari jarraitu naitzaio, hau da, eskuarki, lekukoturiko formak lehenetsi ditut testuan.

⁴ Okzitaniako toponimoak bertako hizkuntzan idatzi ditut eta ondoan, parentesi artean, frantsesezkoak eman.

1.3. Latinaren aurreko izen indoeuroparrak dituzten Euskal Herriko numenak

Arabian latinaren aitzineko *Tullonio* (dat., Dulantzi) eta *Baelibio* (dat., Angostina) teonimo indoeuroparrak ditugu. Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 136. or.) aierua da tokiko debozioak (topikoak) diratekeela, beren antzinateko idatzizko aztarnak aurkituriko lekuetatik oso urrun ez dauden *Toloño* eta (Errioxako) *Bilibio* toponimoetan gorde direlako (bigarren kasuan batez ere).

Dulantziko «S(empronius) Sever(us) / Tullonio / v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)» agintzari bagagozkio (HE [Gómez-Pantoja 2013], 8773), antza denez, Lautadan bazen *Tullonium* hiri bardularra, Antoninoren Ibilbidean (455, 1) eta Ptolomeoren geografia lanean ahotan hartzen dena (Τουλόνιον; II, 6, 65). Gorrotxategiren eta Ramírezen iritzian (2013, 136. or.), *Tullonius* onimoa geografo egiptoarrak aipatzen duen eta nahiko gertu (Arabian bertan) zegokeen *Tullica* hiri karistioarekin lotua dagoke (Τουλλικα; II, 6, 64), biek *Tul-* erroa baitukete (← ine **t(e)ul-* ‘gorpanea’). *-On-io-* segida, ostera, *Istónion* (Ιστόνιον) zeltiberiarrean eta *Curnonion* (Κουρνωνιον) baskoian dugun bera litzateke.

Angostinako jainko izenak idatzizko bi erakuskari ditu, baina etimologia erabateko iluna da: «Flavos [Andio]/nis fi(lius) [- - -] / Baelibio v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)» (HE, 12775) eta «- - - - - / [- - -] Baelibio / [- - -] + TEA A [- - -] / v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)» (HE, 15278).

Gipuzkoan bada jatorri indoeuroparrek *Dialco*-ren testigantza (ikus Zaldua, 2021, 49-56. or.). Arrasateko arako deizioak (datiboak) *-co* atzizki hispaniar-zelta duen adjektibo eratorri («denominal») itxura dauka, espresuki adierazitako teonimorik (substantiborik) ez duen jainko izen baten epiteto batena zehazki. Argi ez dagoena da berrekailua hartu duen izen berezia toponimoa edo antroponimoa den, onartzen bada izaki gorenaren epitetoen artean badaudela leku nahiz pertsona izenak oinarritzat dituztenak (ikus 4.1. eta 4.2.§). Bidenabar, aitor dezadan *-ohartuta cognomena (Tiro)* grekoa izan daitekeela, orain, uste dudala ezin dela guztiz baztertu fededuna (*Valerius Tiro*) libertoa izatea (ikus 3.3.§).

Laugarren eta azken etsenplua Eslabako (Nafarroako sortaldeko) *Peremusta* teonimoa da: «Peremustae deo / magno Araca / Marcella pro / salute sua et su/orum v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)» (HE, 6426). Daitekeena da Zangozan bigarren lagin bat egotea: «XIII D(eo) M(agno) P(eremustae) / [F]esine / Tala[i]/orum» (HE, 16244). Zoritzarrez, etorkia ez da gardena, ulergaitza baizik. Esan daitekeen bakarra da ez duela euskal jatorrikkoa ematen, ezta latinetikoa ere (*cf.* Gorrotxategi, 2015a, 13. or.).

1.4. Latinezko izenak dituzten jainko-jainkosak Euskal Herrian

Kristautasunaren aurreko erlijio egoeraz kestione, Jimeno Aranguren (2003, 87. or.) izkiriaren du (baskoien lurraldean) erromatarturiko *ager*-a nabaritzen dela,

Erromako panteoiko jainkoak gailentzen zirela eremu hartan, Jupiter, Merkurio, Marte eta ninfei nahiz sortaldeko *Sol* eta *Magna Mater*-i egindako aldareño ugariek erakusten duten bezala. Ildo beretik, Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 117-118. or.) agerian ipintzen dute, Erromako ekonomia, politika eta kultura egituretan sar-tzearekin batera, baskoiek hango sinesmenen jauresteko modua (gurtzeko era) bere-ganatu zutela, funtsean, izaera publikoko estatu erlijioa zena. Bi autore horien arabe-ra, jendaurreko arloarekin zerikusia zuen guztian baskoiek euren erlijio ofizialaren mesedetan utzi zuten. Tobalinak (2009, 48. or.) dioen gisan, erromatar erara sortuta-ko bizileku handi samarrak agertzen hasi orduko, tenplua hiri eremuko gurtza gune nagusi bihurtu zen (*cf.* Olivares 2003, 214. or.).

Epigrafiari begiratzen bazaio, espero izatekoa zenez, Araban badira Jupiterren omenez idatzitako inskripzioak, izan berari bakarrik egindakoak, izan Solekin parte-taturikoak: «[F]lavos Iov(i) Optumo» (Saratsu [Trebiñu]; HE, 31459); «Iovi et Sol(i) / A(ntonius?) Porciu(s) / Avit(us)» (Argote [Trebiñu]; HE, 31285).

Badaude ninfak gorensten zituztelako testigantzak, konparaziora, Araiako «C[a]pito ar(am) / Nym[ph]is / [d(e) s(uo) p]osuit / [l]ibens mer/ito» (HE, 24985) eta Cabrianako (Lantarongo) «Nymph[is] / bonis / et locos» (HE, 32614; Cipresek eta González-Rodríguezek [2019, 275. or.] «Nymf[is] et / Bonis / et Loco-s[acrum siue -acro]» transkribatzen dute; «A las Ninfas y a los [dioses] buenos y al lugar sagrado o inviolable»). Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 131. or.) deritzote Araiako Ziraun-tza ibaiaren iturburu barduliarren «leku sakratua» zatekeela, ninfei promes egiteak iturria bera «santutegi naturala» zela adieraz baitezake.

Lareak adoratzen zirelako frogak ere idoro dira: «Segilus et / Rusticus f(ilius) / Laribus Q(uadri) V(iis?) / pro salute / v(otum) s(olverunt) l(ibentes) m(erito)» (Guardia; HE, 32093). Hala berean, *Matrae* eta *Mater Magna* direlakoan aldareak ediren dira Araban: «Matribus / Festis Pom(peia) / [Pr]imitiva» (Guardia; HE 6360; Gorrotxate-gik eta Ramírezek [2013, 119, 136-137. or.] «Matribus ++stis» leitzen dute lehen zatian); «[E]ucar/[p]us r(ei) p(ublicae) / Veleian(orum) / ser(vus) / Matri / deae / dedi[c]avit» (Iruña Oka; HE 32617).

Tutela-ren aztarna bakarra kausitu da, Iruña Okan zehatz-mehatz: «Tutelae / sac(rum) / [he]red(es) / T(erenti) Flaminini / p(osuerunt)» (HE, 12113). Buruenik, bada, antza, «Li[---]ma» jainkosaren ara bat Lantaronen (Gorrotxategi & Ramírez, 2013, 119. or.; *cf.* «Leucinae / v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)», HE 6906).

Bizkaian Foruko inskripzio entzutetsua dugu, orain arte *Ilvilia* andre jainkoaren laudoriozkotzat jotzen zena: «Ilviliae sacrum / M(arcus) Caecilius Mon/tanus pro salu/te Fusci fili(i) / sui posuit / QVNO feci(t)» (HE, 6340). Egun, ordea, -izen zaharra-goia ikusi ordez- *Tutela* irakurketa hobesten da eta, ondorioz, erromatar jatorkiko izendapentzat sailkatzen (Gorrotxategi, 2008, 372. or.; *cf.* Gorrotxategi & Ramírez,

2013, 136. or.). Iruña Okako idazkunaren alor berekoa dateke, horrenbestez, jainko babesle beraren omenez grabaturikoa.

Lot gakizkion Nafarroari. Jupiter da aldare gehien dituen izaki gorena. Bost kasutan *Iovi Optimo Maximo* (dat.) formarekin dokumentatzen da: «Iovi O(ptimo) / M(aximo) L(ucius) Se/mpro/nius G/eminus / l(ibens) p(ecunia) s(ua)» (Oibar; HE, 19151); «[I]ovi Op[t/i]mo Max(imo) / [- - -?] ++ Flav(us) / vo(tum) lib(ens) s(olvit) / meri[to]» (Eslaba; HE, 16242); «I(ovi) O(ptimo) M(aximo) / v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)» (Muzki; HE, 16036; Tobalinak [2009, 494-497. or.] Muzkin eta Gesalatzan ale bana bereizten ditu, baina HEn bakarra biltzen da, Muzkin bildu ere); «I(ovi) O(ptimo) M(aximo) / ex v(oto) p(ositum)» (Kaseda; HE, 17040); «I(ovi) O(ptimo) M(aximo) / L(ucius) Cor(nelius) / Domes/ticus» (Erriberri; HE, 16553). *Iovi* (dat.) substantiboarekin (soilarekin) behin ageri da: «Coelii / Tespho/ros et / Festa / et Tele/sinus Io/vi sacrum» (Uxue; HE 19621). (*Iovi*) *Appennino*-ren ara bat ere topatu da, Arellanon hura: «... / A]ppennin(a)e nostrae / fautor innocentiae /...» (HE, 19152).

Tobalinaren (2009, 491. or.) iruditua da, askotariko ezaugarriak dituztenez gero, latinezko izenak dauzkaten izakien aldareen artean (*interpretatio*-a dela medio) jainko indigenenak egon daitezkeela.

Ninfen omenez zizelkaturiko ara bat dago Nafarroan; uraren eraspentak zukeen zabalkundearen berri ematen du: «S(empronius) Flava / Nym/phus / v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)» (Barbarin; HE, 24664).

Badira *Sol invictus* (edo *augustus?*) delakoaren bi lagin: «Soli [Inv(icto?)] / N[]» (Luzaide; HE, 19157); «In(victo) So(li) / Ne(ria) Hel/pis p(ro) s(alute) / Coemae / v(otum) l(ibens) a(nimo) s(olvit)» (San Martin Unx; HE, 19164). Antza denez, sarritan, numen horren jaurespenak kutsu mitraikoa zuen (Tobalina, 2009, 496. or.). Puntu honen gainean gauza bat azpimarratu nahi dut, alegia, *Coema*-ren alde (*pro salute*) aldarea eginarazi zuen *Neria Helpis*-ek –arrazoi edo helburu berarekin– *Mater Magna*-ri beste bat oparitu ziola San Martin Unxen bertan: «Ne(ria) Helpis / [Ma(tri)] Magn(a)e / v(otum) s(olvit) p(ro) s(alute) / Coemae» (HE, 19163).

Erriberriko merindadeko udalerrri horretan dokumentaturiko jainko andrea (Iberiar penintsulako beste toki batzuetan *Magna Mater*) *Cibeles*-ekin eta *Attis*-ekin lotu izan da. Asko aldiz, haiei agintzariak egiten dizkietenak zerbitzariak dira jatorriz, *Neria Helpis* kasu. Sorburua Ekialdean duten izaera gnesikoko (misteriozko) debozio horiek guztiek, Penintsulan Inperioaren garaiaren hasieran zabaltzen hasi ziren arren, goren aldia Antzinaro berantiarrean izan zuten eta badirudi arrakasta lortu zutela Nafarroako Erdialdean (San Martin Unx inguruan) (Tobalina, 2009, 496-497. or.). Ildo berean, autore batzuek Arellanon *taurobolium* errituala egiten zutelako aztarnak daudela deritzote (*cf.* Marco, 1997, 304-205. or.).

Marte garaiezina da Nafarroan lekukotzen den beste jainko erromatarra: «Marti In/victo Stat/uus Arqu/io / v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)» (Monteagudo; HE,

8824). Kontuan har Marte jaiera handiko izakia zela Pirinioen ipar isurialdean (Akitania), Ardièja, Montcirèr, Aira (Aire-sur-l'Adour), Lodenvièla eta Gordango adibideak lekuko. Behinolako lurralde zeltiberiarrean ere fede handia omen zioten (Tobalina, 2009, 494. or.). Bada, hala berean, Merkurio goresteko zizelkaturiko al-darea erresuma zaharrean: «Sevius et / Res(- - -) / Mercur[i]/o fe(cerunt) [meri]to» (Lukin; HE, 16040).

Andelosko brontzezko xafra dotoreak, azkenik, *Apolo Augusto*-rengan sinesten zutela frogatzen du (cfr. Tobalina, 2009, 497. or.): «Apollini / Aug(usto) / Sempronius Ca/rus Silvini f(ilius) / Lucretius Marti/alis Lucreti f(ilius) / aediles / d(e) s(ua) p(e-cunia) f(aciendum) c(uraverunt)» (Muruzabal Andion; HE, 14913).

Idatzizkoak ez diren erreferentzien artean Iruñeko Merkurioaren imajina, (brontzezko aplike batean dagoen) Andelosko *Attis*-en marrazkia nahiz han bertan (mosaiko batean) azaldutako *Pan* jainkoaren irudia aipa daitezke (Tobalina, 2009, 485-486. or.), besteak beste.

Erromako panteoian baziren beste hainbat jainko eta jainkosa, horretan ez dago zalantzarik. *Silvanus* da horietako bat, basoen, soroen, ardantzeen eta saldoen *genius loci*-a (cfr. basajaun), greziar jatorriko *Priapus*-en parekoa (cfr. Akitaniako *Er[r]jiapo*; OIA, 325-326. or.). Haatik, Euskal Herrian ez dago haren arrastorik epigrafian, latinezko izenarekin ez behintzat.

1.5. Sinkretismoa

Blázquez (1991, 75. or.) arauaz, Hispanian –Erromaren menpeko gainerako tokietan bezala– sinkretismoa edo hibridazioa izan zen jainko indigenen eta erromatarren artean (debozio misterikoak barne). Ildo beretik, Jimeno Aranguren (2003, 88. or.) dio sinesmen politeista erromatarrek baskoien eraspenak onartu zituztela eta sarri osmosia egon zela, baskoien lurraldean nahasketa izan zela erlijioaren arloan. Iruindarrak Nafarroako epigrafian dokumentaturiko teonimo indigenen kronologia goiztiarra nabarmentzen du. Adibide zehatz bat ipintzearen, Taracenaren eta Vázquez de Pargaren (1946, 465. or.) ustetan, *Lacubegi* izkiriaturik duen inskripzioak (Uxueko bereko) Jupiterrenarekin zerikusia izan dezake, hau da, iradokitzen dute nolabaiteko bateraketa egon zela.

Caro Barojaren (1973, 123. or.) hitzetan, soldaduak eta haien ondoan (edo haiekin) bizi zirenak izango ziren erlijio arloko berritasunak lehenbizi besarkatu zituztenak. Jimeno Arangurenentzat (2003, 36. or.), berriz, noblezia izan zen kanpotik heldutako dibinitateak aurrea bereganatu zituena. Ondo dator puntu honetara oroitzea Muezko elizaren horma batean *Aemil(i)o Or[d]junets*- bigarren legio ausgustoarreko beteranoaren hilarria badela. Armada talde hori kantabriarren eta asturren aurka borrokan aritu zen, K.a. 12. urtean Germaniara aurrea eta Britainia-

ra gero lekualdatu zuten arte. Gorrotxategiren (2015a, 12. or.) iritzian, *Or[d]unets-*euskal hizkuntzaren fonetikara egokituriko iberiar sustraiko izena da, <ts> grafia baitu. Cognomen hori iberiar jatorrikoa izatea ez zaio harrigarria gertatzen, baskoien lurraldean bazelako hizkuntza eta idazkera iberiarra zerabilen Ebroren erdiko eta beheko arroko jendearekin kultur harremana zuen eremua. Erriberrin edirendako inskripzioa (hondakina) (Hesperia, Na 06.01) gipuzkoar irakasleak dioenaren alde mintzo da.

Hasieran sinkretismoa izan bide zen, beraz, sinesmenen arloan, erromatar jainkoak eta indigenak nahasi egin bide ziren. Alabaina, Velazak (1998b, 207. or.) biltzen duenez, I. mendetik aitzinera Jupiter (Erromako jainko gorena) gailendu zen erabat eta hartu-eman ibitu. Gogora dezagun Nafarroan idoro diren aldareen artean Jupiterrenak direla naroenak (*cf.* Olivares, 2003, 216. or.). Horren harira, Castejongo hizkuntzalariak azpimarratzen du baskoien barrutian teonimo indigenen azken leku-kotzak II. gizaldikoak direla epigrafian.

Blázquezek (1991, 76. or.) esaten du Hispaniako idazkuntetan sarri ikus daitezkeela elkarren ondoan jainko indigenak eta erromatarrak, baina Euskal Herrian ez da uztartze horren etsenplurik ezagutzen. Ikertzaile asturiarrak (Blázquez, 1991, 68-71. or.) deritzo flaviarren dinastiaz geroztik lareek (etxeko eta familiaren numenek) eta tokiko iratxo edo ingumek (*genii locorum* direlakoek, bizilekuko eremua babesten zutenek) onarpen handia izan zutela Penintsularen zati handi batean (Tarrakonentsea barne) eta haien eskutik gizarte indigena erromatartzen joan zela. *Lares viales* izenekoek ere (bidaiarien eta bideen jainkoek) arrakasta izan zuten, itxura denez. Hermesen antzekoak ziratekeen, merkataritzaren eta abeltzaintzaren jainko grekoaren (eta Merkurio erromatarraren) parekoak. Aldatzen ari zen gizarte indigena baten berri emango lukete. Blázquezentzat, Duero ibaiaren iparraldean eta gutxien erromatarturiko Hispaniako zatian dagoen *Lares* direlakoek aztarren ugaritasunak, egiazki, jainko indigenak direla frogatuko luke. Bestela esanda, kasu horietan latinezko izenek sinesmen zeltak estaliko lituzkete. Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 120. or.) aburuz ere *Lares viales*-ak tradizio indoeuroparrekoak (zeltiberiarrekoak) dirateke.

Ugalkortasunaren eta naturaren babesleak ziren *Matrae* jainko-emeak, orobat, erromanizatzearen aurreko sinesmenekin estekatzen dituzte zenbait ikertzailek. Gauza bera geratzen da ninfekin eta ugaiokin lotuak dauden osasunaren arloko beste jainko-jainkosa batzuekin, askotan, tokiko izakitzat jotzen direlako, iturri jakin bat sagaratzen dutelako. Agidanean, lehendik aski zabalduak bide zeuden uraren saileko zenbait jaiera ninfen gorazarrearekin sinkretizatu edo nahasi ziren (ikus Tobalina, 2009, 495. or.; Lozano, 2010, 98. or.). Hari beretik, Ciprésék eta González-Rodríguezek (2019, 277. or.) uste dute –greziarren kasuan bezala– erromatar munduan jainko horiek, urei ez ezik, zuhaitzei eta mendiei ere lotuta egon daitezkeela.



Arkakan, Andurio azpian, dagoen Osinberde sakonunea (Zaldibia).

Marte dateke hibridazioaren beste etsenplua. Blázquezek (1991, 50, 52. or.) aditzera ematen duenez, Penintsularen ipar-sartaldean *Coso*- erroarekin eta haren eratorriekin deitzen zen izakiak berezko edo jatorrizko izena galdu zuen *Mars* erromatarraren mesedetan. Irakasle asturiarrak azpimarratzen du azken hori zelden izaki gorenaren artean aipatzen duela Zesarrek. Akitanian badira antzeko nahasketaren testigantzak, hala nola, Sent Blancat-eko (Saint-Plancard-eko) hilarri batean den Marte gerlariaren itxura bereko *Sutugius*-en irudia (Gorrotxategi & Ramírez, 2013, 132. or.). Tobalinak (2009, 494. or.), hari beretik, antzinako lurralde zeltiberiarretan Marte bereziki ezaguna zela nabarmentzen du.

Pentsa daiteke bi sinesmen sailak edo erlijioak, bertakoa eta erromatartzearekin iritsitakoa, ez zirela alde eta aldi oro berehala nahasi. Adibidez, Jimeno Aranguren (2003, 88. or.) iruditzen zaio Uxuen *Lacubegi*-ri eta Jupiterri eskainitako molde eta neurri bereko bi ara egoteak bi izakien arteko bateragarritasun eta oreka perfektuko une batez hitz egiten digula, gurtza erromatarrek debozio indigenak asimilatu aurrerako sasoiak zehatz-mehatz. Era berean, Gorrotxategi eta Ramírezek (2013, 132. or.) ondorioztatzen dute *Coeli*-tarrek Uxuen egin zuten boto bikoitza bi arloen banaketaren frogatzat har daitekeela, jainko bakoitzari (Jupiterri eta *Lacubegi*-ri) aparteko laudorioa egin beharra zekarrena, bien artean zuzeneko loturarik ez zegoelako seinale.

Bertako eta kanpoko sinesmenen arteko elkarrekikotasunaz kestone, Olivaresek (2003, 207. or.), ehunka aldare aztertu ostean, gogoeta iradokitzailea egiten du Zeltikako (Iberiar penintsulako eremu zeltako) jainko-jainkosen eraspenez:

Fue en las ciudades donde la romanización religiosa fue más intensa y ello contribuyó a que sólo determinadas divinidades indígenas fueran veneradas en ellas, principalmente femeninas y de carácter popular, relacionadas con la familia y la fecundidad, mientras que las deidades indígenas masculinas con un acusado carácter público y de identidad colectiva pervivieron en las comunidades rurales.

Alacanteko irakaslearen (Olivares, 2003, 214–216. or.) arabera, hirietan eta bizileku nagusietan –sinesmen erromatarrak eta indigenak, biak, baziren arren– bertako erlijioa hondarrekoa zen, besteak beste, Erromako ereduak zeremonia publikoak zituela oinarritako, Estatuak (gorputz zibiko osoak) ospatzen zituenak eta tokiko batzarrak ezarritako egutegi batean sartzen zirenak. Ondorioz, Hispania zeltan, dibinitate indigena gorenak ez lirateke hirietan adoratu; haietan (panteoi erromatarreko jainkoen ondoan) nagusiki emakumezkoa den jainko indigena talde txiki bat besterik ez litzateke goretziko, esan nahi baita, Olivaresen hitzetan, hiri edo bizileku erromanizatuenetan nolabaiteko oztopoa egon zela gizonezko jainko indigenen gurtzarekin jarraitzeko.

1.6. Euskal mitologia

Caro Barojaren (1973, 134. or.) ustean, Ebron zehar eta godoek menderatutako lurretan kristautasunak erlijio zaharrak goiz ordezkatu zituen arren, Hispaniako menditarrek beren fede paganoak denbora luzez gorde zituzten. Jimeno Aranguren (2003, 14, 19. or.) aburuz, berriz, Baskoniaren ebanjelizazioa III. eta VIII. mendeen artean gertatu zen eta, berezitasunak berezitasun, lurralde osora heldu; 348 eta 405. urteen artean bizi izan zen Prudentzio poetak jakitera ematen duenez, orduko, baskoien paganismoa (Calahorratik Pirinioetaraino) iraganeko kontua zen. Irakasle iruindarrak (2003, 61. or.) dio, hala berean, Kristoren mezua Akizetik zabaldu zela Pirinioetako euskal herrialdeetara (Iparraldera). Behinolako *Aquae Tarbellicae* delakoan kristautasuna III. gizaldiaren amaieran sartu zela ere zehazten du. Jimeno Aranguren (ibid., 89. or.) ondorioztatzen du Nafarroan kristau erlijioa zabaldu zen unerako panteoi indigena ez zela jauresten, ihartua zegoela orduko.

Zaila da erromatarren aurreko Euskal Herriko sinesmenen berri jakitea. Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 117–118. or.) adierazten duten gisan, ez dago garbi erromatartzea hasi aitzinetik baskoiek erlijio publikorik ba ote zuten, hots, gutxiago edo gehiago, teologiaren egituraren batasuna zuena, bere errito, sakrifizio, hirien jainko babesle eta abarrekin. Inork ez daki fedearen arloan homogeneotasunik ote zegoen edo, adibidez, bizileku bakoitzak bere jainko zaindaria zuen. Iturriek ez dute ahalbidetzen, konparaziora, galiarrena bezalako erlijioa zegoela egiaztatzea, alegia, druiden apaiz klasearekin eta teologia ongi egituratuarekin. Lurralde zeltiberiarrean ere ez da halako antolaketa baten zantzurik ediren.

Tobalinaren (2002, 7. or.) eletan, Nafarroako erdialdeko erromatar aurreko jainkoak, «kultur alorrekin» zerikusia dutenak alde batera utziz gero, bi tasunek ezaugarritzen dituzte: bertako (eremu txikiko) izaerak eta, bestetik, ingurune fisikoarekin duten lotura estuak; asko aldiz, entitate geografikoekin edo landareekin eta animaliekin zerikusia bide dute. Familiaz gaindiko erakunde txikiek euren nortasunaren bereizgarri bat aurkitzen zuten, antza, debozio horietan. Irakasle gasteiztarraren (2009, 498. or.) aierua da, beraz, baskoien lurraldean adoratzen ziren gizakiaz gaindiko izaki indigenek harreman estua zutela ingurumari fisikoarekin. Oroit bedi erromatar jainkoek, aitzitik, beren izaera unibertsala dutela bereizgarritako.

Gorrotxategirentzat eta Ramírezentzat (2013, 113, 135. or.) ere, balizko jaiera topikoekin ez ezen, baskoien sinesmenek indar naturalekin eta zenbait animaliarekin ere bazuketean erlazioa. Bi autore horientzat, nekazaritzaren arloko jainkoak goresten zituzketen, giza jarduerarako garrantzitsuak bide ziren animalia totemikoak adibidez (txakurra, txerria). Guztiagatik ere, nekez asma genezake panteoiaren osaera zein zatekeen.

Gorrotxategirekin eta Ramírezekin (2013, 115, 118. or.) jarraituz, bi irakasleok ohartarazten dute kristautasunaren aitzineko debozioekin harremana dukeen material mitologikoa urria dela eta, gainera, erabat eraldaturik dagoela sortaldetik heldutako fede berri horren eraginaren ondorioz. Kontakizun folklorikoez ari gara. Pertsonaiak basatiak dira, batzuetan erdi naturalak, indar suntsitzailez hornituak; beste batzuetan, izaki primitibo eta atzeratu itxura dute eta gizakien auzietan zeharka esku hartzen. Asko magikoak dira eta indar naturalen kontrolarekin (tximistarekin, ekaitzekin, hodeiekin) zerikusia dute. Eraikuntza teologiko sendorik ez dute ikusten. Galdegiten dute gauza ziurra ote den, euskal kontakizunak direlako bakarrik, hondakin mitologiko, aipamen eta sineste horiek indoeuroparra ez den mundu batera garamatzatela.

Jimeno Aranguren (2003, 89-90. or.) usterako, Mariren, jentilen edo laminen gisako numenek badituzte parekoak kultura klasikoan (baita zaharragoetan ere), baina beraiei buruz iritsi zaizkigun kontakizun eta erreferentziak guztiz desitxuratuta daude denboraren joanaren eraginez. Ondorioz, segurtasun apur batekin egiazta daitekeen gauza bakarra da bazela erromatarren aurreko euskal panteoi (mitologiko) bat, gaur egun duen kultura izan arte aberastua eta eraldatua izan dena. Haatik, epigrafian leku-koturiko jainko indigenek ez bide dute arrastorik utzi mitologian, ez dute errainurik izan ondorengo irudi eta adierazpen mitologikoetan.

Antzinaroko jainkoek eta gaurdaino gorde den euskal mitologian ikusten diren izakiek ez dute garai berekoak zertan izan; bigarrenak goitik behera antzaldututa daude, baina, halere, merezi du horiei begi edukitzea, besteen nondik norakoa argitzen saiatzeko, adibidez, badirelako dokumentazioan goiz samar azaltzen diren batzuk, zenbait aldiz atzo goizekoak ez diruditenak, laminak kasu (ikus 4.2.§).

Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 114-115. or.) diote baskoien eta euskal herriaren arteko loturak (nahita edo nahi gabe) auzia eremu zabalago batean kokatzen

duela: kultura indoeuroparraren (edo haren adar zehatzen baten, esaterako, zeltaren) eta ez indoeuroparraren arteko aurkakotasunean. Balizko kontrakotasun hori hiru ataletan ager edo antzeman daiteke, gizakiaren eta jainkoen jarduera hiru esparrutan banatzen baita, tradizioz Georges Dumézilen (1968) «hiru funtzioak» deitu izan direnetan hain justu: subiranotasunaren eta erlijioaren eremua; gerraren eta gizartearen defentsa; ekoizpenaren, emankortasunaren eta gorputzaren-gizartearen ongizatearen alorra.

Juan Ignazio Hartsuagak (2004a, 31-34. or.) euskal eta indoeuropar mitologiak xehetasunez alderatu ditu eta, beretzat, ondorio nagusia da bien artean ezberdintasun garrantzitsuak badirela esan ahal izatea. Bere hitzetan, lehena, zabalena eta orokorrena, kosmosaren irudikapenari dagokio: euskaldunentzat, mundu bakarra legoke (ortzia, lurgaina eta lurpea osagaitzat dituen) eta indoeuroparrentzat, berriz, urrun dauden bi errealtatek (zeruak eta lurak) eraturiko izadi bikoitza.

Ikertzaile tolosarraren (2004a, 37-38, 42. or.) iritzian, euskal irudikapenean –mundu bakarra dagoenez gero– gizakiak eta jainkoak bizilagun hurkoak dira eta tarte txikia geratzen da bien artean (maila) diferentzia handirik egoteko. Indoeuropar mitologian, aitzitik, hala badute gogoia, jainkoak lurrera jaits daitezke gizakiak bisitatzera, baina zerua helezina da lurretik abiatuta. Euskal mitologian –zerurik ezean– jainkoak lurrean biziko lirateke (lurpean zehazkiago) eta, kokapen hori dela medio, eskema indoeuroparrean baino alde gutxiago legoke jainkoen eta gizakien artean; gehiago dena, lehenbizikoan, gizakiak baduke sarbidea lurpeko mundu jainkotiarrean (gogora bitez Bähren hitzak). Euskal mitologian ez legoke zerurik, hortaz, ez dagoelako jainkoen urruneko egoitzarik, baizik eta eguzkiari, ilargiari eta zenbait izakiri pasealeku gisa balioko liekeen ortzia (tarte fisikoa). Zeru sabaia zeharka dezaketen numen horiek ez dute beren egoitza han, ez bada lurpean; esate baterako, Jupiterren kide den Mari haitzuloetan bizi da, eta haietatik jaurtitzen ditu ekaitzak, edota haie-tako batetik bestera lekualdatzen denean eragiten ditu denboraleak.

Hartsuagak (2004a, 49-52, 56. or.) nabarmentzen du indoeuropar mitologian –jainkoak zeruan bizi direnez gero eta, arruntean, lurrera jaisten ez direnez gero– ez dagoela harremanik haien eta gizakien artean edo, zehazkiago, ez dagoela giza moduko hartu-emanik. Eratzekotan, erlijiozko eragin truke bereziak sortu ahalko lirateke, hala nola, otoitza, kultua, eta oparigintza.

Beste alde batetik, euskal mitologian ez legoke bigarren funtziorik, gerlari eredurik sekula ageri ez delako. Mitologiaren esparrutik kanpo ere, agidanez, tradizio herrikoa gutxitan mintzo zaigu gerrariez. Indoeuropar erlijio esparrua, ordea, –aginte guztia bereganatu nahi duen (Dumézilen) lehen funtzioaren barnean kokatzen den heinean– alor politikoa bezain monopoliozalea litzateke.

Tolosakoaren (2004a, 130, 138-140. or.) iruditua da indoeuropar kultua ez legokeela ohiturak eratuta, zeruko jainkoek finkatuta baizik. Sinesmen eskemek pira-

mide moduko egitura azaleratuko lukete, gailurrean «errege-pontifize mitraikoa» duena. «Errege» horiek fedearen protagonista nagusi bihurtzen dira eta, otoitzean zein oparigintzan espezializaturik, herritarrei onbidea erakusten diete. Euskal mitologian, berriz, ez legoke bitartekaririk gurtzan (apaiz kristauen aurretiko «jentil-apaizen» klaserik), lurra delako jainkoen eta gizakien bizileku bakar eta berdina.

Hartsuagak (2004a, 60-61, 85. or.) diosku ospakizun lekuari dagokionean ere alde garrantzitsua dagoela indoeuropar eta euskal erabideen artean. Aurrenekoan jainkoen etxea litzateke erlijio bizitzaren egoitza bakarra eta bertara biltzen den herriak apaiz espezialisten gidaritzapean burutuko lituzke (une jakinetan) betebeharrak, haiek finkatu eta zehazturiko arau eta erritoei jarraikiz. Euskal Herrikoan, haatik, hildakoei oparigintza litzateke ardatza, erlijio jardunak dimentsio arras etxekoia luke eta kultura (adituen laguntzarik behar ez duen) ohiturari jarraituz egingo litzateke (noiznahi).

Pertsonen eta jainkoen arteko harreman mota nagusienetako bat —bakarra elkarrengandik urrun bizi direnen kasuetan— gorazarrea da, gizakiek jainkoen omenez ospatzen dituzten ohiko errituen eta jaien multzoa. Hain justu, jaurespenaren atal garrantzikoenetako bat «oparigintza» da, zalantzarik gabe. Mundu osoan zehar eta mendez mende gizakiak erregaluen hizkeran mintzatu zaizkie dibinitateei, haien laguntza eskatzeko nahiz haien haserrea gozatzeko edo, besterik gabe, haien izena eta izana laudatzeko. Maiztasunari esker, jainkoekin komunikatzeko bide zabalduenetako da, otoitzarekin batera. Gehiago dena: azken hori ere, esku erakutsi mota berezitzat jo daiteke. Hitz bitan, oparigintzaren hizkuntzaren pean jainkozkoak gizakiak baino azkarrago, bizkorrago, indartsuago eta eraginkorrago direlako sentimendua legoke betiere, bestela balitz, ez lukeelako erregalurik zertan egon. Puntu horretan Tolosako mitologoak ez du diferentziarik sumatzen indoeuroparren eta euskaldunen artean.

Hitz bi, bukatzeko, euskal mitologian aparteko garrantzia duen jentilen akaberraren kontakizunaz. Hartsuagak (2004a, 262. or.) esaten duenez, jentilen bukaera (eta erraldioen gainbehera orokorki) erlijio berri baten mito sortzailea edo fundatzailea da. Fede horren funtsa hildako arbasoen laudamena litzateke eta kultuaren muina (eta hasiera) aurrekoen hilobiratzea eta haientzat ehorzlekuak (monumentuak) eraikitzea.

Honatz kontakizuna, 1916an entzundakoan oinarri hartuz, Barandiaranek Auñamendi entziklopedian («Aragaintxabaleta» artikuluan) idatzi zuen bezalaxe (*cf.* Barandiaran 1972, 132. or.).

Jaiegun batean [Martxabaletako edo Mendibilgo] zelai ontan emen zebiltzen dantzan inguru ontako jentillek. Iparraldetik ostriin laño bat agertu ementzan, laño zuri argi-argi bat. Alde ontara ementzeоторren. Jentillek arrittu eta beren arteko zaar baú (sic) galde ementzioen laño ue zer ote zegikeen. Zaarrak auxe esan ementzieen: “Sortu dek Kixmie, gureek egin dik. Amildu ni malloti beera “Jentillen izkuntzan Kixmie, tximue”, Jesukristori esate ementzioen. Jentillek zaar ue amildu ementzoen eta ala ill. Lañoa berriz ba ementzeоторren beien gañera eta jetil danak iges egoaldera lasterka. Arrastaran’go zelai-

txora irixtean ango armuran sartu ementzeien pillaka. An emen daare lurpetuak azkene-ko jentillek. Armura ari Jentillarri esaten diogu.



Aralar Mendibildik ikusita.

Goiko testuko iragarlearen amiltzeak lainoak irudikatzen (edo ezkutatzen) dituen indarrak baretzeko eta haien mehatxua ekiditeko giza oparia dirudi. Erritual baten parte dateke, beraz, modu zehatz batean egindako eskaintzarena, jakinarazi berri zaien eta berehala beteko den patu gaiztoa saihesteko jentilek hautemandako azken irtenbidearena (Hartsuaga 2004a, 210–212. or.; *cf.* Hartsuaga 2004b, 21–23, 32. or.).

Aitor dezadan hemen, niretzat bederen, euskal mitologian munta berezia duen jentilen akaberaren kontakizuneko igarlearen heriotzak (giza erregaluak), neurri batean, Estrabonek deskribaturiko sakrifizioen antza pixka bat baduela (ikus 1.1.§; *cf.* Blázquez, 2001, 77–78. or.).

1.7. Antzinateko Euskal Herriko panteoia

Euskal Herrian gaurdaino kausitu diren Antzinaroko ara batzuetako euskal ondareko jainko izenek, zenbait aldiz, erromatartzearen aurreko izakien berri eman dezaketelako ustekizunak badu egiantza, baina, hala berean, daitekeena da –itzulpenak edo moldaketak (hibridazioak) ez direnean– batek baino gehiagok Erromako sinesmenen ukitua izatea, azken finean, eraldatuta gotea.

Izan ere, kanpotik iritsitako adierazpide berri batean dokumentatzen dira, alegia, inskripzioak dituzten aldaretxoetan ageri direnez gero, bertako jainkoen gurtza atze-

rritik heldutako kultura berri batera egokituta dago eta, ondorioz, zaila dirudi idazkunik erromatarrak iritsi aitzineko sinesmenak ziren-zirenean azaleratzea; labururrean esanda, pentsa daiteke gutxiago edo gehiago, nahasketa baten emaitza direla. Epigrafeetako lekukotzek, beraz, garai zehatz bateko (erromatartzearen sasoiko) debozioei egiten diete erreferentzia, –Erromaren egituren uztarripen zegoen– Euskal Herriko gizarteak ulertzen eta praktikatzen zituen erara.

Mintzaira eta erlijio berria zabaltzen ari ziren unekoak direlarik, ez litzateke harriztekoa batzuen batzuek, egiazki, euskal hizkuntzan emandako greziar-erromatar erroko jainko-jainkosak izatea, besteak beste, badirudielako alderantzizkoa ere gertatu dela. Oroit bedi Akitanian zuhaitzen gorazarrea dokumentatua dagoela eta sail horretako jainkoek bi hizkuntzetako izenak dituzketela, hau da, latinezko zenbait teonimo lekuko jainko-jainkosen deizioen itzulpenak edo egokitzapenak diratekeela. Horrela, bada, ezin dugu ziur jakin azterkizun ditugun aldareetako jainko-jainkosak, benetan, euskal sorburukoak diren (eta ez zeltak, galiarrak, iberiarrak edo erromatarrak), esan moduan, kanpoko jainkoek tokiko izenak har ditzaketelako. «Bertako jainkoa» kategoria zehazteko zailtasuna nabaria da, honenbestez, eta izaki goren bat indigenatztat hartzeko tasun erabakigarri gisa euskal izena duen bakarrik aintzat hartzea arriskutsu samarra. Hizkuntzak eta erlijioak nahasteko mentura dago; numen batek euskal jatorrikiko izena edukitzeak ez du esan nahi, ezinbestean, etorki berekoa denik.

Jakin ez dakigu esku artean ditugun onimoak zenbat dibinitateri dagozkien, hau da, teonimo bakoitzak jainko bana izendatzen duen ala badiren izen bat baino gehiago duten gizakiaz gaindiko izakiak.

Bertako sinesmen multzoren bat bazen, kanpotik etorritako ohiturei begiratuta bakarrik antzeman daiteke. Nolanahi dela, *interpretatio* fenomenoak gutxietsi gabe, pentsa daiteke (euskal arloko) izen indigenak dituzten jainko batzuk erromatartzea hasi aurretik laudatzen zirela. Hori bai, hemen ez da ahaztu behar historiaurrearen amaieran Euskal Herriko alderdi batzuetan kultura zeltiberiarraren nahiz iberiarraren eragina izan zela eta, ondorioz, erromatarren aurretik adoratzen ziren jainko eta jainkosak (ere) eraldatuta daudekeela edota, besterik gabe, atzeritik iritsitako egokitzapenak diratekeela.

Erdizka-mozka esanda, sorburu askotako izakien aztarnak daudeke epigrafian eta euskal ondareko izenak izateak ez du esan nahi jainko-jainkosa horiek kanpoko kutsua ez dutenik edo beste toki batetik heldutakoak ez direnik. Hiru eratako numenak dituzkegu, hortaz: lehendik gurtzen zirenak, erromatartzearen eraginez edo ekarpenaren eskutik sortuak edo loraturikoak (hibridoak) eta greziar-erromatarrak.

Gure aroaren hasierako idazkuntan den etorki indoeuroparreko zenbait teonimori erreparatzen bazaio (*Tullonio*-ri, *Baelibio*-ri), ondoriozta daiteke bazirela santutegi izaerako mendiak, jainkoen bizilekutat hartzen zirenak, (*sedes deorum* direlakoak; cf. Blázquez, 1991, 62. or.), besteak beste, badaudelako izendapen horiek gorde dituzten mendiak Araban (*Toloño*) eta Errioxan (*Bilibio*). Ikus 4.2.§.

Greziar-erromatar sustraiko jainko-jainkosen sailean, Araban Jupiter (Trebiñu [2]), ninfak (Araia, Lantarón), lareak (Rivabellosa, Guardia), *Matrae* (Guardia), *Mater Magna* (Iruña Oka), *Sol* (Trebiñu) eta *Tutela*-ren (Iruña Oka) testigantzak idoro dira; azken hori, agian, Bizkaian ere lekukotzen da (Foruan). Nafarroako aldareetan, hari beretik, Jupiter (Oibar, Eslaba, Muzki, Kaseda, Erriberri, Uxue, Arellano), ninfak (Barbarin), *Sol Invictus* (Luzaide, San Martin Unx), Marte (Monteagudo), *Mater Magna* (San Martin Unx) eta Merkurioren (Lukin) lekukotasunak dauzkagu. Beraz, bada, Jupiter, ninfak, *Mater Magna* eta *Sol* Nafarroan nahiz Araban ageri dira eta Tutela, agian, Araban zein Bizkaian (*cf.* *Tutera* top.).

Horietako batzuen erroak erromatartzearen aitzineko sinesmenetan (indoeuro-parretan) daudeke, *Matrae*, ninfak eta *Lares viales* direlakoena, adibidez. Marte, zeltiberiarren kasuan bertako batekin nahasi den gizakiaz gaindiko izakia, dateke beste sinkretismo etsenplua. *Sol Invictus*-en aldetik denaz bezainbatean, apika, izaera mitraikoa duke eta, ondorioz, beranduagokoa (berriagoa) dateke.

Hasieran, sinkretismoa izan bide zen, baina denboraren buruan jokabide hori ibitu egin zen. Uxueko bi eskaintzek (Jupiterrenak eta *Lacubegi*-renak) iradokitzen dute erlijioen nahasketa ez zela berehalakoa izan.

Zenbait autoreren iritzian, euskal eremuko gizon-emakumeen sinesmenek indar naturalekin, animalia totemiko batzuekin eta nekazaritzarekin lotuta daudeke, baina ustekizuna besterik ez da, ez da jakite ziurra. Pentsa daiteke bazela bertako panteoi bat sartaldeko Pirinioen esparruan, baina zaila da hari antzematea, besteak beste, kristautasunaren aurreko fedeekin lotua dagokeen material mitologikoa eraldaturik dagoelako, Palestinan sortu eta Inperioaren eskutik zabaldu zen erlijioaren eraginaren ondorioz. Itxura batean, inskripzioetan dokumentaturiko jainko indigenek ez dute gerora jarraipenik izan gorde den euskal mitologian. Argi dagoena da Antzinaroko numenen izenek ez dutela ahozko tradizioan segidarik izan, gorde diren kontakizunetan ez direla epigrafian leitzen diren teonimoak azaltzen eta alderantziz ere ez, erromatar garaiko aldareetan ez dagoela, konparaziora, *behigorri* edo *ortzi* onimoen (edo kidekoen) arrastorik (ikus 4.2. eta 6.3.§). Hauxe ere gehituko dut: bi sailtako deizioek, Antzinarokoek eta (ezagutzen dugun) mitologian iraun dutenek, ez dute antz handirik.

2. Euskal ondareko jainko-jainkosa izenen aztarnak epigrafian

Honora patrem tuum et mater tuam
ut sis longaeus super terram⁵.

2.1. *Errensae* (Larraga, Nafarroa)

Aldarea 1987an kausitu zuten, Larragako Casa Macarion igeltserotzan ari zirela. Egun Berbintzanako *Las Eretas* museoan da, ondoko herrian, alegia.

Hareharrizkoa da eta gaineko aldean zulo-txoa du, txikia eta sakonera gutxikoa izateaz gainera, aldamenean mortero hondakinak daukana, menturaz, ara eraikuntzarako (oinarri gisa-edo) erabili zutelako seinale; halarik ere, ez da ezinezkoa irekiduratxo hori *fócus* delakoa (oparigintzarako hutsarte biribila) izatea. Neurriak: 98 cm x 36/44 cm x 28/46 cm.

Bost lerrotako idazkuna letra larri lodi sakonarekin grabatuta dago. Teonimoa bigarren errenkadaren amaieran eta hirugarrenaren hasieran da (ERRENS/AE). Bigarren ilararen bukaerako <S> hizkia ez dago oso-osorik (ikus 6.1.§).

Castillok eta Bañalesek (1989, 524. or.) eman zuten bere berri eta «D(omitia) Mater/na Errens/ae pro l(iberis?) [edo l(ibertate?)] p(oni) i(ussit) / L(ucretia) Crista ar(bitratu) / suo v(otum) s(olvit)» irakurketa proposatu. Berbintzanako museoan dagoen xaffan, ordea, «D(omitia) Mater/na Errens/ae pro l(ibera) Iu/l(ia) Crista n(omine) / s uo



Larragako aldarea. Las Eretas
museoa (Berbintzana).

⁵ Arnaut Oihenartek *Notitia utriusque Vasconiae* (1638) liburuaren barruko azalean, bi zikoina mokoka dituen irudia biltzen duen orlan, lema edo lelotzat darabilen Exodoko esaldia (*Itun Zaharra*, bigarren liburua [20, 12.]).

v(otum) s(olvit)» ipintzen du eta ondoan honako itzulpena leitu daiteke: «Domicia Materna a (la divinidad) Errensa, por la liberta Julia Crista, en su nombre, cumplió su voto». K.o. I-II. gizaldikoa dela ere adierazten da (*cf.* Gorrotxategi & Ramírez, 2013, 122. or.). Museoko transkribapena 1989koa baino zuzenagoa delakoan nago.

Inskripzioan emakumezko bi antroponimo ditugu, beraz, D(omitia) MATERNA eta IVL(ia) CRISTA, biak ala biak *duo nomina* erako deizioa dutenak. Lehenbizikoak aldaera egitea erabaki zuen eta bigarrenak besteak hitzemandakoa bere borondatez bete.

Castilloren eta Bañalesen (1989, 524. or.) iritzirako, *Crista* cognomena *Chresta*-ren forma herrikoa dateke. Badiote, halaber, testuaren osaketa eta idazkera ez direla ohikoak, lehenbiziko tokian eskaintzailearen izena dagoelako, eta ez laudatzen den jainkoarena.

Castilloren (1992, 124. or.) ustetan, epigrafeko bi emaztekiak libertoak dirateke, *Crista* (← grek. *Chresta*) cognomenarengatik, *Domitia* izena (menturaz, bere nagusi izan zenarengandik harturikoa) laburturik izkiriaturata dagoelako eta biek ala biek ez dutelako filiazioa (aitaren izena) jakitera ematen. Ohartarazten du cognomen grekoek, aruntean, ez dutela jatorria adierazten, gizarte maila (liberto izaera) baizik.

Ciprésen (2006, 108. or.) hitzetan, *Maternus* cognomenak «giro indigena erromatartua» azaleratzen du. Puntu honen gainean Gorrotxategik (2015a, 15-16. or.) nabarmentzen du jainko baskoiari promes egiten dion pertsonaren izenaren osagai bat (*Materna*) Iberiar penintsulako eremu indoeuroparrean ezaguna (arrunta) dela (ikus 2.8.§).

Teonimoari bagagozkio, Castilok (1992, 124. or.) esaten du latinetik harturiko mailegutan euskaraz izan ohi den egokitzapena sumatzen dela (*e*-ren protesia hitz hasierako *r*-ren aitzinean). Moldaketa horrek bertako hizkuntza batera (iberierara nahiz euskarara) begirarazten duela eta *-nsa* bukaera Ranerako (Burgosko) *Velonsa/Uhlonsa* jainkoan dagoen bera dela eranstean du.

Gorrotxategirentzat (2018a [1993], 79-80. or.), ezer gutxi esan daiteke segurantziaz *Erren-* oinarriari buruz, ez bada corpus onomastiko akitaniarrarekin eta antzina-ko euskararekin bat datorren egitura duela. Akitanieraren ikuspuntutik, *Errensae* txistukariz amaituriko oin gisa azter daitekeela pentsatzen du (*-x[s]/-* atzizkiaren bidez osatua), oraingo honetan lehen deklinabidearen datibo singularreko hondarkia erantsi zaiona. Eibarko euskalariak gogorarazten du *-x(s)-* berrekailua bokalez amaituriko oin bati (*Bai-gorri-xs-o/e*, *Bon-co-xs-î*) edo kontsonantez akabatzen den bati ezar dakioketela (*Narhon-s-us*), baina onartzen du batzuetan txistukaria erroaren berezko zatia izan daitekeela (eta ez berrekailuarena).

2.2. *Helasse* (Miñao, Araba)

Aurkikuntza zehazkiro noiz, non eta nola izan zen inork ez daki. Gasteizko *Bibat* museoa ikus daiteke egun.

Ara kareharrizkoa da eta gaineko aldean oparigintzarako hutsarte biribila du. Neurriak: 39 cm x 25 cm. Testua hiru ilaratan banatua dago eta letra mehearekin grabatua. Teonimoa hirugarren errenkadan da.

Museoan dagoen xafan «AE[-]LIA / HELICE / HELASSE» jartzen du, itzulpen honekin: «Aelia Helicek (eskaini zion) Helasseri». Ezker aldeko aurpegian (lehen idatzaldiaren hondakina dirudien) zirriborroa dago; museoako esplikazioaren arabera, «AELIA / [H]ELICE» ipintzen du (ikus 6.2.§). *Bibat*-en ez da datarik jakitera ematen, baina Abasolok eta Elorzak (1974, 251-254. or.) II. gizaldikotzat daukate (letrarengatik), baita Gorrotxategik (1984b, 261. or.) ere.

Albertosek (1970, 144, 154, 158. or.) argitara eman zuen. Bigarren elementua (*Hellice*) boto egilearen izenaren ala teonimoaren zatia den ez du oso garbi; halarik ere, lehenengo aukeraren alde egiten du, hau da, beretzat, hirugarren elementua bakarrik legokioke jainko izenari. Eskaintzailearen cognomena grekoa iruditzen zaio eta horrek jatorriz esklaboa izan zitekeela susmarazten dio. *Aelia* Iberiar penintsulan oso ugaria dela ere izkiriartzen du.

Abasolo eta Elorza (1974, 251-254. or.), aitzitik, jainkoaren izena *Hellice Helasse* delakoan daude eta fededunarena, berriz, *Aelia* edo *Aellia*. Hauek dira diotenaren habe nagusiak: *Aelia/Aellia* nominatiboan dagoen latinezko antroponimoa dela; *Hellice*, Penintsulan ezaguna den izen grekoa, *Helasse*-rekin komunztaduran (datiboan deklinatua) dagoela; hirugarrenik, biek aurrizki bera dutela (*Hel*).

Ciprèsek (2006, 98, 108, 121. or.), cognomena ikusita, antroponimo grekotzat jotzen du *Aelia Hellice*. Gentilizioa egoteak gizaki askea zela seinalatuko luke, baina, azken buruan, liberto baten edo haren ondorengo baten izena litzateke. Bere hitzetan, beste kasu batzuetan bezala, onomastikaren irizpideari jarraituz gero, jende izen greziar bat (*Hellice*) agertzeak jarraikitzailea liberto bat edo haren oinordea dela pentsarazi arren, –bere izaera edo estatusa berariaz zehazten ez denez gero– greziar antroponimoaren eta jopu jatorriaren arteko lotura frogaezina da.



Miñako aldarea.
Bibat Arabako Arkeologia Museoa (Gasteiz).
Qark S.L.-ren argazkia

Ildo berean, Lozanok (2010, 100. or.) *Aelia Hellice* cognomen grekoa duten deizioen zerrendan sartzen du eta Gorrotxategi eta Ramírez (2013, 139. or.) ere sinestunaren balizko liberto tasunaz mintzo dira.

Teonimoari dagokionean, Mitxelenari (1954, 424. or.; 1982, 305. or.) *Helasse*-k Barbaringo *Selatse* (datiboa) dakarkio gogora. Horrek esan nahi du, besteak beste, ez duela txarresten akaberako *-e* bokala *-ae* desinentziaren aldaera grafikoa (hondakina) izatea. Bere ustetan, euskaraz ez da arraroa disimilazioaren ondoriozko hitz hasierako txistukariaren galera ($S- \text{---} -s- \rightarrow \emptyset - \text{---} -s-$) eta ideia horri eusteko esaten du Erdi Aroko dokumentuetan *Sancho*-ren euskal parekoa *Anso* dela beti. Arabako epigrafean den digramaz kestione, bi teonimoen txistukariak alderagarriak direla eta Nafarroako inskripzioan *-ts-* afrikaturen bat emateko grabatu bide zutela diosku, Akitanian *-x-*ekin eta *-xs-*ekin egiten zenaren antzera.

Albertosek (1970, 154, 158. or.) –segur aski Mitxelenak (1954, 424. or.) Barbaringo *Selatse*-z iradokitakoa (ikus 2.8.§) gogoan zuela– jainkoaren izena *Helassa* dela irizten dio eta, horrekin batera, *Helasse* datiboko formatzat hartzen. Izen grekoa begitantzzen zaio, promes egiten duen emaztekiaren cognomena bezala.

Elorzak (1972, 364–365. or.) ezaugarritako «bertako izena eta gurtza» dituen esanahi iluneko jainko izentzat dauka Miñaokoa, eta Iberian erabat ezezaguna dela azpimarratzen du. Berari eta Abasolori (1974, 251–254. or.) ezohikoa iruditzen zaie (etimo iluneko) teonimoa grekoa izatea, jatorri horretako adibideak eskualdeko onomastikan arruntak ez direlako.

Gorrotxategik behin baino gehiagotan hartzen du ahotan Miñaoko inskripzioa. Doktorego tesian (OIA, 330. or.) boto egilearen izena (*Aelia Hellice*) jatorriz greziarra dela nabarmentzen du eta (Mitxelena bezala) *Helasse*, nolabait, *Selatse*-rekin lot daitekeelakoan dago; hasierako hasperenak bakarrik luke zailtasuna alde horretatik. Hipotesi hori arrazoitzeko –Mitxelenari (1954, 451. or.) jarraizkiz– agerian jartzen du, adibidez, badaudela *T-/H-* txandakatzearen etsenpluak Akitanian (*Talsconis*, [gen.]/*Halsconis*, [gen.]), baita euskal lexikoan ere. Haatik, ez zaio iruditzen *S-/H-* aldizkatzeak edo (grekoaren gisako) $S- \rightarrow H-$ aldaketak euskal hiztegian tokirik dutenik. Guztiarekin, onartzen du $-Sanso \rightarrow Anso$ -ren argitan– zilegi dela sinestea hasierako txistukariaren disimilazioa egon dela. Afrikatuak emateko *ss* eta *ts* grafiak txandakatzea gauza arruntzat jotzen du. Azkenik, *Helasse* (*Selatse* nahiz *Herauscorritsehe*-rekin batera) *-e* hondarki berezia (arkaikoa) duten jainko izenen zerrendan sartzen du (OIA, 373. or.).

Urte berean plazaraturiko beste artikuluko batean, espresuki Miñaoko teonimoaz atondua hura, Eibarko irakasleak (1984b, 261–262. or.) –Albertosekin (1970, 155. or.) bat eginez– idazten du *Hellice* (grafia geminatua edukiagatik) *Aelia*-ren cognomena izateak egiantz handiagoa duela teonimoaren parte izateak baino. *Hellice* sustrai greziarrekoa dela garbi du, eskaintzailea esklabo jatorrikoa zelako seinale. *Helasse*-ren hitz

hasierako hasperenak euskal onomastikaren alorrera begirarazten dio (*ibid.*, 263–265. or.), baita Akitaniako zenbait jainko izenetan ikusten den *-e* hondarkiak ere, haren ustez ez baita latineko *-ae* datiboaren hondakintzat hartu behar; hain justu, *Garri/Garre*, *Baigoixo/B(u)agorixe* edota *Andosso/Andose* bezalako (gizonezko) bikoteetan antzematen den hondarki aldizkatzeak *-e* bat bakartzea ahalbidetuko luke. Txistukariaren grafia geminatua ere oina *Helass* izatearen alde mintzatuko litzateke, Akitaniako hainbat erro txistukaridun (latinezko desinentzien aurrean) afrikatuak adieraziko lituzketen grafia bereziekin izkiriatu direlako (*xs*, *x*). Guztiarekin, aitortzen du Barbingo *Selatse*-ren antz handia hartzen diola.

Oraindik orain plazaraturiko lan batean, azkenik, Gorrotxategik (2018e, 271. or.) *Helasse* jartzen du etsenplutako Hegoaldeko antzinateko onimo batzuek (Akitaniako laginetan ikusi ohi diren lekuneetan) aspirazioa dutela azpimarratzen duenean.

Bukatzeko, Martínez Aretak (2016, 307. or.) –Gorrotxategiren oinatzetan– *Helasse*-k Akitaniako izenekin batera sailkatzea ahalbidetzen duten hiru ezaugarri dauzkala biltzen du: aspirazioa, <SS> grafiarekin idatzitako oinaren akabailako afrikatua eta Pirinioez haraindiko teonimoen bereizgarria den datiboaren *-e* hondarkia. Lizarrerrian edirendako *S(t?)ela(i)ts-e*-ren cognatua datekeela ere badio EHUko irakasleak.

2.3. *Herauscorritsehe* (Atharratze-Sorholüze, Zuberoa)

Hau XVII. jendemendean dokumentatzen da estreinakoz. Egun Atharratzeko turismo bulegoan da eta jatorrizko tokian, Maidalenaren ermitan (Arhane mendian), erreplika bat dago, presbiterioko ezker aldean hain justu.

Marmol zurizkoa da, eder askoa. Neurriak: 70 cm x 30 cm x 20 cm. Ezkerreko aldean pitxer (libaziorako ontzi) baten marrazkia dago eta eskuinekoan *patera* (plater) batena. Irudi horiek kultuarekin lotuak daude, aretan erritu tresnak grabatzen diren ohiko tokian baitira biak.

Botoa, letra dotorearekin izkiriaturia, sei errenkadatan zatitua dago («FANO / HERAVS / CORRITSE / HE SACRVM / G VALERIVS VALE / RIANVS»); teonimoa bigarren, hirugarren eta laugarren lerroetan da. Jainko izenean bi lotune daude, bata hirugarren ilaran, *i* bokala eta *t* kontsonantea batzen dituen ('it'), eta bestea laugarrenean, *h* kontsonantea eta *e* bokala elkartzen dituen hura ('he') (ikus 6.3.§).

Turismo bulegoan aldareñoaren altzoan dagoen esplikazioan honako testua irakur daiteke: «Consacré au sanctuaire d’Herauscorritsehe Caius Valerius Valerianus». II. gizaldiaren bigarren erdikoa-III.aren lehen erdikoa dela ere jakinarazten da.

Oihenartek aipatzen du lehenbizikoz 1638ko *Notitia utriusque Vasconiae*-n (445. or.), zehaztasun harrigarriarekin aipatu ere, esate baterako, Mauleko legegizonak teonimoan dauden bi lokarriak irudikatzen baititu (HERAVS/CORR†SE/H-E).



Atharratzeko aldarea. Atharratzeko turismo bulegoa.

Auch hirian jatorri bide zuten erromatarren garaiko *Auscio* direlakoan eremuak Zuberoa harrapatzen zuela frogatzeko argudio gisa darabil idazkuna. Besteak beste, Otto Hirschfeld-ek 1899an argitaratu emandako *Corpus Inscriptionum Latinarum* bildumaren 13. liburukian jasota dago (*Inscriptiones Trium Galliarum et Germaniarum Latinae*), 52. orrialdean zehatz-mehatz.

Gorrotxategirentzat (2018 [2011], 388. or.), Tarben Atharratzeko boto egilearen (*C. Valerius Valerianus*-en) izen bereko senatari familia bat egoteak ez du halabeharra zertan izan, ezta Bigorreko herri hartan bertan *C. Valerius Valerianus Sanctus* kideari epitafioa jarri izateak ere. Tarbeko senatari sendiaren arbasoa izan edo ez, Atharratzekoa, antza, arrazoi «politikoengatik» (tokikoen ustez) biztanleak eta ondasunak babesten zituen jainko indigenari aldare bat egiten diona, maila goreneko herritarra zatekeen, jabetzak, lurak eta negozioak zeuzkana.

Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 141. or.) arabera, Atharratzeko eta Tarbeko inskripzioetako gizasemeak ahaideak ziratekeen (aurrenekoa bigarrenaren arbasoa).

Begira diezaiozun orain teonimoari buruz idatzitakoari. Luçhairek (1879, 58, 62-64, 67-68, 73, 94. or.) behin baino gehiagotan darabil Atharratzeko-Sorholüzeko aldarea jainkosen izenak dituzten Pirinioetako erromatar garaiko latinezko inskripzioak bahetzen dituenean. Batetik, agerian ipintzen du *-Erge*, *Ele* eta beste adibide batzuetan legezdatiboko hondarkia *-e* dela, baita bokal hori *-i* nahiz *-ae*-ren ordeztu daitekeela ere, hau da, aldaketa fonetiko baten emaitzat dauka. Bestetik, nabarmentzen du *-zeltarena* baino gehiago *-rr* euskal fonetikaren ezaugarria dela. Hirugarrenik, <x> grafia antzinateko beste izen batzuetako <x>-en parekoa dela (*Baicorix*...) eta euskal /tʃ/, /tʃ/-ren moduko soina datekeela adierazten du. Aurrerago, *-ea*, *-eha* → *-ehe* (*Heraus-corrits-ehe*) jartzen du atzizkien sailean dakuski bokal eratorpenaren (*dérivation vocalique*) adibide urrien artean, nahiz eta, itxura batean, beste toki batean esaten duenarekin bat ez etorri (**-e ← -ae?*). Buruenik, Parisko historiagile eta euskalariak *-corri* bakartzen du, *Baicorix* teonimoan (eta *Baigorri* toponimoan) legokeen bera. Beste ikertzaile batzuek beranduago jorratu beharreko aztergai nagusiak finkatzen ditu, horrenbestez.

Mitxelenaren (1954, 435. or.) arauaz, zuzena da –Schuchardtek nahi bezala– *Heraus(corritsehe)* eta *herauts/herau(t)x* (es ‘verraco’) alderatzea. Zentzuaren aldetik, *erhauts, errauts* (‘polvo, ceniza’) baino hautu hobea iruditzen zaio eta gehitzen du, hedapen txikiko terminoa izan arren, ez daukala oraindik orain iritsitakoa izatearen kuntzarik. Izenondo eitea duen bigarren osagaia dela-eta –Luchaire bezala– Mitxelena (1954, 422, 438. or.) –*corri-* elementua euskal *gorri-*rekin erka daitekeelakoan da (*cf.* *Baigorixo, Baicorisco*) eta, bide batez, Atharratzeko inskripzioan *s* ostean dagoela ohartarazten du.

Onomástica Indígena de Aquitania aingura lanean, Pirinioez haraindi (egun) euskaraz hitz egiten den eremuan idorotako inskripzio bakarra dela nabarmendu ostean, Gorrotxategik (330–331. or.) bat egiten du De Riccik (1903, 77. or. *et passim*) proposatu *Heraus-corrists-ehe* zatiketarekin. Ontzat ematen du Schuchardtek euskal *herauts-*ekin (es ‘verraco’-rekin) aldarrikatu lotura, besteak beste, animalien izenen eremu semantikoa sartzen delako, *Aherbelste (akher)* eta *Astoilunno-*ren (*asto*) gisan. *Herauts,* zalantzarik gabe, *herausi-*rekin (‘txerri emearen zeloa’-rekin; ikus EH, *irausi*) lotua legoke.

Eibarko hizkuntzalariaren irudituan, –*corritsehe-* segida *Buai-gorixe-*ren bigarren zatiarekin parekatu behar da, besteak beste, hark ere «-*ehe:* -*e-*» desinentzia berezia baitauka. Elkarrekikotasun horrek (jatorrizko) –*ehe* hondarkia badela onartzea ahalbidetuko luke, kasu gehienetan –*e-*ra laburtu dena, bokal berdinen arteko hasperena galdu ondoren, hori frogatzeko nahiko datu ez dagoela aitortzen badu ere. –*Corri-*formaren kariaz, esaten du ez dela harritzekoa txistukariaren ondoren herskari ahoskabearen grafia gotea.

Gorrotxategik, espresuki hari eskainitako sarreraz landara, behin baino gehiagotan berritzen du Atharratzeko teonimoa Mitxelenak zuzenduriko doktorego tesian. Esaterako, *Buaigorixe-*ri dagokion pasartean (OIA, 313. or.) dio jainko izenetan amaierako –*e* bakandu behar dela (datibo marka gisa) eta, ondorioz, –*x-* atzikia geratzen zaigula, –*gorri-*ri erantsirik –*cor(r)ix-/-corrits-* eman duena; oinarri hori latinezko (–*o*) zein akitanierako (–*ehe-*, –*e*) morfemekin osa daitekeela gehitzen du. Era berean, *Heraus-* –*so(n)* berrekailua duten *Harausoni* eta *Harousoni* teonimoen lehen elementuarekin konparatzen du Gorrotxategik (1984a, 328–329. or.).

Urte batzuk geroago (2018d [2010], 335. or.), izena *heraus-corri-ts-e* bana daitekeela eta segida horri –*he* gehitu zaiola berresten du (*cf.* *Buai-gori-x-e*). Bere buruari galdetzen dio azken elementu hori zer ote den, teonimoaren forma atzizkidunari eratzikitako zehatzaile motaren bat ala (–*e*) hondarkiaren (bokal ondoko aldaeraren) errepikapena.

Duela urte gutxiko beste testu garrantzitsu batean, *Euskararen historia* liburuaren «Euskara antzinatean» atalean hain zuzen, Gorrotxategik (264, 270–271. or.) –1984ko tesian bezala– soilik edo hasperenarekin horniturik erruz lekukotzen den (desinentzia itxurako) akaberako –*e* Akitaniako jainko-jainkosen corpusaren ezaugarri nabaria dela

azpimarratzen du, baina oraingo honetan aditzera ematen du Atharratze-Sorholüzeko teonimoaren osaketa *Heraus-corri-tse-he* dela (eta ez *Heraus-corrits-ehe*).

Argitalpen berean (*ibid.*, 260. or.) akitaniar onomastikan bereiz daitezkeen berrekailuen zerrenda egiten du eta bertan *-se(n)-* femeninoa sartzen. Sudurkari ondoko *-xe* aldaeraz ere mintzo da (*Edunxe*). Dakartzan adibideen artean (*Andereseni*, dat.; *Ereseni*, dat.; *Neureseni*, dat.; *Hautense*) ez dago, horratik, Atharratzekoa eta, orobat, atzizki multzoan ez du *-tse* jasotzen. Era guztietara, aitzinago (*ibid.*, 264. or.) diosku jainko izenetako *-xo*, *-xe* bukaerak *-so* eta *-tse* aldaerak dituela; *Baicoriso* eta *Herauscorritse* ipintzen ditu etsenplutako. *Heraus-*, *Haraus-* eta *Harous-* (*Herauscorritsehe*, *Harousoni*, *Harousoni*) oin beraren aldaerak diratekeela eranstean du (*ibidem*, 255. or.).

2.4. *Itsacurrinne* (Izkue, Nafarroa)

1960an agertu omen zen, lursailen bateratzea egiten ari zirelarik eta ordutik etxe baten kanpoan eduki zuten (eserleku moduan) José María Jimeno Juríok berreskuratutuen arte (Jimeno Aranguren & Tobalina & Velaza, 1998, 290. or.). Tebas-Muru Arterderretako etxe batean zaintzen dute egun.



Izkueko aldea.

Aldarea hareharizkoa da eta gaineko partean focusa du. Neurriak: 69 cm x 31 cm x 24 cm. Ins-kripzioa, sakonera gutxiko letra mehearekin zizelkatua, zazpi lerrotan banatua dago. Zenbait tokitan zer ipintzen duen ulertzea ez da samurra (ikus 6.4.§). Teonimoa laugarren errenkadaren amaieran eta bosgarrenean da (ITSAC / VRRINNE).

Lehenbizikoz honen berri eman zuten Jimeno Arangurenek, Tobalinak eta Velazak (1998b, 290. or.) deritzote K.o. I. gizaldikoa izan daitekeela (*cf.* Jimeno Aranguren, 2003, 89. or.). Epigrafearen irakurketa hau proposatzen dute: «Val(eri-) Badan(- - - ?) / Abisunsonis (fili-) / posuit ex / votu Itsac/urrinne pr/o salu{o}te et / reditu l(ibente) animo».

Gorrotxategiri eta Ramírezi (2013, 138-139. or.) arraroa egiten zaie identifikatzen zaila litzatekeen tokiko antroponimo indigena bat laburtuta egotea; haien iritzian, cognomenaren forma *Badan* da. Preseski, *Valeri-Badan*-ek bere izen indigena cognomen gisa atxiki zuela uste dute (deizio erro-matarrean).

Jimeno Arangurenen, Tobalinaren eta Velazaren (1998b, 292-293. or.) aburuz, «itxura fonetikoak» *Itsacurrinne* izen akitaniartzat sailkatzea ahalbidetzen du; *-rr-* eta *-nn-* geminatuez eta *ts* digramaz ari dira. Azken zeinu hori euskal txistukari apikaria edo lepokaria latinez emateko erabili dela nabarmentzen dute eta Izkueko teonimoan dagoen <*its*> multzo grafikoa Barbaringo *Stelaitse*-n denarekin alderatzen. Jatorki akitaniarreko jainko izenetan usu azaltzen den amaierako *-e* ere aipatzen dute (*Lahe*, *Erge*, *Garre*). Akabaila horrek oso bestelakoak diren bi errealitate ezkuta ditzakeela diote: akitanierak bere berekia duen bukaera, oinarriaren zatia eta hondarkia izan daitekeena, eta latineko datiboko *-(a)e* desinentzia, ezaguna den prozedurari jarraikiz, oina latinaren gramatikara egokitzeko erantsitakoa. Daude, Izkueko laginaren kasuan bata zein bestea egon daitezkeela.

Velazarentzat (1998b, 205-206. or.) *Its-* hasierak, ziur aski, fonema «arrotz» bat latinez transkribatu nahiaren berri ematen du, agian, euskararen txistukari lepokariaren edo apikariaren antzekoa zena. Aitortzen du tentagarria dela hemen euskal *txakur* erreferentziatzat hartzea.

«Antzinateko euskararen nondik norakoak» artikuluan, Lergakoaz geroztik baskoien lurraldean (batez ere Nafarroako erdigunean) idoro diren akitaniar ukituko izenez ari dela, Gorrotxategik (2008, 369-370. or.) jakitera ematen du, baten batek euskal etimologia onargarria izan arren (*Larrahe*), gehienek euskal kutsuko ezaugarri formalak besterik ez dituztela, azken morfemetako sudurkari geminatuak (*Itsacurrinne*), adibidez. Halaber, *-Akitaniako lagin askotan bezala-* Nafarroako dibinitate izen gehienetan *-e* taxuko desinentzia dugula ohartarazten du, hizkuntzaren berezko adierazpena izan behar duena, eta ez latinezko *-ae* datibo hondarkiarena.

Hizkuntzalari gipuzkoarrari deigarria egiten zaio *Itsacurrinne* jainko izena. Lehen begiratuan *txakur* dakarkio gogora, baina onartzen du hitz hasierako *Its-* eta amaierako *-inn* arazotsuak direla. Bere buruari galdetzen dio ez ote diren, hurrenez hurren, txistukari afrikatua izkiriatzeko modua eta akitanierazko *-enn* atzizkiaren aldaera (*cf.* *Belexennis*, gen.; *Leherenn*, jk. iz. *Borienno* jk. iz.). Beretzat, zilegi da teonimoa beste modu batean zatitzea, **Itsacu + -(e)rren-* esaterako, hau da, ez du erabat txarresten bigarren elementua Nafarroako *Errensae*-n dagoen bera izatea, ezta lehendabiziko zatia euskarazko «*itsats*»-ekin lotua egotea ere.


Ramírezekin batera plazaraturiko ikerlanean Gorrotxategik (2013, 135. or.) *its-* soinu afrikatua emateko modua edo irtenbidea izan daitekeela berresten du, *Selaitse*-n bezala (*cf.* *Selatse*), alegia, berez, **Tsacurrinne* genuke Izkueko agintzan (**/tzakurriNe/* edo **/tsakurriNe/*). Zalantzak-zalantza, ondorioztatzen du (*Itsacurrinne*-k) formaren aldetik *txakur*-ekin ('perro') antza duela eta, horrenbestez, euskal etimoa izan deza-keela.

Bukatzeko, duela urte gutxi plazaratutako idazkun batean, hizkuntza sailkapenak egiteko argudio fonetikoek duten indarrak diharduela, Gorrotxategik (2018e, 271.

or.) dio ez duela halabeharrezkoa ematen *Itsacurrinne*-k morfema bukaeran (-e desinentziaren aurretik) grafia geminatua izatea. Horrelako sudurkariak luzapen itxurako berrekailuetan bakarrik dokumentatzen direla zehazten du, hau da, -nn, -enn bezalakoetan, eta ez *-nV- sailekoetan (*ibid.*, 262. or.).

2.5. *Lacubegi* (Uxue, Nafarroa)

Ustekizun zabaldua da hau Taracenak eta Vázquez de Pargak 1946an argitara eman zutela, baina Mikel Burgi uxuetarraren ahozko adierazpen bati jarraikiz elizgizon batek 1929an ediren zuela egiaztatu ahal izan dut. Xehetasunetan sartuz gero, Urangaren (1984, 39. or.) Uxueri buruzko liburuan irakur daiteke, egiazki, biak (*Lacubegi*-rena eta Jupiterrena) Ripak idoro zituela eta izan, horrela da, jesulagunak *Euskalerrriaren alde* aldizkarian karrikartu artikuluan batean (1929, 23. or.) Andre Maria Zuriaren ermitaren inguruan kausituriko bi aldareen berri ematen baitu. Egoera txarrean zegoela-eta, (eskaintzaileak beste epigrafeko berak zirela ohartuagatik) ez zen gai izan zeren (edo behi) buruen irudiak dauzkan arako inskripzioan (solasgai dugunean) ipintzen zuen guztia irakurtzeko.



1: Errensa-. 2: Helasse. 3: Herauscorritsehe. 4: Itsacurrinne. 5: Lacubegi. 6: Larahe, Larahi/Larrahí. 7: Losa-/Loxa-. 8: Sela(itse), S(ela[i]tse?). 9: Urde.

1. mapa: Euskal ondareko jainko-jainkosa izenen aztarnen banaketa (1).

Hareharrizko aldea egun Iruñeko Nafarroako Museoa dago. Neurriak: 87 cm x 43 cm x 42 cm. Gaineko aldean bi *pulvini* (opariak ez erortzeko kuxin eiteko koskorrak) ditu eta bien artean gorapentxo modukoa. Alboetan goi-erliebean landutako zezen (edo behi) buru bana daude.

Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 131. or.) biltzen dutenez, irudiak dauzkan botozko aldare gutxi dago baskoien lurraldean (eta Penintsulako ondoko herrien artean); gehiago dena, *Lacubegi*-ren arak bakarrik du zezen burua zizelkatuta, baina ez aurrealdean, ezkerrean baizik, alegia, aretan erritu-instrumentuak ipintzen diren ohiko tokian, eta horrek, ziurrenik, zezena sakrifikatutako animalia zela iradokitzen du.

Testua, zazpi lerrotan idatzia, sakonera gutxiko letra mehe dotorearekin grabatua dago (ikus 6.5.§). Teonimoa bosgarren lerroaren amaieran eta seigarrenean da (LACV/BEGI). Akaberan ez dago *v s l m* laburdura, *ex voto* formula baizik. Elorzarentzat (1972, 363. or.), II. gizaldiaren bigarren erdikoa da, baina, Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 122. or.) aburuz, K.o. I. mendekoa dateke, apika.

Goian esan bezala, Taracenak eta Vázquez de Pargak (1946, 465. or.) elizako sakristian «kausitu» zituzten Uxueko aldareak eta bien idazkunak osorik leitzea lortu zuten. Alabaina, ez zituzten zehatz-mehatz egun transkribatzen diren bezala eman, besteak beste, ez zirelako jabetu *Lacubegi*-ren gorazarrez egindakoan aurreneko izenaren amaieran bi <i> daudela, eta ez bat. «COELII TESPHOROS / ET FESTA / ET TELESI/NVS LACV/BEGI EX / VOTO» da gaur onesten den epigrafea.

Castillo (1977, 133. or.) Uxueko inskripzioko hiru fededunak libertoak ziratekeelakoan da. Lozanoren (2010, 100, 103-105. or.) iritzirako ere hirurak libertoak dira, *Coelia* izeneko *gens* edo leinuko (erromataruriko) familia batek jaten ematen zien esklabo ohiak, alegia, besteak beste, lehenbiziko bien izenak greziar jatorrikoak direlako. Hispanian *Tesphoros*-en (*Telesphorus*-en) bi erakuskari daudela jasotzen du, biak Katalunian; izen hori duten pertsonak jopuak dira bietan, antza. *Festa* cognomen gisa arrunta dela ere zehazten du, ez, ordea,



Uxueko aldea. Nafarroako Museoa (Iruñea).

Telesinus (latinoa), Penintsulako epigrafian apartekoa (bakarra) baita. Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 142. or.), orobat, *Coelii Telesphoros*, *Festa* eta *Telesinus* libertoak zirela deritzote. Guztiarekin, balizko libertoen nagusia zen familiaren izena behin adierazten da, pluralean adierazi ere (*Coelii*) eta ez, aldiro, hiru libertoen cognomenen aitzinetik (**Coelius...*, **Coelia...*, **Coelius...*).

Teonimiaren eremuan sartuz gero, Mitxelenak (1961b, 198, 202. or.) diosku *Lacubegi* datiboan deklinatua dagoela, bere ustetan, nominatiboan balego amaieran *-bex* edo *-begis* egon beharko bailuke. Lergako hilarriaz urte berean argitaraturiko artikulu garrantzitsuan, euskal arrastoen urritasunaz ari delarik, erreteriarak (1961a, 68. or.) agerian ipintzen du *Lacubegi* (datiboa) ez dela Oartzungo *Beltesonis* edota Muruzabal Andiongo *Vrchatetelli* baino argiagoa euskal etorkiaren aldetik.

Blázquezek (1962, 177. or.) ez du baztertzen «*Lacubegus*» euskal teonimoa izatea. Gaurko toponimian ikusten den *Lacu* elementua dakar heldulekutako, baina iruditzen zaio, besterik gabe, lehenbiziko elementua latineko *lacus* hitza izan eta, ondorioz, *Lacobriga*-ren gisako leku izenekin ere lotua egon daitekeela. Asturiarraren iritiz, izena datibo zeltarekin markatua dago.

Elorzak (1972, 363. or.) jakitera ematen du Albertosek «*lacubex*»-etik datorkeela eta hizkuntza indoeuroparretan arruntak diren «*lacu*» eta «*bheg*» ('apurtu') osagaiak ditukeela iradoki ziola. Ikertzaile gasteiztarrek uraren arloko jainkotzat dauka, iturri batena zehazkiro. Bide horretatik, Uxuetik gertu Aragoi ibaia eta *Ezcayru* erreka igarotzen direla oroitarazten du.

Irabururen (1975, 83-84. or.) arabera, *Lacubegi*-ren (latinezko nominatiboan «*Lacubegis*») teonimoaren lehen osagaiak («*laco*»-k edo «*lacu*»-k) lotura estua du aldaera azaldu zen lekuaren izenarekin (*Lacu/El Lacu*, *Lacu Mulato/Lacumulato*-rekin), baita Uxue bertako *Lacubeli/La Cubeli* toponimoarekin ere. Teonimoaren bigarren elementuaz kestone dio euskarazko «*begi*» substantiboarekin eta «*begiratu*» aditzarekin (*Lacubegi* = 'el guardian de Laco o Lacu') nahiz «*behi*» zoonimoarekin eta haren «*begi*» aldaerarekin zerikusia izan dezakeela (*Lacubegi* = 'la vaca de Lacu'; *cf.* Egiptoko zein Hindustango behi sakratuak). Elorzaren hipotesia txarretsi ostean, sustraia toponimian duela idatziz amaitzen du.

Castillo, Gómez-Pantoja eta Mauleón (1981, 60. or.) ere «*Lacubegis*» jainko izenaz mintzo dira. Castilloren (1992, 124. or.) hitzetan, iturrien numena litzateke eta (Ciudad Realgo) «*Los ojos del Guadiana*» izendapenarekin alderatzen du.

Javier Velazaren (1995, 213. or.) aburuz, berriz, iberiar eitea du. Aurreneko osagaia hizkuntza horretako antroponimian ezaguna den **laku** elementuarekin erkatzen du eta bigarrenaz dio **bikis**-en aldaera izan daitekeela.

Gorrotxategik (1995, 223-225. or.; 2018, 271. or.), ildo berean, uste du lehenbiziko zatia *laku-ar'kis* eta *biu(r)-lakoś* izen propio iberikoenarekin lot daite-

keela eta bigarrena, berriz, euskarazko *begi*-rekin zein *behi*-rekin (harran zezen burua dagoelako).

Azkenik, Salaberrik (2005a, 680-683. or.) –euskaltzain oso izendapenaren sarre-
ra hitzaldian– hamabi urte lehenago argitara emandako doktorego tesian izkiriaturikoa
berresten du, alegia, (Irabururen oinatzei jarraikiz) *Lacubegi*-ren aurreneko osagaia
Uxueko bereko *Laku*-n eta *Lakumulatu*-n dagoen *Laku*(-) bera dela eta bigarrena
(aldarean zezen edo behi burua ageri dela aintzat hartzen bada) Iraburuk eta Gorro-
txategik aipatzen duten *begi* edo *behi* izan daitekeela, jakina den bezala, aspirazio (zahar)
batek batzuetan aztarnatza *-g-* utzi duelako. Gogorarazten du Oibarren badela zezen
burua duen Jupiterren aldarea. Eslaba aldeko euskarari buruzko tesian irakasle nafarrak
(1994, 826-830. or.) *Lakubeli* aipatzen du, nola ez. Herritik hurbil dago, eta ez da
guziz argia. *Laku* aurkintza *Lakumulatu* handiagoaren barnean dela ere zehazten du
(*< laku + balatu* seguruenik). Laburbilduz, Salaberrik agerian ipintzen du *Laku* gure
toponimian ohikoa dela, ehunka azaltzen dela eta bere ustetan *Lacubegi* ezin da ibe-
rierarekin lotu, Uxueko *Laku* eta *Lakumulatu*, toki urtsuak direlako, ura metatzen,
baltsatzen den lekua.

2.6. *Larrahi* (Muruzabal Andion [Mendigorria], Nafarroa), *Larahe* (Iruxo, Nafarroa), *Larahi* (Errezu, Nafarroa)

LARRAHI

Plazaratu zuten Castilok eta Bañales-
ek (1989, 523. or.) jasotzen dutenez, ara
1940an aurkitu zuten Andionen, Sabino
Muro Azagraren jabetzako lursail batean
nekazaritzan ari zirela. Egun Muruzabal
Andiongo *Andelos* museoan dago ikusgai.

Tobalinaren (2002, 5. or.) arauaz, Aro
errepublikarrekoa (Kristo jaio aurrekoa)
da. Ildo beretik, Jimeno Arangurenen
(2003, 88. or.) aierua da K.a. I. jendemen-
dearen erdi aldean egin zutela. Gorrotxa-
tegik eta Ramírezek (2013, 122. or.) epea
pixka bat murrizten dute, K.a. 50.-K.o.
50. urteetako datakeela baiteritzote. Han
idoro ez bazuten ere, uste da *Andelos* hi-
rikoa datekeela.



*Muruzabal Andiongo (Mendigorriko)
aldarea. Andelos Museoa.*

Aldarea kareharrizkoa da eta Castilok eta Bañalesek (1989, 523. or.) diote focusa duela, baina antzematen den gauza bakarra da gaineko alde konkaboa dela, alegia, ez da zulotxo biribilik ikusten. Neurriak: 61 cm x 32 cm x 27,5 cm.

Promesa, sei lerrotan banatzen dena, letra baldar samarrarekin izkiriatur dago (ikus 6.6.§). Teonimoa azken errenkadan da. Museoan dagoen horma-irudian LARRAHI-ri eskainia dagoela irakur daiteke, baita jainko hori aziendaren eta soroen babeslea zatekeela ere, Andelos hiriarren *territorium* edo barrutian edirendako *Errensa-* eta *Losa-* nola.

Castilok eta Bañalesek (1989, 523. or.) honako transkribapena proposatzen dute: «Manili/us Mar/tialis votu re/tulit / Larrahi». Teonimo ezezagun baten datiboa izan daitekeelakoan dira eta botoaren azken tokian dagoela azpimarratzen dute.

Gorrotxategirentzat (2018a [1993], 80. or.), editoreen argazkian argi eta garbi ikusten da <I>-aren barra bertikala, baina –epigrafearen laugarren ilaran <E> bi marratxoren bidez (II) idatzia denez gero– izan daiteke letra hori guztiz osatu gabe egotea eta, egiazki, *Larrahe* ipintzea (eta ez *Larrahi*). Zernahi gisaz, urtebete berandua-goko artikulu batean berak eta Vallejok (2019, 346. or.) *Larrahi* darabilte.

Eskaintza formula *votu(m) retulit* da. Zentzu horretan, inskripzioa gutxi landua dagoela ohartarazi ostean, Castilok (1992, 123. or.) idazten du amaierako sudurkaria galdu duen *votu* forma latin herrikoia-aren ebakeraren tasuna datekeela.

LARAHE

Álvaro Juánizek Iruxon kausitu zuen 1996an, hondakin batzuen artean. Eraikuntzan erabili zutelako zantzuak zituen, antza denez. Egun Goñerriko etxe batean gordetzen dute.

Tobalinak eta Jimeno Aranguren (1998, 619–621. or.), karrikaratu zuten bi autoreek alegia, honako irakurketa egiten dute: «Deo / Larahe / Felix / v s l m». Beren ustetan, egikerak eta letrak Inperioaren hastapeneko delat iradokiko lukete, Aro aldatetaren garaikoa, hortaz. Beste lan batean, Jimeno Aranguren (2003, 88. or.) esaten du K.o. I. gizaldikoa dela. Gorrotxategi eta Ramírez (2013,



Iruxoko aldarea.

122. or.) pentsaera berekoak dira eta Tobalinarentzat (2002, 5. or.) ere Inperioaren sasoikoa da.

Aldarea hareharrizkoa da eta zatiak falta zaizkio atzeko eta gaineko aldeetan. Neurriak: 38 cm x 28 cm x 20 cm. Idazkunak lau lerro ditu eta teonimoa bigarrenean dago. Zenbait hizki nahiko higituta daude, jainko izenaren aurrenekoa, adibidez (ikus 6.6.§).

Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 139. or.) aburuz, Iruixoko inskripzioan dugun *Felix* osagai bakarreko izena duen erromesa da.

Velazarentzat (1998b, 204. or.), kutsu indigenako epigrafeetan sarri samar ezartzen den *deo* (dat.) generikoak *interpretatio* delakoa (moldaketa) egon dela egiaztatzen du. Tobalinari (2002, 5. or.), aitzitik, deigarria egiten zaio teonimoaren aitzinean *deo* hitza egotea, Iberiar penintsulako tradizioan arrotza delako eta beste laginean (Muru-zabal Andiongoan) ez delako azaltzen.

LARAHÍ

Pedro Argandoña etnografo lezaundarra-ri esker izan dut argitaratu gabeko ara honen berri. Errezun topatu zuten, soro batean, duela hogeita bost urte baino gehiago.

Aldareñoa kareharrizkoa da eta (segu-ruenera, goldearekin emandako) kolpe handi samarra du aurreko aldean, goitik (ezkerretik) behera (eskuinera). Neurriak: 27,5 cm x 15 cm x 12 cm; *arula* bat da, beraz, darabilgun multzoko txikiena. Teonimoa lau lerro dituen promesaren azken tokian dago. Letra, fina eta baldar samarra da. Lehen hiru errenkadetan (urratua dela eta) zer ipintzen duen antzematea zaila izan arren, beharrik, –sinestunaren izena ez bezala– teonimoa ondo leitu daiteke: «++VS+ / N++Q / TVP[.] + / LARAHÍ». Xehetasunetan sartuz gero, <L> hizkia «kaudatua» da, Burumendiko aldarean bezala (ikus 6.6.§).

Teonimoaz esan denari begiratuko diogu orain. Castilok (1992, 123. or.), adibidez, Mendigorriko laginak, Akitaniako *Larrasomi-k* (jk. iz.) bezala, oinarrian *larra* ('larrea')



Errezuko aldarea.

duela deritzo. Soriako *Garray* herri izenaren (1016, *Garrahe*) egitura bera duela ere badio (cfr. es *garrafa* [← ar *ġerraf*]).

Gorrotxategiri (2018a [1993], 80. or.) ere *Larrahi*-k Mosen (Mouxen) birritan le-
kukoturiko *Larrasoni* (*Larra-* + *-x(s)o-*) gogorazten dio eta akaberako *-hi Artaxe/Artehe/*
Arte edo *Heraus-corritsehe* jainko izen akitaniarretan dagoen (hasperena duen) bukaeraren
parekoa begitantzen zaio. Edozein moduz, azpimarratzen du euskal *larre*-ren (es ‘pastizal’)
larra- aldaera eratorrietan bakarrik ikusten dela eta mudantza hori ez dela Akitaniako
corpusean dokumentatzen (cfr. *Sembe-*, *Sembe-ten*), baina, era berean, onartzen du alder-
di hartako *Artaxe*-k (benetan euskal *arte*-rekin lotura balu) eta Nafarroako *Larrahe/-i*-k
aldaketa bera adieraz dezaketela. Azken buruan, ez du txarresten Lafonen (1965, 82-83.
or.) hipotesia, hau da, *Larrasoni* datiboan *larre*, *larra* dagokeela (fr «pacage, pâturage»).

Eibarko hizkuntzalariarentzat (2008, 369-378. or.; 2018a, 270-271. or.), *larre*-re-
kin parekatzen badugu, *Larahe*, *Larrahe* jainko izenak euskal etimologia onargarria du.
Gainera, (bakarrik edo aspirazioaren ondoren) dibinitate akitaniarren corpusean erruz
ikusten den desinentzia itxurako *-e* dukegu, hau da, amaierari begiratzen bazaio,
Akitaniako *Artaxe*-ren molde berekoa da.

Ramírezekin karrikaturiko artikuluan (2013, 135, 138. or.), azkenik, Gorrotxa-
tegik aditzera ematen du *Larrahe*-k (‘zelaia, larrea’) Akitaniako *Areixo/Arixon*, *Artaxe*,
Fagus, *Abellio* eta *Sexarbor*-ek azaleratzen duten zuhaitzen (haritzaren, artearen, pagoaren,
sagarrondoaren) eraspenaren funtzio «naturalistarekin» zerikusia izan dezakeela.

Tobalinak eta Jimeno Arangurenak (1998, 619-621. or.) Iruxoko *Larahe*, segur
aski, bertako jainko euskal-akitaniar baten datiboa dela eta Muruzabal Andiongo
Larrahi-rekin lotua dagoela pentsatzen dute. *Larahe* (*Losa*-ren gisan) toponimiara
igarotako teonimoa delako hipotesia darabilte, ez baitute erabat baztertzen *Larraga*
herri izenaren sorburua horixe izatea. Euren esanetan, datiboa markatzeko *-e* balia-
tzea eta dardarkariak letra bat galdu izana (cfr. *Larrahi*) latin herrikoia ezaugarriak
lirateke.

2.7. *Losae* (Lerate, Nafarroa), [*L]osae?* (Zirauki, Nafarroa), *Losae* (Burumendi [Lerate-Allotz, 44 elkarrekikoa], Nafarroa), *Loxae* (Argiñaritz [Girgillao], Nafarroa), *Losae* (Anitz [Zirauki], Nafarroa)

LOSÆ (Lerate)

Lerateko laginaren berri Francisco Escalada jesulagunak (1943, 147. or.) eman zuen,
Xabierko eta hango gazteluaren inguruko arkeologiaz argitaraturiko liburu batean.
Gauza ezaguna da Burgosko elizgizonak Nafarroako zenbait estela, aldare eta miliario-
rekin bilduma osatu zuela Xabierren egon zen bitartean. Handik gutxira, 1946an, Ta-
racenak eta Vázquez de Pargak (456. or.) «Aemilia / Paterna / Losae / v s l m» testua

zuela jakitera eman zuten. Castillok, Gómez-Pantojak eta Mauleónnek (1981, 51. or.), jatorriz, Escaladak eraman baino lehen, Lerateko etxe batean zegoela argitzen dute.

Egun Nafarroako Museoa dago ikusgai. Hareharrizko aldarea nahiko hondatua (higatua) dago. Neurriak: 51 cm x 25,5 cm x 23,5 cm. Focusa du. Lau lerrotako idazkunaren zenbait hizki irakurtzea ez da erraza (ikus 6.7.§). Teonimoa hirugarren ilaran da.

Elorzaren (1972, 364-365. or.) iritzian, Kristo ondorengo IV. mendearen bigarren erdikoa da. Jimeno Arangurennek (2003, 88. or.), ordea, uste du Lerate-Argiñaritz-Zirauki hirukian topatu diren *Losa/Loxa*-ren lau inskripzioak Aro errepublikarraren eta K.o. I. gizaldiaren artekoak izan daitezkeela. Ildo beretik, Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 122. or.) jainko izen baskoien zerrendan (2022 arte plazaratutako) laurak K.o. I. jendemendeoak direla leitu daiteke.

Ciprésen (2006, 108. or.) aburuz, *Paternus* cognomenak giro indigena erromatartua islatzen du. Hari beretik, Gorrotxategirentzat eta Ramírezentzat (2013, 139. or.), *Aemilia Paterna*-ren cognomena *Deckname*-a da, hau da, antroponimo indigena bat ezkatuz duen izena, arruntean, eduki semantikoaren itzulpenaren bidez, baina, batzuetan, itxurazko antzekotasun fonetikoarengatik. Beste lan batean, Gorrotxategik (2015a, 15-16. or.) zehazten du jainko baskoiairen aldarea eginarazi zuen pertsonaren izena (*Paterna*) arrunta dela eremu indoeuroparrean.

Eskaintza formula *v s l m* da, *v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)* alegia.

[L]OSAE? (Zirauki)

Bigarren hau Ziraukiko Done Erroman elizan dago. Kareharrizkoa da eta ezin dugu jakin gaineko aldean zer duen, bataiarriaren azpian (oinarritako) ezarrita baitago. Neurriak: 53 cm x 28,5 cm x 29 cm.

Letra mehe baldarrarekin grabaturiko inskripzioak bost errenkada dauzka. Teonimoa laugarrenean dago; aurreneko hizkia (<L>) ezabatuta dago eta hirugarrena (<S>) aski higatua (ikus 6.7.§).



Lerateko aldarea. Nafarroako Museoa (Iruñea).



Ziraukiko aldea. Ziraukiko eliza.

bigarren ilaran da. <L> letra kaudatua da eta hondarreko hizkia (<E>) goitik behe-rako bi marra paraleloekin (II) izkiriatur dago (ikus 6.7.§).

Abasolok eta Elorzak (1974, 251. or.) karrikaratu zutenean Xabierko gazteluan zeukaten (alderdi hartakoa zelakoan). Epigrafean «M I L I V / L O S A I I / V S L M» ikusi zuten.

Castilloren (1977, 128-129. or.) irudikoz *Tarsili filius*)... leitu behar da, hots, jarraikitzailearen izenean filiazioa jakinarazten da. Pentsatzen du, seguruenera, datu hori era indigenan ematen dela, aitaren izenaren bidez, eta ez erromatarren modura (aitaren praenomenaren bitartez). Castilloren, Gómez Pantojaren eta Mauleónen Nafarroako Museoko inskripzio erromatarrek biltzen dituen 1981eko liburuan (52. or.) jasota dago; begira han leitu daitekeen transkribapena: «Marsille? / Losae / v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)». Behinola Xabierko Museoan zegoela diote, baina argitzen dute, berez, Leratekoa dela, Burumendikoa zehazkiro. Gorrotxategi (2015a, 14. or.) Iruixokoa delakoan dago.

Tobalinak eta Jimeno Aranguren (1998, 618. or.) «*Tarsilla / Losae...*» interpretazioa hobesten dute, baita Gorrotxategik eta Ramírezek ere. Azken autore hauen

Gómez-Pantojak (1979, 10-13. or.) publikatu zuen eta «T[e]rent[i]/us Mar/tialis / [L]osae / v(otum) l(ibens) s(olvit)» transkribatu («Terencio Martial cumpliÓ gustoso el voto que hizo a Losa»). Bere aierua da ez duela Zirauki bertakoa zertan izan, ingurukoa (Mañeruibar-Gesalatzetako) baizik.

Aurrekoan ez bezala, formula *v l s* da.

LOS AE (Burumendi)

Badirudi hirugarren hau, izatez, Burumendi herri hustukoa dela (44 elkarrekikokoa, Lerate-Allotzetakoa). Hareharriz egina dago eta gaineko aldeko zati bat falta zaio. Hori dela eta, fededunaren izena ezin da ondo irakurri. Neurriak: 36 cm x 29 cm x 25 cm. Egun Nafarroako Gobernuaren Ondare Zerbitzuko biltegian gordetzen dute.

Epigrafea hiru lerrotan banatzen da eta hizki meheekin zizelkatua dago. Teonimoa

(*ibid.*, 139. or.) arauaz, *Tarsilla* osagai bakarreko antroponimoa duen erromesa da eta *Tarsia*-ren oinordea izateak badu egiantza, atzizkia (txikigarria) latinekoa baita.

Hispania Epigraphica datu basean (17231), inskripzioan «- - - - - / + Tarsili f(iliae?) / Losae / v(otum) s(olvit) l(ībens) m(erito)» jartzen duela biltzen da.



Burumendiko aldea. Nafarroako Gobernuaren Ondare Zerbitzuko biltegia.

LOXAE (Argiñaritz [Girgillao])

Argiñarizko epigrafea Escaladak plazaratu zuen 1943an (154–155. or.). Agidanez, Andrés Silvestrek eman zion haren berri. Handik gutxira, Taracena eta Vázquez de Pargak (1946, 444. or.) honako testua proposatu zuten: «Lucre/tius Pr/oculu/s Loxae / v s l m» («Lucrecio Próculo cumplió gustosamente el voto que había hecho a Loxa»). Neurriak: 43 cm x 29 cm x 20 cm.

Egun galduta dago, ez baita haren arrastorik Xabierko gazteluan, ezta Nafarroako Gobernuaren Ondare Zerbitzuko biltegian, Nafarroako Museoan nahiz Elizbarrutikoan ere.

Tobalinarentzat (2009, 492. or.), S/X grafia aldizkapenak tokiko hizkuntzaren soinuak latinezko alfabetoarekin emateko zailtasuna iradokiko luke.

Aitzinekoan legez, eskaintza formula *v s l m* da.



Argiñarizko aldarea (1946). Desagertua. Taracenaren eta Vázquez de Pargaren argazkia. PV, 24, 444. or.

LOSAE (Anitz [Zirauki])

Azken hau Anitz herri hustuan agertu zen, duela hogeit bat urte. Mañeruar batek idoro zuen eta urtetan haren familiak gorde du, duela gutxi arte. Ezin izan dut bertatik bertara ikusi, baina, beharrik, Pedro Argandoña etnografo lezaundarrak neurriak hartu zizkion duela hamabost bat urte eta, hori baino garrantzitsuagoa dena, inskripzioaren marrazki zehatza (kalkoa) atera zuen. Oraindik orain aldarearen argazkia eskuratu dut (ikus 6.7.§).

Gorde den puskak 25 cm-ko altuera du eta 20-23 cm-ko zabalera. Gaineko aldean 12 cm-ko diametroko focusa dauka. Testua jarrezko tokiak 11,5 cm-ko altuera du.

Idazkunak bi lerro ditu. Aurrenekoan «LOSAE» irakur daiteke argi eta garbi. Horrenbestez, Muzkikoan bezala, jainko izena

agintzaren lehenbiziko zatian da. Azken bi hizkiak (<AE>) lotune baten bidez emanda daude (ikus 6.7.§).

Bigarren lerroan bost letra ikusten dira, zoritxarrez, nekez leitu daitezkeenak. Izan ere, aldareari azpiko zatia falta zaio, hots, ez dago osorik eta, gainera, geratzen diren hizki zatiak oso higatuta daude. Aurrenekoaren eskuineko erdia bakarrik antzeman daiteke; erdi parean (ezker aldera begira) koskortxo antzekoa daukan biribil tankerako marra bat da, alderantziz egindako <E> baten kuntza duena (E). Bigarren eta laugarren zeinuak <A> bana izan daitezke eta hirugarrenak E baten itxura du. Azkena goitik beherako arrasto baten hondakina da; <I> batena? Hirugarren hizkiaren eta bigarrenaren nahiz laugarrenaren arteko tartea hasierako eta amaierako letra bikoteetan daudenak baino handixeagoak dira. «LOSAE / +A(1)E(1)A+»?

Teonimoaren etorkiaz gure aurrekoek ekarritakoari begiratu gero, Taracenak eta Vázquez de Pargak (1946, 456. or.) Lerateko lagina Antoninoren Ibilbidean (456, 3) aipatzen den *Losa* toponimoarekin alderatzen dute (Bordeletik Hispaniarantz 23 bat miliara zegokeenarekin).

Blázquezek (1962, 80. or.) ere, –Taracenari eta Vázquez de Pargari jarraikizoinarrian leku izen bat dagoela irizten du eta teonimoa Antoninoren Ibilbideko *Losa*-rekin lotzen. Mitxelenak (1961b, 199-200. or.), baina, –Blázquezi erantzunez–


ohartarazten du *Losa* edo *Loxa* bezalako izen batek esplikazio kopuru ia mugagabea izan dezakeela, guztiak baliagarri bezain baliogabeak. Nolanahi den, epigrafea Nafarroan topatu izanak eta <x>/<s> zalantza grafikoak pentsarazten diote euskal jatorrikoa izan daitekeela. Errenteriako hizkuntzalariaren aierua da, horrela balitz, (euskaraz *lotsa* badagoenez gero) *Pudicitia* edo *Timor*-en saileko pertsonifikazioa izatea posible litzatekeela.



Anizko (Ziraukiko) aldarea.



*Anizko (Ziraukiko) aldarea.
Pedro Argandoñaren kalkoan oinarrituta egindako marrazkia.*



2 mapa: Euskal ondareko jainko-jainkosa izenen aztarnen banaketa (2).

Elorzak (1972, 364–365. or.) *Losa/Loxa* «bertako izena eta gurtza» duen esanahi ezezaguneko jainkotzat dauka. Ez zaio iruditzen Ibilbide Antoninoko *Losa*-rekin zerikusirik duenik, Akitaniakoa urruti eta beste *conventus* batean dagoelako. Eransten du Albertosek zentzuzkoena Araban hain ugaria den «Loza» toponimoarekin lotzea dela iradoki ziola. Auzi horretaz mintzo denean, Ziraukiko mostra argitara eman zuen Gómez-Pantojak (1979, 13. or.) gogorarazten du Nafarroan badirela antzeko toponimoak, Iruñetik ipar-sartaldera dagoen *Loza* (lekua) kasurako.

Gorrotxategik (1984a, 347. or.) –2022 arteko– lau lekukotzak gune zehatz batetik datozela nabarmentzen du, Alkozko urtegiaren eta Arga ibaiaren artean osatzen den triangelutik hain justu. Beretzat, teonimoaren generoa ez dakigun arren, edirendako mostrek *-a* duten latinezko oinekin bat datorren (datiboaren) *-ae* marka daukate. Zentzu horretan, Eibarkoak (1984a, 371. or.) oroitarazten du –lehen elementu onomastikoa bere horretan mantentzen dutenez gero– eratorrietatik eta konposatuetatik abiatuta erroen oin garbia ezagutu eta latinezko kasu sistemara egokitzeko modua igar daitekeela. Izen eratorrien arloan, *Han(n)a-*, *Atta-* eta *Nesca-* *-a* duten oinen etsenplu argiak dira Gorrotxategirentzat, ziur asko, izen bakunen sailean (lehenengo-

tik deklinatua agertzen den) *Loxa*, *Losa* eta *Aereda* (desinentziarik gabeko jainko izena) bezala. Beste lan batean, Larragako *Errensae* teonimoaz ari delarik, Gorrotxategik (2018a [1993], 79-80. or.) diosku antzinatoko zenbait izenetan amaierako txistukariak oinaren (eta ez atzizkiaren) berezko zatia dirudiela eta Lerate-Zirauki aldeko *Losae*, *Loxae* teonimoa jartzen du etsenplu moduan.

1984ko tesian eta 2018ko *Euskararen historia* liburuaren kapituluan ez du *-sa* aipatzen Akitaniako onomastikan bereiz daitezkeen atzizkien zerrendan.

Tobalinari (2002, 7. or.; 2009, 492. or.) zaila egiten zaio Mitxelenaren interpretazioa ('lotsa') onartzea, erromatar aurreko jainkoen izaera konkretuarengatik eta ingurune fisikoarekin bide duten loturarengatik. Hain zuzen, bertute baten abstrakzioaren arloko numen edo pertsonifikazio mota hori (*Pudicitia*, *Timor*) erromatar kulturak berezkoa zukeen, baina gutxitan dokumentatzen da beste erlijio sistemetan.

Bukatzeko, Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 135. or.) *Losa*-ren santutegia zegokeela eta teonimoak euskal etorkia duela deitzote, izan *lotsa* (es 'vergüenza' [eta 'miedo']), izan (Nafarroako) *Losa* toponimoa.

2.8. *Selaitse*, *Selatse*, *S(ela[i]tse?)* (Barbarin, Nafarroa)

SELAITSE

Fitak (1911, 223-226. or.) eman zuen estreinakoz honen berri XX. gizaldiaren hasieran. Taracena eta Vázquez de Pargak (1946, 425. or.) diote (*Selatse*-rena bezala) mahasti batzuk landatzean Eugenia Vélazen (San José [sic] ermitaren aldameneko) sail batean kausitu zutela, baina Castilloren, Gómez-Pantojaren eta Mauleónen (1981, 48-49.) arabera, San Jurgi basilizaren ondoan topatu zuten, 1910-1911n. Egun Nafarroako Museoan dago, korridore batean.

López de Dicastillok (2017, 53-64. or.), Barbaringo historiaz paraturiko liburuan, besteak beste, hiru aren aurkikuntzen xehetasunak biltzen ditu, krokis eta guzti. San Jurgi ermitatik gertu (325 m-ra) den *El Barco* izeneko muinoan (Salado ibaiaren ondoan) ediren omen zituzten eta herriko erretoreak, Regino Arbizuk, gaztigatu omen zion Fitari.

Aldaretzarra (guztietan handiena) hareharrizkoa da. Neurriak: 163 cm x 70 cm x 50 cm. Inskripzioa, letra aski finarekin egina, hiru lerrokoa da. Teonimoa bigarre-naren amaieran eta hirugarrenaren lehen erdian dago (ikus 6.8.§). 'IT' segida <†> zeinuaren (lotunearen) bidez izkiriatua dago (SEMPRONI / VS BETVNVS SE / LA'IT'SE V S L M).

Velazak (1992, 369. or.) K.o. I. mendearen amaierakotzat-II.aren lehen erdikotzat dauzka hiru aleak eta Jimeno Aranguren (2003, 89. or.) ere *Stelaitse*-ren hau, segur

aski, K.o. I. gizaldikoa dela deritzo, *Itsacurrine*-rena legez. Ildo beretik, Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 122, 131. or.) K.o. I. jendemendekotzat jotzen dute eta *Selatse*-ren santutegi modukoa zegokeela suposatzen. Beren hitzetan (2013, 139. or.), *Sempronius Betunus*-ek izen indigena cognomenean gorde du. Gorrotxategik (2015a, 15-16. or.; *cf.* 2009, 76. or.) eremu indoeuroparrean dokumentatzen den (*Betunus*) onimoa daukan pertsona batek jainko baskoi bati promes egin izana azpimarratzen du.

Teonimoaren ortografiari buruzko xehetasunetan sartuz gero, Taracena eta Vázquez de Pargak (1946, 447. or.) *Selats(a)e* irakurtzen dute hiru erakuskarietan eta, ondorioz, nominatiboa **Selatsa* dela iradokitzen. Ugartecheak (1970, 94. or.) ere *Selats(a)e* leitzen du.

Castillok, Gómez-Pantojak eta Mauleónek (1981, 48. or.) uste dute, *-it-* lotunea dagokeenez gero, *Sempronius Betunus*-en aldarean, agian, *Selatise* ipin dezakeela (*Selatse* beharrean). Velazak (1992, 367-368. or.), ordea, autopsia egin ondoren, inskripzioak transkribatzeko arazoak dakuski. Aurrenekoan (*Sempronius*-ek eskainitakoan), batetik, iruditzen zaio lehenbiziko <E> hizkiaren gaineko marraren luzapen nabarmenak *-te-* lotunea dagoela adieraz dezakeela eta, bestetik pentsatzen du bigarren <T> letraren gainean badela <I> luze bat marraztuta, *-it-* (edo *-ti-*) lokarria delako seinale. Horrenbestez, Cas-tejongo ikertzaileak *Stelaitse* forma proposatzen du (ikus 6.8.§).



*Barbaringo aldarea (Selaitse).
Nafarroako Museoa (korridorea).*

Tobalinak (2009, 492. or.) diosku *-Losa*-ren kasuan bezala *Selaitse*-n (*cf.* *Selatse*) sumatzen den grafia aldaketak tokiko hizkuntzako soinuak latinezko alfabetoan emateko zailtasuna isla dezakeela.

Gorrotxategirentzat eta Ramírezentzat (2013, 135. or.), *Stelaitse* forma ez dago aski funtsatua. Hirugarren lerroko *-it-* lokarria argia da, baina bigarren errenkadako balizko <ste> urratu baten ondorioa dela oldozten dute. *Selatse* garbi jartzen duen beste ara bat dagoenez gero, *Sempronius Betunus*-en jarraian *Selaitse* leitu behar delakoan daude. Gehitzen dute, Izkueko *Itsacurrinne*-n agitu moduan, <its> soinu afrikatua emateko era edo irtenbidea izan daitekeela.

Hispania Epigraphica datu-basean (19153), azkenik, «Semproni/us Betunus Ste/laitse v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)» interpretazioa biltzen da.

SELATSE

Goikoa bezala, Fitak (1911, 223-226. or.) eman zuen jakitera estreinakoz XX. gizaldiaren hasieran. Egun Nafarroako Museoan dago ikusgai. Alboan duen xafan San Jurgi ermitan ediren zutela ipintzen du.

Aldarea hareharrizkoa da. Inskripzioa, letra dotorearekin egindakoa, ondo ulertzen da (I GERM/ANVS / SELATSE / V S L / M). Gai-neko aldean *pulvini*-ak ditu. Neurriak: 90 cm x 40 cm x 31,5 cm. Agintzaria bost lerrotan zatitua da eta teonimoa hirugarrenean dago (ikus 6.8.§). <T> hizkia txikiagoa da eta besteak baino gorago ezarrita dago (SELA^TSE). Eskaintza formula *v s l m* laburdura da.

Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 122. or.) aburuz, apika, K.o. I. gizaldikoa izan daiteke.


Castillok, Gómez-Pantojak eta Mauleónek (1981, 48. or.) ondorioztatzen dute antroponi-moaren hasierako <I> hizkia *Iulius*-en laburtza-pena datekeela, eta ez, ezinbestean, *Iunius*-ena. Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 139. or.) irudipena da *Iulius Germanus*-ek bere izen indigena cognomenean atxiki duela.

Velazari (1992, 367-368. or.), *Sempronius Betunus*-enean bezala, (*Iunius*-ek edo *Iulius*-ek eginarazitako honetan) aurreneko <E>-aren gainean <T> mehe baten aztarna dagoela begitantzen zaio, *-te-* lokarriaren zirriborroa, alegia. Bigarren <T> hizkia *ordinatio* delakoaren (idazketa marraren gainetik) grabatu zela iradokitzen du, testua zizelkatu ostean letra gehiagorentzat lekurik ez zegoelako-edo. Laburbilduz, Castejongo hizkuntzalariak *S(t)ela(i)tse* forma hobesten du (ikus 6.8.§).

Hispania Epigraphica datu basean ere (19154) «I(unius) Germ/anus / Stela(i)tse / v(otum) s(olvit) l(ibens) / m(erito)» irakurketa jasota dago.

S(ELA[I]TSE?)

Barbaringo hirugarren epigrafea, teonimo osoaren ordeaz S laburdura duena, Taracena eta Vázquez de Pargak (1946, 447. or.) karrikaratu zuten, baina lehendik



Barbaringo aldarea (Selatse).
Nafarroako Museoa.

(1911z geroztik) ezagutzen zen (ikus Castillo & Gómez-Pantoja & Mauleón, 1981, 49. or.). Egun Nafarroako Museoa dago erakusgai.

Hareharrizkoa da eta gaineko aldean frontoia, focusa eta pulviniak dauzka. Neuriak: 107 cm x 55 cm x 43 cm. Inskripzioa letra finez eginda dago; ez da bereziki dotorea, baina ondo irakurtzen da, cognomenaren lehenbiziko hizkia izan ezik. Hiru lerrotan partitua dago eta teonimoaren balizko laburdura (*S* zeinua) hirugarrenaren hasieran da (ikus 6.8.§), *v s l m* laburduraren aurretik.

Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 122. or.) arabera, menturaz, K.o. I. jendemendekoa izan daiteke.

Velazak (1992, 367-368. or.) boto egilearen izena *Asclepius Paternus* dela irizten du, Castillok, Gómez-Pantojak eta Mauleonek (1981, 50. or.) zein *Hispania Epigraphica* datu-baseak bezala. Hain justu, azken iturri horretan (19155) honako transkripzioa biltzen da: «Asclepius / Paternus / S(telaitse) v(otum) s(olvit) l(ibens) m(erito)».

Ciprésen (2006, 108. or.) esanetan, *Paternus* cognomenak ingurumari indigena erromatartuaren berri ematen du eta Lozanok (2010, 100. or.), bestetik, *Asclepius*

nomen grekoa dela azpimarratzen. Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 138. or.) ere agerian ipintzen dute *Asclepius* ez ohiko nomena dela (grekoa), baita erromatarren izendapen (egituraren) araua oker aplikatuta dagoela (bigarren tokian behar bailuke). Beren aierua da cognomena *Deckname*-a dela (antropónimo indigena bat estaltzen duen izena). Gorrotxategik (2015a, 15-16. or.) eremu indoeuroparrean lekukoturiko izena (*Paternus*) duen pertsona batek jainko baskoi bati promes egin izana nabarmentzen du.

Velazak (1992, 367-368. or.) uste du beste bi aretako jainko izen bera dugula esku artean, antzekotasunarengatik eta aldarea toki berean idoro zutelako. Era berean, Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 131. or.) argudiatzen dute eskaintza haren (*Sela[i]tse*-ren) santutegian egin bazen ez zela ezinbestekoa jainkoaren izen osoa jartzea, gurtzaren testuinguruak aski argitzen baitzukeen nori opatua zen.



Barbaringo aldarea (S[ela(i)tse?]).
Nafarroako Museoa.

Lot gakizkion orain jainko izenaren etorkiari buruz idatzitakoari. Mitxelenaren-tzat (1954, 422. or.) bitxia da Barbarinen edirendako bi epigrafetan <ts> grafia errepikatzea. Harridura markaz idazten du *Selatse*-ren datiboko hondarkia *-e* dela. Aurreraxeago (*ibid.*, 424. or.), beste oin-ohar batean, *-e*, hemen, *-ae*-ren aldaera grafikoa izan daitekeela izkiriartzen du. Ez du uste galierako *Ucuete*-rekin *-i* duen oin baten datiboarekin (akus. *Ucuetin*)—erkatzeak zentzu handirik duenik, azken horren akabaila Schuchardtek bakaturiko irudipenezko *-e* datibo «iberiarrarekin» lotzea ez baita zuzena. Laburbilduz, ematen du Mitxelenak ez duela guztiz bazterten nominatiboko forma **Selatsa* izatea. Esan dugu lehen, urte batzuk beranduago, Lergako hilarriaz plazaraturiko artikuluan (1961a, 68. or.), Errenteriakoak onartzen duela Miñaoko *Helasse*-k Barbaringo *Selatse* datiboa gogora dakarkiola.

Blázquezen (1962, 85. or.) hitzetan, oinarritako toponimo bat duen deizioa dateke, *Helasse* bezala. Elorzak (1972, 364-365. or.), bide beretik, «bertako izena eta gurtza» duen esanahi ezezaguneko teonimotzat dauka Barbaringoa eta «aleetako bat» Augustoren garaikoa dela gehitzen du.

Gorrotxategiren (1984a, 349. or.) idurikoz, tokiko jainko izen honek baditu teonimo akitaniar batzuetara hurbiltzen duten ezaugarriak. Horietako bat *-tse* amaiera da, *Erditse*-n eta *Herauscorritse-he*-n edireten dugun bera. *TS* grafia *-X(S)* baino urriagoa dena—garrantzitsua da beretzat, txistukaria afrikatua zela iradokitzen baitu. Aitortzen du gaitza dela oina txistukariz bukatzen den (*Selats-*) eta datibozko *-e* desinentzia erantsi zaion (akit. *-e* edo la *-[a]e?*) ala *Sela-* erroari *-tse* atzizki batura ezarri ote zaion jakitea. Tentagarria iruditzen zaio hau Miñaoko (Araba) *Helasse* jainkoarekin lotzea, hasieran (*S-* beharrea) aspirazioa egoteak elkarrekikotasun hori zaildu arren; halere, gainetiko guztian bat letozke. Aitzinago (*ibid.*, 373. or.), teonimoen arloko *-e* hondarki bereziaz (arkaikoaz) mintzo dela, *Selatse* aipatzen du gardenak ez diren adibideen artean (*Helasse*-rekin batera).

Beste lan batean, Larragako *Errensa*-z kestione, Eibarko euskalariak (2018a [1993], 79-80. or.) Nafarroako *Loxa*, *Losa* eta, beharbada, *Selatse*, teonimoak jartzen ditu etsenplutako, izen batzuetan akaberako txistukaria oinaren berezko zatia izan daitekeela arrazoitzeko (eta ez atzizkiarena).

Azkenik, antzinateko euskaraz argitaraturiko idazlan batean, Lergakoaz geroztik Nafarroan topatu diren akitaniar kutsuko izenez ihardukitzean, Gorrotxategik (2008, 369-378. or.) lagin gehienek euskal enborreko tasun formalak besterik ez dituztela nabarmentzen du (ez etimologia onargarriak), konparazio batera, azken morfemetako afrikatuak, eta berezigarri horren euskarritako *Selatse* erabiltzen du. Jainko izen gehienetan (Akitaniano askotan bezala) *-e* desinentzia dugula ere azpimarratzen du, beretzat, bertako hizkuntzaren (eta ez latinezko *-ae* datibo desinentziaren) adierazpidea izan behar duena.

Velazak (1992, 369. or.) garbi du ez dela latinetiko teonimoa, besteak beste, izena hizkuntza horretara moldatzeko ez ohikoak diren *-st-* eta *-ts-* multzoak baliatzen

direlako. Ildo horretan, *-it-* lokarriaren zirriborroa eta lekuz kanpoko <t> hizkia al-darearen egileak jatorrizko mintzairako fonema latinez emateko zuen zailtasunaren lekuko liriteke; latinez arrotza zen fonema hori euskal /t͡s/ zatekeen. Castejongoa-arentzat, inskripzioan (egiazki) *Zelaitze* edo antzeko zerbait ipiniko luke, euskarazko *Zelai* oroitarazten diona. Jainko izen *ctonikoa* litzateke agian, nekazaritzarekin loturikoa. *Loxa*-rekiko kidekotasuna ere ahotan hartzen du.

Lozanok (2010, 100. or.) bertako izaki zaintzaileen edo babesleen artean sailkatzen du *Selatsa* eta oroitarazten kasu honetan «toponimo = teonimo» esplikazioa ezin dela ontzat eman, hau da, jainkoaren izena gorazarre egiten zitzaion tokiarena izan daitekeelako hipotesia txarresten du.

Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 135, 138. or.), bukatzeko, *Selatse/Selaitse*-k euskal etimoa izan dezakeela deritzote, baita, alde horretatik, *zelai*-rekin (es ‘campo/prado’) lotua egon daitekeela ere. Akitanian *Areixo-*, *Artahe*, *Fagus*, *Abellio* eta *Sex Arbor* teonimoek azaleratzen duten zuhaitzen (haritzaren, artearen, pagoaren, sagar-rondoaren) gurtzaren funtzio «naturalistarekin» lotura izan dezakeelakoan daude.

2.9. Urde (Muzki, Nafarroa)



Muzkiko aldarea.

El Cerrado izeneko lekuan (*El Soto* eta *Pantxojoakin* artean) topatu omen zuten, nekazaritzan ari zirela, aldarea plazaratu zuen Javier Velazak (2012, 260. or.) biltzen duenez. Egun Gesalazko etxe batean gordetzen dute.

Arañoa kareharrizkoa da eta gaineko aldean focusa eta pulviniak dauzka. Letra baldar samarra da eta fededunaren izenaren bigarren eta hirugarren hizkiak hondatuak daude (ikus 6.9.§). Neurriak: 29 cm x 15,5 cm x 12 cm.

Teonimoa lau lerrotan zatitzen den idazkunaren lehenbiziko ilaran dago. Honatz Velazak (2018, 172. or.) proposatzen duen transkripzioa: «Urde / Pet(ronia?) Fl/avina / v(otum) s(olvit) l(íbens) m(erito)». Gorrotxategiren eta Ramírez-en (2013, 139. or.) arabera, *Petronia Flavina*-ren cognomena *Deckname*-a da, jatorri indigena zuelako seinale.

Velazak (2012, 261-262. or.) Muzkiko epigrafeko numena euskal *urde*-rekin estekatua dagoela dio eta animaliekin zerikusia luketen *Itsacurrine* eta *Lacubegi*-rekin alderatzen du. Baskoien erlijioak zuen izaera «naturalistaren» berri ematen duela sine-tsita dago, lurraren-nekazaritzaren eta animalia itxurako izakien laudorioan funtsatua zegoen sinemenarena, alegia. Gorrotxategi eta Ramírez (2013, 135. or.) pentsaera berekoak dira, uste baitute *Urde* teonimoak euskal etimoa izan dezakeela, hau da, *urde* (es 'cerdo') zoonimoa dukegula esku artean.



3. Sinestunak eta agintzak

Cualquiera que consulte atentamente una colección epigráfica de determinado territorio se da cuenta perfecta de la complejidad de la población residente en él en época romana.

J. Caro Baroja (1945, 212. or.).

3.1. Hizkuntza ingurumaria

Darabilgun ara sorta euskal eremuan edo haren mugan agertu da, esan nahi baita, gutxienez, Erdi Aroa arte (XII–XIII. mendeak arte) euskaraz hitz egiten zen lurraldean edo haren ondoan ediren dela (ikus Salaberri, 2018, 301, 308. or.). Gehiago behar dutenentzat bihoa beste argitasun hau: Jimeno Juríori esker (1997c, 174. or.) badakigu XVIII. gizaldian Uxuen –Eslaban eta Lergan bezala– euskara bizirik zegoela, baita Artaxoan (Larragaren ondoko herrian) XIX.aren hasieran galdu zela ere (*fr.* Caro Baroja, 1943, 13. or.). Pentsa daiteke lehenagoko denboretan horrela izango zela, gutxiago edo gehiago, euskal hizkuntzan mintzatzen zirela, are jakinik atzera egiteko joera nabarmena izan duela, IX–X. jendementetik hona bederen.


Euskararen (enbor bereko) aurreko hizkuntzaren Antzinaroko norainokoa jakiteko bi iturri nagusi huts daitezke teonimiaz landara: (epigrafiako) antroponimia eta toponimia. Azken azterbideak bi adar ditu: behialako geografo eta historialariek ahotan hartzen dituzten toki izenak eta, liburuetan azaldu ez arren, gaurdaino egin duten bidea ikusirik, erromatarren garaikotzat har daitezkeenak.

Antroponimiari begiratuz gero, lehenik eta behin, Lergan kausitu hilarri entzuetetsua dugu, *Ummesahar*, *Narlunges*- eta *Abisunhar*- euskal jende izenak inskribatuta dituena. Oroit bedi Uxue Lergatik zazpi bat kilometrora dagoela. Handik ez oso urruti, Tafallan, *Thurscando* esklaboa dokumentatzen da 90eko hamarkadan idorotako hilarri batean (HE, 7492), baina hau ez da beste hirurak bezain fidagarria. Velazak (1998b, 209. or.), egiantzeko pareko antroponimorik ez dagoela aitortu arren, euskal ondarekoa izan daitekeela deritzo eta *-ando* elementua *Andossus*, *Andere* eta *Andelos* onimoetan legokeen *(h)and(i)*-rekin alderatzen du.

Pertsona izenekin jarraituz, Andionen (*Larrahi*-ren aldarea topatu zen eremuan) «Calpur/niae Ur/chatetelli / L(ucius) Aemilius / Seranus / matri» (HE, 8801) epigrafea dugu, Andra Mariren ermitaren horma batean zehatz-mehatz. Gorrotxategik

(2018e, 271-272. or.) *Urchatetell-*, izen berezi iberiar gehienak bezala, bi elementuz osaturiko hitz elkartua dela jakitera ematen du, baita –etorki hori izanagatik– euskara zaharraren fonetikara egokitua dirudiela ere, trabari belarrak aspirazioa irabazi baitu eta hitz bukaerako isurkariak nolabaiteko tentsioa bereganatu.

Muezko elizako pareta batean (*Losa-/Loxa-*, *Larahi* eta *Larahe*-ren laginak kausitu diren barrutian, beraz), bada, hala berean, «[.] Aemilio Or/[d]unetsi veter(ano) / [le]g(ionis) II Aug(ustae) T(itus) / [V]alerius Pa/[ter]nus veter(anus) / [le]g(ionis) eiusd(em) / ex (...)» idazkuna duen hilarria (HE, 15332). Gorrotxategiren (2018e, 271-272. or.) iritzian, hau ere iberierazko hitz elkartua da (*ordun-* + *-nes*) eta euskal ahoskatze arauetara moldatua dago, kasu honetan, morfema bukaerako txistukaria afrikatu bihurtu delako.



Muezko elizaren horma batean dagoen hilarria.

Izkuen, iparralderago, *Itsacurrinne*-ri aldarea eskaini zion gizasemeak, esan dudanez, *Valerius Badan Abisunsonis* izena zuen eta filiazioaren (aitaren izenaren) berri ematen duen hirugarren osagaia, besteak beste, euskal jatorkikotzat jotzen diren Ler-

gako *Abisunhar-* eta Oiartzungo *Belteso-*rekin aldera daiteke (*Abisun-so*). Izan ere, Lergako onimoak euskal hizkuntzaren bereizgarria den <h> dauka, zeltiberieraz eta iberieraz eskuarki baliatzen ez den grafema (cfr. Mitxelena 1961a, 69-70. or.) eta Oiartzungo mostrak, berriz, Akitaniako onomastika indigenan ugaria den *-so* atzizkia du (ikus Zaldua, 2020, 30-35. or.), Erdi Arokoan ere ugaria dena.

Araban, *Lutbelscottio* eta *Luntbelsar* antroponimoak ditugu Durruma Donemiliagako bi estelatan. Hauek, batik bat, *bel(s)-* dutelako hartzen dira euskal jatorrikotzat (Gorrotxategi, 1995, 220-221. or. eta 2018e, 270. or.; Zaldua, 2020, 40-43. or.). Gogora bedi Durruma Miñaotik kilometro gutxira dagoela.


Are iparralderago, itsasotik gertu (Oiartzunen), aipatu berri dudan Andrearriagako estela dago, VAL(erius/a) BELTESONIS izena grabatuta duena. Esan moduan, bigarren osagaia euskal ondarekotzat sailkatua dago (ikus Zaldua, 2020, 45-46. or.).

Atharratze-Sorolüzeko *Herauscorritsehe*-k ez du erromatar garaiko euskal aztarrenik gertuan; Euskal Herria utzi eta Paueko uhaitzaz haraindi (70 kilometrora) jo beharra dago bat topatzeko, euskal izenak dituzten erromatar garaiko epigrafe ugari dauden Akitaniako esparruraino.

Epigrafiako hizkuntza adierazleekin bukatzeko, Hispanian, Zaragozan idorotako hiru aleez aparte, hots, Vaspalmasko *Serhuhoris* (gen.), Sofuentesko *Naru[ns?]/eni* (dat., emak.) eta *Dusanharis* (gen.) antroponimoez gainera (Gorrotxategi, 2008, 270. or.), Soriako Tierras Altasko testigantzak nabarmendu behar dira (*Ar[---]thar*, *Belscon*, *Laurce*, *Onso*, *Onse*, *Sesenco*...). Ikus 5.2.§.

Antzinaroko toponimiari bagagozkio, Nafarroan kokapen ezezaguneko (*Iturissa* (edo *Iturista*; ikus 4.4.§) leku izena daukagu eta Gipuzkoan (itsasoaren ondoan) *Oiarso* (Irun). Azken hori, Estrabon, Plinio eta Ptolomeok ahotan hartzen dute (Zaldua, 2020, 58. or.) eta gaurdaino iraun du (Oiartzun). Gogoan izan bedi, halere, erromatar garaiko geografo eta historialarien ekarpenak *cum mica salis* erabili behar direla.

Liburuetan irakurtzen ez den baina egundaino (edo Erdi Aroraino) iraun duen toponimia zaharrari erreparatzea da behinolako euskal mintzairaren arrastoari jarraitzeko beste modua (ikus Zaldua, 2020, 65-68. or.). Leku izenek hizkuntzaren aztarnari segitzeko duten erabilgarritasuna argudiatzeko, zilegi bekit Patxi Salaberri Zaratiegiren eta Iker Salaberri Izkoren ikerlanetako bat hona ekartzea, maileguan sorburu duten toki izenek eta, bereziki antrotoponimoek duketen emankortasuna egiaztatzen baitute bi irakasle nafarrek; akaberan *-o(t)z*, *-oi(t)z* eta *-i(t)z* duten Nafarroako (eta bestetako) herri izenak (pertsona izenetan sorburu dutenak) jorrotzen dituen 2020ko artikulua ari naiz. Preseski, lan horretan, solasgai ditugun zenbait teonimo ediren diren esparruko hainbat ale bahetzen dira bokalez amaituriko oina daukaten latin munduko pertsona izenei hirugarren deklinabideko *-n-* + *-is* (edutezko genitibo) erantsiz sorturiko antrotoponimoen artean.



▲ teponimoa. ■ antroponimoa. * toponimoa.

1: Oiarso. 2: Belteso-. 3: Luntbelsar. 4: Lutbelscottio. 5: Abisunso-. 6: Ummesahar.
7: Narhunges-. 8: Abinsuhar-.

3. mapa: Antzinaroko euskal ondareko onomastika.

Bukaerako txistukariaren aitzinean *-o-* duten herri izenen arloan, *Allotz* (← *Allius*, Deierri; Salaberri & Salaberri 2020, 19. or.) nahiz *Arzotz* (← *Artius*, Gesalatz; *ibid.*, 21. or.) eta lepokariaren aldamenean *-i-* dutenen sailean, berriz, *Anitz* (← *Ani* [← *Anni*], herri hustua, Mañeruibar; *ibid.*, 27. or.), *Argiñaritz* (← *Argiñano* [← **Arginnius*], Mañeruibar; *ibid.*) eta *Jaitz* mostrak (← *Ianius*, Gesalatz; *ibid.*, 28. or.) azpimarra daitezke. Lanaren amaieran pasarte esanguratsu hau idazten dute bi hizkuntzalari nafarrek (*ibid.*, 33. or.; *gfr.* Salaberri, 2017, 243. or.):

Herri izen anitzen oinarrian den antroponimoa latinaren mundutik, erromatar kulturatik datorkigu. Honek erran nahi du izen horien eramaileak erromatarrek zirela, edota denbora hartako erromatar kulturaren ohikoak ziren ponte izenak ibiltzen zituzten euskaldunak. Badira, hala ere, Pirinioetako antroponimia zaharrarekin esteka egiten duten zenbait pertsona izen, eta ugariak dira, bestalde, Erdi Aroan sortutako toponimoak, sustraian latin munduko edo beste etorki batzuetako antroponimoak dituztenak. Zernahi gisaz, garbi utzi behar da jatorrizko izendapenak ardura latinetik heldu bazaizkigu ere, toponimoen bilakaera euskararen barnekoa izan dela. Hau axola handiko gaia da, erromatarren denboran euskaldunak hemen bizi ginela frogatzen duelako.

Lehen begiratuan ez dago, honenbestez, oztopo gaindiezinik ikerkizun dugun aldare sortaren eskaintzaileek (eta harginek) euskal hizkuntza zerabilteela uste izateko, ezta grabatuta dauden jainko izenak sustrai berekoak diratekeela pentsatzeko ere. Kontua da euskal osagaiko izena daukan boto egile bakarra dagoela. Baina begira diezaiozun astiroago auzi horri.

3.2. Onomastika testuingurua

Antroponimoek, mintzairaren arloko informazioaz gainera, izendatzen zituzten gizakien izaeraren, haien arteko loturen zein harremanen eta bizi ziren gizartearen nolakotasunaren berri ematen digute. Adibidea jartzearen, esan zabaldua da, oro har, hiru osagaiko izenak zeuzkaten gizon-emakumeak erromatar hiritarrak, bikoak zituztenak erromesak eta izen bakarra zutenak, berriz, esklaboak zirela.

Gauzak, nolana ere, ez dira beti batekoak, nabarrak baizik. Konparaziora, *tria nomina* egitura, komunzki, erromatar hiritartasunaren ezaugarritzat hartzen den arren, Castilok (1992, 126. or.) gogorarazten digun bezala, gizarte maila gorenaren tasun ziuerra tribu batekiko atxikipena da, eta ez hiru zatiko izena. Ciprés (2006, 121. or.) ustekizun berekoa da, leinua zehazten ez duen *tria nomina* daukatenean lege arloko egoera zedarritzea arazotsua iruditzen baitzaio; halere, onartzen du –latinezko onomastikan ondo ezagutzen den prozesu batean– tribuaren adierazpidea alde batera utzitako erromatar hiritartzat har daitezkeela. Beste etsenplu bat ipintzeko, oroit bedi Gorrotxategirentzat eta Ramírezentzat (2013, 139. or.), darabilgun sortako bi erromesak (*Tarsilla*-k eta *Felix*-ek) elementu bakarreko izena dutela.

Antroponimoen nolakotasunari erreparatuz gero, zenbait aldiz, jendeen kultura izaera ere hauteman daiteke (hein batean), baina hura ez dago ezinbestean haien lege estatusak baldintzatua, esan nahi dut izenaren eta gizartearen (edo gizatalde batean pertsona batek duen lekuaren) artean loturak badiren arren, deizio mota jakin baten eta hura duen pertsonaren egoera zibilaren eta nortasunaren arteko erlazioa ezin dela beti automatikoki ezarri. Hain zuzen, puntu horri buruz Ciprés (2006, 108, 112. or.) dio *onomastika indigena* = *sistema erromesa* eta *onomastika latino* = *erromatar* [hitar] *sistema* baliokidetasunak zehaztu eta ñabartu beharra daudela.

Gorrotxategi eta Ramírezen (2013, 142. or.) agerian ipintzen dute Hispaniako herriek, ia modu orokorrean, latinezko onomastika bereganatu zutela, baita kasu askotan antroponimoetan beren (bertako) ezaugarriak atxiki zituztela ere. Akitaniarren «indigenismoa» are nabarmenagoa da, haien artean heren batek bakarrik hartu zuelako erromatar izena; bi autore horiei, neurri batean, ulergarria iruditzen zaie hala izatea. Orobat, berezko erlijioaren errainua eta erromatarren harekiko tolerantzia antzematen dituzte baskoien lurraldean, herritar erromatar edo erromanizatu batzuek beren agintzak jainko indigenei egiten baitizkiete; Jupiterri eta *Lacubegi*-ri aldi berean

ara bana opa zizkieten Uxueko *Coelii Telesphoros*, *Festa* eta *Telesinus* libertoetz eta Atharratzeko *Gaius Valerius Valerianus*-i buruz ari dira.

Xehetasunetan sartuz gero, bi ikertzaile horiek (Gorrotxategi & Ramírez, 2013, 134, 141. or.) argitzen dute, esate baterako, Akitanian *Erge*-ren sinestunek bertako tradizioan errotutako pertsona izenak dauzkatela eta, aitzitik, *Marte* gurtzen dutenen artean izen latinoko (edo zeltako) jendeak baizik ez daudela (ikus Gorrotxategi, 2018d [2010], 333-334. or.). Beraz, ematen du kultura eta onomastika indigena zuten biztanleak tokiko izenak zeuzkaten jainkoei leialak zitzaizkiela, nolabait esan. Haatik, kasu batzuetan, giza maila garaiko norbanakoek (senatari klasekoek) lekuko izaki gorenei aldareak egin zizkieten, Atharratzen *Herauscorritsche*-ri kasu. Badirudi, Akitanian ez bezala, Hegoaldeko epigrafian ez direla bi taldeak nahasten, pertsonen izenak indoeuroparrak liratekeelako eta jainkoenak baskoiak, eta ez alderantziz (Gorrotxategi 2015a, 15-16. or.); ikus 3.3.§. Gorrotxategiren eta Ramírezen (2013, 142. or.) aburuz, bertako herritarrak dira baskoien lurraldean tokian tokiko sinesmenei eutsi zietenak.

Euskal Herriko biztanleak erromatar sistema onomastikoa erabiltzen hasi zirenean, batzuetan, lehengo izendapen ohituren zenbait ezaugarri barneratu zituzten, bestela esanda, erromatar antroponimoetan tokiko tasun batzuk gorde dira. Aurreko ereduaren eragina askotariko xehetasunetan antzeman daiteke. Esate baterako, Ciprésék (2006, 123. or.) diosku, gizarte ikuspegitik begiratura, *izen bakarra* + *filiazioa* erako izena duten erromesen zenbatekoa dela Arabako sortaldeko barrutiko onomastikaren bereizgarri esanguratsua, batez ere inguruko gainerako lurraldeetakoekin alderatzen bada, bai Arabako probintziakoekin, bai erresuma zaharreko sartaldeko eremukoekin. Eraketa hori duten antroponimoak K.o. I. eta II. mendeetan koka daitezkeela zehazten du. Horrela bada, *izen bakarra* + *filiazioa* segida lekuko onomastikaren adierazletzat har daiteke (*gr.* Ciprés, 2006, 86. or.).

Osagai bakarreko izenak direla eta, Castillok (1977, 135. or.) jakitera ematen du Nafarroako epigrafe berantiar batzuetan jada antzematen dela elementu bakoitzeko izendapenerako joera. Ildo beretik, Hegoaldeko hiru probintzietako erromatar garaiko onomastikaz ihardukitzean, Ciprésék (2006, 85. or.) idazkunean praenomena, filiazioa, tribua eta, ondoren, gentilizioa pixkanaka desagertzeko joera nabaritzen dela azpimarratzen du, garai berandukoan osagai bakarreko izena gailendu arte.

Praenomenaren galera (inskripzioetan ez jartzea) I. mendearen amaieran-II.aren erdialdean hasten da dokumentatzen, nahiz eta III. gizaldiaren erdialdera arte ez orokortu, cognomenak izen bakoitz gisa duen zeregina gero eta garrantzitsuagoa bihurtzearekin batera. Ciprésen (2006, 99, 127. or.) arabera, gaurko Euskal Autonomia Erkidegoan desagertzea ez bide zen II. jendemendearen erdia baino lehen hasi. Praenomena ezabatzearekin batera, cognomen edo nomen batetik sortutako izen

bakarrerako urratsa edo aldaketa sumatzen du eta Morgako Meakaur auzoko hilarria adibidetako jartzen («[Se]verinia co/[ni]ugi suo Salv/[ia]nio Certimio»; HE, 31960).

Lege ikuspuntutik, komeni da izen bakoitza dutenen talde onomastikoan gizon-emakume askeak mendekoetatik bereiztea, erromesen artean, ikusi dugunez, inskripzio berantiarretan osagai bakarreko izena nagusitzen delako. Ciprésék (2006, 93. or.) esaten du filiaziorik gabeko izen bakarra II. mendetik aurrera dokumentatzen dela botozko nahiz ehorzketa inskripzioetan eta ohikoagoa dela data berriagoa iradokitzen duten ezaugarriak dituzten epigrafeetan. Irakasle bartzelonarraren (2006, 127. or.) ustetan, onomastikak osagai bakoitzeko beranduko antroponimoak dauzkaten gizakiak erromesak direla ulertarazi arren, filiazioaren zehaztapenik ez dagoenez gero, horietako bat baino gehiago jopuak izan daitezke.

Euskal jatorriko deizioak ez dituzten jainkoei promes egiten dieten pertsonen artean ere badira osagai bakarreko izena dutenak, hurrenez hurren, Lukinen Merkuriori eta Eslaban Jupiterri aldareak eskaini zizkieten *Sevius* eta *Restitutus* zein *Flavus* konparazio batera.

Gauza jakina da erromatarren garaiko gizartean bazirela aske ez ziren edota zerbitzari jatorria zuten gizabanakoak, hau da, esklaboak eta libertoak. Pertsona horien izenek bazituzten zenbait ezaugarri berezi (zatienez zenbatekoa, haien jatorria). Hain zuzen, jopuek elementu bakarreko antroponimoa izaten dute arruntean eta libertoen kasuan asko aldiz nomena jabearen izena izaten da eta cognomena esklabo garaiko onimoa.

Castillok (1977, 133. or.) cognomina grekoek, seguruenera, sinestuna jatorriz jopua zela azaleratzen dutela deritzo. Bide beretik, Ciprésék (2006, 93, 115. or.) idazten du, greziar antroponimoa duten gizaki guztiak aldi oro zerbitzari jatorrikoak izan ez arren, aukera hori ezin dela baztertu. Nolanahi ere, zuten statusari buruzko aipamen berriazkorik ez badago (*servus, libertus...*), ikertzaile bartzelonarrari (2006, 108, 121, 124. or.) arazotsua iruditzen zaio esklaboak, libertoak eta euren ondorengoak bakartzea, ez dagoelako haiek desberdintzea ahalbidetzen duen sistema onomastiko berezkorik edo apartekorik. Halarik ere, onartzen du greziar cognomina izatea ez dagoela komunitate helenizatu bat egotearekin lotuta, baizik eta zerbitzari jatorria duen talde batekin. Hegoaldeko hiru probintzietako epigrafian greziar onomastika urria dela zehazten du, baita antroponimia indigenaren eragina zerbitzari diren gizabanakoengana hedatzen dela ere. Epigrafian jopuen aztarnak gutxi badira, libertoenak are urriagoak direla ondorioztatzen du. Uste du Miñaoko *Aelia Hellice* libertoa edo liberto ondorengoa datekeela. Gogora bedi solasgai dugun sortan badela liberto izaeraren testigantza bat, Larragako *Errensa*-ren aldarean zehazkiro («L(íberta) Iu/l(ia) Crista»).

Lozanok (2010, 100, 104. or.) antroponimo greziarrak gizarte erromatarraren egituraren parte direla pentsatzen du eta horregatik dokumentatzen direla haren eragina edo itzala dagoen tokietan. Greziar jatorriko izenak dauzkaten pertsonen kariaz,

irakasle logroñoarrak seinatzen du, oro har, hiritartasun erromatarrik gabeko jendearen aitzinean gaudekeela, salbuespenak salbuespen, biztanle ez askeen geruzetan errotuta zeudekeenak, nahiz eta denboraren buruan haien ondorengoek, askatasuna ez ezik, ongizate ekonomikoa ere erdietsi.

Azkenik, Blázquezek (1991, 184, 187. or.) diosku antroponimo greziarrak dituzten Sortaldeko erlijioen jarraikileen artean esklabo asko dagoela eta, adibidez, Mitra jainkoaren fededunen multzoan badirela deizio greziarra daukaten bat baino gehiago. Antza denez, izen grekoak naroak lirakeke *Magna Mater* edo Cibelesen gurtzaz arduratzen ziren «apaizen» artean ere. Horrek guztiak jopuek sinesmen misterikoetan zuten garrantzia frogatuko luke; haiek izan bide zituzten apaiz-kargu gorenak. Ildo berean, Tobalinak (2009, 496. or.) agerian jartzen du *Magna Mater* adoratzen dutenak sarritan zerbitzari jatorrikoak direla, San Martin Unxen botozko ara egiten dion *Neria Helpis* kasu. Gogora bedi emakume horrek berak *Invicto Soli*-ri beste aldarre bat eskuko jarri ziola herri hartan bertan.

3.3. Aldareen eskaintzaileak

Hamazortzi boto egile daude ikergai dugun ara multzoan, Anizko eta Errezuko laginak alde batera utziz gero. Askotariko antroponimoak dituzte. Emakumezkoak sei dira eta *tria nomina* bakarra dago, Atharratzeko *G(aius) Val(erius) Valerianus*.

Larragako *Errensa*-ren aldea egitea erabaki zuen jarraikilearen izenaren (*Domitia Materna*-ren) osagaiak ezagunak dira Euskal Herrian, Gastiainen (Lanan) *Domitia Semproniana Materni f(ilia)* (HE, 19174) eta Urbina Basaben *Domitia Prima (Aemilius Paternus*-en emaztea; HE, 8755; *cf.* Albertos 1970, 145, 154. or.) lekukotuta baitaude. Ezin ahantzi Araban, Gaubean, *Villamaderne* herria dagoela (← *villa Materni*, 1075; ikus Salaberri, 2015, 384-385. or.). Orobat, Araban bertan (Lantziegon) bada *Pompei[a] Materna*-ren aztarna (HE, 8757; Ciprés, 2006, 98. or.), baita *Sempronius Maternus* pareko maskulinoarena ere (Iruña Oka; HE, 6454; Albertos, 1970, 154, 155. or.). Haatik, gurean ez dago promesa bete zuen *Iulia Crista*-ren zatiren baten seguru antzeko agerraldi gehiago. Onimoaren aurreneko parte Iberiar penintsulan dokumentatua dago, Beloradoko (desagerturiko hilarri bateko) *Iulia Viganica Lasc[i]ni f.* epigrafeak erakutsi legez (HE, 31266) eta, berebat, oroit bedi Barbarinen *I(ulius, unius?) Germanus*-ek egiten diola gorazarre *Selatse*-ri. Hispanian *Crista*-ren (*Chresta*-ren) arrastorik ez dago, baina bai Milanen, *Valeriae Chrestae (coniugi)* genitiboak lekukotzen delako Lombardiako hirian (EDH, HD023317). Greziar jatorriko *Crista* dela eta, ez bedi ahantz libertoen izendapenetan asko aldiz nomena jabearena izaten dela eta cognomena esklabo garaiko izen bakoitza. Goian esan moduan, *Iulia Crista* libertoa zen, hala zehazten baita idazkunean bertan (izenaren aldamenen irakur daitekeen) <L> laburduraren bidez.

Miñaoko *Helasse*-ren inskripzioari begiraturaz gero, *Aelia/-us* ez da ezohiko antroponimoa hemen. Hala, Lemoan *Aelia* izen bakarra leitzen da, menturaz *contubernal* delako bati (emazte jopu bati) zegokiona (Ciprés, 2006, 94, 127. or.; *cf.* Iruñeko aldare-hilari bateko [A]elio Att[i]ano datiboa; HE, 28409). Iberiako beste adibide batzuk ekartzearen, Valladoliden bada «Aeliae / Aminnae / T(iti) Aeli f(iliae) / Saellia / Elani / mater» ipintzen duen testua (HE, 8551), Astorgan *P(ublius) Ael(ius)* birritan aipatzen da (HE 14375 eta 20220) eta San Roque-ko (Cadizko) epigrafe batean *Aelia Domitia Tertullina* eta *C(aius) Iulius Aelius Theseus* irakur daitezke (HE, 582). *Helice* cognomenaren etsenplurik ez da Penintsulan, bai, ordea, Mediterraneo aldean, Erromako *Tutilla Helice*, adibidez (EDH, HD029445).

Izkueko *Itsacurine*-ren aldareko antroponimoak solasgai dugun taldean behin bakarrik ageri den *duo nomina + filiazioa* egitura du. Nomina laburtua dagoenez gero, zoritxarrez, ezin da igarri fededuna emakumea ala gizona zen. Jakina denez, *Valerius/-a* naroa da azterkizun dugun eremuan. Haatik, *Badan* cognomenaren lagin gehiago ez dago beste inon (*cf.* Vallejo, 2016, 287-288. or.). Euskal sustraiko *Abisunso-* patronimoa, azkenik, gorago esan bezala (3.1.§), Lergako *Abisunhar-* eta Oiartzungo *Belteso-*rekin aldera daiteke, *Abis-* oinarriaren eta *-so* atzizkiaren aldetik, hurrenez hurren.

Uxueko *Lacubegi*-ren gurtzaileez denaz bezainbatean, Aguilar Kodesen (*Sempronius?*) *C[oe]llio* (dat.) antroponimoa bilduta dago (HE, 16029). Orobat, Bartzelonan bada *Coeliae L(uci) f(iliae)* (dat.) jende izena duen inskripzioa (HE 10203). Penintsulan ez da, horratik, *Tesphoros*-en mostra gehiago. Hori bai, badaude *Telesphoros*-en hiru testigantza (Tarragona, HE, 9794; Bartzelona, HE, 10237; Alcuéscar [Cáceres], HE, 23136). Hari beretik, *P(ublio) Aelio Antesphoro* jasota dago Erroman (EDH, HD007484). Hirugarrenik, badira *Festa/-us*-en aztarrenak Hispanian, Tarragonako hilari bateko (HE, 19694) *Fabia Festa* eta *F(abius) Festus* konparaziorako. Bukatzeko, diodan *Telesinus* ez dela Iberian gehiagotan agertzen; bai, ordea, Italian: *L(ucius) Licinius Telesinus* (Benevento; EDH, HD022588).

Muruzabal Andiongo *Larrahi*-ri ara opatu zion gizasemearen cognomina ez da arrotza inguru hartan, herrian bertan, ikusi dugunez, *Lucretius Martialis Lucreti f(ilius)* antroponimoa dagoelako bi zinegotzik Apolo Augustori izkiriatu eskaintzan (*cf.* Castillo 1977, 139. or.; HE, 14913) eta Ziraukiko *Losa*-ren jarraitzaileak *T[e]rent[i]us Martialis* izena zuelako (Gómez-Pantoja 1979, 10-13. or.; HE, 6724). Tafallako inskripzioan deizio hori bera leitu daiteke: «] / hic s(itus?) est[- - -] / Mart(ialis) et Au[- - -] / et Avitus fil(ii) / et Thurscando / ser(vus) d(e) s(uo) f(aciendum) curar(unt)» (HE, 7492).

Iruxoko *Larahe*-ri agintza egin zion *Felix*-i erreparatzean gogoan izan behar da –asko aldiz osagai bakarreko izena esklaboen eta libertoen deizioen bereizgarria izanagatik– antzinatearen amaieran elementu bakoitzeko onimoen erabilpena indartu egin zela jatorriz jopuak ez zirenen artean (ikus Castillo, 1977, 135. or.). Guztiarekin,

Felix cognomena (sarri askotan izen bakartzat baliatzen dena) arrunta da libertoen (eta jopuen) artean Iberiar penintsulan (ikus, adibidez, Salas *et al.* 1997, 53, 55, 58. or. *et passim*; Camacho, 1997, 63, 66, 70. or. *et passim*). Santakaran *Porcius Felixs K(a)re(n)sis* jasota dago (HE, 8796); libertoa zen ala ez ezin (ziur) jakin, ordea.

Losa-ren fededunei dagozkienetan, Lerateko *Aemilia Paterna*-n dugun nomen bera ageri da Asako (Lantziegoko) inskripzio batean: *Aemilia Titulla* (HE, 8757; *cf.* Albertos 1970, 155. or.). Ez bedi ahantz, bestalde, Barbaringo *Sela(i)tse*-ren jauresleetako batek *Asclepius Paternus* izena duela, antza.

Ziraukiko *T[e]rent[i]us Martialis*-ez kestione, diodan badela *Egnatius Ter(enti) f. Vitalis* testigantza Iruña Okan (Albertos 1970, 154. or.; HE, 8766) eta, halaber, Muruzabal Andionen *Larrahi*-ri botoa egin zion gizasemeak, ikusi dugunez, *Manilius Martialis* izena zuela. Herri hartan bertan *Lucretius Martialis Lucreti f(i)lius*) antroponimoa dokumentatua dago.

Burumendiko laginaz esan daitekeen gauza bakarra da Iberiar penintsulan ez dela *Tarsilus* edo *Tarsilla*-ren agerraldi gehiago. Italian, Concordia Sagittarian, *Tarsilla* jainko izena bilduta dago (EDH, HD006203); horrek esan nahi du Nafarroako kasuan, apika, izen teoforiko batez ari gaitezkeela.

Azkenik, Argiñarizko jarraikilearen deizioa dela eta, gogora dezagun (oraindik orain aipatu dugun bezala) Muruzabal Andionen badela *Lucretius Martialis Lucreti f(i)lius*-en lagina. *Proculus* cognomena ere ezaguna da Hispanian, Olivenzako (Badajozko) hilarri bateko *C(aius) Antestius Proculus*-ek (*tria nomina*-k) (HE, 848) frogatzen duen gisan.

Begira diezaiegun orain Barbaringo aldareei. Hasteko, *Sempronius Betunus*-en kariatara, argi dezadan *Sempronius* nomena ugaria dela Ebro ibaiaren haranaren iparraldean eta Ciprésentzat (2006, 106. or.) zabalkunde hori *T. Sempronio Graco*-ren jardun militarrekin (arrakastarekin) lotua dagokeela. Gurera itzuliz, *Sempronius* da Araban zabal-kunde gehien duen antroponimo erromatarra (Albertos, 1970, 149. or.); bi adibide ekartzeagatik, Iruña Okan *Sempronius Maternus* (Albertos, 1970, 154, 155. or.; HE, 6454); dugu eta Dulantzin *Sempronius Severus* (Gorrotxategi & Ramírez, 2013, 122. or.; HE, 8773). Nafarroan ere joria da; Muruzabal Andionen, adibidez, *Sempronius Carus Salvini f.* dokumentatua dago (Castillo 1977, 129. or.; HE, 14913) eta Santakaran *Sempronius Nepos* (Castillo, 1992, 132. or.; HE, 8797). Oibarren (HE, 19151) badago *L(ucius) Sempronius Geminus* Jupiterren adoratzailaren aztarna (eta ondoko herrian, Galipentzun, *Zenborotz* toponimoa, ← **(uilla) Sempronionis*; ikus Salaberri & Salaberri, 2020, 26. or.). Cognomenaren testigantzei begi edukiz gero, Peñalba de Castroko (Burgosko) hilarri batean (HE, 8614) *Coemea Betunia* antroponimoa grabatua dago eta *Arco Betuni* (gen.) Villalazángo (Zamorako) beste batean (HE, 6644).

Hel diezaiegun «*I Germanus*»-i. Lehenik eta behin, Gastiainen (Lanan) *Iunius Carus (Iuni Cari f(i)lius)*; HE 15324) eta *M(arcus) Iunius Paternus Cantabri filius*-en (HE

8805) mostrak badaude. Bigarrenik, Euskal Herrian ez, baina Iberiar penintsulan badira *Germanus*-en laginak; behin baino gehiagotan esklabo izena da, Saniponceko (Sevillako) *Germanus ser(vus)* (HE, 5271) eta Minas de Riotintoko (Huelvako) *Germanus Marini ser(vus)*-ek (HE, 561) egiaztatu legez.

Asclepius Paternus-en aldetik denaz bezainbatean, *Asclepius* jainko grekoa denez gero, Barbaringo nomena izen teoforikoa dateke. Iberiar penintsulako toki gehiagotan leitzen da (*Asclepio deo*, [dat.]; Valentzia, HE, 480). Antroponimo gisa ere lekukotua dago, Meridan adibidez, *Asclepius Oli[s(iponensis)]* libertoaren hilarrian hain zuzen (HE, 25670; *cf.* Daziako [Errumaniako] «Asclepie / Chronae» [dat.] eta «Asclepius / Asclepia/des» [nom.], EDH HD046654). Hori horrela izanik, ez da ezinezkoa Nafarroako boto egilea libertoa edo jopu baten oinordea izatea. Cognomenaz kestione, gogora dezagun Urbina Basaben *Aemilius Paternus*-en aztarrena dagoela (Albertos 1970, 145, 154. or.; HE, 8755) eta Nafarroan, Iruñetik hurbil, *Paternain* herria.

Muzkiko *Urde*-ren aldareko *Petronia*, azkenik, naroa izan ez arren, ezaguna da Iberiar penintsulan, Aguilar de la Fronterako (Kordobako) inskripzio batean *Petronia L(uci)* libertoaren urratsa baita (HE, 2541). *Flavina* cognomenaz, Poza de la Salen (Burgosen) *Pompeiae Fla/vinae Flavi / fil(iae)* antroponimoaren adibidea dagoela esatea besterik ez.

Azpiko koadrotik ondoriozta daitekeenez, espero zitekeen bezala, (*praenomina*) + *nomena* + *cognomina* + (*filiazioa*) moldea gailentzen da esku artean dugun aldare sortan ageri diren jende izenen artean, *praenomina* + *nomena* + *filiazioa* + *tribua* + *cognomina* eredu kanonikoaren orde. Euskal sustraiko osagaia(k) bide d(it)uen antroponimo bakoitza Izkueko *Val(eri-) Badan(?) Abisunsonis* da, hain zuzen, *duo nomina* + *filiazioa* egitura duen bakarra. Guztiarekin, *duo nomina* eraketa da naroen ikergaitako darabilgun multzoan (*cf.* Gorrotxategi & Ramírez, 2013, 138. or.), gizaki askeei zegokiena, libertoak barne. Ñabarduretan sartuz gero, sei kasutan jopu jatorriko pertsona izenak dituzkegu; behin baino gehiagotan, greziar sustraiko elementuak dituzte: Larragako *L(ucretia) Crista*, Miñaoko *Ael(l)ia Hellice*, Uxueko *Coelius Tesphoros*, *Coelia Festa* nahiz *Coelius Telesinus* eta Barbaringo *Asclepius Paternus*-ez ari naiz (ikus 1. koadroa).

Jainkoa	Prae.	Nomena	Cognomina	Filiazioa
Herauscorritsehe	Gaius	Val(erius)	Valerianus	
Itsacurrinne		Val(eri-)	Badan(?)	Abisunsonis (eu)
Errensa-		D(omitia)	Materna	
		Iu(lia)?	Crista (i.gr.)	
Helasse		Ae[-]lia	Hel[]ice (i.gr.)	


Jainkoa	Prae.	Nomena	Cognomena	Filiazioa
Lacubegi		Coelius	Tesphoros (i.gr.)	
		Coelia	Festa	
		Coelius	Telesinus (i.gr.)	
Larrahi		Manilius	Martialis	
Losa-		Aemilia	Paterna	
[L]losa-?		T[e]rent[i]us	Martialis	
Loxa-		Lucretius	Proculus	
Selaitse		Sempronius	Betunus	
Selatse		I(ulius?, unius?)	Germanus	
S(ela[i]tse?)		Asclepius (i.gr., i.t.?)	Paternus	
Urde		Pet(ronia?)	Flavina	
Losa-		?	?	
Larahi		?	?	
Larahe			Felix	
Losa-			Tarsilla (i.t.?)	

Prae.: praenomena; **I.gr.:** izen grekoa; **Eu.:** euskal sustraikoa; **I.t.:** izen teoforikoa.

1. koadroa: Aldareen eskaintzaileen izenak.

Elementu bakoitzeko antroponimoen alorrean, batetik, Iruxon *Felix* dugu, erro-mesa zein esklaboa zatekeena. Lerateko *Tarsilla* da zati bakarreko beste erro-mesa izena; berankortzat jotzen da, erromatar moldean aldatu (higatu) eta osagai bakarreko izena gailendu zen aldikotzat, hain justu. Filiazioaren espresioa ere izan daiteke.

Sela(i)tse-ren jarraitzailea zen Barbaringo *Sempronius Betunus*-ek, ninfei promes egin zien herri bereko *S(empronia) Flava*-k eta Muruzabal Andionen Apolo gurtzen zuen *Sempronius Carus*-ek erakusten digute nomen bera duten gizon-emaztekiek bi sailtako jainkoei aldareak egin diezazkieketela; zentzu horretan, ezin da erabat baztertu hirurak *gens* edo familia-talde berekoak izatea (*gr.* Castillo 1977, 135. or.; 1992, 126. or.), are ingurukoak direla jakinda, baina, nolahi dela, kontuan izan behar da *Sempronius* izen narea dela Nafarroan (eta Araban); Untzitibarko *Zenborain* herri izena ere hortik atera da (ikus Salaberri & Salaberri, 2020, 26. or.). Daitekeena da antzeko zerbait gertatzea Argiñarizko *Lucretius Proculus (Loxa)* eta Muruzabal Andiongo *Lucretius Martialis Lucreti filius*-ekin (Apolo). Badira errepikatzen diren cognomenak ere, Barbaringo *Paternus (S(ela(i)tse?)*) eta Lerateko *Paterna (Losa)* edota Muruzabal Andionen (*Larrahi*) eta Ziraukin (*[L]losa?*) dokumentatzen den *Martialis* kasurako.



4. mapa: Sinestunen izenen mapa.

Fededunen artean (latinetikoa ez den) osagai indoeuroparreko izena daukan gizaseme bakarra dago: Barbarinen edirendako aldare batean arrastoa utzi zuen *Sempronius Betunus*. Datu esanguratsua da, Gorrotxategiri (2009, 76. or.; 2015a 15-16. or.) jarraikiz, uste delako Nafarroako sartaldean (bereziki Lizarrerrian) –euskal teonimo gehienak dokumentatu diren barrutian– onomastika pertsonala (sustrai zeltako) sartaldeko eremu hispanikoetan dagoenaren antzekoa dela. Hain zuzen ere, aski onartua dago, Akitanian ez bezala, (latinezkoak ez diren) jende izen indoeuroparrak eta teonimo baskoiak ondo bereizita eta elkar osatuz azaltzen direla: pertsona izenak indoeuroparrak lirateke eta jainko izenak, berriz, euskal ondarekoak.

Badira kontuan hartu beharreko ñabardura batzuk, ordea. Lehenbizikoa esparruaren norainokoari dagokio. Izan ere, Lizarrerria, Goñerritik Azagrara eta Lapoblacionetik Mañerura hedatzen den esparrua, barruti handi samarra da: 2.000 km² eta 70 udalerrri pasatxo ditu, hau da, Gipuzkoa osoaren zabalera du. Hori dela eta, gauzek ez dute beti batekoak zertan izan eremu guztian. Preseski, ikusi dugun bezala, euskal jatorriko jainko izenak ez dira Lizarrerria guztian era homogeenan banatzen, ia

guztiak Arga ibaiaren arroan idoro baitira, gehienak Iruxo eta Larraga artean, 25 km-ko lerro antzeko edo zerrenda batean; haietatik bost Salado ibaiaren haranean dira, 6 bat km-ko aldeak dituen hiruki baten barruan. Izkuekoa ere Argaren arroan da. Egaren haranean dauden bakarrak Barbaringo hiru laginak dira. Horiek dira, hain zuzen, sartaldekoenak.

Lizarrerriaren ipar-sortaldean, euskal saileko teonimoak lekukotu alderdiko epigrafian, jatorri zeltako antroponimo gutxi dago (Barbaringo *Sempronius Betunus*). Handik ez oso urruti, baina merindade horretatik kanpo, Muruzabal Andiongo *Ambatus/a* dugu (*Amba[- -] Matern[;]*; HE, 7116), beste modu batera esanda, Estellerriko parte hartako gainetiko pertsona izen gehienak etorki erromatarrekoak dira. Horren lekuko da, (bi alorretako) aldareetako jende izenez gainera (ikus 3.3.§), Muezko hillarriko *T(itus) [V]alerius Pa[ter]nus* (HE, 15332); *cf.* Muruzabal Andiongo *Cn(aeus?) Ve[- -] C(ai) f(iilius?)* (HE, 7116), *L(ucius) Aemilius Seran[us]* (2) (HE 8800 eta 8801), *[C]orn[e]ll[ia]e F]lavae* (gen.?, dat.?.; HE 16329), *Sempronius Carus Silvini f(iilius)* eta *Lucretius Martialis Lucreti f(iilius)* (HE, 14913).

Los Arcosetik sortalderantz, goian ahotan harturiko biez landara, zelta ondareko antroponimoak urri dira. Oteitzako *Calaetus Equesi f(iilius)* (HE, 8802) eta dagoeneko berriitu ditugun Eslabako *Araca Marcella* (HE 6426) nahiz San Martin Unxeko *Coema* (HE, 19163 eta 19164) dira gaurdaino kausitu diren lagin apurretakoak.


Besterik da Arabako mugan dauden (eta euskal jainkoen aztarrenik aurkitu ez den) herri batzuen kasua, haietan, erromatar jatorrikoekin batera, jende izen «indoeuroparren» etsenplu asko samar dagoelako epigrafian; Larragoa: *[A]raica [- -]lici f(ilia)* (HE, 6725); Gastiain: *Ambata* (HE, 19177), *An(n)i(a) Buturra Viriati filia* (HE, 8804), *Iunia Ambata Viro[ni] f(ilia)* (HE, 12124), *Elanio [Se]gontis* (HE, 15333), *Minicia Aunia Segonti f(ilia)* (HE, 12125); Aguilar Kodes: *Oppia Coemia Frontonis f(ilia)* (HE 19168), *Oppia Boutia Patruini f(ilia)* (HE, 19168); Marañón: *Doitena Ambati Celti f(ilia)* (HE, 19182), *Doiteru[s - -]do Ambati f(iilius)* (HE, 19184). Gauza jakina da horietariko bat baino gehiago Arabako ipar sortaldean ere ageri direla (*Araica, Ambata, Aunia, Boutia, Segontius...*).

Beraz, bada, euskal jainko izenak topatu diren Nafarroako eremuan, jatorri indoeuroparreko (eta euskal sustraiko) izen gutxi batzuk badiren arren, izen erromatarrak gailentzen dira inskripzioetan eta, ildo beretik, Lizarrerrian ez dira, alderik alde, bazterrik bazter, (latinaren aurreko) deizio indoeuroparrak nagusitzen; sail horretako antroponimoek Arabarekin mugan dauden herri batzuetan baizik ez dute aparteko munta (Larragoan, Gastiainen, Aguilar Kodesen eta Marañonen).

3.4. Aretako botoak

Epigrafe askok, zehazkiro zortzik, egitura bera dute: *boto egilea(k) + teonimoa + eskaintza formula (v s l m, v l s...)*. Deigarria da *Losa*-ri eta *Selaitse*-ri egindako (zortzi

promesetatik) zazpi alek hurrenkera horixe izatea. *Lacubegi*-rena da talde bereko beste, baina, aurrekoetan ez bezala, formularioa *ex voto* da (eta ez *v s l m*). Badira, era berean, *eskaintzailea* + *teonimoa* osaketa duten bi inskripzio (*Helasse*-rena eta *Larahi*-rena), hau da, formularik ez daukatenak. Beste bi laginetan, hurrenez hurren, Muruzabal Andiongoan eta Izkuekoan, promesa osoa (*votu retulit*) edo haren zati bat (*posuit ex votu*) fededunaren eta jainko izenaren artean dago.



5. mapa: Eskaintza formulen banaketa.

Haatik, lau aldaretan jainko izena (*Heraucorritsehe*, *Larahe*, *Losa*- [Errezu], *Urde*) lehenbiziko tokian da eta sinestunarena ondoren. Multzo horretako erakuskari batean teonimoak osatzen edo zehazten duen zati generikoa du aitzinetik (*deus* ['jainkoa']). Ikus 2. koadroa.

Bide batez, bi hitz esango ditut *deus/a* generikoaz. Epigrafeetan zati espezifikoaren aldamenean egoten da eta, Blázquezek (1991, 76, 158. or.) dioenez, batzuetan, greziar-erromatar panteoikoekin parekatu nahi diren jainko izen indigenei laguntzen die. Beste batzuetan, baina, latinezko teonimoen alboan da, antza; horrelakoetan ere,

zenbait aldiz, izatez, altzoan duena bertako numena delako ezarriko litzateke, beste-lakoan deizioak erromatar ikuspegitik zentzurik ez bide zuelako, hitz bitan, izen erromatarra duen (tokiko) izakiaren nolakotasun jainkotiarra indartzeko baliatzen zuten.

Tobalinaren (2009, 493-494. or.) ustetan –tradizio latindarrean elementu hori arrunta izanagatik– *deo* (eta *deae*) (dat.) erabiltzeak ingurune bat erromatartzen ari zela adieraz dezake. Irakasle gasteiztarrantzat, Akitanian, teonimoaren jarraian zegoenean, *deo*-k deizio zehatzik gabeko dibinitate bat izendatzen zuen, «Jainkoa» bezala ezagutzen zena; beraz, lehen begiratuan espezifikoa dirudien osagaia, egiazki, kalifikatiboa litzateke, ezaugarriren baten berri ematen duena. Apika, *Lahe (deae)* (Alan, Castèlnau D’Estretasfonts [Castèlnau-Picampeau], Francon, Marinhas e Las Pèiras [Marignac-las-Peyres], Sanà [Sana]) teonimo femeninoaren gisakoak zituen buruan (*cf.* *Deae Andei* [edo *Ander*]; Mitxelena 1954, 427. or.). Gorrotxategik (2018d [2010], 308. or.) Akitanian *deus*-en erabilpena II. gizadiarekin batera hasi zela zehazten du.

Iruxoko aldarean *Larahe*-ren gainean den *deo* generikoaz kestionean, Tobalinari (2002, 5. or.) atentzioa ematen dio teonimoaren aurretik hitz hori sartzeak, ez Iberiar penintsulako tradizioan arrotza delako, baizik eta «bestean» (Muruzabal Andiongoan) ez zutelako ezarri. Errezukoan ere ez dago haren arrastorik. Garbi dagoena da Iruxoko mostran baizik ez dela dokumentatzen eta Euskal Herriko jatorri indoeuoparreko eta latinoko jainko izenetan gutxi baliatzen dela. Eslabako *Peremustae deo magno* eta Iruña Okako *Matri deae* datiboak dira salbuespen bakarretarikoak.

Beste elementu berezia, aurreratu bezala, Atharratzeko *Herauscorritsehe*-ren aitzi-netik dagoen *fanum* (‘santutegia’, ‘jainko-etxea’) da. Hitz hori, askotan, erromatarrak ez ziren numenen omenez eraikitako tenpluei erreferentzia egiteko jartzen zen epigrafeetan, itxuraz. Hispanian mostrak urri dira; Cáceresko Jarandilla de la Verakoa da dokumentatzen den ale bakarretakoa: «Tongius Ar//conis f(ilius) ar/am posui/t deo Qua/ngeio vo/tum solvit / in fano» (HE, 32508).

Bada, azkenik, egitura berezi samarra duen beste boto bat, *Errensa*-rena. Honen kasuan bi pertsona ageri dira inskripzioan, teonimoaren alde banatarra; lehenbizi alda-rea ordaindu zuena (nagusia) eta gero haren promesa bete zuena (libertoa).

Euskal ondareko teonimoak dauzkaten epigrafeen egitura (Euskal Herrian) latinezkoak dituztenekin erkatuz gero aldea dago, azken hauetan jainko izena lehen tokian duten eskaintzak nagusitzen baitira (hamabost hogeita lautik), hau da, izaki gorena bigarren tokian dutenak gutxiago direlako (bederatzi); ikus 7.3.Ş.

Eskaintzailea	Form.	Iz.g.	Jainkoa	Eskaintzailea	Zerg.	Form.
AE LIA HEL ICE			HELASSE			
?			LARAHİ			
AEMILIA PATERNA			LOSÆ			V S L M
T RENT VS MARTIALIS			[L]OSÆ?			V L S
TARSILLA F			LOSÆ			V S L M
LVCRETIVS PROCVLVS			LOXÆ			V S L M
SEMPRONIVS BETVNVS			SELAITSE			V S L M
I GERMANVS			SELATSE			V S L M
ASCLEPIVS PATERNVS			S			V S L M
COELII TESPHOROS ET FESTA ET TELESINVS			LACVBEGI			EX VOTO
VAL BADAN ABISVNSONIS	POSVIT EX VOTV		ITSACVRRINNE		PRO SALVOTE ET REDITV	L ANIMO
MANILIVS MARTIALIS	VOTV RETVLIT		LARRAHİ			
D MATERNA			ERRENSÆ		PRO L IV CRISTA	V S
		FANO	HERAVSCO...	G VAL VALERIANVS		SACRVM
		DEO	LARAHE	FELIX		V S L M
			VRDE	PET FLAVINA		V S L M
			LOSÆ	?		?

Form.: formula. **Iz.g.:** izen generikoa. **Zerg.:** agintzaren zergatia.
2. koadroa: Promesen hurrenkera.



4. Teonimia eta toponimia

L'étude des noms divins est encore plus malaisée que celle des noms d'individus. On ne sait pas toujours si l'on a sous les yeux des épithètes religieuses, des noms d'animaux sacrés, des noms de montagne, de vallée ou de village divinisé.

A. Luchaire (1879, 91. or.).

4.1. Jainko izenen zenbait ezaugarri

«De onomástica Aquitana» gogoangarrian Koldo Mitxelenak (436. or.) maisuki biltzen ditu Antzinaroko jainko izenen ikerketan erabili beharreko oinarriak, igaro beharreko ataka estuenak eta gainditu beharreko oztopo garrantzitsuenak. Adibidez, errenteriarrek dio, gaur arte iraun duten zenbait toponimo jainko izenen oinordeak diren era berean, batzuetan, numenek tokiko deizioa izan dezaketela. Hori dela eta, hizkuntzalarion zeregina antzinateko leku izenen esanahiaren arloko elementuen azterketara aurreratu beharko litzatekeela eranstean du. Eremu hori, damurik, ez da bereziki joria, ordea.

Gorrotxategik (2018c [2007], 229-234. or.), orobat, bi talde bereizten ditu, besteak beste, Akitaniako teonimo zeltak izaeraren arabera sailkatzen dituenen. Batetik, jainkoaren izenari erreferentzia egiten diotenak ditugu. Hauen barruan daude sagaraturiko lekuak (iturriak, ibaiak, lurraren ezaugarriak) oinarritako dituzten izakiak. Bestetik, segur aski (latinezko izena duten dibinitateen) epitetoak direnak daude. Batzuk zati espezifikoreen berezko tasun bat adierazten duten adjektiboak dira eta beste batzuek jatorri geografikoa daukate, jainkoa gurtzen edo agertzen den lekua aipatzen baitute (epiteto topikoak).

Hari beretik, Hispaniako erromatar aurreko izaki gorenez ari delarik, Blázquezek (1991, 32. or.) zenbait jainkok toponimoekin eta gentilizioekin zerikusia duten izenak daukatela nabarmentzen du, ez biztanle multzo eta toki bakoitzak debozio ezberdinak dituelako, baizik eta erlijio guztietan –lekuan lekuko sinesmenen eta giza taldeen arabera– izen ezberdinak hartu dituztelako, dela beren berezko onimoei adjektiboak gehituz, dela haiek aldatuz.

Bada epiteto mota berezi bat, *epiklesia* esaten zaiona, teonimoei beren funtzio batzuk azpimarratzeko gehitzen zaizkien gurtzarekin loturiko adjektiboek osatzen

dutena. Erljio testuinguruetan «abizen» gisa jarritako izenondoak dira eta haien bidez fededunek izaki gorenaren izaera edota eragin esparrua jakitera ematen dute.

Asko aldiz, ez da erraza sortzeko edo berezko teonimoak eta kultuarekin loturik dauden epitetoak bereiztea. Adibidez, Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 133. or.) diote Akitanian Marterekin uztarturik agertzen diren «*Leherennus*» eta «*Lelhunnus*»-en pean zer ezkututzen den jakingo bagenu, alegia, benetako izenak edo epitetoak (epiklesiak) diren igarriz gero, erromatarren gerraren jainkoarekin bide duten lotura argitu ahalko litzatekeela.

Beren arauaz, kasu batzuetan izen indigenen eta erromatarren arteko lotura zeharkakoa da, santutegi berean bertako eta jainko greziar-erromatarrei izkiriatu dedikazioak daudenean bezala; Montcirèren *Erge*-ekin eta Marterekin gertatzen denaz ari dira. Izan ere, gune hartan *Erge* izaki goren indigenari opaturiko hogeita hiru al-dare eta Marteren gorazarrez egindako sei idoro dira, baina ez dago irudimenezko **Marti Erge* jainko sinkretiko indigena-erromatarrari (izendapen hibridoari) egindako inskripzio bat bera ere (*cf.* *Marti Harexoni* edo *Marti Leherenno*).

Gauza ezaguna da, hala berean, Sent Líserko (Saint-Lizierko) zubi bateko harroinean *Minervae Belisamae* (dat., emak.) jainko hibridoaren epigrafea dagoela (CIL XIII, 8; ik. Mitxelena, 1954, 429-430. or.; Gorrotxategi, 2018e, 273. or.). Prósperren (2018, 125. or.) hitzetan, *Belisama* epiteto galiarraren osaketa **bel-isamo-* da eta esanahia 'strongest' (eu 'indartsuena'), baina Gorrotxategirentzat (2018e, 274. or.) adiera ez da hori, 'argitsuena' baizik. Esanak esan, Galian badira *Balesmes-sur-Marne* (Haute-Marne; *Belismus* [1276], *Belesme* [1326]; Dauzat, 1946, 145. or.) eta *Belleme* (Orne; *Belismo* [1092, 1247]; Nègre, 1990, 161. or.; *cf.* Delamarre, 2012, 74. or.) toponimoak (-*isamo* > -*ismo* sinkopa dutenak), ezagunenetariko bi besterik ez ekartzeko. Biak ala biak *Belisama* teonimoaren (epitetoaren) oinordetzat hartzen dira (*cf.* Nègre, 1990, 160. or.)

Hispaniako inskripzioei begiratuz gero, Blázquezek (1991, 76. or.) esaten du sarri ikusten direla elkarren ondoan bertako eta Erromako jainkoak. Baskoien lurraldean ez da, horratik, onomastikan balizko sinkretismo kasuen garapena eta bilakaera iradokitzen duen testigantzarik (Gorrotxategi & Ramírez, 2013, 134. or.). Oroit bedi epigrafiaren arloan Nafarroan dokumentatzen diren teonimoen artean, Jupiter *Optimo Maximo* (Oibar, Eslaba, Muzki, Kaseda, Erriberri) epitetoaz horniturik izendatu dela (*cf.* *Optumo*, Saratsu, [Trebiñu]), *Mater* jainkoak (San Martin Unx) *Magna* izenondoa daukala eta Martek, berriz, *Invicto* adjektiboa alboan duela (Monteagudo, San Martin Unx). Bide batez, haien jarraitzaileen artean ez dago euskal sustraiko izena bide duen inor.

Gorrotxategik eta Ramírezek (2013, 134. or.) azpimarratzen duten bezala, beraz, lekukotasun kopuru mugatua dela-eta halabeharrenez izan daitekeen arren, Nafarroan ez dago izaki gorenaren izen sinkretizaturik eta, bestetik, ez da errepikatzen inguruko herrietako panteoian dauden (bertako) jainkoetako bat bera ere.

4.2. Teonimoen eta toponimoen arteko loturaz

Antzinaroko idazkUNETAN irakur daitezkeen teonimoen eta han hemen (moduren batean) iraun duten toponimoen arteko zerikusia antzematen saiatzea ez da atzo goizeko azterbidea. Konparaziora, Frantzia aldeko Pirinioetako hizkuntzak bahetzen dituenean, Luchairek (1879, 92. or.) *Arboust, Ardet, Basert, Montsérié, Luchon, Lez* eta *Theux* herri izenak *Aherbelste, Artaxe/Artehe, Baeserte, Erge, Ilixon, Lex* eta *Toli* jainko izenei dagozkiela idazten du, toponimoak behinolako teonimo horien ondorengoak (teotoponimoak) direla, alegia. Ildo beretik, Saint-Béat ondoko *Rapp* toponimoa (harrobia) *Erriap(p)o/-e* dibinitatearekin lotzen dute autore batzuek (ikus, adibidez, Zenbaiten artean, (2008, 42, 49. or.).

Harremana nahasia da, halere; alde asko ditu. Lehenago ikusi dugunez, badira jainko izenaren etorkia toponimo batean kausitu dutelakoan dauden ikertzaileak, Taracena eta Vázquez de Parga (1946, 456. or.) edota Blázquez (1962, 80. or.) *Losa*-rekin bezala. Iritzi berekoa da Elorza (1972, 365. or.), uste baitu *Losa/Loxa* nahiz *Helasse* eta *Selatse* teonimoak hiri edo herrien deizioak izan daitezkeela, gurtzen ziren lekuaren izena bide dutela sorburutako.

Badaude, elkarrekikotasuna edo antzekotasuna forma osoan ikusi beharrean, bi onimoak gauza bera direla onartzera iritsi gabe, jainko izenaren osagairen batek toponimo batekin edota toki izenen sailean aurkitzen den elementuren batekin zerikusia izan dezakeela deritzoten autoreak, Iraburuk (1975, 83-84. or.) edota Salaberrik (2005, 680-683. or.) *Lacubegi*-rekin iritzi eran, edota azken honek (2007, 397. or.) *Larragoa/Larraona* herri izenarekin proposatu gisan (ikus 6.6.§).

Lotura alderantzizkoa izan daiteke. Tobalinak eta Jimeno Arangurenak (1998, 619-621. or.), adibidez, *Larahe* (*Losa* bezala) toponimiara igarotako teonimoa delako aierua dute eta, gainera, ez dute erabat baztertzen *Larraça*-ren iturburua horixe izatea.

Hitzak hizpide ekarrita, oroit dezagun badirela izen teoforikoak, funtsean, teonimoak diren jende izenak. Esate baterako, *larre* + *ona* etimoa txarretsi eta *Larragoa/Larraona* antrotoponimoa delako hipotesia arrazoitzen duenean, Salaberrik (2007, 397. or.) diosku lehen osagaia – *-ona* jabetzako atzikia hartu duen izen propioa– *Larrahe* (edo *Larrahi*) teonimoa datekeela («*Larrahe* izeneko jainkoari eskainitako hiria, herria»). Euskal Herritik landara ere badaude sustraian jainko izenak dauzkaten (ondasuna adierazten duten) toponimoen adibideak. Ez da puntu honetara gaizki heldu Delamarrek (2021, 315. or.) arlo horri buruz esaten duena:

Ces noms de lieux sont manifestement formés sur des noms de dieux dont on possède l'attestation, par exemple *Vesontiō* (*Besançon*) et le *Vesontis Mars* d'une inscription du même lieu ou [...] *Aballō* (*Avalon*) serait la domaine d'un *deus* **Aballos* [...] Le suffixe *-h₃on*, dit suffixe «Hoffmann», du nom de se découvreur, servait en indo-européen à former des dérivés possessifs signifiant 'qui possède', qui a' et, quan il formait toponymes 'où se trouve, où il y a, où se tient'...

Euskal Herrian badira jainko izen indoeuoparretan (zeltetan?) jatorri duten toponimoak, *Toloño* eta *Deba*, esate baterako. Zernahi gisaz, aldea dago bi adibide horien artean, besteak beste, Arabakoak epigrafian azterna utzi bide duelako, baina Gipuzkoakoak ez. Lehenbizikoari lotuko gataizkio hurrengo lerroetan.

Gauza jakina da Toloño mendilerroa Arabako hegoaldean dela eta Arabako Errioxa eta Mendialdea eskualdeak banatzen dituela. Leku izenaren idatzizko ibilbideari buruzko argibide gehiago behar duenak ikus beza Chascok 2017an argitaraturiko monografia. Bastidan, mendikateari izena ematen dion gorapenean, bazen Aingeruen Andre Mariaren monasterioa.



Toloño Lotzatik ikusita.


Toloño-ren iturburua datekeen onimoaren antzinateko lekukotasunetako bat Dulantzín edirendako aldea da, antza denez, *S(empronius) Sever(us)*-ek *Tullonius*-i (nom.) eskainia (HE, 8773). Zoritzarrez, galduta dago eta ez da haren marrazkirik gorde. Horrez gainera, Ptolomeok (II, 6, 65) *Τουλόνιον* (*Tullonium*) hiria ahotan hartzen du barduliarren bizilekuen berri ematen duenean. Antoninoren ibilbidean (XXXIV, 455, 1) ere aipatzen da. Agidanean, hiria Arabako lautadan zegoen, agian Dulantzín (ikus Albertos, 1970, 161-162. or.).

González de Viñasprek (2010, 460. or.) Eltziegón eta Guardian XIV. gizaldian *Tolono* izeneko pertsonak zeudela eta, garai berean, San Vicente de la Sonsierran *Tho-*

loyno deitura bizirik zela jasotzen du. Berebat, euskaltzain arabarrak inguru hartan, Ebroz haraindi (Rivas de Tereso ondoan), Toloño mendiaren magalean berean, *Doroño* herrixka zegoela jakitera ematen du; gaur egun ere han irauten du leku izenak. Bere iritzian, Errioxako toponimoa Araban dokumentatu jainko izenaren euskal aldaera dateke. Azkenik, *Doroñu* herria dugu Trebiñun. Salaberrik (2015, 158. or.) argitzen du oinarrian (*Tullonius*-en ahaidea den) *Tolonius* antroponimoa dagoela, adjektibozko *-inu* atzizkia hartu duena. Hitz bitan, *(*findu*) *toloninu* etimoa proposatzen du.

Jainko izenaren oinarria toponimoa den ala -haren santutegia zegoelako-edo-teonimoak hiriarri edo/eta mendilerroari izena eman dion ezin da jakin. Guztiarekin, denboraren buruan jende izentzat erabili dela garbi dago. Oharturik lautadako hiria Antzinaroan lekukotzen dela eta badaudela (beranduagoko) enbor bereko antroponimoak eta antrotoponimoak, aukera bat da pentsatzea teonimoa dagoela guztien jatorrian, baina ez du horrela zertan izan.

Ematen du, beraz, zenbait aldiz badagoela lotura teonimoen eta toponimoen artean, Mitxelenak (1954, 436. or.) *-Iluro* jainko izenean jatorri duen *Oloroe* hiri izena etsenplutako jarriz- nabarmentzen duen bezala. Izan tokiko izena hartu duten jainkoak, izan gurtzatik sortutako toponimoak (teotoponimoak), teonimoak eta leku izenak uztartzen ahalegintzean bada ahaztu behar ez den ñabardura bat: lotura sendoa izateko, ahal delarik, bi onimoek garai berekoak izan behar dute, eta hortik dator oztopo nagusia, urri direlako Antzinaroko toponimoen agerraldiak epigrafian. Gainera, damurik, erromatarren garaiko geografo eta historialarien liburuetan euskal jatorrikiko toki izen gutxi hautematen da eta testu horiek hainbat arazo dituzte iturritzat erabiltzeko. Beraz, halabeharrez, antzinateko teonimoak Erdi Aroan dokumentatzen diren toponimoekin alderatzea besterik ez dago, Luchairek antroponimoekin egin zuen gisan. Nik ere, Mitxelenak (LP, 37. or.) izkiriatu moduan, uste dut hizkuntza egoera ezberdinak elkarren artean konparatzen direnean eskura daitekeen informazioa bakoitza bere aldetik ikertutakoan baino aberatsagoa izan daitekeela batzuetan.



antrotopon.: *antrotoponimoa*. **iz.:** *izena*. **teofor.:** *teoforikoa*. **teotopon.:** *teotoponimoa*.
topon.: *toponimikoa*.

1. eskema: Onimoen arteko loturak eta harremanak.

Aldameneko lurraldeei begiratzuz gero, Iberian badira *sedes deorum* direlakoan (mendi sagaratuen) arrastoak. Auzi horretaz ihardukitzean, Blázquezek (1991, 62. or.) nabarmetzen du iturri literarioek haien gurtza zein hedatua zegoen erakusten duten baso sakratu batzuen berri ematen dutela, *Mons Iovis* (egungo *Mongo*, Alacant) adibidez. Melak ahotan hartzen duen Jupiterri sagaratutako mendiaz ari gara, antza.

Badio, halaber, ikertzaile asturiarrak (1991, 58. or.) León eta Asturiasko probintzien mugan Jupiter *Candamo* izenpean jauresten zela eta deizio horrek *Candiano* (Laredo, Kantabria) eta *Candemora* (Reinosa, Kantabria) toponimoetan irau duela. Dirudenez, *Canda*-k 'harkadia' adiera du. Orobat, Jupiter *Candanedo* mendiaren jainkoa zatekeen eta jatorri zein osaketa bera lituzke harekin batera Galiziako arabatean dagoen *Candiedoni* adjektiboak.

Hispanian dokumentaturiko epitotoekin jarraituz, Blázquezek (1991, 65. or.) arabera, Lareak ere izenondo batekin hornituta izkiriatu dira zenbait aldiz, etniko batez horniturik edo *gentilitas* baten izenarekin zehazkiro. Antzeko zerbaitez gertatzen da, itxuraz, *Genii*-en izenekin, batzuetan toponimo bat izaten baitute zehatzailetako (*ibid.*, 69, 71, 142. or.).

Elkarren artean lotuta dauden Euskal Herriko leku eta jainko izenen auzira itzuliz, Hartsuagak (2004, 171. or.) dio herriak –izen bakarrarekin izan ordez– agerlekuen arabera deitu duela «Lurraren emakume jainkoa» (Mari). Izendapen eredu horrek ikuspegi zatikatzailea eta menderatzailea baztertu eta paisaiako esparru bakoitzaren osotasun kosmologikoa azaleratuko luke. Adibide moduan, autore tolosarrak esaten du Mañarian badakitela Anboto, Oiz eta Mugarra mendiek zedarrituriko lurraldean *Anbotoko Señoria* dela naturaren indar eta eguraldi gorabeheren sorburua eta eragilea.

Hartsuagak (2004, 172. or.) idazten duen legez, minikosmos horiek zenbat diren zehaztea burutzeke dagoen lan geografiko-mitologikoa da. Barandiaranek (1972, 157-158. or.), adibidez, Mariren hogeita hamar izen biltzen ditu: *Mari*, *Txindoki'ko Mari* (Amezketeta), *Marimunduko* (Ataun), *Mari Muruko* (Elduain), *Mariburute* (Udabe), *Aldureko Mari* (Gorriti), *Andre Mari Muiroko* (Arano), *Aralarko damea* (Amezketeta), *Anbotoko sorguina* (Durango), *Yona gorri* (Laskun)...

Euskal mitologian igarriko litzatekeen espazio antolaketaren arabera (Hartsuaga 2004, 173-174. or.), mundua anitz minikosmos beregainen batuketa litzateke eta entitate horien kopurua zehaztezina. Haietariko bakoitza osoa den heinean, ez legoke mikrokosmosen zenbatekoaz kezkatzeko premiarik, bat gehiago edo gutxiago izateak ez liokeelako norberaren munduari burujabetasun eta osotasun izpirik kenduko.

Hartsuagari (2004, 184-185. or.) euskal mitologian jende eta jainko izen gutxi egoteak harridura sortzen dio. Euskal kontakizun mitologikoetan protagonistak «artzain bat», «jentilak», «lamiak», «etxeoandre bat» eta antzeko izaki izengabeak izan ohi dira eta jakinarazten diren berezitasunak pertsonaia horien lekuratzei dagozkie (*Jentilzulo jentilak*, *Etsoinberriko neskamea*, *Agerrekoak*, *Aatseko lamiak*...).

Gizakiaz gaindiko izakiak oinarritako dituzten toponimoez kestone, entzutetsua den sorta besterik ez ekartzeko, Iparraldean, Hegoaldean eta euskal eremuko ondoko lurraldeetan, lehen osagaitzat *lamina* duen leku izen mordoa dago. Horietariko asko Barandiaranek jaso eta plazaratu zituen 1956an, *Eusko Folklore* aldizkarian (156-171. or.). Mitologia hiztegi ilustratuan (1972, 138-139. or.) bilduma osatu egin zuen. Askotariko entitate geografikoak izendatzen dituzte (errekak, harriak, leizeak, osinak...): Lamiabide, Lamiarri, Lamiarriaga, Lamien leze, Laminabea, Lamiñaerreka, Laminaerreketa, Laminaga, Laminagan, Laminako lezea, Laminakoba, Laminalde, Laminapotzueta, Laminaran, Laminarrieta, Laminarte, Laminategi, Laminategieta, Laminatutur, Laminatx, Laminatxori, Laminazulo, Lamindania, Laminelanda, Laminiturri, Laminoria, Laminortu, Laminosin, Laminputzu, Lamiñen eskaratza, Lamiobia, Lamiosiñeta...

Batzuk goiz samar ageri dira dokumentazioan. Esate baterako, Donemiliaga Kukulako kartularioan (BGD, 318 zk., [93 binp.]), Burgosen (Belorado aldean), San Vicente del Valletik gertu zegoen *Lamiturri* hidronimoa irakur daiteke 945. urteko data duen idazki batean. Ildo berean, Lacarra de Miguelek (1957, 38. or.) Iratxeko 1246ko testu batean aipatzen den Orendaingo (Girgillaoko) *Lamiateguia* dermia biltzen du (Obanosko *Lamiategi* dateke).



Lamiategi (Obanos).

Ezaguna da, berebat, leinuaren sortetxeaz ari denean, Garibaik (1854 [1586-1594], 4. or.) bere memorieta idatzitako pasarte: «*hermosa ribera que baxa de la misma villa de Oñate y del valle de Cañartu y Larriategui [Lamiategui] que quiere dezir “lugar de Serenas” por su mucha hermosura*».

Adierazgarria den beste etsenplu bat dakart bukatzeko. Orreagan *Ortzantzurieta* mendia dugu, XII eta XIII. gizaldietan (*cubilar* eta *bustaliza* [saroi] gisa) lekukotzen dena: *Orcire çorita* (1110; DML, 321. or.), *Orciren çorita*, *Orciren çorita çarra*, *Orçiren çorita soroa* (1284; CDSMR, 372. or.). Gorapenaren izenak, agidanean, *Ortzi*-rekin zerikusia duke (ikus Mitxelena, 1957a, 260-261. or.), hau da, jainkoa (zerua?) ahotan hartzeko erabili izan den hitzarekin, XII. gizaldiko *Codex Calixtinus* delakoan Aymeric Picaudek izkiriatzen duena egia bada behintzat.

4.3. Jainko izenetako *-sa* akabaila eta toponimiako *-(t)za* atzizkia

Darabiltzagun teonimoen artean badira amaieran *-sa/-xa-* segida duten bi, *Errensa-* eta *Losa-/Loxa-*. Bigarrenaren osaketa ez da erabat gardena, baina lehen begiratuan, Larragakoa *Errensa-* banaketa egin eta alegiazko *-sa* elementua bakar daiteke. Badu garrantzia, hortaz, *-sa* horren nondik norakoa argitzeak.

Gauza jakina da Nafarroan badela *Errenza* toponimoa (ikus 6.1.§), *Errensa-* jainko izenarekin erka daitekeena, baina, Mitxelenak eta Salaberrik diotena aintzat hartuz gero, zaila ematen du bi sailletako izenak lotuta egotea, toponimoarekin estekatu ahal izateko teonimoaren balizko formak **Errensaha*-edo izan beharko bailuke (*gfr. Larahe...*). Izan ere, Mitxelenaren (1964, 29. or.; 1977, 90. or.) eta Salaberriren (2018, 319-320. or.) aburuz, *-tza* atzizkia **-tzaha* zaharrago batetik datorke, Donemiliaga Kukulako Rejatik eta Erdi Aroko beste agiri batzuetatik ondorioztatzen den moduan (*Artazaha*, *Gesalzaha...*). Haatik, Manterolak (2006, 674. or.; 2015, 190-203. or.) eta Lakarra Andrinuak (2018, 96-97. or.) 1025eko Rejako *-zaha* horrek bi osagai dauzkala deritzote, *-za* (*-tza*) berrekailua eta *-ha* mugatzailea. Gehiago dena: Arratzuko euskalariaren irudiko, erraza da antzematen *-zaha* jatorriz ezin izan zitekeela atzizki hutsa, ez delako berrekailu soil bisilabikorik, ez delako /h/-rik inflexioan eta, gaineratik, *-ha* gehienetan bada ere ez delako soilik *-(t)za* ondoren azaltzen (ikus 5.7.§).

Erreterriako eta Uxueko hizkuntzalariek euren hipotesia argudiatzeko darabilten habe nagusia 1025eko Reja da, hor baitaude *-zaha*-ren agerraldi gehienak. Esan beharrekoa da, halere, *-asko* izan ez arren— idazki horretaz landa ere badirela aipatu segidaren etsenpluak, *Beila Didaz de Habaunçaha* (1066; DML, 121. or.; *gfr. Didaco Begelaz de Ahbaunçaa*, 1066; DML, 122. or.) eta *Aranguiz Gorostiçaha* (Zestafe, 1295; *apud* Salaberri, 2012, 206. or.), adibidez.

Erromatarren garaiko geografoen eta historialarien lekukotzari begiratu baino lehen, komeni da (beste behin) gogoratzea ahotan hartzen dituzten lekuen azterketa kontu handiz bete beharreko eginkizuna dela, bai transmisioaren arazoengatik, bai baliatu zituzten iturriek zekarzkieketen arriskuengatik. Gainera, gauza jakina da hirien kokapenari buruz esandakoa zalantzazkoa dela, gehienetan autoreak, bisitatu ez zituzten urruneko tokiez mintzo direlako.

Esanak esan, Nafarroan, agian Iruñetik iparraldera, (*I*)*turissa* toponimoa dugu. Ptolomeok (II, 6, 66) Ἰτούρισσα (*Iturissa*) idazten du eta ibilbide antoninoan (XXXIV) *Turissa* irakur daiteke. Aurizberrin kokatu izan da, baina, egun, Aranzadi zientzia elkartearen Auritzen (Zalduan) induskatzen ari den bizilekuarekin lotzen dute autore batzuek.

Mitxelena (1954, 213. or.; 1956, 168. or.; 1961b, 202. or.) *Iturissa*-ren (edo *Itoúrissa*-ren) oinarria euskarazko *iturri*-rekin konparatzen du eta (atzizkiaren aldetik ere) Antzinaroko toponimoak gaurko *Iturri*-za bera dirudiela onartzen. Leku izen hori arrunta dela gehitzen du. Gorrotxategik (2002, 88. or.) ere, Mitxelena bezala, euskarazko *iturri*-za-rekin erkatzen du eta bere irudituan (2008, 373. or.) *-Iturista* irakurri behar ez bada behintzat *-Iturissa* da «euskal izen garbiena» Ptolomeok zerrendatu hiri baskoien artean.

(*I*)*turissa* eta *Iturritza* alderatzeak baditu zenbait oztopo eta arrisku. Lehenbizikoa formaren arlokoa da. Izan ere, non zen inork ez dakien arren, Ptolomeoren (II, 6, 66) arauaz, bazen Νεμαντουρίστα (*Nemanturista*) hiri baskoia eta toponimo hori dateke, hain justu, Gorrotxategik *Iturissa* irakurketa zalantzan jartzeko buruan zukeen arrazoi nagusia. Bestalde, Nafarroatik oso gertu, Sausen (Sos del Rey Católico), *G(aius) Terentius Maternus Eturissensis* gizasemearen (Aro aldetaren garaiko) hilarria idoro zen (HE, 6620) eta, ondorioz, pentsa daiteke nonbait bazela *Eturissa* bizilekua.

Erdizka-mozka esanda, (*I*)*turissa* euskal ondarekotzat jotzeko, hau da, *Iturritza*-ren parekotzat onesteko, zailtasun larriena berrekailuari dagokio, antzinateko toponimoaren idatzizko agerraldien artean ez dagoelako **(t)saha (-[t]zaha)* formaren arrastorik eta, Mitxelena eta Salaberrik honetara jakitera emandakoaren arauaz, forma horixe espero genukeelako. Besterik litzateke aldaera zaharra *-tza* balitz, orduan, ez legokeelako aparteko arazorik alderdi horretatik.

Bidenabar, diodan Hispaniako epigrafian (Ebroz haraindi) badirela bukaeran *-sa* segida duten izen bereziak. Konparazio batera, Burgosen (Partido de la Sierra en Tobalínan), Miranda de Ebrotik (eta Arabatik) kilometro gutxira, «Velonsae / Calpurnia / Paterna Se/veri f(ilia) v(otum) s(olvit) / l(ibens) m(erito)» botoa grabatua dago aldare batean (HE, 19161). Urrutiago, jende izenen alorrean oraingoan, «Aisae Viannetiq(on) Cau[c(ensi)] / an(norum) [- - -]» irakur daiteke, adibidez, Sepúlveda (Segoviako) erromatar garaiko epitafio batean (HE, 15591). Biek ala biek, teonimoak eta antroponimoak, ez dirudite latinetikoak.

Akitaniako behialako lekukotzei erreparatzen bazaie, ez dago *-sa-* edota *-x(s)a-* duen teonimorik, baina, izan, badira bukaeran elementu hori duketen hiru antroponimoren aztarnak epigrafian; hirurak hilarrietan dira, ez aldareetan. Sent Lísfero inskripzioak DANNOËSA gizonezko izena du grabaturik, nominatiboan. Gorrotxategik (1984a, 193. or.) inguru hartako DANNONI genitiboarekin erkatzen du, *danno-* oinarritik eratorritako izen galiarra bide denarekin. Bigarrenik, CAMBVXAE

emakumezko izenaren erakuskaria (dat.) dugu Duranen. Eibarko irakaslearentzat (1984a, 181. or.) ez bide da euskal sustraikoa, baina, zernahi gisaz, –amaieraren alde-tik– Gimont-eko TITILVXSAE antroponimo femeninoarekin (dat.) konparatzen du. Gorrotxategiren (*ibid.*, 280. or.) ustetan, zaila da azken horretan zatiketa non egin behar den asmatzea, baina irizten dio daitekeena dela izen pirinioarretako *-xso(n)* atzizkia egotea, mozio indoeuroparrarekin (*-ae*-rekin) eraldatuta (*-cco[n]*)- duen *Sunduccae*-n bezala, agian).

Akitaniako epigrafian *-sa* nahiz *-x(s)a-* segida duen onimo gutxi dago, hortaz, asko jota, hiru ale besterik ez (seiehundik gora inskripzioren artean). Zoritzarrez, ez dira gardenak eta ezin da jakin egiazki zer jatorkitakoak diren. DANNOESA galiar sustraiko deizioa izan daiteke eta CAMBVXAE eta TITILVXSAE-n dukegun *-x(s)a-* akitanierako *-x(s)o-* ezagunaren eraldaketa, baina, lekukotasun eta argibide gehiagoren ezean, ustekizunak besterik ez dira.

4.4. Leku izenetako *-osa* berrekailua

Euskal Herrian ez dira gutxi izen arrunt bati *-osa* atzizkia (← *la -osa/-osus*) erantsiz sortutako toponimoak. Izatez, adjektiboak dira, Nafarroako *Lodosa* herri izena (*Lotosa*, 1110; Goñi, 1997, 131. or.) kasu (*cf.* eu *Loitza*, *Loizu*, *Loidi...*). Multzo berekoak dirateke *Barbajosa* (Los Arcos), *Carrascosa* (Gaubea) edota *Zarzosa* (Bernedo) fitotoponimoak. Ikusita Donemiliagako kartularioan (Burgosko eta Errioxako) *Cannecossa* ([934]; BGD, 0 zk. [2 binp.]), *Spinosa* ([934]; BGD, 0 zk. [2 binp.]) zein *Orticosa* ([934]; BGD, 0 zk. [3 binp.]) onimoak ageri direla, ondoriozta daiteke latinetiko *-osa* berrekailua duten deizio (adjektibo) horietako batzuk ez direla atzo goizekoak.

Arabako Mendoza herri izenak alor berekoa ematen du: *Mendoza* (Reja, 1025), *Roy Lopez de Mendoza* (1255; CDSMR, 235. or.), *M. de Mendocça* (1226; Goñi, 1997, 470. or.). Hipotesi horri eusteko dakardan argudio nagusietako bat da Errioxan badagoela *Ventosa* herria (*villam Ventosam*, 1020, BGD, 147 zk. [47 binp.]), baita *Ventosa* herri hustua Burgosen ere, Tosantos ondoan (Belorado aldean) zehazkiro (1006; BGD, 696 zk. [222. binp.]). Hala berean, Leireko agirien artean *Mentosa* hiria aipatzen da Bureban (1064; DML, 116. or.). Bide horretan, fonetikaren aldetik ez dago behaztopa larririk Arabako *Mendoza* herri izena *(*villa*) *ventosa*-tik eratortzeko, euskaraz badaudelako, besteak beste, *makila* (← *la bacilla* [pl.]), *abendu* (← *la adventus*), *gauza* (← *la causa*) maileguak. Egia da Bizkaian (Erandion eta Gamiz-Fikan) *Mendotza* baserriak eta auzoak daudela (*Mendoza* 1745, 1798, 1799 (2), 1808 eta 1704, 1745 (2), 1796 (3), hurrenez hurren; ikus Kerexeta, 1992, 125, 341, 344, 610. or.; Lasa, 2010, s.v. *Mendotza*), afrikatuz ebakitzen direnak (*Mendotze* [1898, 1915]; *Mentze*) eta forma horiek, neurri batean, ez dituztela gauzak errazten, zailtzen baizik, baina ez da egia txikiagoa biek ala biek lekualdatze toponimikoan bide dutela sorburua, Arabako *Mendoza* leinuarekin zerikusia duketela, deitura hori zuten familien ondasunen ize-

nekin lotuak diruditela jatorriz (ikus Auñamendi entziklopedia, «Fica» artikulua [historia]). Afrikatua herri etimologiari ('mendi hotz') zein *-tza* atzizkia duten toponimoen analogiari zor zaioke.

Horrelakoak alde batera utziz gero, Nafarroan (eta ondoko herrialdeetan ere bai) bada *-sa* bukaera duen oinarri iluneko leku izen multzoa (*cf.* Salaberri, 2011a, 88. or.). Haien berri emateko Erdi Aroko idatzizko iturrietan dokumentatzen diren toponimo nagusi batzuk ahotan hartuko ditut.

Lehenengo eta behin, Irunberrin bada *Nekuesa* herri hustua, etimo ezkutukoa hau: *Lope Garceiz de Ennacosa* (1097; DML, 227. or.), *Exemena de Naquosa* (1100; DML, 259. or.), *Nequesa* (1125; DML, 384. or.), *Eximinus de Necuesa* (1230; Goñi, 1997, 477. or.), *Bertrando Eximine de Necuessa* (1270; CDSMR, 304. or.).

Urrutira joan gabe, *Zangoza/Sangüesa* udalerrri ezaguna dugu. Erruz azaltzen da X eta XI. gizaldietan Pirinio inguruetakoa monasterioetako idazki bildumetan. Labur beharrez, ez ditut agerraldi guztiak hona ekarriko, esanguratsuenak baizik: *Onneca Rebelle de Sancossa* (c. 990; Lacarra de Miguel 1945, 234. or.), *Sangossa* ([1055]; DML, 85. or.), *Fortunio Sanoiz de Sanguessa* (1056; DML, 87. or.), *Sancuessa* (1057, 1058; DML, 91, 95. or.), *Sangossa* (1063; DML, 108. or.), *Sanchuessa* (1064; DML, 116. or.), *Sancuensa* (1066; DML, 120. or.), *Sangossa* ([c. 1069?]; DML, 128. or.), *Menoza de Sangossa*, *Iohannes de Sanguossa*, *Sancta Maria de Sanguossa* ([1076–1093]; DML, 201. or.). Azken testigantza horretatik aurrera, XII. mendearen bukaera arte, *Sangos(s)a* forma gailentzen da dokumentazioan. Bildu ditudan salbuespen bakarretakoak *Sancossa* (1134; DML, 403. or.) eta *villam Sanguosse* dira (1185, CDSMR, 97. or.).

Esan komuna da *Sangosa*-tik (*o* laburrarekin) *Sangüesa* atera dela erromantzean eta *Zangoza* euskaraz, bi hizkuntzen bilakaera normalaren ondorioz (*cf.* Salaberri, 2005b, 111. or.). Nolanahi ere, Salaberrik (2011a, 87–88. or.) nabarmentzen du, itxura batean, zaharrena belar ahoskabea duen aldaera (*Sancosa*) dela eta hori datekeela (erronkarierako) *Zankoz-a*-ren jatorrian dagoena. Gaztelaniazko *Sangüesa*, kasu honetan, euskal mintzairaren eraginari zor litzaioke, baina ez da ahaztu behar Nafarroatik gertu zeuden Pirinioetako erromantzeetan ere ahostuntzeko joera izan dela.

Hirugarrenik, ematen duenez, Ledean bazen *Aruesa*, *Eruesa* ([1058–1061]*; DML, 103. or.) aurkintza. Daitekeena da honek Leireko paper zaharretan leitzen diren *Arrosam* (*locum*, 1057; DML, 90. or.) eta *Sancti Iohannis de Rosa* (1174; DML, 435. or.) toponimoekin zerikusia izatea.

Probintzian bada akaberan *-osa* duen herri izen bat: Tolosa (1256; Salaberri & Zaldúa, 2019, 309–311. or.); *cf.* Okzitaniako *Tolosa* (galiarren *Tectosagum*), Ptolomeoren Geographian (II, 10, 6) *Τολῶσα κολωνία* (*Tolosa colonia*). Alabaina ez du ematen orain arte ikusi ditugun etsenpluekin zerikusia duenik, Gorrotxategiren (2000, 147. or.) aierua baita *Tolosa* Ptolomeok aipatutako *-osa* atzizkia duten izenen zerrendari (*Egosa*, *Dertosa*, *Sucosa*-ri...) gehi dakiokela, guztiak *o* luzea dutenak.

Herri izenak ez direnen artean ere Gipuzkoan badira *-osa* duten toponimo batzuk. Aralarren, konparaziora, *Latosa* saroiak dauzkagu. XV. gizaldian lekukotzen dira estrei-nakoz: *Latosa* (1410, OUA1), *Latosa-Ayestarraza*, *Latosa azcaraya*, 1452, OUA2). Huescako *Letosa* (Bierge) eta *Lartosa* (Sagués) herri hustuekin (*Sancte Marie de Lartosa*, 1055; Ubieto 1963, 133. or.) aldera daitezke, baita Asturiasko *Lartosa* herrixkarekin ere.

4.5. Amaieran *-sa* duten beste toponimo batzuk

Hasteko, Nafarroako *Legasa* zein *Latasa* aipa daitezke (*Sancho de Latassa*, 1270; CDSMR, 279. or.), Salaberrik (2005b, 110-111. or.) dioen gisan, zenbait kasutan *-rz-* > *-s-* bilakabidea izan dela frogatzen baitute (*Legarza*, *Latarza* → *Legasa*, *Latasa*). Ez nuke erabat baztertuko, apika, Ezkabarteko *Eusa* kontzejua multzo berekoa izatea: *Sanctum Michael de Eusa*, *Lope Lopiz de Eusa* (1090; DML, 194. or.), *Garcia Lopeiz de Eusa*, *Heusa* (1095; DML, 219. or.), *Eussa* ([1105-1115]*; DML, 347. or.), *Elizaueria de Eussa* (1174; DML, 434. or.), *Elizaberria de Eusa* (1198; DML, 472. or.).

Begira diezaiozun orain *-rz-* > *-s-* aldaketa izan ez bide duen bati; Nafarroako hego-sartaldean (Calahorratik oso gertu eta Larragatik 25 bat km-ra) dagoen Andosilla-San Adriango *Arresa/Resa*-z (herri hustuaz) ari naiz: *Resa* (933; BGD, 606 zk. [195. or.]), «... *Fortun Sangez dux Petra alta fecit, senior Fortun Sangez de Caparoso, [...], senior Fortun Lopez de Arresa...*», (1036; Ubieto, 1963, 10. or.), *Resa*, *Aresa* (1064; BGD, 159 zk. [52. or.]), *Arresa* ([1068]; DML, 126. or.), *Arresa* (1072; DML, 145. or.), *Resa* ([1122] [1102]; BGD, 356 zk. [52. binp.]), *Resa* (1110; Goñi, 1997, 131. or.), «*Dono inquam tibi medietatem de Sartaguda illius scilicet qui iacet iuxta Aresam et Lodosam*» (1144, Rodríguez de Lama, 1992, 137, 217. or.), *Arnaldus de Arresa* (1180; Goñi, 1997, 315. or.).

Huescako (Fiscal udalerriko) *Arresa* herriak Andosilla-San Adriangoaren molde berekoa dirudi. Ubietok (1972, 41. or.) biltzen duenez, bi formarekin dokumentatzen da, bata sudurkariduna, bestea gabea: *Sancti Salvatoris de Arrensa* (992; Ubieto, 1966, 10. or.), *Arensa* (*solano que vocatur*, 1027; Ubieto, 1962, 127. or.), *Fortun Lopez de Arresa* (1036; Ubieto, 1963, 10. or.), *uilla que dicitur Arresa* (1039; Ubieto, 1963, 35. or.), *villa que vocatur Arrensa* (1055; Ubieto, 1963, 125. or.), *villa que vocatur Arrensa* (1058; Ubieto, 1966, 12. or.).

Antza denez, Burgosen (Arabarekin mugan), Encima Angulo-Las Fuentes artean, bazen beste erakuskari bat: *Ressa* (864; BGD, 355 zk. [108. binp.]).

Arreta pizten du Nafarroan eta Aragoian, bietan, *Arresa*-ren laginak egoteak (*cf.* Burgosko *Resa*). Huescakoak informazio baliotsua ematen digu, bi formarekin ageri baita, bata sudurkariduna, bestea gabea (*Arrensa/Arresa*).

Zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, Erdi Aroko iturrietan (IX-X. gizaldietan) lekukotzen den *Arresa/Resa* (*cf.* *Arrensa*) leku izenaren eta haren bukaerako *-sa*-ren

jatorria zein den jakitea. Toki-ugaritasunezko *-(t)za*-rekin ez du zerikusirik, antza, ez baitago *-(t)zaha* edo **-saha* zaharrago batetik datorrela pentsarazten duen aztarnarik. Guztiarekin ere, ez dut behar baino gehiago esan uste zahar samarra izan daitekeela esatearekin, alegia, ez dut oztopo gaindiezinik ikusten gure aroaren hastapenean Euskal Herrian *-s(s)a* elementua zuten toki izenak egoteko (ikus 4.3.§) eta –zenbait aldiz toponimoetan jatorri dutela onartzen bada (ikus 4.2.§)– osagai hori bera zuen teonimoren bat izateko eragozpen larririk ere ez.



5. Zenbait galdera eta azterkizun

La lingüística diacrónica, como cualquier disciplina científica, ha podido conseguir lo que ha conseguido sólo gracias a las trabas que se ha impuesto. Pueden parecernos molestas, como al ave de Kant le parecía que la resistencia del aire era un impedimento para su rápido vuelo, pero sólo avanzamos gracias a ellas. El porvenir no puede estar en suprimirlas, porque no tiene ninguna gracia que nos hagamos trampas a nosotros mismos. Hay que tomarlas como son y tratar de mejorarlas en lo posible o sustituirlas por otras que resulten más eficaces.

K. Mitxelena (1963, 84. or.).

5.1. Teonimoen akaberak eralkitzearen garrantziaz

Bederatzi teonimoren hamazazpi lekukotasun ditugu eta, lehen begiratuan, gehienak ilunxkoak dira, ez dute etimo garbirik eta, ondorioz, ezer gutxi dakigu haien egituraz edo osaketaz. Zerbait esan daiteke, horratik.

Hasteko, latinez izkiriaturiko botoetan edo segida onomastikoetan agertu arren, solasgai ditugunak ez dira izen ohikoak edo oso zabalduak mintzaira horretan, esan nahi dut ez direla beste inon ageri; behin baino gehiagotan, gainera, Erromako hizkuntzak berezkoak ez dituen soinuak edo ezaugarri fonetikoak aditzera ematen dituzketen zeinu grafikoak (*ts...*) erabili zituzten haiek grabatzeko. Hitz bitan, kuntza berezia dute. Bigarrenik, latinezko inskripzioetan dauden heinean, pentsa daiteke hizkuntza horren arauari men egiteko egokituak daudela, latinez erabili ohi diren osagaiak (kasu atzizkiak...) ezarri zizkietela gramatika alorreko informazioa ekartzeko.

Aldareetan egiten diren promesen hartzaileak diren aldetik, hots, zehar osagarriaren funtzio sintaktikoa betetzen dutenez gero, espero izatekoa da epigrafeetako teonimoak datiboan deklinatuta egotea eta, izan, horrela da batzuetan, darabilgun multzoan badirelako latinezko desinentziak dituzten bi ale; ERRENSAE eta LOSAE/LOXAE-z ari naiz. Hain zuzen, ikusita biek ala biek lehenbiziko deklinazioaren datiboari (edo genitiboari) dagokion morfema dutela, pentsa daiteke nominatiboko formak *Errensa* eta *Losa* ziratekeela.

Gainetiko laginetan ez dago, ordea, latinaren gramatikaren arrasto garbirik. Arreta pixka bat jartzen diona jabetuko da, izateagatik, apika, hirugarreneko datiboaren

hondarkia izan dezakeen LACVBEGI alde batera utzita, mostra guztiek *-e* dutela amaieran eta, jakina denez, latinez *-ae > -e* aldaketa izan ez bada behintzat— bokal hori hirugarreneko ablatiboaren adierazletzat baliatu da eskuarki, ez datiboa ezaugarritzeko, alegia, ez da erabili zehar osagarriaren funtzio sintaktikoa (aldareetan adierazitako agintzen onuradunak) seinatzeko. Hori dela eta, gehienetan ez dakigu benetan zer daukagun, ez dago garbi *Helasse*, *Herauscorritsehe*, *Itsacurinne*, *Larahe* edota *Sela(i)tse*-ren bukaerako bokal erdikoak zer diren, gramatika eginkizunik baduten, hain gutxi aldi oro jatorri berekoak diren.

Azken bokalaren aurretik *h* hizkia dagoenean ez da oztopo larririk osagaiak edo zatiak bereizteko (*Herauscorritse-he*, *Lara-he*), baina, esate baterako, aitzinean *ts* edo *ss* grafiak ditugunean (*Sela[i]tse*, *Helasse*) zailagoa da banaketa nola egin asmatzea (*Helass-e?*, *Helass-e?*, *Hela-sse?*, **Helas-s(a)e?*).

Goian esan dudanez, gauza segurua da latinez zenbait aldiz *-ae > -e* mudantza burutzen zela, San Pedro Manriqueko (Soriako) K.o. II. mendeko hilarri batean irakur daitekeen *Veliae Procule* (gen.; HE, 24760) antroponimoak frogatzen duen gisan. Italian badira monoptongazio horren K.o. I. gizaldiko testigantzak (Väänänen 1982, 64-65. or.) eta, hortaz, ez da ezinezkoa jorratzen ari garen multzotxoko aleren batean amaierako *-e* datiboko *-ae* hondarkiaren laburtzapena izatea. Gehiago dena: aukera bat da uste izatea *-e* gehienak latineko datiboaren desinentziak direla, sinestea aldi oro *-ae* diptongoaren hondakinaren aurrean gaudela.

Akabailako *-e* hori, erantsitako morfema ez ezen, oinarriaren (bakunaren, elkar-tuaren edo eratorriaren) parte ere izan daiteke. Preseski, bukaeran *txistukari afrikatua* + *e* segida duketen bi ale daude ikergai dugun sortan (*Sela[i]tse*, *Helasse*) eta igurzka-riaren segidan bokal irekia duten beste bi (*Errensa-*, *Losa-/Loxa-*), hau da, batzuetan *-e* dugu kontsonantearen ondoren eta besteetan *-a-*. Desinentziak ez direlako hipotesiarekin jarraituz, beste urrats bat eman eta itaun daiteke *txistukaria* + *a*, *e* sekuentziak elementu banaezinak (atzizkiak) ala bi zatikiren baturak ote diren. Elementu bakoitzen aitzinean gaudela onetsiz gero, balizko *-tse/-sse* eta *-sa/-xa-* berrekailuen artean loturarik ba ote den begira daiteke eta elkarketak direla iritzi gero, berriz, haien jatorria eta eginkizuna zein den antzematen ahalegindu gintezke.

Sela(i)tse-n eta *Helasse*-n (*-ae > -e*) monoptongazioa gertatu dela (nominatiboko forma **Sela[i]tse* edota **Helassa* zatekeela) suposatzeke eragozpen gairaz ez dago teoriarik, nahiz eta *Herauscorritsehe* teonimoak *-tse-* elementua bazela iradoki (*fr. Lara-he*). Ildo beretik, sudurkariaren eta txistukariaren artean morfema muga dagoela dirudien gero, *Errensa*-n *-sa* bakar daiteke (ikus 4.5.§), baina ez du horrela zertan izan. Izan ere, beharbada pentsa daiteke *Herauscorritsehe*-n *-tse* atzizkia + *-he* daudela, eta *Sela(i)tse*-n eta *Helasse*-n txistukari afrikatuz bukatu oinarria dugula, ohikoa baita hori euskaraz: *Sela(i)ts-* + *-e*, *Helats-* + *-e*. Ildo horretan, hasperena bokal tartean agertzea edo atxikitzea usaiakoa dela dirudi, baina ez txistukari ondoan.

Amaieran *txistukaria* + *bokala* dutenak elkarren artean erkatzen badira, itxuraz, bi atzizki (*-tse/-sse* eta *-sa/-xa-*) bakan daitezke, horrenbestez. Hortik jarraituz gero, hipotesietako bat da suposatzea Barbarin eta Miñaoko teonimoak (baita *-e* duten beste batzuk ere) ez dutela latinezko kasu markarik, deklinatu gabe daudela. Horrela balitz, galdera litzateke zergatik dauden moldatu gabe. Beste hizkuntza bateko izen bereziak direlako, horixe izan daiteke erantzuna, arrotzak eta ulertezinak zirela-eta, teonimoak zizelkatu zituztenek latinera egokitzeko zailtasunak zituzketelako (*cf.* Väänänen, 1982, 184. or.). Ohart bedi irakurlea *Sela(i)tse*-k eta *Helasse*-k latinak berezkoak ez dituen soinuen zeinuak diruditen <ts> nahiz <ss> grafiak dauzkatela. Hurrengo galdera izan daiteke *-sa/-xa* dutenak zergatik dauden deklinatuta eta *-tse/-sse* duketenak (eta gaintekoak) ez, ERRENSAE edota LOSAE/LOXAE baditugu, zergatik ez dagoen **Selatseni* edota **Helasseni*-rik. Bat-bateko arrapostua dateke inskripzioak egin zituztenei *-a* oina bide dutenak moldagarriagoak (latinera ekartzen errazagoak) begitandu zitzaizkiekeela.

Bukaerako bokalaren izaera eta nondik norakoa jakitea aski axolazkoa da, beraz, hainbat teonimoren etorkia argitzen saiatzeko, esan nahi dut garrantzitsua dela markarik gabeko deiziorik baden egikaritzea eta, horrekin batera, *-tse/-sse* berrekailua ba ote dagoen berrestea, alegia, *-e* guztiek sorburu bera duten begiratzea eta datiboaren morfemarekin lotura baduten antzematea. Hel diezaiogun eginkizun horri.

5.2. Izen berezien deklinabidea Akitanian eta Sorian

Euskal Herrian dokumentatu diren Antzinaroko euskal teonimoek kasuaren arabera har ditzaketen formak aztertzen hasi baino lehen, ez dago sobera ondoko lurraldeetan antroponimiaren eta teonimiaren arloan gauzak nola izan diren kontuan hartzea, Akitaniako nahiz Soriako iparraldeko euskal idazkunei behatzea, alegia (baita Hagenbach-ekoei ere). Mitxelenaren «De Onomástica Aquitana» (1954, 424-427. or.), Gorrotxategiren «Onomástica Indígena de Aquitania» (1984, 371-373. or.) eta autore beraren «Euskara antzinatean» (2018e, 261. or.) aingura lanei jarraituko natzaie egiteko horretan.

Testu horietan irakur daitekeenarengatik, lehenengo eta behin, komeni da be-tiere gogoan izatea ez dela auzi bera jainkoena eta pertsona izenena, teonimoen artean, antza denez, antroponimoetan ageri ez diren formak nabaritzen direlako, esate baterako, deklinatu gabeko deizioak. Nolanahi dela, ikusiko dugunez, badira elkarreki-kotasun esanguratsuak bi taldeen artean.

Euskal ondareko pertsona izenek, batzuetan, mudantzak izan zituzten amaieran latinaren moldeetara egokitzeko, idazketaren zein hizkuntzaren arloko gertakariak adieraz ditzaketenak. Adibide bat aipatzeko, *-a* eta *-us* hondarkiek akaberako jatorrizko bokala ordezkatu dute zenbait aldiz. Baina begira diezaiogun astiroago auzi horri.

Akitanian, *-e* zeukaten emakumezko jende izenak *-izan* erro soilak, izan atzizkiz osaturiko oinarriak—hirugarrenetik deklinatzen ziren, oinaren eta desinentziaren artean *-n-* bat tartekatuz: *Andereni [ff]iliae* (dat., Larcan), *Andereseni matri* (dat., Barcugnas - Luishon [Luchon]). Badira *-se* berrekailua dutenen adibide gehiago, *Ereseni* (dat., Cadelh e Las Penas [Cazaril-Laspènes]) eta *Neureseni* (dat., Arrien) konparaziorako. Berdin jokatzen zen bukaeran *-o* zuten atzizkiez hornituriko onimoekin: *Erhexoni* (dat., Sent Bertran de Comenge [Saint-Bertrand-de-Comminges]), *Andreconi matri* (dat., Sent Bertran de Comenge).



Cadelh e Las Penasko hilarria.

Gizonezko izenen arloan gauzak nahasiagoak dira. *-O* oinak beren horretan nominatibotzat hartu eta hirugarrenetik moldatu zituzten asko aldiz Akitanian, *-so* duten Hegoaldeko *Beltsonis* eta *Abisunonis* genitiboak legez, beraz. Gauzak ez ziren, ordea, beti batekoak, *Bonxus* (nom., Croix de l'Oraison, Tibiran e Jaunac [Tibirán-Jaunac] edo Generest) *vs.* *Bonxoni* (dat., Benque [Benque-Dessous]) bikoteak frogatzen duen bezala. *-E* dutenak *-o* balute bezala ekartzen zituzten maizenik latinera, baina, batzuetan, bigarrenetik egokitzen ziren (*Sembus*, nom., Cardelhac [Cardeilhac], Cièrp e Gaud [Cierp-Gaud]; *Sembi filia*) gen., Bossens [Boussens]; Hagenbach). Azkenik,

mostra gutxi egon arren, badirudi *-i* duten erroak ere bigarrenetik deklinatzen zirela (*Senius*, nom., Barsous, Brauvaca [Bramevaque]).

Kontsonantez bukatzen direnei erreparatuz gero, txistukaria zeukaten antroponimoak bigarrenetik nahiz hirugarrenetik markatzen ziren: *Andossus* (nom., Hagenbach)/*Andoxus* (nom., Mèles [Melles]), *Bihoxus* (nom., Antinac [Antignac]), *Lohisi fil(ia)* (gen., Sent Bertran de Comenges edo Vathcrabèra [Valcabrère])/*Lohixsi filius* (Liéoux), *Ulohoxo* (dat. Saint Marcet [Sent Marcèth]) *vs.* *Berhaxsis* (gen. Barcugnas), *Bonsilexsi* (dat., Arguenòs [Arguénos]), *Ulohossii* (gen., Lasseran [Lasséran]).

Sudurkariz amaitzen diren oinak ere bigarrenetik eta hirugarrenetik bihurtzen ziren: *Odanni* (giz., gen. Sent Pè d'Arde) *vs.* *Hahanni* (emak. dat., Sent Bertran de Comenges). Dardarkariz akabatzen zirenak, berriz, hirugarrenetik deklinatzen zituzten (*Halscotarris filiae*, gen., Vathcrabèra). Arreta pixka bat opa diona jabetuko da bi alor horietan oinaren kontsonante ozena grafia geminatuaz idazteko joera dagoela.

Hori guztia hala delarik ere, Akitanian dokumentaturiko jende izenen artean (latinezko hondarkiak hartu dituztenez landara) badira, itxura batean, deklinatu gabeko forma batzuk eta haien artean, kontsonantea daukatenak ez ezik (*Andos* [Barosis filius], Vathcrabèra), *-o* (*Anderexo*, Escunhau - Val d'Aran) eta *-e* bokalak dauzkatenen adibideak leitu daitezke: *Andere* (Martras Tolosana [Martres-Tolosane]?; *Edunxe mater* (nom., Valentina [Valentine]); *Hautense* (nom., Bordèras [Bordères]), *Uriaxe* (Ardièja). Bokal horiek aurretik txistukariak zein dardarkariak dituzkete, horrenbestez (*cf.* *Erhexoni*; *Hautensoni*, dat., Vathcrabèra; *Andereni*; *Andereseni*; *Ereseni*...).

Antroponimian erabiltzen den *-so/-xo* atzizkia daukaten izenek teonimian gauzak bestelakoak zirela uste izateko arrazoirik ez dela egiaztatzen dute: *Bocco Harausoni* (dat., Boucou), *Bocco Harousoni* (dat. Aulon), *Larrasoni* (3), (dat.) *vs.* *Ilurberrixo* (Escugnau - Val d'Aran); *cf.* *Ilurberrixon* edo *Ilurbe[r]ixio* (Tibiran e Jaunac). Goiko adibide horietatik atera ahal genezakeen ondorioetako bat da akaberan *-o* zuten onimoak, izatez, datiboko edo hondarkirik gabeko formak izan zitezkeela. Era berean, *-i* zutenak bigarrenetik deklinaturiko antroponimoen genitiboak (*Deri*, Barran; *Uriassi*, Cardelhac) edota teonimoen datiboak izan zitezkeen (*D[eo] Garri*, Cièrp e Gaud). Argi dagoen gauza bat da *-e* duten teonimoak, *-ae* > *-e* aldaketa izan ez bada behintzat latinaren paradigmaren arabera, (mintzaira horretan) deklinatu gabeko formak izan beharko luketela, ablatiboak izateak ez baitu zentzurik.

Soriako Tierras Altas eskualdeko jende izen indigenez kestone, diodan Navabellidan (Oncalan) *Antestia Onse Murrani filia* (Gómez-Pantoja & Alfaro, 2001, 180. or.) eta Yanguasen *Ponti(a) Onse (On)sonis (filia)* emakumezkoak dokumentatu direla (HE, 15205), baita gizonezko *Ae(milius) Onso* El Colladon (Oncalan) ere (Gómez Pantoja, 1992, 919. or.; HE, 16071), guztiak nominatiboak. Halakoez mintzo dela, esaten du Gorrotxategik (2018, 272. or.) sexua berrekailu beraren bi aldaeraren bitartez adierazita dagoela (*-se/-so*). Hargatik, galde daiteke *-(x)so* orokorraren ondoan, nagusiki

emakumezkoen izenak sortzeko erabili den *-se/-xe* berrekailua (*Erese, Edunxe*) bada-goenez gero– oinarri beraren gainean eraturako Akitaniako izenetan (Soriako iparraldean bezala) *-o/-e* txandaketak, zenbait aldiz, genero bereizketa ez ote duen jakitera ematen (ikus Gorrotxategi, 2022, 114. or.).

5.3. Datiboko *-(h)e* hondarkiaren arrazoia

Pirinioetako latinezko inskripzioetako euskal izenek dituzten fonetika arloko berezitasunez diharduela, Luchairek (1879, 62, 68. or.) ohartarazten du datiboko zenbait formak *-e* bokala duela hondarrean; *Andose, Aherbelste, Baeserte, Ele, Erge, Herauscorritshe* eta *Lahe* onimoak dakartza argibidetako. Badio, halaber, *-e* hori latinezko *-i* eta *-ae*-ren tokian ageri dela, hirugarren eta aurreneko deklinazioetako kasu marken ordeztu, alegia. Hari beretik, *-cha* (sic) → *-che* jasotzen du desinentzien sailean ikusten dituen bokal eratorpen (*derivation vocalique*) etsenplu urrien artean, baina pentsa daiteke *-ahe* → *-che* mudantza zuela buruan, *Art-ahe* eta *Herauscorrits-che* jartzen baititu adibide moduan.

Aurrerago (eratorpen atzizkien atalean) Parisko historialaria (1879, 73, 89. or.) «*-e*)x (*-s, -ss*)» berrekailuaz mintzo da eta *Ande)resse, Anderese-ni, Ander)esenis* antroponimoak aipatzen ditu segidan. Argi du «*-ess, -x* amaierok» akitaniar sustraiokoa direla eta *Anderesse*, seguruenera, *Andere*-ren txikigarria. Izenaren oina *Anderess* nahiz *Ande)resse* datekeela erantzen du, *-us* edota *-enis* erara deklinatua egon daitekeena.

Mitxelenak (1954, 422, 424, 425. or.) –Luchaireri jarraikiz– hori bera ematen du aditzera, hau da, datiboan dauden Akitaniako teonimoen bukaera *-e* dela asko aldiz (*Artahe, Artehe, Idiatte, Lahe...*). Bokal hori (*-a* oinetan) *-ae*-ren hondakina izateari ez dio egiantzik ikusten, emakumeen izenetan *-ae* idazten delako maizenik (*Mineruae Belisamae*) eta, hala berean, *deo Aereda* testigantza badugulako. Errenteriakoak –Schuchardtekin (1907, 60–61. or.) bat eginez– irizten dio *Artahe, Artehe, Herauscorritshe* eta *Lahe*-n <h> silabak bereizteko bitartekoa dela, alegia, bokalez bukatutako oin bati *-e* desinentzia inolako nahasketarik gabe eransteko grafia irtenbidea (cfr. Salaberri & Salaberri, 377, 383. or.).

Mitxelenak *-(h)e*, oro har, latinezko deklinabidean oinarri hartuz esplikatzen modurik ez du ikusten. Oin-oharra jartzen du, halere, esateko Nafarroan *Selatse* dugula eta *-e* hemen *-ae*-ren aldaera grafikoa izan daitekeela. Irakurlea (atzeko) orri-peko beste iruzkin batera bideratzen du eta han –Barbarinen aurkitutako bi idazkuretara <ts> grafia errepikatzea bitxia iruditzen zaiola esateaz gainera– harridura markaz indartzen du *-e*- dela *Selatse* jainko izenaren datiboko hondarkia. Hortaz, ez du erabat txarresten Lizarrerriko inskripzioen balizko nominatiboa **Sela(i)tsa* izatea eta, ondorioz, azken bokalak Akitaniako teonimoen datiboetan den *-e*-rekin zerikusirik ez edukitzea.

Gorrotxategik sarritan hartzen du ahotan teonimoen bukaerako *-e* Akitaniako onomastikaz atondutako doktorego tesian. Esate baterako (1984a, 308-309. or.), *Artahe/Artehe/Arte* teonimoan <h> gabeko forma bigarrenkaria datekeela diosku, hasperena bokal berdinen artean galdu delako, *Leherenno/Lerenno* bezalako beste bikote batzuetatik ondoriozta daitekeenez. Bere hitzetan, pentsatu beharko litzateke *Artahe/Artehe* dela hitzaren aldaera deklinatugabea, baina *-e* bokalak Sent Pè d'Ardet eta Lurdakoa desinentzia hori bera duketen antzeko beste izen batzuekin alderatzea ahalbidetzen du (*Erge, Garre, Buaigorixe...*) eta azken horien argitan *-h-* oinaren eta morfemaren arteko bereizketa markatzeko zeinu grafiko gisa ere uler daiteke (*arta/arte-h-e*).

Aurreraxeago, *Buaigorixe* teonimoari opaturiko sarreran hain justu, Gorrotxategik (1984a, 313. or.) argi eta garbi esaten du *-e* datiboko marka dela («en *Buaigorixe* hay que aislar una *-e* final, como marca de dat. en nombres de divinidad»). Banaketa horren ondorioz *-x-* berrekailua bakar daitekeela ere adierazten du.

Ildo berean, jatorri ezezaguna duen eta galdua dagoen *Erditse Deo* idazkunaz ari delarik *-Herauscorritsehe-*rekin batera Akitanian (Hegoaldeko *Selatse*-n bezala) soinu afrikatua emateko *ts* duen etsenplu bakoitza dela azpimarratu ostean Eibarko hizkuntzalariak (1984a, 320-321. or.) dio *-tse/-xe-*n beste adibide askotan ikusten den *-e* desinentzia bereiz daitekeela eta, era horretan, *-ts/-x-* berrekailua geratzen zaigula, *Bihoxus, Bonxus* eta *Lohixsi*-n dagoen bera (*cf. Edunxe, Uriaxe/Uriassi*).

Doktorego tesiko beste pasarte batean, Gorrotxategik (1984a, 330-331. or.) idazten du *Herauscorritsehe* teonimoaren *corritsehe-* segida eta *Buai-gorixe*-ren bigarren elementua parekatzeak «*-ehe: -e*» hondarkia bakantzea ahalbidetzen duela. Kasu gehienetan *-ehe* (bokal berdinen arteko aspirazioa galdu ondoren) *-e*-n laburtu dela pentsatzen du, aldaketa hori frogatzeko nahiko datu ez dagoela onartuagatik.

Selatse-ri eskainitako atalean, irakasle gipuzkoarrak (1984a, 349. or.) Barbaringo teonimoak zenbait jaingo izen akitaniarretara hurbiltzen duten tasunak dauzkala azpimarratzen du, *-tse* kasu (*Erditse, Herauscorritse-he*). Aitortzen du zaila dela asmatzea oina



Lahe jaingoaren aldaera (Castèlnau D'Estretasfonts). Tolosako (Akitaniako) Saint-Raymond Arkeologia Museoa. Eduardo Orduñaren argazkia.

txistukariz amaitzen den (*Selats-*) eta datibozko *-e* erantsi zaion (akit. *-e?* / la *-[a]e?*) ala, egiazki, *-a* bokalarekin bukatzen den (*Sela-*) eta honi *-tse* atzizki batura gehitu ote zaion.

Buruenik, ondorioen kapituluan, Gorrotxategik (1984a, 373. or.) *-e* jartzen du teonimoen deklinabidearen berezitasuna nabarmentzen duenean eta oroitarazten batzuetan morfema hori latinezko ohiko *-i* (hirugarreneko) eta *-o* (bigarreno) datiboko desinentziekin txandakatzen dela. Argi esaten ez badu ere, bistan da datiboaren hondarkia zuela buruan «desinentzia berezia» terminoa darabilenean. Azken buruan, *-e* morfema latinaren moldeen aitzinean atzeraka egiten ari zen arkaismotzat dauka, eta gardenak ez diren teonimoetan maizago dokumentatzen dela gaineratzen du (*Arhe, Aherbelste, Artahé, Artehe, Ere, Erge, Helasse, Idiatte, Lahe, Selatse*).

1984ko tesia ez da datiboko *-e* aipatzen duen argitalpen bakarra. Miñaoko *Helasse* jainko izenez paratu lanean, adibidez, Eibarko irakasleak (1984b, 261-265. or.) dio Akitaniako zenbait teonimotan den *-e* hondarkia ezin dela latineko *-ae* datiboaren parekotzat hartu, *Gari/Garre, Baiçoix/B(u)aigoix* edota *Andosso/Andose* (gizonezko) jainko izen bikoteetako txandakateek *-e* bat bereiztea ahalbidetzen dutelako. Morfema hori dagoela onetsiz gero, orduan, Miñaokoaren oina *Helass-* litzateke. Grafia geminatua horren alde mintzatuko litzateke bere irudituan, akitanierako oin txistukaridun asko latinezko kasu marken aurrean afrikatuak adieraziko lituzketen grafia berezien bidez izkiriitzen direlako (*xs, x*).

1984ko tesia osatzen eta zuzentzen duen beste artikulu batean, Gorrotxategik (2018a [1993], 79-80. or.) Larragako *Errensae* (akitaniarren ikuspuntutik) txistukariz bukatutako oin bezala azter daitekeela jakitera ematen du, *-x(s)-* berrekailu baten bidez eratu dena (*Erren-s-*) eta, kasu honetan, lehen deklinabidearen datibo singularrari dagokion latineko desinentzia (*-ae*) hartu duena. Izan ere, bere ustez, *-x(s)-* bokalez (*cf. Bai-gorri-xs-o/e, Bon-co-xs-i*) edo kontsonantez akabatzen den oin bati ezar dakioke (*cf. Monsus vs. Bon-*). Zenbait izenetan txistukari horrek oinaren (eta ez atzizkiaren) berezko zatia dirudiela onartzen du horratik, Lerate-Zirauki aldeko *Losae, Loxae*-n esaterako, baita, beharbada, Barbaringo *Selatse*-n ere.

Ildo beretik, Montcirèr-ko aldareñoen buruz plazaraturiko ikerlanean, Gorrotxategik (2018d [2010], 335. or.) *Herauscorritsehe*-n (*buai-gori-x-e-n* antzera) *heraus-corri-ts-e* + *-he* morfema zatiketa egitea zilegi dela irizten dio eta bere buruari galdetzen *-he* teonimoaren forma atzizkidunari erantsitako zehatzaile motaren bat ala hondarkiaren (bokal ondoko aldaeraren) errepikapena ote den. Gehitzen du *-zati* daitezkeen teonimo luzeetan ez bezala—aldagaitzak diren *Erge, Elhe* edo *Lahe*-ren kasuan ezin dela jakin *-e* oinaren parte den ala ez.

Urte batzuk beranduago, akitanieraren eta euskararen arteko harremanaz ari dela, hizkuntzalari eibartarrak (2015b, 300. or.) ondorioztatzen du, itxura batean, akitanieran bakar daitezkeen datibozko *-he/-e-k* ez duela jarraipen zuzenik izan euskara historikoan. Iruxon «aldaera arrunta» duen *Larahe* jainkoa Mendigorriko harri batean *Larrahi*

dela onesten du, baina uste du adibide horretan latinaren eragina ezin dela zeharo alde batera utzi.

Duela urte gutxi karrikaturiko *Euskararen historia* liburuaren «Euskara antzinatean» zatian, azkenik, Gorrotxategik (270-271. or.) –1984ko iritziari eutsiz– hutsik edo hasperenez horniturik erruz lekukotzen den (desinentzia eiteko) *-e* Akitaniako jainko-jainkosen corpusaren ezaugarri esanguratsua dela berresten du. Nafarroako *Larahe* Akitaniako *Artahe*-ren antzekoa begitantzen zaio, batez ere Iruxokoa euskarazko *larre*-rekin lotzen bada. Haatik, 1984an ez bezala, oraingo honetan Atharrazte-Sorholüzeko teonimoaren osaketa *Heraus-corri-tsehe* dela izkiriartzen du (eta ez *Heraus-corrits-ehé*). *Itsacurrinne* jainko izenak *-e*-ren aitzinean (morfema bukaeran) sudurkari geminatua duela ere ohartarazten du.

Iritziak nahasi dabilta, ordea, *-(h)e* datiboaren behialako desinentzia delako usitekizuna, esate baterako, Lakarra Andrinuak horretara darabilen hipotesiarekin bat ez baitator (ikus 5.7.§).

Bukatzeko, hitz bi iberieraz. Arlo hori ezinbestean ukitzen dut, ez gehiegi luzatzekotan, ezin utzizkoa delako. Gauza gutxi dakigu mintzaira horren morfologiaz, baina sarri antzean dokumentatzen diren elementu batzuk bereiz omen daitezke, antza. Moncunillek eta Velazak (2016, 12, 15-16. or.) biltzen dutenez, badaudeke antroponimoekin batera azaldu ohi diren atzizkiak; adierazgarrienak **-ar** (*biurtaŕ-ar*, Hesperia, onom. 5837) eta **-en** (*iltirbilkis-en*, Hesperia onom. 5694) dira. Jende izenen segidan arrunta den beste elementua **-e** omen da. Irudi du azken honek ingurumari batzuetan testuaren hartzailea markatzen duela. Adibidea jartzearen, Peyriac de Mer-en (Auden) kausituriko zeramika batean KANIKΩNE esgrafiatua dago (Hesperia, onom. 5894) eta balizko onimo hori **-e** eratzirik duen **kanikon** pertsona izena bezala interpreta omen daiteke. Esan bezala, bokal hori eskaintzat har daitezkeen zenbait inskripzio-tan ageri da, agian botoaren onuraduna seinalatuz. Iberierazko *-e-ri* buruz argibide gehiago nahi duenak ikus bitza, besteak beste, Moncunillen (2007, 149-150. or.) doktorego tesia edota Rodríguez Ramosen (2018) artikulua monografikoa.

Gurera etorri eta laburbilduz, Luchaireren ondotik datiboko formak diruditen zenbait jainko izenen amaieran, bai bokal ondoren (*h* hizkiarekin horniturik) bai txistukari ostean, (kasuren batean *-[a]e*-ren bilakaera izan daitezkeen arren) arruntean latinaren eskutik esplika ezin daitezkeen *-(h)e* hondarkia dagoelako iritzia izarkitu du hizkuntzalari batek baino gehiagok. Hain zuzen, autore batzuek pentsatzen dute *Hellasé*, *Herauscorritsehe* eta *Sela(i)tse* teonimoetan (euskal ondareko) datiboko *-(h)e* dagokeela, txistukariz amaituriko oinari nahiz *-x/-ts* atzizkiari gehitu bide zaiona.

Nire iritzian, baina, mintzagai dugun multzoko izen batzuen akabailako *-(h)e* horiek zer diren jakiteko, egiazki, kasu marka baten, berrekailuren baten osagaiaren edota oinarrien zatien aitzinean gauden ebazteko, alde zurretik, zenbait behaztopa atzean utzi behar da, hainbat itauni erantzun behar zaie.

5.4. *-(H)e* datiboko desinentziatzat onartzeko gainditu beharreko oztopo eta erantzun beharreko galdera batzuk

Akitanian *Baigoriso Deo* (Balestar [Balesta]), *Baico[r]rixo Deo* (Montmajou), *Baigorixo Deo* (Uòs [Huos]) eta *Buaicorixe* (Barta d'Arribèra [Labarthe-Rivière]) teonimoak dokumentatuta daude. Gorrotxategirentzat (1984a, 313. or.), lehenbiziko hirurak deklinatu gabe daude eta laugarrenak, aitzitik, datiboaren marka duke. Zehazki, deklinatugabeetan *-xo(n)* atzizkia genuke, eta bestean *-x-* berrekailua, datiboko *-e-z* hornitua. Ohart bedi aurreneko hirurek latineko *deo* (dat.) zehatzailea dutela ondoan, baina azkenak ez. Nire buruari egiten diodan galdera da ez ote den ekonomikoagoa pentsatzea *-so/-xo* eta *-xe* dauzkagula esku artean eta lau jainko izenek kasu desinentziarik ez dutela, besteak beste, eremu hartan badirelako akabailan *-se/-xe* berrekailua duten zenbait antroponimo (ikus OIA, 368. or. eta lan honetako 5.2.§). *Cfr.* Erdi Aroko *-xe*, *-txe* (*Johanxe*, 1353, 1393; *Johanche*, 1366; *Nafarche*, 1489), iradokitzen dutenak *continuum* bat dagoela hor (ikus Salaberri, 2009, 205-212. or.).

Ildo horretan, Garona Garaian *Erhexoni* eta *Ereseni* emakumezko izenak ditugu, biak ala biak (latinaren) hirugarren deklinabideko datiboaren *-n-i* dutenak. Horretatik atera dezakegu *Er(h)e-* oinari (*cfr.* Salaberri, 2009, 205. or.) *-xo* eta *-se* erantsi zaizkio. Bi elementu horiek (*-so/-xo* eta *-se/-xe*) berrekailuak direla onetsiz gero, argitu behar da *Buaicorixe*-ren kasuan *-e* zergatik den datiboaren marka eta zer arrazoirengatik ez zaion *-n-i* ezarri (*Ereseni*-n bezala).

Ihardets daiteke batean *-xe* eta bestean *-se* daudela, eta horrela da, baina badira argudio horri indarra kentzen dioten adibideak Antzinaroko antroponimian. Esanguratsuenetako bat *Hautensoni vs. Hautense* emakumezko izen bikotea da, erakusten duelako oin berari *-so* eta *-se* eratziki dakizkiokeela, bistakoa baita lehenak latinaren datiboko hondarkia duela eta bigarrena, aldiz, nominatiboan dagokeela (*cfr.* OIA, 222-223. or.).

Edireten da besterik ere antzeko adibiderik Akitanian eta, oharturik laginen artean *Andereseni* (dat.) badela, niri bederik, kosta egiten zait konprenitzea *-se/-xe* duten beste etsenplu batzuetan akabailako bokal erdikoa zergatik den (euskal) datiboaren morfema eta ez, besterik gabe, berrekailuz hornituriko (deklinatu gabeko) oinarriaren zatia.

Antzeko zerbait esan daiteke *Deo Bascei Andosso* (*Andoxus v s l m*), *Herculi Tolian-dosso Invicto* (Sent Helitz de Baïsa [Saint-Élix-de-Baïse]) eta *Hercvli Ilunno Andose* (Narbona) teonimo hirukoteaz, hirurak datiboak badira, ez delako aise aditzen zer dela-eta dauzkaten hizkuntza banatako (la *-o vs.* eusk. *-e*) desinentziak (*cfr.* OIA, 304-305. or.). Honetara ez da sobera gogoratzea Gorrotxategik (1984a, 369. or.) *Bonxsus/Bonxsoni* bikotearen karietara dioena, alegia, txistukari afrikatu batean funtsaturiko atzizki bakarraren aurrean gaudekeela, latinaren deklinabidera era ezberdinetan moldatu dena: nagusiki *-xsus*, *-xsi* eta *-xso*, *-xsonis* bezala, baina kasu (gutxi) batzuetan *-x*,

-*xis* gisa. Akitaniako antroponimiaren arloarekin bukatzeko, hor dugu Garona Garaiko *Edunxe mater* nominatiboa, emaztekoa hau ere.

Ebro ibaiaz haraindi joanez gero, lehenago ikusi bezala, Soriako iparraldean *Ae(milius) Onso*, *Pontia Onse* eta *Antestia Onse* antroponimoak ditugu eta ematen du cognomina horietan *-o* eta *-e* bokalak generoa bereizteko ezarri bide direla. Haietaz mintzo dela esaten du Gorrotxategik (2018e, 272. or.):

... bi emakumek daramaten *Onse* eta gizonezko baten *Onso* izenak guztiz interesgarriak dira, sexua atzizki berberaren bi aldaeren bitartez adierazi egiten dutelako: ak. *-so* / *-x(so)* atzizkia, sexu bietako izenak eratoritzeko erabilia izan arren —*Sembexson-* eta *Anderexso-*k erakusten duten bezala—, askoz ere ugariagoa da gizonezkoenetan; *-se* atzizkia, ordea, soilik emakumezkoenetan agertzen da. Beraz, akitaniar onomastikan ikusten dugun banaketa berbera aurkitzen dugu Soriako izen bikote honetan.

Hizkuntzalari gipuzkoarrak osaketa *On-so/-se* dela (*gfr.* akit. *Ombé*) eta esku artean berrekailu beraren bi aldaera dauzkagula pentsatzen du, beraz, bestela esanda, hemen *-e* ez dela datiboaren desinentzia (*gfr.* akit. *-so/-x(so)* vs. *-se*). Bidenabar, agerian ipini nahi dut bi etsenpluetan txistukaria sudurkari ostean dagoela eta, apika, horregatik hautatu zutela <s> grafia (eta ez <ss> edo <ts>), alegia, igurzkariaren aldeko neutralizazioa zegokeelako.

Akitanian eta Soriako Tierras Altas eskualdean, *-xso/-xo/-so* ez ezik, (latinez hirugarrenetik [*-n-i*] deklinatzen zen) *-xe/-se* bazelako zantzia dagoenez gero, ez nuke baztertuko *Sela(i)tse* eta *Helasse* teonimoetan (eta *Herauscorritshe-n*) atzizki hori bera izatea, hots, biak (Barbaringoia eta Miñaokoa) nominatiboan egotea. Ustekizun horren alde mintzo dira, hein batean, datiboko ERRENSAE eta LOSAE/LOXAE formak, gurean euskal ondareko izenek latinezko inskripzioetan hizkuntza horretako hondarriak hartzen zituztela frogatzen dutelako, baita balizko interferentzia linguistikoa (*-e* datibo arkaikoa) ez zela aldi oro agitzen, ez zela fenomeno orokorra.

Hizkuntzen arteko nahasketak ez ziren ezohiko zerbait Antzinatean. Adibidea jartzearen, Gorrotxategik eta Vallejok (2010, 72-73. or.; *gfr.* 2019, 349. or.) biltzen dutenez, Lusitaniako epigrafeetan erregistro-aldaketa sumatzen da mintzaira indigenaren eta latinaren artean. *Code-switching* horrek elebitasun adibide bitxiak sortzen ditu, Viseuko inskripzioan ikusten den bezala, jainkoen espresioa lusitanieraz dagoelako eta eskaintzailearena nahiz botozko formularioa latinez («Deibabor / igo / deibabor / Vissaieigo/bor / Albinus / Chaerae / f / u s l m»); alegia, dibinitateek latinezkoekin zerikusirik ez duten datiboaren flexiko marka indigenak daukate. Bi autore horien hitzetan, badirudi teonimoen adierazpena hizkuntzaren berezko bilakaeretatik hurbilago dela eta erregistro antroponimikoa, aitzitik, aldaketa horien eraginetik kanpo dagoela, aparteko sistema kontserbadorea balitz bezala, nolabait esan.

Mitxelenak (LP, 79. or.) dioen gisan, naturalena da pentsatzea interferentzia linguistikoa fenomenoak iraganean (hurbilean eta urrunean), funtsean, zuzenean ikus

ditzakegun gertakarien antzekoak izan direla, denbora joanetako hizkuntzen tasun nagusiak gaur egun hitz egiten edo ezagutzen ditugunen oso bestelakoak ez bide zirela uste izatea normala den bezala. Hitz bitan, historiaurreko prozesuak ez ziren gaur egun antzematen ditugunetatik oso desberdinak izango.

Nafarroako teonimoekin jarraituz, *Lacubegi* da (*Lar[r]jahi*-rekin batera) bukaeran *-ae* edo *-(h)e* ez duen bakarra. Hemen bi aukera dakuskigu: oina *Lacubeg-* (nom. **Lacubex?*, **Lacubegis?*) dela iritzi eta *-i* hirugarreneko datiboaren morfema dela pentsatzea edota, kontrara, deklinatu gabe dagoela suposatzea. Uste izan daiteke, apika, bigarre-na dela hautu zuzena (ikus 2.§).

Zalantzez ari naizela, hauxe ere gehituko nuke: *Heruscorritsehe* teonimoari, hala izatekotan, datiboaren euskal hondarkia (*-e-he*) bi aldiz zergatik erantsi zioteten ez dago garbi, are balizko errepikapena etsenplu horretan bakarrik gertatzen dela jakinda. Hegoaldean badira *-tse* duten teonimoak, *Sela(i)tse* lekuko, baita *-he* dutenak ere, *Larahe* kasu, baina ez dago *-ehe* segidaren (bikoiztearen) lekukotasun gehiago. Gauza bera gertatzen da Akitanian. Zuberoko epigrafekoa litzateke, beraz, datiboaren errepikapenaren adibide bakarra (salbuespena).

Jatorri iluna duen eta galdua dagoen *Erditse Deo* jainko izenari eskainitako sarrean, –soinu afrikatua emateko *ts* duen etsenplu bakarretakoa dela azpimarratu ostean– Gorrotxategik (1984a, 320–321. or.) *-tse/-xe-n*, beste teonimo askotan ikusten den *-e* desinentzia bakar daitekeela adierazten du eta, horrela, *-ts/-x-* atzizkiarekin gertatzen garela, *Bihoxus*, *Bonxus* eta *Lohixsi-n* dagoen berarekin, alegia (cfr. *Edunxe*, *Uriaxe/Uriass*).

Hori berretsiz, Eibarko irakasleak (1984a, 368–369. or.) *-xso-* latinera bi eratara egoki daitekeela idazten du aurreraxeago, *-xsus*, *-xsi* eta *-xso(n)-* (eta *-so(n)-*) gisan; hain justu, bere iritzian, *Bonxsus/Bonxsoni* bikoteak afrikatu izaerako berrekailu bakarra dagoela azalera dezake agian, latinera modu ezberdinetan moldatu dena, batez ere *-xsus*, *-xsi* eta *-xso*, *-xsonis* bezala (*-bo-* atzizkia **-bus*, *-bi-* eta **-bo*, *-bonis* formekin egokitzen den moduan). Horrez gainera, kasu gutxi batzuetan, hirugarreneko *-x*, *-xsis* dokumentatua dagoela gehitzen du, afrikatuan oinarrituriko oinetan gertatu antzera (cfr. *Ennebox*).

1984ko tesia borobiltzen duen idazlan batean, Gorrotxategik (2018a [1993], 79–80. or.) hiru hamarkada lehenago esandakoari eusten dio, Larragako *Errensae* teonimoa (akitaniaren ikuspuntutik) txistukariz amaituriko oin bezala azter daitekeela berresten baitu, *-x(s)-* berrekailu baten bidez eratu dena (*Erren-s-*) eta, oraingo honetan, lehen deklinabidearen datibo singularrari dagokion latineko desinentzia (*-ae*) jaso duena. *-X(s)-* bokalez edo kontsonantez bukatzen den oin bati erants dakiokelakoan da, hortaz. Halere, onartzen du zenbait aldiz amaierako txistukariak oinaren (eta ez atzizkiaren) berezko zatia dirudiela, Lerate–Zirauki aldeko *Losae*, *Loxae* teonimoetan legez, baita, beharbada, Barbaringo *Selatse-n* ere (*Selats-e*). Urte batzuk beranduago

(2018d [2010], 335. or.) *Herauscorritse*-n *heraus-corri-ts-e* morfemak bakar daitezkeela eta segida horri *-he* gehitu zaiola baieztatzen du.

Lehenagoko batean aipatu bezala, antroponimiaren sailean *Ereseni* (dat.) *vs.* *Erhexoni* (dat.) eta *Hautense* (nom.) *vs.* *Hautensoni* (dat.) bikoteak ditugu Akitanian, eta Soriako iparraldean *Onso* (giz.) *vs.* *Onse* (emak.), iradokitzen dutenak *-x(s)o/-so* eta *-xe/-se/-tse* osagarriak diratekeela (*cf.* *-to, -te*) eta batzuetan bata ala bestea hautatzea generoarekin lotua egon daitekeela. Hori ikusirik, sinets daiteke –Gorrotxategik (2020, 38. or.) dioen moduan– berrekailuaren oinarria txistukari bat izan daitekeela eta *-e* eta *-o* bokalak hari batutako eranskinak. Horren alde hitz egingo luke latinera modu ezberdinetan egokitu izanak (*-xsus, -xsi* eta *-xso, -xsonis*) eta kasu gutxi batzuetan *-x, -xis* (hirugarren deklinabidea) dokumentatua egoteak; orobat *Bascei Andosso* (dat.) / *Herculi Toliandosso* (dat.) *vs.* *Herculiilvno Andose* (dat.) hirukoteak.

Honenbestez, nire ustetan, *-e*-k eta *-o*-k aldi oro ez dute (hizkuntza banatako) datiboko markak zertan izan. Labur-zurrean esanda, ezin bazter daiteke teonimian lekukotu *-xe/-se/-tse* atzizkia, asko aldiz, *-x(s)o/-so*-ren pareko femeninoa izatea eta, ondorioz, akabailako *-e* bokala, apika, genero mozioa, eta ez datiboaren (arkaikoaren) ezaugarria izatea. *-Tse* emakumetasuna adierazteko modua izan daiteke, baina *Herauscorritse* eta *Sela(i)tse*-ren generoa ezezaguna da; dakiguna da Hercules –inolaz ere femeninotzat har ezin zitekeena– *Andose* dela Narbonan idorotako aldarean (Joakin Gorrotxategiren ahozko adierazpena).

Mitxelenak (1954, 424. or.) –lehenago Luchairek eta ondoren Gorrotxategik egin gisan– euskal enborreko teonimo batzuetan datiboko hondarkia *-(h)e* dela nabarmentzen du eta, gainera, ez du ikusten akabaila hori (arruntean) latineko deklinabidearen argitan arrazoitzeko modurik. Gurera etorri eta adibidea jartzearen, zeharkako objektua den heinean, espero litzateke, esate baterako, LARAHE-k errenteriarak–eta bakartu desinentzia edukitzea. Kontua da Iruixoko teonimoaren inskripzioa egin zutenek (*-h*-a grabatu gabe) **Larae* izkiria zezaketela, alegia, *Larraoinari* (*-he* erantsi ordez) *-e* hizkia bakarrik gehitzea aski zitzaielateonimoa datibo bihurtzeko (*cf.* ERRENSAE eta LOSAE/LOXAE) eta, jakina, forma hori, laburragoa ez ezik, latinaren ikuspegitik zuzenagoa eta ulergarriagoa zatekeen.

Adibide horiek guztiok kontuan harturik, bakoitza bere balantzan ipinirik, *-(h)e*-rekin bukatzen diren antzinateko teonimo batzuek kasu markarik ez daukatela suposatzeke arrazoirik bada, beraz.

5.5. *Erge* izen geografikoaren kasua

Akaberan *-(h)e* duten teonimoak benetan datiboan dauden (osagai hori kasu marka ote den) jabetzen saiatzeko lagungarria izan daiteke izen horiek berak edota haien ondorengoak euskara historikoan nola idatzi diren kontu egitea. Gutxi dira,

zoritzarrez, abantaila hori opatzen duten etsenpluak, baina, antza denez, izan, badira batzuk.

Erge da Erdi Aroan dokumenta daitekeen menturazko oinordea edo ahaidea dukeen Akitaniako teonimo bakarretakoa. Segitu aurretik, baina, ohar bat jarri nahi dut hainbat lasterren: balizko lotura horren berri Patxi Salaberri Zaratiegik eman dit, hari zor diot jarraian erakarriko dudan hari muturra. Bidea seinatzea gutxi ez eta Uxueko maisuak aipatu terminoa (izen geografikoa) XVI. gizaldian Nafarroan bizirik zegoela frogatzen duen 1570eko idazkun baten erreferentzia eskuratu dit. Besterik dira informazio hori erabiliz ateratako ondorioak, haien ardura, txarrerako bada batez ere, niri bakarrik dagokidalako.

Has nadin nire esatekoak esaten. Montcirèren, gorago berri duzun gisan, *Erge* jainkoaren santutegia zegoen. Teonimoaren hogeitik gora lekukotasun idoro dira paraje hartan. Laginak K.o. II. mendearen bigarren erdikoak-III. gizaldiaren bigarren erdikoak dirateke (ikus Gorrotxategi, 2018d [2010], 309. or.). Txit interesgarria da Tarbeko Massey Museoa gordetzen duten ara, eskaintzailearen izenak eta teonimoak, hein batean, antzeko egitura baitute: ERGE DE[.] ERHE ANOSS[.] F V S («*Erge* *De(o)* *Erhe* *Anoss[i]* *f(ilia)* *v(otum)* *s(olvit)*») (Gorrotxategi, 2018d [2010], 325. or.; 20 zk.).



Montcirèrko aldareñoa (Tarbeko Massey Museoa).

Gorrotxategirentzat (*ibid.*, 335-336. or.) zaila da jakitea bukaerako *-e* hondarki modukoa edota izenaren oinaren parte den. *-E* duten Akitaniako teonimoen taldekoa begitantzen zaio, baina arazoak ditu «euskal-akitaniar» eremuan etimoa aurkitzeko eta, horregatik, sailkatu gabe uzten du.

Badirudi izen maskulinoa dela. Fededunei bagagozkie, Gorrotxategiri eta Ramírezi (2013, 134. or.) deigarria zaie sei aldare emakumeek eginarazitakoak izatea, gizonetzkoek ordaindutakoak zortzi direnean. Horretatik ateratzen duten ondorioetako bat da *Erge*-ren ezaugarri bistakoenak ez ziratekeela militarrek edo gerrarekin lotutakoak.

Ergue izen geografikoa, berri, 13. gizaldian (monasterio baten dokumentazio bilduman) leitu daiteke estreinazkoz, zehatz-mehatz, espazioan eta denboran elkarrekin lotura estua duten 1284ko bi izkributan. Horietako bat Lacarra de Miguelek (1957, 45. or.) plazaratu zuen (baina ez osorik) eta, ondoren, Mitxelenak (1964, 37. or.) iruzkindu. Ostolazak (1978) biak transkribatu zituen doktorego tesian.

Lehenbizikoa (Lacarra de Miguelek eta Mitxelenak darabiltena) Orreagako komentuak Luzaiden zeuzkan eta Erroko haranak beretzat nahi zituen *bustaliza* direlakoan (sarioien zerrenda da (1284a; NEAN1; *ifr.* CDSMR, 371. or.). Fraide-etxeak Garazbizkaian zeuzkan ondasunen artean «Guivel alde Ychussia Ergue de val d'Erro» irakur daiteke; Lacarra de Miguelek eta Mitxelenak «Guivel alde ychissia» ematen dute (ikus 1. irudia).



1. irudia: «guivel alde ychissia Ergue de Valderro», 1284. urtea.


Bidenabar, diodan jabetzen artean *Oyar Elque* bustaliza aipatzen dela Luzaiden eta *Orierriaga* izeneko beste bat Garazbizkaian.

1284. urteko bigarren agiria Orreagako monasterioak eta Erroibarrek bustalizen eta larreen kariaz sinaturiko akordioa da (NEAN2; *ifr.* CDSMR, 372. or.). Haranak Alduden zeuzkan eskubideen artean, ozta-ozta, «Ergue Auzterieta Currieta» leitu daiteke (ikus 2. irudia). Aurreko orrian, Errok Garazbizkaian zituenen harira, «Urquiegui Garaycoa Egogue» eta «Orçiren Çorita Soroa, Egogue» bustalizak ahotan hartzen dira. Sarioei buruzko hitzarmenean *Jassenegogue* (Aldude) onimoa ere zerrendatzen da (NEAN2; CDSMR, 373. or.).



2. irudia: «Ergue Auzterieta Currieta», 1284. urtea.

Bada *ergue* terminoa erabiltzen den Erdi Aroko beste idazki bat. 1313. urtekoa da, Erro haranak eta Orreagako komentuak berentzat aldarrikatzen zituzten dermioei buruzkoa hau ere. Damurik, jatorrizko aldakian ez da ezer ulertzen, baina, beharrik, bada 1501. urteko lekualdatze edo traslado bat, pergamino gainean izkiriatua hura ere (NEAN3). Behin baino gehiagotan baliatzen da azterkizun dugun izen geografikoa, batzuetan *bustaliza* terminoaren zehatzaile gisa: «que son bustalizas errgues todas estas cosas» (ikus 3. irudia).



3. irudia: «que son bustalizas errgues todas estas cosas», 1501. urtea.

Patxi Salaberri Zaratiegik eskuraturiko Nafarroako Erresumako Artxibo Oroko-
rreko 1570eko dokumentua soka berekoa da (NEAN4), Orreagako fraidetegiak eta
Erroko haranak zeuzkaten bustalizak mintzagai dituen eskritura bat, alegia. Errorenak
zirenen artean Aldudeko «*ergue Amiztarieta*» dago (cfr. 1284ko *Auzteriet*a), Garazbiz-
kaiko *Orierrriaga* (monasterioarena) eta «*Orziren Corita Soroa egogue*» (Errorena) izene-
ko beste biren ondoan. Argi ikusten da, bai *ergue*, bai *egogue*, abeltzaintzarekin (bus-
taliza direlakoekin) loturiko terminoak direla:

... asta Vizcar Lasturr todos estos logares deuant estos, e si otros / a, debe haber en Lucayde
y en los otros yerros e lugares de Baldero / a[s]ta el día de oy, si quiere bustalizas, si quiere
egogues, quiere el / común de Valdero, e otorga as[i] con los otros lugares que a la orden en casa,
hortalizas, vergeles, cauañas, bustalizas, ergues, egogues, e cubertos en todo el termino de Valdero
propios que los espleite la orden [...].

Hona dakardan azken erreferentzia ere, berriago izan arren, adierazgarria da.
Ibarrak (1936, 270. or.) jakinarazten duenez, Orreagako beste fraide batek, Juan de
Huartek (1550–1625), idatzitakoa da, 1617ko *Historia de Roncesvalles* lanean hain jus-
tu. Merezi du osorik ematea:

Los seles, en las escrituras antiguas, –dice el Lic. Huarte– se llaman bustalizas, egogues
y ergues. Los egogues, son unos prados pequeños, que sirven tan solamente para que los
ganados puedan sosegar, de paso en ellos, en los cuales no suele haver cabañas. Las bus-
talizas, seles y ergues, en bascuence “saro belarbetaeac”, son con nombres distintos, una
sola cosa. Son unos prados abrigados con árboles en sus contornos y muchos en medio
para comer de la oja en el invierno quando el suelo estuviere cobierto de nieve, y, la
yerba dello es la más lozana. Sirven dichos seles para cubillamiento de los ganados y pa
dormir y ordeñar las vacas lecheras en ellos, y pa parir y criar las terneras, y éstos, anti-
guamente, se llamaban Ergues, en los cuales suele haver bordas, ques son unos cubiertos
espaciosos...

Horretatik guztitik ikas daiteke *ergue* bustalizen edo saroien esanahi esparruko
hitza (izen geografikoa) dela, Nafarroako eremu txiki batean Erdi Aroan dokumen-
tatzen dena eta Aro Modernoaren hasmentan bizirik ziraukeena.

Bustalizek edo saroiak sinesmenen arloarekin bide duten balizko harremanaren
kariaz, kontuan izan bedi –Ibarrak (1936, 212. or.) aditzera ematen duenez (Huartek
bildutako kontakizunaren arabera)– *Orierrriaga*-ko zelaian Amabirjina azaldu zela eta,
ikusi dugunez, fraide-etxearen 1284ko bustaliza zerrendan badago izen hori bera duen
bat; cfr. Aralarko *Andradonamarisarioa* (*Anrrearedonamariasarobea*, 1797, AMUA1; *An-
dredonamarisarobea*, 1799, ATUA1; *Andre Dona Mari saroe*, 1800, ATUA2; *Amabirjiña-
rri* ezaguna han da).

Ergue izen geografikoak ez du arrasto garbirik utzi toponimian eta Nafarroako
barrutitxo batean baizik ez da lekukotzen, baina ez dago hemen egia uko egiterik:

behin baino gehiagotan erabiltzen da, bai Erdi Aroan, bai Aro Modernoan. Akitania-ko Antzinaroko teonimoarekin lotura duela onetsiz gero, agerian legoke haren amaierako bokala ez dela datiboaren desinentzia.

5.6. *-(H)e* elementuari buruzko argibide gehiago

Jarraitu aurretik, ongi heldu da puntu honetara Mitxelenak (LP, 20. or.) analogiaz dioena oroitzea, alegia, ezberdintasunak baino pisu handiagoa duela, aurreikuspena (en «predictability») zientifikoa delako, betiere ezarri zaizkion muga zorrotzen barruan, eta ez intuizio dohain indibidualen mende dagoen «mantika» bat. Eta bere baliozkotasuna, beti norainoko edo marra horien barruan, esperientziak egiaztatzen eta berres-ten du. Hori da beti zientzia enpiriko baten metodoen proba erabakigarria. Errenteriakoak (LP, 79-80. or.), nolana ere, argi uzten du berreraikuntza homologietan oinarritzen dela, jatorki edo enbor bereko elementuen antzekotasunean, eta ez analogia hutsetan (bestelako sorburua dutenen elkarrekikotasunean).

Akitaniako onomastikari begi edukiz gero, *Erge*-ren lehen zatia *Erese-*, *Erhexo-* eta *Andere* jende izenen *er(h)e* elementuarekin konpara daiteke (*er-(h)e?*) (cf. Gorrotxategi & Lakarra Andrinua, 1996, 119-120. or.). Biek, *er(h)e*-k eta *Erge*-k, ematen duen bezala, osagai bera (*er-*) balute, agian, frogatua geratuko litzateke jainko izenaren azken bokala ez dela kasu marka (*Er-ge*). Bide batez, diodan, eraketaren aldetik, *Ele* teonimoak goiko antroponimoetan bakar daitekeen *er(h)e*-ren molde berekoa dirudiela. Hain zuzen, *-Antzinateko Erge* Erdi Aroko *ergue*-rekin aldera daitekeen gisa berean *Ele* jainko izena euskarazko *el(h)e* ('hitza, hizketa, hizkuntza, ipuina...') terminoarekin erka daiteke (← **eLe*).

Badira *er(h)e*-ren eite bereko segida duten ale gehiago Akitaniako Antzinaroko izendegian. Horietako bat *Gerexo* (Sent Blancat)/*Gerexso* (Bordères de Loron [Bordères-de-Louron]) antroponimoa da (*Gere-xso*). Patxi Salaberriren eta Iker Salaberriren (2020, 22. or.) arabera, Pirinioez haraindiko deizio horren oinarria (*Gere-*) dateke (cf. OIA, 209. or.), hain justu, Nafarroako *Geretz* herriaren sustraian den pertsona izena. Zehazkiro, bi irakasle nafarren aburuz, jabetza adierazten duen atzizkia *-(i)(t)z* izanen da, eta osotasunaren etorkizko adiera 'Gere izenekoaren ondasuna, lurra'. *Gere*-n morfema muga finkatzen duen *h*-rik ez dago, baina ez zait ezinezkoa iruditzen *erhe*-n dugun *-(h)e* bera egotea, hemen ere *-xso* berrekailuaren aldamenean (*Ger-e-xo* vs. *Er-he-xo*).

Antzeko zerbait pentsa daiteke, itxura batean, eraketa bertsua bide duen *Arhe* jainko izenari dagokionean, alegia, *-Erge* eta *Ele* teonimoetan zein *Er(h)e-* eta *Gere-* (antroponimo) zatietan bezala *-(h)e* ez dela gramatika informazioarekin zerikusia duen morfema.

Beraz, bada, *V + kontsonante isurkaria + -(h)e* zein *(C)V + kontsonante isurkaria + -e* egiturako sekuentzia azaotxo dago Akitaniako onomastikan eta daitekeena da

haietako batzuetan *-(h)e* desinentzia ez izatea, oinarriaren berezko partea baizik. Ez litzateke harritzekoa *Lahe*-n gauza bera gertatzea. Ikus 4. koadroa.



Sent Blancateko aldea.
Sent Bertran de Comengeko Departamentu Museoa.
Eduardo Orduñaren argazkia.

Gorrotxategik 1984ko doktorego tesian Akitaniako teonimo indigenen 200 lagin pasatxo biltzen ditu. Gehien-gehienak euskal ondareko 50 bat jainko izenei dagozkie eta gutxi batzuk galiar jatorkikoei edo latinezko itzulpenei. Horietatik, erdiak baino gehixeagok (120 batek) *Deo/ae* (dat.) generikoa dauka altzoan, baina gurean elementu hori duen epigrafe bakarra dago.

Akaberan *-he* daukaten hiru teonimoen erakuskariei (11) begiratu gero (ikus 3. koadroa), lau izan ezik, guztiak *Deo/ae* (edo *numini*) generikoaz horniturik daude; behin bakarrik ageri da zati espezifikoa baino lehen. Arretaz behatzen duena ohartuko da, jakinarazten denean, arruntean, sinestunaren izena teonimoaren segidan (formularioaren aurretik) ezarrita dagoela. Hortaz, *teonimoa + izen generikoa + eskaintzailea + formularioa* hurrenkera gailentzen da (8 ale). Horiei (*izen generikoa*) + *teonimoa* + (*eskaintzailea*) + *formularioa* egitura duten biak erants dakizkieke. Fededuna (zati ge-

nerikorik ez daukan) teonimoaren aitzinetik duen inskripzio bakarra dago: «Lexeia Odanni F(ilia) Artehe / v(otum) s(oluit) l(ibens) m(erito)» (Sent Pè d'Ardet); ikus 3.4. eta 7.3.§.

Non	Es.	For.	Iz.g.	Jainkoa	Iz. g.	Izenond.	Zg.	Es.	For.
Ak				Arhe	D[eo]	[Opt]im[o]			
Ak				Ar[t]a[he]?				XX	v s l m
Ak			Deo	Artahe					v s l m
Ak				Artahe	Deo			XX	v s l m
Ak]Artahe[
Ak				Artehe	De[o]			XXf	v s l m
Ak	XX f.			Artehe					v s l m
EH			Fano	Herauscorritsehe				XXX	sacrum
Ak				Lahe	Nu[mi]ni			XX f.	v s l m
Ak				Lahe	Deae			X	
Ak				Lahe	Deae			XX?	v s l m
Ak				Lahe	Deae			XX, XX	v s l m
Ak				Lahe			X	XXX	v s l m
EH			Deo	Larahe				X	v s l m
EH	X			Larahi					
EH	XX?	X		Larrahi					

Ak.: Akitania. **EH.:** Euskal Herria. **Es.:** eskaintzailea(k). **F.:** filius. **For.:** formularioa.

Iz. g.: izen generikoa. **Izenond.:** izenondoa. **X:** eskaintzailearen izenaren osagaia.

Zg.: agintzaren zergatia.

3. koadroa: *-he edo -hi osagaia duten teonimoen laginak dauden botoen egitura. Aldera bedi 2. koadroarekin (3.4.§).*

-(H)e duten jainko izenen mostra gehienak datiboko sintagmetan daude, zati generikoak kasu horren marka dauka. *Deo/ae*-k, ezaguna denez, osagai espezifikoa teonimoa dela zehazten du usu eta, beraz, pentsa daiteke zortzi-bederatzi inskripzio horietan jarraitzaileek ondoko izenaren izaera jainkotiarra argi utzi nahi zutela. Kasu marka zuen determinatzailea aldamenean ezartzean, neurri batean, gramatikaren aldetik teonimoa (elementu espezifikoa) deklinatzea ez zen guztiz ezinbestekoa, eta horrek ere, azken finean, *-he* morfema (gramatika) delako hipotesia ez du indartzen.

Euskal Herrian Akitanian baino askoz mostra gutxiago dago eta ezin da behin betiko ondoriorik atera, noski. Halere, badira agerian ipintzeko moduko bi ñabardura.

Deo daukan lagin bakarrak *-he* du akaberan, hots, Pirinioez haraindikoen molde berekoa da, baina *-hi* duten (Hegoaldeko) biak ez, ez dute generikorik ondoan. Horrez gain, azken bi mostra horietan *-Deo/ae* dutenetan ez bezala eta Hegoaldeko gehienetan legez-sinestunaren izena teonimoaren aitzinetik da. *-(H)i* dutenen beste bereizgarria da ez dagoela *v s l m* formularioa epigrafeen bukaeran. Apika, hori guztia ez da halabeharra.

5.7. *-(H)e* elementuaren izaeraz

Euskarazkoekin aldera daitezkeen akitanierazko atzizkiez diharduelarik, Mitxelenak (1954, 442. or.) esaten du *Belexennis*-ek (gen.) argi egiaztatzen duela *-en(n)* haietako bat dela (cfr. *Belex*). *-En(n)* hori bera genuke, preseski, *Leheren(n)* jainko izenaren bukaeran. Teonimoari *le(h)en* ('aurreneko') esanahia egokitzeari buruz, Errenteriakoak ohartarazten du euskal superlatiboa *-Schuchardten* hipotesi zorrotzaren arabera pluraleko genitibo mugatu bat datekeela jatorriz, bizkaiera zaharreko *lenaengo* («primero») edo Arabako *Goiahen* (= *goi[h]en*; Reja, 1025. urtea, top.) eraketek berresten duten moduan. Hitz bitan, Mitxelenak *Belexennis* eta *Leheren(n)* izen berezietan *-en(n)* desinentzia ikusten du eta, genitibo mugagabeko euskal *-en*-ekin berdintzen, baina, hori bai, adore handirik gabe.

Goikoaren harira, Gorrotxategik (1984a, 345. or.) *Leheren*-en aldaera erabiliena *Leherenno* dela jakitera ematen du, *-datiboa* markatzeko baliaturiko bitartekoari dagokionez *Leherenni*-z bestelakoa dena. *Leherenn/Leheren* forma deklinatugabea ere dokumentatuta dagoenez gero, badakikegu izena egiazki zein eta nolakoa den: sudurkariz bukatu oin bat, bokalezko hondarki baten aurrean, arruntean, grafia geminatuaz izkiriatu dena; cfr. *-bon(n)-* atzizkia *Cissonbonnis*-en (gen.) edo *-ten(n)- Sembetennis*-en (gen.).

Mitxelenak *Belexennis*-en *-en(n)* elementuak genitibo mugagabeko *-en* morfemarekin lukeen parekotasunari buruz esandakoaren harira, Gorrotxategik zehazten du badela kasu bereko *-e* marka *gu* izenordainaren *gure* edutezkoetan, seguru asko, zaharra dena.

Bide beretik, Lakarra Andrinuarekin batera (2001, 429. or.) plazaraturiko artikuluko batean, Eibarko onomastikariak nabarmentzen du Erdi Aroan euskal genitibo arkaikoaren *-re* forma lekukotzen dela, ez bakarrik izenordainen flexioan (geroko euskaran gaur arte maizkoena izango denean), baita izenen kasuan ere (*Ortire semea*, es 'el hijo de Orti'; cfr. *Orcire çorita*, 1110, DML, 321. or.).

Beste lan batean, Arratzuko irakasleak (2018, 127–128. or.) ondorioztatzen du «gramatikalizazio primarioa» (erro lexikoak morfema gramatikal bilakatzea) eta «gramatikalizazio sekundarioa» (morfema gramatikalizatuak are gramatikalizatuago bilakatzea) aztertuaz eta jakinik CVC zela lexema zaharren forma kanonikoa, irakaspen garrantzitsuak atera ditzakegula morfema gramatikalen historiaz. Haien forma kanonikoa eralkitzetik letozkigukeen emaitzen artean, ondoko hirurok biltzen ditu:

- a) *-heta* (*-eta*-ren aldaera arkaikoa) eta *-zaha* (*-za*-rena) ez dira gramatikalizazio primarioak (morfema gramatikal bilakatu diren erro lexikoak), beste morfema zaharragoen amalgamak edo baturak baizik (**he* + *-ta*, **-za* + *-ha*).
- b) *V-*, *-V* ← *CV*. *-i/i-* datiboko atzizki eta aurrizkia **ni*-tik datoz (← **nin*).
- c) *-rV* (dat. *-ri*, adlat. *-ra*, gen. *-ren*, etab.) aztertzean *-r* epentetikoa ediren deza-kegu *-V* enbor baten eta *V-* atzizkiaren artean; *-V* da, beraz, benetako atzizkia (**CVC* → *CV* eta *CV* → *Vtik*), eta *r* epentesi berankorra.

Bestetik, uste du leku kasuetan *-e-* bat jartzen zela marka espezifikoa baino lehen eta, *-e-* hori epentesizat jo ohi den arren, balizatekeela hainbat arrazoi beste jatorri-rik bilatzeko: *lurr-e-tik*, *lurr-e-(r)a*, *lurr-e-ko...*, are historikoki leku kasuetarik urrunduriko ergatiboak ere (*gizon-e-k*). *-E-* hori bat letorke genitiboaren markarik zaharrenekin: *hi-r-e*. Pentsatzen du, egun bezala, ISko nukleo edo muinak (izenak eta adjektiboak) biluziak zirela eta *-preposizio zaharraren her* → **he* → *e* gramatikalizazio bilakabidearen ondoren—leku marka espezifikoa (*-e-* horiekin batera) atxiki zitzaizkiela IS haiei.

Genitiboarekin jarraituz, Lakarra Andrinuak (2018, 134. or.) pronominaletako *-e* (*neure*, *gure*) izenkietako eta *zuen* izenordain modernoko *-en* baino zaharrago eta arkaikoagotzat dauka; alomorfo berankorragoko *-n* ez bide litzateke inesiboaren gehiketa baizik.

Hainbat hizkuntzatan genitiboa lokatiboaren bilakabide edo espezializazioa dela jasotzen du, era berean, hizkuntzalari bizkaitarrak (2018, 134-135. or.), baita lokatiboak ‘hurbil, hertsia’ esan nahi duen lehenagoko pre- edo postposizioaren batetik sortu ohi direla ere. Euskaraz, ordea, leku kasu batek ere ez du gordetzen gero **e* genitibo zaharra eman zuen aitzinlokatioren aztarnarik. *CVC*ren gramatikalizazio primarioa *CV* litzateke, beraz, eta sekundarioak *C* edo *V* izan litezke.

-E genitiboa, laburbilduz, **CeC* erro batetik letorke (**Ce*-ren bitartez), gramatikalizazioan, ohi bezala, *-C₂* galduaz lehen urrats formal gisa. Alabaina, ezkerreko *C₁*-ena arrazoi edo fenomeno espezifikoen bidez argudiatu beharko litzateke, ez gramatikalizazioaren esplikazio orokorretan oinarrituaz. Aitzin-semantika gogoan, ez zaio bururatzeko **CeC* horrentzat **her* baino hautagai hoberik.

Lakarra Andrinuaren (2018, 135. or.) arauaz, *her* eta *-e* arteko urratsa (*he*) Erdi Aroko *goihena* eta toponimiako *-(h)e-ta-n* lekukotua dago. Azken horri dagokionez, iruditzen zaio bai *h*-ak bai bere sare lexikoak are zailago egiten dutela (Schuchardtek bezala) jatorri latindarra aldarrikatzea. Oroit bedi, 1025eko Rejan, *Goiahena* ez ezik, *Arbelgoihena* toponimoa ere badugula (*Hiraszaeza-n* [Larrazaren ondoren]).

Aurreko hizkuntza egoera batean, hortaz, Arratzuko diakronista handiaren iritzian, *-e-* ez zen epentesi huts, «lokatibo orokor» bat baizik — *-n* eta *-ga* bezala— eta horregatik toki izen arrunt guztiei ezartzen zitzairen. Erroek *CVC* egitura zuten bitartean eta atzizki eta *-V*-z amaitu bigarren osagaiak orokortu artean guztiak ziratekeen *-C*

enborrak. Erants aurrekoari euskara zaharreko benetako epentesiek *muta cum liquida* taldeak haustera zuzenduak diruditela.

Aitzinago, –gramatikalizazioaren alderdiari dagokionez– Lakarra Andrinuak (2018, 154. or.) diosku «-eta = aditz pluralgile» analisiak indartu egiten duela «eta juntagailua ← copula» azterketa, formaren aldetik *eta* guztiek eskatzen baitute *e-* preposizioa (← *he*). Bien arteko «antza» halaberhar hustzat har ezin daitekeelakoan dago.

Bukatzeko, izenetako *-te* (*elurte*), aditz ekintza zaharra (*ibil-te-*) eta forma jokatuetako *-te/-de/-e* (*dute, daude, dabe*) lotu ahal direla eransten du Lakarra Andrinuak (2018, 163. or.). Antzeko zerbait gertatuko litzateke *-he-ta* (toponimiako atzizkiarekin), *-e-ta* (deklinabideko pluralarekin) / *-(k)e-ta* (aditz-izenarekin) nahiz *-tze* (*elurtze*) / *-tze* eta *-tza* (toponimiako atzizkia), *-tze* (aditz-izena) sinonimoekin.

Iritziak nahasi dabilta, ordea, aipatu liburuko hurrengo atalean («Euskara Erdi Aroan» izenekoan) Patxi Salaberrik (2018, 304. or.) garbi dioelako, beretzat, erromantzeko *-eta-k* (*Esparteta*) eta euskarazko *-eta* toki-ugaritasunezkoak ziur aski etorki bera dutela. Aurrerago, 1025eko Rejan sumatzen den hasperen ereduaz ari delarik, onomastikari uxuetarrak (2018, 319. or.) idazten du irudi lukeela batzuetan *h* izkiriartzearen zergatia morfema muga finkatzea dela (*Azazaheta, Ogueheta, Erroheta*) eta gehitzen toponimian lehenago beste aspirazio bat dagoenean Rejan *-eta*-ren aitzinean ez dela <*h*>-rik ezartzen (*Gelhegieta, Haizcoeta...*) eta, halaber, kontsonante ondoan (*Galharreta, Harizaualleta*). Gogora bedi Rejan bi aspirazio dituzten toponimoak badirela (baita hiru dituen bat ere).

Gurera etorritz, nire iritzian, ezin txarrets daiteke erabat kasuren batean jainko izenetan ikusten den *-(h)e-k* (sortzez), apika, genitiboaren hondarkiarekin zerikusia izatea. Zehazkiro, laneko hipotesi gisa, ez zait ezinezkoa iruditzen azterkizun dugun jainko izenen batean desinentzia hori superlatiboaren adierazpidea izatea, bigarren kapituluan ikusi dugun bezala, euskal eremuan –gainetiko tokietan bezala– jainko erromatarrak asko aldir maila goreneko adjektiboekin hornituta daudelako (*Optimo maximo, Invicto...*) eta ondoko lurraldeetan ere badirelako beste hizkuntza batzuetan epiteto gisa superlatiboak erabili direlako testigantzak, Saint-Lizier-ko *Minerva Belisama* konparazio batera. Ildo horretan, gogoeta egitekoa da *Zegama* ('garaileena', 'garaiezina') herri izena eta beste toponimo batzuk, izatez, ez ote diren (teonimoen) epitetoak, jainko erromatarrenekin parekatu behar direnak (*cf. invictus*).

Honaino ikusitakotik atera daiteke Antzinaroko euskal jainko izenen artean, datibo arkaikoaren desinentziaz landara, agian, izaera ezberdineko *-(h)e-* elementuak egon daitezkeela: *-(h)e* genitiboko (superlatiboko?) morfema (*Herauscorritsehe?*); *-(h)e-* osagaia (*Erhe, Erhexo-, Gerexo-, Arhe?, Artah/Arthe?, Ele?, Lahe?, Larahe?*); *-e-* genero mozioa? (*-se/-tse* atzizkian; *cf. -so, -xso*); *-e* zatikia (*Urde, Erge*); *-e*, latinezko *-ae-* kasu markaren hondakina (*Selajitse?, Helasse?*). Ikus 4. koadroa.

T/A	Izena	Oina	-(h)e-	Atz.	-he	K.m.	Cfr.
T	<i>Arhe</i> (Deo) (Ak.)	<i>Ar-</i>	<i>-he</i>				<i>Arte</i> (t)
T	(Deo) <i>Artahe</i> (Ak.) (Deo) <i>Artehe</i> (Ak.) <i>Arte</i> (Ak.)	<i>Arta-</i> <i>Arte-</i> <i>Arte</i>	<i>-he</i> <i>-he</i>				<i>Arhe</i> (Deo) (t)
T	<i>Ele</i> (Deo) (Ak.)	<i>El-?</i>	<i>-e?</i>				<i>elge</i> , <i>elke</i> (i.a) <i>elhe</i> (i.a)
T	<i>Erge</i> (Ak.)	<i>Er-ge</i>					<i>ergue</i> (i.a)
T	<i>Erhe</i> (Ak.)	<i>Er-</i>	<i>-he</i>				<i>Erge</i> (t)
A	<i>Erhexoni</i> (dat.) (Ak.) <i>Ereseni</i> (dat.) (Ak.)	<i>Er-</i> <i>Er-</i>	<i>-he-</i> <i>-e-</i>	<i>-xo</i> <i>-se</i>		<i>-[n]i</i> <i>-[n]i</i>	<i>Erge</i> (t)
A	<i>Gerexo</i> (Aquit.)	<i>Ger-</i>	<i>-e-</i>	<i>-xo</i>			<i>Gere-</i> (a) (EH)
T	<i>Herauscorritsehe</i> (EH)	<i>Herauscorri-</i>		<i>-tse</i>	<i>-he</i>		
T	<i>Lahe</i> (Ak.)	<i>La-</i>	<i>-he</i>				<i>Larahe</i> (t)
T	<i>Larahe</i> (EH)	<i>Lara-</i>	<i>-he</i>				<i>Lahe</i> (t)

T.: teonimoa. **A.:** antroponimoa. **Ak.:** Akitania. **EH:** Euskal Herria.

Atz.: atzizkia. **K.m.:** kasu marka. **I.a.:** izen arrunta.

4. koadroa: -(h)e osagaia duten teonimoen balizko osaketa.




6. Jainko-jainkosen izenen etimoak

Aurrera egin nahi bada, ikertzaileak orain arte erran ez den zerbait azaleratu beharko du, datu gehiago dituelako, aitzinekoek ikusi ez duten zerbait ikusi duelako, edo lehen baino datu gehiago edukitzeak gauzak beste era batera ikusarazi dizkiolako.

P. Salaberri & I. Salaberri (2020, 10. or.).

6.1. *Errensa-* (Larraga)

Aldarean, Las Eretas museoko xafan adierazi bezala, D MATER/NA ERRENS/AE PRO L IV/L CRISTA N/ SVO V S ipintzen duela zalantzan jartzeko arrazoirik ez dut ikusten, –azterturiko inskripzio luzeena izan arren– ez dagoelako irakurketa arazo aipagarririk, ez sinestunen izenen edo teonimoaren ulermena baldintza deza-keenik behintzat, idazkuna letra handi, lodi eta dotorez egina baita, hitzak banatzen dituzten puntuazio marka eta guzti; gainera, ertzetako hizkiak, higituak egonagatik, ez daude larriki hondatuta.



4. irudia: Larragako aldarearen xehetasuna.

Garbi samar da jainko izena datiboan dagoela eta nominatiboko forma ERRENSA zatekeela. Alde horretatik, *Los-* (Burumendi, Lerate, Zirauki [2])/ *Loxa-* (Argiñaritz [Girgillao]) teonimoaren antza du (ikus 6.7.§).

Toponimiari begiratuz gero, lehenengo eta behin, Andosilla-San Adrianen, Ebro ibaiaren ondoan eta Calahorratik oso gertu (Larragatik 25 bat km-ra), *Resa/Arresa* (933/1036) herri hustua dugu (ikus 4.5.§). Burgosen, Encima Angulo-Las Fuentes artean (Arabarekin mugan), bada, hala berean, *Resa* lekua (*Ressa*, 864), baita *Arresa* herria Huescan ere, *Arrensa* (992) eta *Arresa* (1036) dokumentatua hura (ikus 4.5.§).

Aralarren, bestalde, *Errenaga* parajea dago («lugar que es dicho entre Yeraça e Renaga», 1409-1410; Ayerbe & San Miguel, 2013, 47. or.) eta Oiartzun-Lesaketa *Errenga* sarioa (*Errenga*, 1270; Mutiloa, 1976, 39. or.). Zufian (Metautenen), orobat, *Errensoora* toponimoa dugu (*Erren soroa*, 1620; NTEM, 23. libk., 243. or.) eta -Lizarrreritik atera gabe- Eraulen (Deierrin) ere bai (*Errensoora*, 1731; NTEM, 26. libk., 122. or.). Alor bereko hirugarren adibidea Zareko *Errengaitz* da (*Rengayz*, *Rengyza*, 1634; Salaberri, 1994, 56-57. or.). Larragako teonimoaren antza gehien duen leku izena, ordea, Larunbeko (Itzako) *Errenza* da (1796, 1848, 1992-1999; NTEM, 13. libk., 196-197. or.). Azken honen idatzizko testigantzak, damurik, ez dira nahi bezain zaharrak.

Teonimoa eta Larunbeko *Errenza* sustrai berekoak ote diren antzemateko, bigarrenean *-tza* dagoen jakin behar da lehenbizi. Izan ere, -Mitzelenak eta Salaberrik dioten bezala- **tzaha* > *-tza* bilakabidea orokorra izan bada, leku izenak atzizki hori balu **Errensaha* forma-edo zukeen antzinatean eta, beste alde batetik, bistan denez, Larragako inskripzioan ez da *-saha* irakurtzen, beste era batera esanda, Itzakoan *-tza* dugula egiaztatuz gero, garbi legoke Larragako jainko izenak ez duela harekin zerikusirik.

Errensa-k *Resa/Arresa*, *Resa* nahiz *Arresa/Arrensa*-rekin loturarik baduen berres-teko, berriz, aurrena, hiru leku izenen arteko harremana arrazoitu beharra dago (ikus 4.5.§). Urruneko tokietan daude, bata Errioxatik gertu, Burgosen bestea, Sobrarben hirugarrena, baina *Resa*, *Arresa* eta *Arrensa* sustrai bereko formak izateak badu egiantza.

Teonimoa *Arresa/Arrensa*-rekin estekatzeko zailtasun nagusia hitz hasierako soinuaren irekidura mailan datza, jainko izenean bokal erdikoa baitugu eta toponimoe-tan irekia. Oztopo hori (*E-* vs. *A-*) badela kontuan izanda (*cf.* *Erratzu* vs. *Arratzu*), -bi herriak bata bestetik oso urruti ez dauden arren- Larragako *Errensa-* eta Andosilla-San Adriango *Resa/Arresa* (esku artean dugun informazioarekin) onimo beraren garai ezberdinetako aldaerak direlako ustekizuna ontzat ematea arriskutsuegia iruditzen zait. Beste gauza bat da enbor berekoak ote diren. Aukera hori ez nuke erabat baztertuko, ezta guztien sorburua, berez, maileguren bat izatea ere, besteak beste, hitz hasierako bokalak protesia izan dela iradokitzen duelako.

Ohar bat, bidenabar: Nafarroako eta Soriako iparraldeko antzinateko euskal antroponimian badira sudurkari ostean txistukarien artikulazio modua neutralizatzen zelako zantzuak, *Abisunso-* eta *Onso/Onse* izenetan esaterako (*cf.* *Oandissen* cognomena zein *Helasse*, *Herauscorritshe*, *Itsacurrinne*, *Sela[istse* teonimoak); ondorioz, pentsa

daiteke *-sa* berrekailuaren kontsonante hobikaria (izan apikaria, izan lepokaria), kasu honetan bederik, igurzkarien (bigunen) sailekoa zatekeela, eta ez afrikatua (bortitza).

Segurutzat jo daitekeen jakite bakarretakoa da *Errensa-* emakumezko izena dela. Oinarrian euskal ondareko *erren-* balego (es ‘espina’, ‘pincho de zarza’, ‘erizo’; ikus OEH), Larragako teonimoa Oñatiko *Arantzazu* eta *Arantzadui* leku izenen adierakidea litzateke (‘arantza tokia’). Zentzu horretan, ez da ahaztu behar euskal tradizioan elorria etxeak eta soroak tximistatik babesteko erabili dela, Barandiaranek (1972, 187. or.) biltzen duen gisan, landare sagaratu delako, sinesten baita oinaztarriak ez duela jotzen, ez dela hura dagoen lekuan erortzen. Arantzazuko kontakizun ezagunean Ama Birjina elorri batean azaltzea ez da halabeharra seguruenera. Ikus aurrerago (HERAVS-CORRITSEHEN) mamurrei buruz esaten dena.

Teonimoaren lehen osagaia *erren-* dateke eta bigarrena *-sa* berrekailua (*Erren + -sa*), esan nahi nuke ez dudala uste osaketa *Erren-s-ae* denik, *-x(s)-* atzizkiaren bidez eratu den *Erren-s-* oinarria dagoenik, hitz bitan, txistukaria lehenbiziko zatiaren berezko elementua denik. *Erren-* horren etorkia zein den ez dakigu, ordea. Goian esan bezala, ez nuke erabat baztertuko mailegua izatea, ezta euskal toponimian eta lexikoan leku-koturiko *erren-*ekin (‘arantza’) nolabaiteko lotura edukitzea. Azterbide gisa, *Arresa/Arrensa* leku izenaren cognatua datekeelako hipotesia ere ez nuke guztiz txarretsiko.

6.2. *Helasse* (Miñao)

Honen azterketan badaude zenbait zailtasun. Lehenbizikoa da ezin dela zehatz-mehatz jakin ara non azaldu zen, ezta nolatan aurkitu zuten ere. Albertosek (1970) Miñaoakoa dela dio, besterik gabe, baina hortik aurrera (edo atzera) ezer ez dakigu.

Epigrafean, bigarrenik, deigarriak diren bitarteak daude letra batzuen artean. Aurreneko lerroan, adibidez, hutsarte handi samarra dago lehenbiziko bi hizkien (<AE>) eta beste hiruren (<LIA>) artean. Tarte hori, gainera, guztiz higatua dago eta ezin da igarri zer zegokeen (ezabaturiko zeinuren, ikurren edo irudiren bat?), esan nahi dut gorde diren bost letren azpiko ertzak batuz irudimenezko lerro bat marraztuz gero, hau da, *ordinatio* delakoari behatuz gero, hutsik den tokian beste hizkiren baten arrastorik ez dela ikusten, baina ez da ezinezkoa denbora joanetan halakorik izatea.

Bigarren errenkadan antzeko zerbait gertatzen da, lehen lau letren eta azken bien artean hutsarte baitago. Badirudi <I> baten hondakina izan daitekeen goitik behe-rako marra dagoela, baina arrasto horrek gako modukoa du azpiko aldeko eskuin aldean. Daitekeena kolpe baten ondorioz sortutakoa izatea.

Hirugarren ilaran <ss> digramaren eta azken letraren (<E>) artean dagoen tartea ere lerro horretako gaintetik zeinuen artekoa baino zabalagoa da, baina, ikusita hizki


guztiak goiko izenekoen parez pare daudela, ez dirudi alerik falta denik. Ondorioz, ematen du AE[?]LIA / HELL[?]CE / HELASS E transkribatu behar dela. Ikus 5. irudia.

Albo bateko inskripzioari bagagozkio, bigarren errenkadan <ELIC> irakur daiteke, hau da, ez dago balizko hasierako <H> eta amaierako <E> letren aztarrenik; hortaz, AĒLIA / [?]ELIC dukegu harginak gerora erabili ez zuen zirriborroan. Ikus 6. irudia.

Deigarria da aldarean eskaintza esamolderik ez egotea (*votum solvit libens merito...*), darabilgun sortako promesa gehienetan formularioren bat leitu baitaiteke.



5. irudia: Miñaoko aldarearen xehetasuna.



6. irudia: Miñaoko aldareko albo bateko idazkunaren xehetasuna.

Jainkoaren izenak zer egitura duen ez dago batere garbi (*Hel-ass-e?*, *Helass-e?*, *Hela-sse?*, *Helas-se?*). Barbarinen *Sela(i)tse* eta Atharratze–Sorolüzzen *Herauscorritsehe* teonimoak daudenez gero, badira *-tse*-ren kidekoa litzatekeen *-(s)se* berrekailua dagoela sinesteko arrazoiak. Gainera, Akitanian, antzeko akaberak dituzten euskal ondareko *Erditse* (dat.) eta jatorri iluneko *I O M (Iovi Optimo Maximo) Beisirisse* (Cadiac [Cadéac]; ikus OIA, 315. or.) eta *Baiase* (Basús de Nestesen [Bazus–Neste]) dokumentatuta daude (jk. iz.).

Azkenaren harira, azpimarra dezadan Gorrotxategik (1984a, 311–312, 328, 368. or.) *Baigorixo*-n dagoen *bai-* ikusten duela oinarrian eta bukaeran, berriz, *-ase* segida (*-as-* eta datiboko *-e* desinentzia), alegia, Galiërko (Galie) *[H]aloassi* (dat.) (*Halo-ass-i*; *fr. Haloisso*) teonimoan eta Cardelhac-eko *Uriassi* (gen.) antroponimoan dukegun elementu bera. Ildo beretik, «Euskara antzinatean» kapituluan, Eibarko euskalaria (259. or.) *-ass-*, *-iss-* berrekailu afrikatuez mintzo da eta bien balizko zenbait etsenplu biltzen ditu. *-Ass*: *Bai-ase* (jk. iz.), *[H]alo-assi* (jk. iz.), *Uri-assi* (gen.); *-iss-*: *Aho-issi* (gen.), *Beisirisse* (jk. iz.), *Halo-isso* (jk. iz.), *Tarlebissi* (gen.). Horrek esan nahi du, besteak beste, ez duela txarresten (*h*)VCV motako erroak egotea. Azkenik, *Vascónico-Aquitano* liburuño mamitsuan (22. or.), luzapen hutsaren («mero alargamiento») kuntza duen eratorpen elementutzat sailkatzen du *-ass* Gorrotxategik. Miñaoko teonimoan osagai hori bera balego, haren egitura *Hel-ass-e* litzateke, hortaz.

Gauzak ez daude eman dezakeen bezain argi, ordea. Izan ere, esan moduan, Akitaniako bereko antroponimoen artean *Edunxe*, *Hautense* eta *Uriaxe* daude, hirurak nominatiboak (*fr. Andersen*, *Ereseni*, dat.) eta, bestetik, Soriako Tierras Altas eskualdean lekukotu diren jende izen indigenen sailean *Antestia Onse*, *Ponti(a) Onse* emakumezkoak eta gizonezko *Ae(milius) Onso* dauzkagu, iradokitzen dutenak eraketa *Hela-sse* edo *Helas-se* izan daitekeela (*fr. Sela[i]tse*).

Txistukaria emateko baliatu digramaz kestone, diodan ez zaidala guztiz ezinezkoa begitantzen, Gorrotxategik (2018e, 267. or.) *Cisson-bonnis*-en ageri den <ss>-ren kariaz proposatu gisan (*Gixon-*), sabaiko kontsonante baten grafia izatea, baina <ts>-ren pareko soinua ere izan daiteke (*Herauscorritsehe*, *Sela[i]tse*). Bada beste azterbide bat, *-Mitxelenaren* (1977, 358–359. or.) oinatzetan–Lakarra Andrinuak (2018, 109. or.) proposaturikoari jarraikiz, *-sse*-k jatorria elkarketan duela suposatzea, hau da, teonimoaren egitura *Helas-se* datekeela sinestea.

Oinarriari begiratuz gero, ez da sobera gogoratzea Iruña Okan kausitu epitafio batean *Elanus Turaesamicio Ambati f(i)lius*) antroponimoa irakur daitekeela (HE, 12116), Albertosen (1970, 134–134. or.) iritzian, lehenbiziko tokian **el-* erroko antroponimoa duena. Aipatu hizkuntzalariaren aburuz, **el-* elementua animalien eta zuhaitzen izenak sortzeko erabili zatekeen eta horietariko batzuk, gero, pertsona izen bihurtu ziratekeen. Hala berean, Okarizen *M(arcus) Semp(ronius) Elavi f(i)lius*] (HE, 8777), Durruma Donemiliagan *E]llasus N[- - - / - - -] E(l)andi(?) f(i)lius?*) (HE 12777) eta

Zuñigan *Elanio [Se]/gontis (?)f(i)lius* (HE, 15333) jende izenak bildu dira (cfr. Vallejo, 2016, 348-349. or.). Ebroz haraindi ere sustrai bereko pertsona izen sorta dago, El Burgo de Osmako (Soriako) *Octava Elae* (HE 15189) nahiz Cangas de Onisko (Asturiasko) *Elanus Aravi filius* kasurako (HE, 30163). Horiek guztiak *Helasse*-rekin lotzeko dagoen eragozpen larriena (baina ez bakarra) hasmentan *h*-rik ez izatea da; kontsonante hori ez egotea ez da harritzekoa, ondare indoeuroparrekokoak diruditelako.

Toponimiarekin jarraituz, teonimoaren lehen osagaia López de Gereñuk (1989, 186. or.) Araban jasotako *Elauri* (1715; Uribarri Arratzua), *Elagorri* (1690; Maeztu), *Elano* (1792; Angostina, Bernedo) eta *Elamendi*-ren (1647; Uribarri Harana) aurreneko zatiekin aldera daiteke apika. Azken horri buruz Mitxelenak (1972, 25. or.) diosku, agian, sartaldeko *elae*, *elai* formarekin lotua dagokeela, *enara* (es ‘golondrina’) bezala, **eLana* / **eNala* zaharrago batetik letorkeena.

Malerrekan, bestetik, *Eratsun* herri ezaguna da. XII. mendean dokumentatzen da estreinakoz (*Eratsun*, 1192; ikus Fortún, 1982, 328. or.) eta badaude XIII. gizaldiko testigantzak, *Semera Erassungo* emakumezko jende izena adibidez (Beruete; García Larragueta, 1957, 112. or.). Salaberrik (2005b, 114. or.), ilunkara dela onartuagatik, *-un* atzizkia dutenen artean sartzen du, Arizkun zein Biurrunekin batera (*Erats-un*). Premisa horretatik abiatuz gero, ez dago oztopo handirik jainko izenaren *Helass-* segida eta Nafarroako toponimoaren *Erats-* oinarria konparatzeko (←**Helats-*?), *-cognomenaren* <LL> digrama ikusita– pentsa daitekeelako teonimoan dugun albokaria (<L>) biguina zatekeela (euskaraz *-r-* eman bide duena), baina ez dago hipotesi horren aldeko erabateko arrazoirik, albokaria bortitza izan daitekeelako. Miñaoko jainko izena, osaketaren aldetik, estreinakoz XI-XII. gizaldietan lekukotzen den Gazteluberriko *Elesa* toponimoarekin ere konpara daiteke: [*decania*] de *Elessa* ([1047]; DML, 71. or.), *Elexa* (1115; DML, 349. or.), *villa Elessa* (1174; DML, 436. or.), *Elesse* (gen.) (1177; Goñi, 1997, 310. or.), *Elesse* (gen.) (1178; DML, 444. or.), *eclesie de Elessa* (1197, DML, 465. or.), *Sancius de Helessa* (1204; CDSMR, 115. or.).

Zalantza nagusiak argikizun dirau, beraz, ezin baitaiteke ziur jakin oinarria zein den, hitz bitan, *-Gorrotxategik* nahi bezala– eraketa *Hel-ass-e* edo *Helass-e* den ala ez (*Hela-sse*, *Helas-se?*). Daitekeena da teonimoak euskal jatorriko *-e* hondarkia edukitzea eta eraketa *Helass-e* izatea, baina, *Herauscorritsehe* eta *Sela(i)tse* badirela gogoan, ezin da baztertu *Hela* + *-sse* izan daitekeelako aierua (kasu markarik ez duen onimo batez aritzea). Ildo beretik, beste hautua dateke **Hela* + *-ssa*/**Helas* + *-sa*-ren datiboa daukagula sinestea, alegia, latinez deklinatua dagoela eta monoptongazioa izan dela uste izatea (*-[s]sa* + *-ae* > *-[s]sae* > *-[s]se*; cfr. Muruzabal Andiongo *votu[m]*), baina, neurri batean, *Errensae* formak ez du bide hori errazten (ikus *Sela[i]tse*), oztopatzen baizik.

Gakoa, beraz, erroaren norainokoa finkatzean datza neurri handi batean. Nire iritzian, Akitaniako *Haloisso* eta *[H]aloassi* teonimoak, *Halo-* erroa bazela egiaztatzen

dutenak, *Hela*-sse azterbidearen alde mintzo dira. -(S)se atzizkia dugula berretsiz gero (cfr. Akitaniako nahiz Soriako -se/-xe eta Erdi Aroko -txe, -xe [ikus Salaberri, 2009, 205-212. or.]), andre izena litzateke seguruenera, baita -[s]sa + -ae balego ere.

6.3. *Herauscorritsehe* (Atharratze-Sorholüze)

Daitekeena da aldea, jatorriz, egun Maidalena ermita dagoen lekuan edo handik gertu ezarrita egotea; ez dut uste Arhane mendiaren gailurreraino (795 m) beste nonbaitetik lekualdatu zutenik, besteak beste, jakite ziurra delako badirela erromatar garaiko jainkoen etxeak zeuden orubeetan eraikitako baselizak.

Inskripzioan G VAL VALE/RIANVS jartzen duelakoan nago, teonimoaren eta antroponimoaren herskariak emateko grabatu hizkiak bestelakoak baitira, bigarrenarenak -C batena baino gehiago- G itxura duelako. Solaşgai dugun azaoan jainko izenaren aldamenen *fano* generikoa ('jainko pagano bat gurtzen den tenplua edo tokia') duen ale bakarra da. Gauza bera teonimoaren ondorengo *sacrum* ('eskainia') formulaz.



7. irudia: Atharratzeko aldarearen xehetasuna.

Akitaniako onomastika corpusean, lehenago ikusi dugun bezala, amaieran -he duten honako teonimoak dauzkagu: *Arhe* (Lomers [Lombez], Gers; OIA, 306. or.), *Artahe* (4) (Orda [Ourde], Sent Pè d'Arde [2], Òra; OIA, 308. or.) / *Arthe* (2) (Orda, Sent Pè d'Arde; *ibid.*) eta *Lahe* (5) OIA, 340-341. or.; cfr. Iruxoko *Larahe*); haatik, -se/-xe + -he edota -x(s)o + -he segiden arrasto gehiago ez dago lurralde hartan, ezta Hegoaldean ere (cfr. *Belteso-*, *Abisunso-*).

Hain justu, Pirinioez honaindi *-tse/-s)se* atzizkia bide duten *Sela(i)tse* eta *Helasse* teonimoak ditugu eta Ebro ibaiatz haraindi, Soriako Tierras Altas eskualdean, emakumezko *Antestia Onse*, *Ponti(a) Onse* antroponimoak (cfr. gizonezko *Ae[milius] Onso*). Akitanian, ildo beretik, nagusiki emakumezkoen deizioetan agertzen den *-se/-xe* berrekailuaren erakuskari ugari dago: *Anderesen* (dat.), *Eresen* (dat.), *Neuresen* (dat.), *Hautense*, *Edunxe*. Izen horietan guztietan oinarri hartuz, ez da erokeria Atharratzeko teonimoan *-tse* atzizkia bakartzea, Arabako, Nafarroako, Soriako eta Akitaniako *-tse/-s)se/-xe*-ren jatorri berekoa litzatekeena (cfr. Erdi Aroko *-tse*, *-xe*).

Atzekoz aurrera jarraituz, gogora dezagun, Orotariko Euskal Hiztegian biltzen denez, *gorri* izenondoak honako adierak dituela: (es) ‘rojo’; ‘rubio’, ‘dorado’ («en determinados contextos, aplicado al oro, pelo, etc.»; cfr. es *rojo*, ‘de color parecido al del oro’, ‘rubio’). Zoonimiaren sailean pixka bat sakonduz, honela mintzo da Iztueta (1847, 167-168. or.) Gipuzkoako abereez eta haiek emandako etekinez:

Provincia onetan comunquiró jaio ta aci oi diran abere escuracoiaç dira abere chea edo gueria, abelgorria, abere zamari edo zamaracoa, eta acienda beltza esaten zaion abere. [...] Abelgorria esaten zaiote Cecen, Idi, Cecor, Idisco, Idigai, Bei, Bigancha, Chal, Bigain, Areche, eta Beitaldeari darraizquion osterontzecoai. Acienda beltza deitzen zaiote, Apote, Bargo, Bargasta, Ordots, Cerri, Cerrama, Arcotch, Cer-ardi, eta gañerontzeco Cerri-abereari dagozquotenac.

Aitzinago *abelgorri* (1847, 176. or.) eta *acienda-beltza* terminoak (*ibid.*, 186. or.) berritzen ditu zaldibiarak, baina ohart bedi ez duela *aketx* forma aipatzen (cfr. Artaxoan 1173 aldera lekukoturiko *Garindo Aquetza*; Jimeno Jurío, 1968, 241. or.; es ‘el verraco’, AV, 23 zk.).

Barandiaranen (1972, 15. or.) arabera, animalia tankera hartzen duten izakiek garrantzi berezia dute euskal mitologian, zaldi, zezen, behi, aker, ahuntz, ahari, ardi, txerri eta txakur itxura dutenek, alegia. *Aatxe*, *ahatxe*, «novillo» eta *aatxegorri* «novillo rojo» jartzen ditu adibide gisa. Haitzuloetan bizi ohi dira eta askotan numen bakarraren (Mariren edo *Ionagorri*-ren) formak edo aldaerak besterik ez dira (ikus 1.6.§), euren funtzioak edo eginkizunak Marik betetzen dituen berak direlako. *Beigorri* «vaca roja» (1972, 62. or.), *Txaalgorri* «ternero rojo» (*ibid.*, 228. or.), *Txekorgorri* «novillo rojo» (*ibid.*, 240. or.) eta *Zezengorri* «toro rojo» (*ibid.*, 247. or.) jartzen ditu dioenaren etsenplutako. Ikertzaile ataundarrak, berebat, behinola Durangon zegoen Mikeldi ezaguna ahotan hartzen du mitologia hiztegia (1972, 172. or.). Antza denez, harrizko eskultura ordots edo zezen batena da eta azpian (hanken artean) disko handi bat dauka. Alde batera, Mikeldik Iberiar penintsularen barrualdean (Betoien lurraldean batik bat) ugari samarrak diren *verraco* direlakoan antza du, haiek ere harrian egindako abere eiteko figurak baitira. Gehienak, Avilan, Caceresen eta Salamancan gorde dira, baina badira zenbait ale Portugalen. Gaztelaniaz *verraco*-k ‘aketza’, ‘apotea’ esan nahi du, baina eskulturek, zerriak ez ezen, zezenak ere irudikatzen dituzte, baita, batzuetan, basurdeak eta hartzak ere.

Nolanahi dela, sexu-organoak (nabari daitezkeenean) arrenak dira. Inork ez du igarri zertarako egin zituzten, baina Blázquezentzat (1991, 143. or.) hiletekin lotuak daudeke, mundu honetako aldia egin zutenen omenez animaliak sakrifikatzearekin.

Gorri izenondoa duten Euskal Herriko izakien jarraituz, Barandiaranek (1972, 156. or.) diosku *mamurrak* numen txikiak direla eta San Joan bezpera gauean sasi baten gainean orratz kutxatila edo beste gordailutxo bat (irekita) jarritz beregana ditzakeela gizakiak. Herri askotan sinetsita daude intsektu kuntza dutela edota gizon txiki galtza gorridunak direla. Horregatik deitzen zaie *Galtxagorri* (Barandiaran, 1972, 93. or.), *Gorri-txiki* (*ibid.*, 96. or.) eta *Prakagorri* (*ibid.*, 201. or.).

Eman dezagun beste urrats bat. Gorrotxategik eta Lakarra Andrinuak (1996, 120-122. or.) *Herauts*-en akaberan (*cf.* *Harausoni*, *Harousoni*) *-ots* elementua egotea ez dute guztiz baztertzen. Izan ere, beren irudituan *-And-ere* eta *And-ossus* izenen arteko kide-kotsunaren argitan *-ots-* elementua bakar daiteke akitanieran, ‘arra, maskulinoa’ adiera zukeena. Hori horrela izanik, *Andossus*-ek, konparaziora, ‘jauna’ esan nahiko luke. Bi autoreontzat, animalien izen batzuetan euskaraz (hitz hori egon ez arren) atzizki gisako *-ots* osagaia bereiz daiteke, esanahi maskulino argia duena; *ordots* (‘verraco’) eta *or(h)ots* (‘animalia arra’) lirerateki bi adibide. Alabaina, aitortzen dute agerikoa dela animalia izen gehienetan *-dots* dugula (*ordots*, *bildots*...). Gehitzen dute *Orhots*-en (*ordots*-en eraketa beregaina bada) *-d-* dokumentatzen ez denez gero, ezta ziurrenik zerrenda berean sartu beharreko litzatekeen *heraus*-en ere, pentsatu beharko litzatekeela *ordots* formak, eta agian baita **andots*-ek ere, analogia eragina izan dutela beste formazio batzuetan.

Pirinioez haraindiko epigrafian badira Atharratzekoaren antzeko oinarria duten jainko izenak (*Haraus*-/*Harous*-). Toponimiari erreparatzen bazaio, oinarritako *Eraus*-osagaia duen adibide bat baino gehiago dokumentatuta dago. Beasainen, esaterako, bada *Erauskin* baserria (← *Erauskain*), Goierriin aski zabaldua dagoen deituraren sortetxea (*Joan de Herauscain*, *Maria Joanis de Herauscayn*, 1608, EAH2; Arriaran, Beasain; *Juan de Erauscain*, 1685, EAH1, Itsasondo). Honen harira, nabarmen dezadan *-gain*/*-kain* elementua ez dela, usu, animalia izenekin uztartzen, alegia, **Zerrigain*, **Beorgain*/**Beorkain* edota **Zezengain*-en gisako oronimoak urri direla. Harira itzuliz, Aldatzen bada *Eraustegi* aurkintza (*Eraustegi*, 1695; NTEM, 45. libk., 43. or.), baita Albizturren *Erausti* baserria ere (Iztueta, 1847, 78. or.). Azkenik, *Erauso* onimoaren aztarnak daude Agezan (*Erahusso*, 1088, aurkintza; Lacarra de Miguel 1957, 31. or.; ikus AV eta Salaberri, 1994, 121. or.), Ezkabarten (*Erauso*, 1090; *Erausso*, 1094; *Heraussu*, 1095; *Erausu*, 1095, aurkintza; DML, 193, 143, 151 eta 152. or., hurrenez hurren) eta Urnietan (*Herauso*, *Erauso*, baserria 1402; Ayerbe, 2015, 779. or.; *Eroxo*, *Eoxo* ahoz).


Behatu beharrekoak behatu ondoren, agerikoa da etimoari antzematen hasteko, alde zuzenetik, zenbait oztupo gairak, hainbat zalantza argitu eta galdera bati baino gehiagori erantzun beharra dagoela. Konparaziora, *heraus* txerri arraren edo hazitako txerriaren izena bada, zer zentzu du teonimoak (antzinatean) nagusiki (baina ez beti) emakumezko antroponimoetan erabili den *-se*/*-xe*/*-tse* berrekailua izateak, bestela

esanda, *-ots* ('arra') bide duen izendapen bati nolatan erants dakioke berrekailu femenino bat? (cfr. cel **bukko*-rekin ['akerra'] lot daitekeen *Bocco Harausoni*). Bestetik, *gorri* izenondoa, arruntean, ez da zerrien deizioetan ageri, bai, ordea, behikienetan. Zein ote da *herauts* izenaren osaketa, *Hera-uts*, *Her-auts*? (cfr. igurzkarria duten *irasi/eresu* adberbioak eta *-[d]ots* adjektiboa/substantiboa). Lehenbiziko parteak ba ote du zerikusirik Antzinaroko antroponimo femeninoetan bakar daitekeen *er-* (*er[h]e*) elementuarekin (cfr. *Erhexoni*, dat.; *Andere...*) edota *Harausoni/Harousoni* teonimoetan den errotik gertuago ote da? Bigarren zatiak ba ote du loturarik Izkueko *Itsacurrine*-ren *-curri-* segidarekin? (ikus 6.4.§).

Adiera ilunkara du, baina pentsa daiteke eraketa *Heraus-cori-tse-he* dela. Bukaerako *-he* euskal datibo arkaikoaren marka izan daiteke, baina baita genitiboaren hondarkia ere (ikus 5.§), apika, kasu honetan, gradu (superlatiboko) morfematzat ezarritakoa. *-Tse* atzizkia dukegula onetsiz gero, uste izan daiteke, apika, emazteki izena dela.

6.4. *Itsacurrinne* (Izkue)

Epigrafearen parte batzuk ezin dira behar bezala irakurri eta beste zenbaitetan badira zalantzak. Lehenengo eta behin, cognomenaz kestione, diodan <BADAN>-en segidan ez dagoela toki asko, gehienez ere, hizki bat jartzeko adina. Hutsarte horretan goitik beherako marratxo baten hondakina egon daiteke, baina higatua dago, oso. Ikus 8. irudia.



8. irudia: Izkueko aldarearen xehetasuna.

Jainko izenaren lehenbiziko <N>-ak, bestalde, lehen begiratuan, 'AN' lotunearen itxura ematen dion zeharkako marra baten arrastoa du. Azken zeinua ere aparteakoa da, azpiko aldean lauki txiki bat daukan *c* ñimiño baten eitea baitu. *Itsacurrinne* ez den zerbait ipintzea ez nuke erabat baztertuko, ondorioz. Ikus 9. eta 10. irudiak.

Zilegi bekit teonimoaren zatiketarekin zerikusia duen bitxikeria bat aipatzea. Aztergai ditugun hamazazpi lekukotasunetatik bostetan jainko izena bi edo hiru lerrotan idatzia da, hau da, *Errens/ae*, *Heraus/corritse/he*, *Itsac/urrinne*, *Lacu/begi* eta *Se/laitse* banaketak ditugu (cfr. *Io/vi sacrum*; Uxue, HE, 19621). Bigarrenean, laugarrenean eta bosgarrenean partiketa silabaren araberkoa da. *Itsac/urrine* grabatu zuenak ez zion, itxura batean, hargin gehien irizpideari jarraitu.



9. eta 10. irudiak: Izkueko aldarearen xehetasunak.

Mitxelena (1954, 424. or.) nabarmentzen du euskal sustraiko izenek, batzuetan, aldaketak izan zituztela amaieran latinaren moldeetara egokitzeke eta mudantza horiek hizkuntzaren nahiz idazketaren arloko gertakariak adieraz ditzaketela. Latineko hondarkien aitzinetik dauden zenbait grafia (*x*, *xs*, *nm*, *rr*, agian *ss*), konparaziora, kontsonantez bukatzen den oin bat dagoela seinalatzen duten zantzu gisa interpretatu ahal dira, hori bai, segurtasun handirik gabe. Balio mugatzailea edo demarkatiboa duten zeinu grafikoak lirateke, beraz, morfema muga markatuko luketenak. Aushko (Auch) hilarri bateko *Torsteginno* (dat.; OIA, 281. or.) gizonetzko izenaren gisakoez ari da, besteak beste, Errenteriako hizkuntzalaria.

Lan berean, euskararekin aldera daitezkeen akitanierazko atzizkiez mintzo, Mitxelena (1954, 442. or.) *-en(n)* elementua badela egiaztatzen du, *Belexennis*-en ikusten den bezala (gen., *cf.* *Belex*). *-En(n)* hori bera zatekeen, prezeski, *Leheren(n)*-en bukaerako osagaia.

Aurrerago (Mitxelena, 1954, 449. or.) zehazten du ez duela uste *-nn* oin bokalezkoak eta kontsonantezkoak bereizteko irtenbide grafiko huts bezala hartu behar denik, bukaerako posizioako sudurkariaren neutralizazio fenomeno baten adierazpen legez baizik, oinari bokalez hasten zen atzizkiren bat gehitzen zitzaionean *fortis* gisa gauzatzen zena. Beretzat (1954, 454. or.) oso litekeena da Akitaniako hainbat kontsonanteren idazkera geminatua euskara historikoan galduta dagoen korrelazio mota baten aztarna izatea. Grafia horrek azaleratuko lukeen hizkuntza arloko egoera, bestalde, bokal arteko sudurkaria galdu eta (lekune horretan) albokaria dardarkari izatera igaro aurrekoa litzateke.

Bide beretik, Gorrotxategiren (2018e, 268, 262. or.) irudiko, sudurkari bakarra /n/ izanik, akitanieraz sumatzen den letra bakunaren eta geminatuaren arteko banaketak *lenis/fortis* antzeko oposizioaren berri ematen du. Digramak luzapen itxurazko berrekailuetan bakarrik lekukotzen direla azpimarratzen du, hots, *-nn*, *-enn* gisakoetan (eta ez **-nV-* itxurakoetan). Autore horrek, 2020ko liburuñoan (22. or.) eratorketa elementu batzuek (*-nn*, *-enn*) luzapen hutsaren («mero alargamiento») eitea dutela eta *-nn-* soinua *-nd-* zaharrago baten oinordea izan daitekeela berritzen du, Akitaniako *Anmoss-* antroponimoan bezala (← *Andoss*; Gorrotxategi, 2020, 17. or.).

Badaude hipotesi gehiago hitz barruko bortitzei buruz, 6.2. §n aipatu dugun bezala, –Mitxelenaren (1977, 358-359. or.) oinatzetan– Lakarra Andrinuak (2018, 109. or.), adibidez, uste duelako noizbait kontsonante taldeak zirela pentsatzeko ba-koitzean datu gehiago dagoela.

Izkueko teonimoaren *-curri-* segidari bagagozkio, Mitxelenak (1956, 438. or.) ez du garbi ikusten Errioxako *Calagurris* eta (Tolosa ondoko) Sent Martoriko (Saint-Marty) *Calagorris* hiri izenetan *-gorri-*, *-corri* dagoela. Haatik, *Calahorra* hiriaren izen zaharraz plazaratu artikulu batean, Velazak (1998a, 13. or.) esaten du *Calagorri/Calagurri* aldizkatzea, bere iritzian, formaren latinizazio gisa ulertu behar dela, toponimoa mintzaira horren sistema fonetikora egokitzeko mudantza moduan. Zergatik aldatu zuten hitzaren antzinako bokala? Castejongoa (hizkuntzaren ikuspegitik) arrazoi bakarra azentuaren arlokoa izan daitekeelakoan dago, toponimoaren behinolako forma paroxitonoa izan balitz, azentua azken aurreko silaban ezarriko balitz (/kalagórrri/), prozesu horrek ez lukeelako izateko arrazoirik. Ahoskera proparoxitonoa izanda (/kalágorri/), ordea, *-o-* bokal erdia *-u-*n ixtea guztiz ulergarria litzateke latineko fonetikaren aldetik. Hitza jatorriz proparoxitonoa zela ondorioztatzen du, hortaz, irakasle nafarrak.

Euskal Herriko toponimian *gorri* izenondoa ('kolore gorrikoa', 'soila, biluzia'), besteak beste, oronimoetan (*Aizkorri*; *Argorri*, Errearteria), fitotoponimoetan (*Iradi Gorria*, 1284; Senosiain, CDSMR, 375. or.) eta hidrotoponimoetan (*Errekagorri*, Urnieta) ageri da. Orobat, Aranon (Urumea errekaaren ondoan), adibidez, *Erakurri* markura edo meandroa dugu. XVIII. gizaldian, hasieran bokal itxiarekin eta dardarkari aitzinean bokal erdikoarekin lekukotzen da: *Iracorri* (1713; NTEM, 47. libk., 36. or.), *Idocorri* (*ibid.*), *Yracurri* (1773; Zaldua, 2012, 968. or.); ahoz *Erakurri* ebakitzen da. Ezkurran ere bada *Irakurri* mendia eta Aizpurgin *Idokorri* gorapena (*Idocorri*; 1064; DML, 114. or.).

Nolanahi den, *Itsa-curri-nne* ez da egin daitekeen zatiketa bakarra, esate baterako, *-curr-* elementua bakar baitaiteke. Hain zuzen, Mitxelenarentzat (1977, 271-272. or.) ezin da zalantzan jarri *m(a)-* aurrizki nominala bazela. Are gehiago, pentsatzen du oraintsu arte emankorra izan dela, eta hori hizkuntza «sufijatzaille» batean ez dela ohikoa. *Mak(h)ur* (es 'inclinado, arqueado, torcido') hitza eta haren *gur* (fr 'flectere', part. *gurthu*, *kurtu*, es 'agachado') eta *uzkur* (es 'agachado, agobiado, acurrucado') ahaideak dakartzta etsenplutako erreteriarak. Gorrotxategik eta Lakarra Andrinuak (2001, 412, 418. or.) ere *ma-kur* banaketaren alde egiten dute eta *makur*-en etimoa **behe-* (es 'abajo') + *gur* (es 'adorar') dela ebazten (*cfr. gurtu*).

Lakarra Andrinuaren (1997, 598. or.) susmoa, ordea, da *ma-* eta *mu-* bezalako sasi-aurrizkiak ez bide direla antzinako konposatu zenbaitetako lehen osagaiak baizik, eta denborak beren esanahia ilundu duela; horregatik jo zituzkeen, bere aieruaz, Mitxelenak adierazkortzat. *Ma-ker*, *makur*, *mu-ker* eta abar **behe-*, **bur(u)-* edo antzeko

zerbaitetik ez ote datozen galdetzen dio bere buruari. Beste lan batean, Arratzuko diakronistak (Lakarra Andrinua, 2018, 194. or.) irizten dio *zakur*-en CV-CVC duplekula, *za*- aurrizkiarekin eta **gur* erroarekin (cfr. *egur*, *makur*, *gurtu*).

Bukatzeko, eta toponimiara itzuliz, *isats*, *itsa(t)s* (es ‘retama’) landare izena osagaitako duen leku izen mordoa dugu alderik alde. Erdi Arotik dokumentatzen diren hiru besterik ez ekartzegatik, Nafarroan (Elkartan [Berriobeiti aldean]) bada *Issasguttia* mendia (1099; DML, 244. or.) eta Gipuzkoan *Itsaso* eta *Itsasondo* herri izenak dauzkagu (ikus Salaberri & Zaldua, 2019, 229-230, 231. or.). Probintzian bertan, badaude *Ichasaga-corta*, *Ichasaga-torreá* (1857; GipIz., 7. or.) baserriak Azkoitian. Era berean, ez dira gutxi *i(t)sasi*-ren erakuskariak toponimian, Eulateko *Isasia* (1605; NTEM, 22. libk., 174. or.) nahiz Argiñarizko *Ichasia* (1659; NTEM, 28. lib, 69. or.) kasurako. Gauza jakina da *i(t)sasi*-ak zuhaitzen hazkundera errazteko edo babesteko (aziendak ez jateko) aldi baterako betatzen (debekatzen) ziren baso eremu moztu berriak zirela (ikus Salaberri & Zaldua, *ibid.*).

Beraz, bada, egiantzeko ezer gutxi esan daiteke Izkueko teonimoaren etimozaz. Hasteko, niretzat bederik, ez dago guztiz garbi bukaera nola irakurri behar den eta, *Itsacurrine* ipintzen duela onartu arren, osaketa ez da gardena (*Itsa-curri-nn-e?*, *Itsa-currinn-e?*, *Its-a-curr-in-ne?*, **Itsacu* + *-(e)rren-?*). *-Curri-* segidak *Herauscorritsche*-ren bigarren zatia eraketa bera du, baina, bistan denez, lehenbiziko bokalak ez datoz bat. Gainera, ez da ezinezkoa bakartu beharreko zatia, egiazki, (soilik) *-curr-* izatea, eta ez *-curri-*.

Izkueko teonimoa luzea bezain iluna da. Hitzen neurriaz kestione, Sapiroekin bat eginez, Mitxelenak (LP, 48-49. or.) dio luzera irizpide erabilgarria datekeela hizkuntzalaritzan. Hitz batek *-mintzaira* jakin batean indarrean den forma kanonikoaren arabera—silaba kopuru jakin bat gainditzen badu, hein batean behintzat, osagai laburragoetan bereizteko modukoa izan beharko du, baina, hala ez bada, bi aukera daude: edo beste hizkuntza bateko mailegua da (eta haren arabera zati daiteke edo luzera ez da arautik ateratzen) edo hizkuntzaren ondareko termino bat da, elementu bat baino gehiago dituen eta, ezin aztertuzkoa den aldetik, antzintasun handikoa.

6.5. *Lacubegi* (Uxue)

Uxuen edirendako araren inskripzioa ulertzeko arazorik ez dago; letra bikaina da eta ondo mantendu da. Bada herrian bertan euskarri, forma, molde eta neurri bertuko beste aldare bat, biki bat, Jupiterri oparitua hura. Lehenbizikoan eskaintza formula *ex voto* da eta bigarrean, berriz, *sacrum*.

Uste izatekoa da *-beste zenbait jainko izen bezala—* desinentziaz hornitu gabe dagoela, baina, horrela ez balitz, izatekotan, hirugarrenetik deklinaturiko adibide bakarra litzateke gurean (nom. **Lacubex?*, **Lacubegis?*).



11. irudia: Uxueko aldarearen xehetasuna.

Euskal aldetik etimo onargarria du, baina Nafarroan eta Araban dokumentatu diren gainteko bertako teonimoen antzik ez dauka, Salaberrik (zeharka) iradoki gisa, amaierako *-gi-*-ren pean, egiazki, *-hi* ez bada behintzat. Euskal ondarekoa balitz, Uxueko teonimoak *basajaun*-en egitura bera luke menturaz, hau da, hurrenkeria *mugatzaila* + *mugakizuna* litzateke (*tokia, entitate geografikoa* + *izakia, gauza*), *Jentilarri* edo *Lamiturri*-ren alderantzizkoa, hortaz.

Osaketa auziez ari garelarik, lehen begiratuan, *Lacubegi*-ren itxurazko eraketak pertsona izen iberiarretan (eta leku izen batzuetan) ohikoa den egitura dakarke gogorra, bina silabako bi osagai dituelako (*cf.* **iunstirlaku**; Hesperia CS.21.05, Vall de Uxó). Hain justu, **laku** elementua ez da arrotza hizkuntza horretan (**lakuarkis**, Hesperia GI. 20.01, Palamós; *biu(r)-lakoś*, Hesperia, onom. 5299) eta, berebat, antza denez, iberieraz baten **biki** elementua (Hesperia CS.11.01 eta GI.08.03). Zernahi gisaz, Uxuekoak gaurdaino bakartu diren jainko izen iberiar urrien (*Betatun*, *Salaeo* eta *Sertundo*-ren) eiterik ez du, batere ez.

Begi ez da *laku* bezain naroa euskal toponimian (ikus EODA; Salaberri, 1994, 825. or.), baina, izan, badira erakuskariak. Donibane Garazi aldean (*Vinaoz*-en), esaterako, baten *Orbegiolatze* bustaliza: *Orbeguiolace* (1213; CDSMR, 123. or.), *Orbegui-latçe* (1236; CDSMR, 172. or.). Orobat, Nafarroa Garaian badaude jatorria *iturbegi* ('iturburu'; ikus OEH) izen geografikoan duten zenbait lagin: *Iturbegua* (1729, Barindao; NTEM, 22. libk., 62. or.), *Iturbegui* (1882, Etxarri Arantatz; NTEM, 12. libk., 47. or.). Ildo beretik, *Elbegi*-ren aztarnak ditugu Aintzinoa (*Elabegui*, 1892; NTEM, 35. libk., 55. or.), Egiarreta (*Elbegui*, 1712; NTEM, 13. libk., 42. or.), Ilurdotz (*Elbegui*, 1892; NTEM, 36. libk., 101-102. or.) eta Zalban (*Elbegui*, 1892; NTEM, 37. libk., 211. or.), baina, damurik, ez da, *Iturbegi(a)* bezala, izen gardena. Azkenik, beste adibide bat aipatzearren, Hernanin baten *Estubegi* baserria (*Estubegui*; GipIz., 46. or.).

Mitologia behatuz gero, Barandiaranek (1972, 193-194. or.), bere hiztegian *osin*-i (es «pozo», «lago») opaturiko atalean jakitera ematen duenez, ba omen dira hondorik ez duten zenbait putzu, urmaela, aintzira eta laku, uretan sartzen den guztia beherantz erakartzen dutenak (*cf.* Hernaniko *Hondorik gabeko osina*; Zaldua, 2012, 152, 192. or.).

Alor berekoak dirateke ekaitzen eta hodeien sorleku diren ur geldizko eremuak, Arreokoa adibidez, Araban. Herriak edota etxeak egon ziren tokietan jaiotako urak omen dira, bertako biztanleen jokabide txarra zigortzeko azpiratu zirenak. Kontakizun hauen gai nagusia oso zabalduta omen dago Europan barrena. Gizakiak eta animaliak era misteriotsuan hondoratzean sortutako aintzira eta putzuei buruzko Macronioren pasarte gogorarazten diote ikertzaile ataundarrari («Saturnalium», V. libk., XIX), «Jainko palikoen ahizpak» izeneko Siziliako bi urmaelez hitz egiten duena (bertan idi pare bat eta zaldi batzuk hondoratu omen ziren).

Aitzinago, *urgueldi* («laguna», «pozo») sarreran, itsasoko urak, hainbat aintzira, putzu eta osin izaki (lamina) batzuen bizilekutzat jotzen direla eta behean antzinako etxeak zein herrixka madarikatuak daudela biltzen du Barandiaranek (1972, 239. or.). Zentzu horretan, ez bedi ahantz, beste atal batean ikusi bezala (4.2.§), *Lamina*-n funtsaturiko hidrotoponimo saila dagoela euskal eremuan, zabalkunde edo jaiera handiko izakiak direla Euskal Herrian. Hain zuzen, *Laku*-elementuak urarekin zerikusia balu, ez litzateke harrizkeoa (zuzenean edo zeharka) Uxueko teonimoa ninfen gurtzarekin (laminen jatorrian den sinesmenarekin) lotua egotea. Kontuan har Barbarinen ninfak jauresten zituztelako testigantzak idoro direla, baita Araian eta Lantaronen ere.

Lacubegi-ren arak ezker-eskuin zizelkatuta dituen zezen (edo behi) buruak erritu-tresnak jarri ohi diren tokian daude (*Herauscoritsehe*-ren aldaretxoan pitxarra eta platera grabaturiko leku berean) eta ez aurreko aldean, inskripzioaren ondoan, eta horrek esan nahi du zezena (edo behia) oparia zatekeela, jainkoaren omenez sakrifikatzen zen animalia (cfr. Gorrotxategi & Ramírez, 2013, 131. or.), ez gurtzen zen numenaren irudikapena. Hortaz, teonimoaren bigarren osagaiak ez du *behi*-rekin zerikusia zertan izan (cfr. *Lar[r]ahi*), aldarean dauden marrazkiengatik ez behintzat. Besterik da zezen (edo behi) buruak dukeen esanahia. Aukera bat da suposatzea aldarrea taurobolikoa dela, zezenaren odolarekin burutzen zen garbiketa eraspenarekin zerikusia duela. Horrelako errituak *Magna mater* jainkoaren gurtzarekin lotu izan dira (ikus Marco, 1997) eta, zentzu horretan, gogora bedi San Martin Unxen (Uxuetik oso gertu) badela dibinitate horri oparituriko ara, erlijio misterikoen multzokoa dartekeen *Sol Invictus*-en ohorez egindako beste batekin batera. Bi lekukotasun horiei Arellanoko *uilla*-n edirendako idazkunik gabeko pare bat aldare erants dakizkieke (Joakin Gorrotxategiren ahozko adierazpena).

6.6. *Larrahi* (Muruzabal Andion [Mendigorria]), *Larahi* (Errezu), *Laraha* (Iruxo)


Muruzabal Andiongo arako epigrafearen irakurketa –Errezuko eta Iruxoko idazkunena ez bezala– arazotsua da. Azken bokalaz ari naiz. Izan ere, ezin da segurutasun erabatekoz jakin osorik den ala ez, erpinean dagoelako eta, agian, puska txikiren bat falta zaiolako eta, bestalde, *Retulit* hitzean dagoen <E> hizkiak *II* tankera duelako;

horregatik, (Errezukoaren berri ez zuen) zenbait autorek aditzera eman du (LARRAHI-ren ordezt) LARRAHE jar dezakeela.



12. irudia: Muruzabal Andiongo aldarearen xehetasuna.


Ustekizun hori ezin bazter daiteke guztiz, baina, niretzat, sinesgarritasun gehiago du LARRAHI ipintzen duelako hipotesiak. Batetik, ez du ematen harriari teonimoaren akabaila dagoen gunean zati aipagarririk falta zaionik eta, bigarrenik, epigrafea grabatu zuenak lerro guztietan tartetxoa utzi zuen haren amaieraren eta harriaren ertzaren artean. Hirugarrenik, jainko izenaren azken letraren marra eta goiko hizkiaren (<RE> zatikiaren II itxurako <E>-ren) bigarren arrastoa pare-parean daude eta teonimoaren hondarrean E bat adieraziko lukeen bigarren marra bat egoteko tokirik ez dago, kanpoan geratuko litzatekeelako erabat (ikus 12. irudia).



13. irudia: Errezuko aldarearen xehetasuna.

Horrez gainera, Errezuko lagina (LARRAHI) argi eta garbi irakur daiteke, hau da, bada eite bertuko beste bat (ikus 13. irudia). Leitzeko zailtasunez ari naizelarik, dio-

dan Iruixoko mostran lehen hizkiaren (<L>-aren) goitik beherako arrastoa oso higitua dagoela, azpiko zatia bakarrik geratzen dela ia (ikus 14. irudia).



14. irudia: Iruixoko aldarearen xehetasuna.

Aurretik dituzketen osagarriak (*Deo*; ikus 5.6.§) alde batera utziz gero, *Larrah*i, *Larrah*i eta *Larrah*e-ren arteko ezberdintasun nagusietariko bat dardarkariaren idazkeran datza.

Apika, Akitaniako (*Deo*) *Erriapo* vs. *Deo* [E]riapo, *Deo* Eriapo (Sent Beath) jainko izenetan antzematen den aldizkatze bera dateke. Dardarkariaren grafiak badu bere munta, sistema fonetiko ezaugarritzen laguntzeaz gainera, <rr> digramak Nafarroako hiru laginena Carcassonne inguruko antzinateko *Larrasoni* teonimoaren oinarriarekin eta euskarazko *larre/larra-* substantiboarekin estekatzea ahalbidetzen baitu. Bide batez, *deo* (eta ez *deae*) generikoaz hornitua dagoela ikusita, oldoz daiteke Hegoaldekoa gizonezko dibinitatea dela.

EHHE-200-en biltzen denez (17-18. or.), *larre* hitz orokorra da euskaraz, ‘lur landugabe, belaze, bazkaleku’ adierekin erabili dena. Elkartuetako osagai moduan, *larre-/larra-/lar-*ek ‘basa-’ balioa duela ere jasotzen da aipatu bilduman. Hiztegi etimologikoan ohartarazten da *Larrasoni* jainko izenaren eta *larre*-ren arteko balizko loturak bi eragozpen dituela: akitanieraren eremutik urruti egotea eta *larra-* aldaera izatea, hots, antzinateko euskal hizkuntzan halako elkartuetako formarik ez zegoelako hipotesia. Egileek, dena den, «*Larrah*e» teonimoa badela gogorarazten dute, *larra-* bera izan lezakeena. Hori arrazoitzeko iradokitzen dute, menturaz, *larre*-ren *-e* berezko partetzat hartu zela (berranalisis), hitza leku kasuetan maiz erabiltzearen ondorioz (←laR).

Larra- elementua naroa da leku izenen arloan. Gertukoa den adibide bat ekartzegatik, Muruzabal Andiondik 5 km-ra (eta Mendigorritik 8 km-ra) *Larraga* herria dugu: *Larraga* (1124; DML, 374. or.), *Johan de Laraga* (1240; CDSMR, 191. or.).

Badaude termino honen lekukotza zahar gehiago: *Larrahederra* (869; BDG, 361. zk. [112. bin]), *Larrahara* (1025; Reja), *Larrazaguiuelea* (*loco*, 1104; DML, 291. or.), *Larraondo* (Larrasoñatik hurbil) (1290; CDSMR, 416. or.).

Larragoa/Larraona da alor bereko beste toponimo nagusi ezaguna. Salaberrik (2007, 397. or.), hari buruzko irizpenean, jabeturik euskal *ona*-k ez duela inoiz sudurkaria galtzen, –Mixelenaren proposamena (*larre + ona*) txarretsiz– izen berezi batean oinarrituriko onimoa delako aukeraren alde egiten du. Uxueko euskalariaren aburuz, aurreneko elementua Nafarroan dokumentaturiko *Larrahe* jainko izena dateke, jabetza adieraziko lukeen *-ona* akabaila atxiki bide duena (*cf.* *Aramaiona/Aramaio*, *Lemona/Lemoa*, *Artaxona/Artaxoa...*), beste antrotoponimo batzuetan dugun *-ana/-a*, *-ano/-ao*-erako atzizkia, alegia. Laburzki mintzatuz, *Larrahe + -ona* osaketa («*Larrahe* izeneko jainkoari eskainitako hiria, herria») eta *Larrahona* → **Larragona* → *Larragoa* bilakabidea hobesten ditu (*cf.* Delamarre, 2021, 25. or.). Irakasle nafarraren ustetan, *Larrahona* erdiesteko *Larrahe + -ona* egokiagoa da *Larrahi + -ona* baino, bi bokalak hurbilago daudelako (biak erdikoak dira). Gainera, *larre* izen arrunta *Larrahe*-tik atera dela esan ahal izateko argudioa dateke. *Cfr.* *Erge/erge*. Orobat, dardarkariak anizkuna behar zuelakoan da (Patxi Salaberriren ahozko adierazpena).

Bestalde, ematen du badaudekeela *Larra* jende izen gisa baliatu delako adibideak; *-ndo* berrekailua (ikus *Otsando*; Salaberri, 2003, 227-228. or.) bide duen *Larrando*-z ari naiz: *Larrandoren bi sarohe* (1284, NEAN1; *cf.* CDSMR, 371. or.), *Larrando Gorria* (1284, NEAN2; CDSMR, 372. or.; *cf.* Gartziriaingo *Domicu Gorria*, 1236; *apud* Salaberri, 2003, 139. or.), *Larrandone* (Luzaide; Salaberri & Salaberri, 2016, 369. or., 7. oin oharra).

Teonimoaren hiru laginen arteko alde nabarmenena bukaerari dagokio (*-hi/-he*). Are gehiago, atentzioa ematen du bata bestetik kilometro pare batera dauden bi herrikan (Iruxon eta Errezun) forma bana duten epigrafeak egoteak.

Nire buruari egiten diodan galdera da *Lar(r)ahi*-ren azken elementu hori (*-hi*) zer ote den, oinarriaren bigarren zatia (lexema?) ala kasua markatzeko morfema, eta bigarren hipotesia egiaztatuko balitz (hondarkia izanez gero), beste inskripzio batzuetan den *-he*-rekin zerikusirik ba ote duen (ikus *Herauscorritsche*). Zentzu horretan, hiru aukera dakuskit. Lehenbizikoa da suposatzea *-hi -he*-ren forma *sparita* (galtzear zen alomorfo zaharra) dela; azalbide horretan bokal irekitzea arrazoitu beharko litzateke (latinaren eragina?: /i/ → /e/?). Bigarren hipotesia da pentsatzea *-hi -he*-ren aldaera berria dela, berrikuntza batez ari garela, oraingoan ere latinaren ondorioz, menturaz. Hortik joz gero, (aurrekoan bezala), aldaketa (balizko bokal hersketa) Nafarroako eremu zehatz batean bakarrik zergatik agitu den argudiatu beharko litzateke, besteak beste. Adibidez, disimilazioa izan dela suposa daiteke (*cf.* roa *van* [← la *uannus*, ‘criba’] → eu **bane* → *bahe* → *bae/bage* → *bai* [*galbae*, *galbaya*]; ikus FHV, 143. or.), baina itaun nagusia erantzuteke geratzen da. Hirugarren bidea kasu bana ezaugarritzen dituzten hondarkiak direla sinestea da (*-hi*, dat.? *vs.* *-he*, gen.?).

Izan ere, Iruxoko *Larahe*-n, Atharratzeko *Herauscorritsehe*-n bezala, *-he* –datiboaren desinentzia arkaikoa izan ordez– genitiboaren morfema datekeela onartuz gero, pentsa daiteke Muruzabal Andiongo *Larrahi*-n eta Errezuko *Larahi*-n den *-hi*, apika, datiboaren hondarkia izan daitekeela. Alabaina, bukaerako *-hi* horren lekukotasun bakarrak Nafarroakoak dira, akaberan segida hori duen euskal ondareko beste teonimorik ez da eta, gainera, hor daude, konparazio batera, ustekizun horren alde mintzo ez diren Akitaniako *Lohisi f(ilia)*, *Lohixsi filius* eta *Lohit]ton f(ilio)* (Sent Bertran de Comenges) antroponimoak, zenbait ikertzaileentzat oinarrian *lohi* substantiboa bide dutenak (Luchaire 1879, 87. or.; Mitxelena 1954, 206. or.; Gorrotxategi 1984a, 234-235. or.).

Zehar osagarria bereizteko bitartekoez ari garelarik, *Euskararen historia* liburuaren «Euskararen historiaurrea» kapituluan, Joseba Lakarra Andrinuak (2018, 125. or.) hizkuntza askotan datiboaren markak GIVE saileko aditzetarik sortu direla nabarmentzen du, bai izen sintagmakoak (ISkoak), baita datiboko aditz laguntzaileak eta are «dativus aethicus» deituak eta partitiboa ere. Bere iritzian, euskararen kasuan **nin*-etik ('eman'-etik) abiatuaz, besteak beste, ISko *-i* (*nor-i*) esplikatu daiteke.

ISko flexioari eskainitako azpiatalean, Lakarra Andrinuak (*ibid.*, 133-134. or.) hainbat markaren osaera aski garbi ezagutzen dugula irizten du, besteak beste, datiboarena (*-i < *nin*). Bere aierua da ISko kasu marka oinarritzko (mugagabe) guztien atxikitzea, ezta gehienena ere, ez dela Aitzin Euskara Modernokoa, Euskara Batu Zaharraren lehen haustura aurretikoa baizik. Izan ere, flexio markak –ergatiboa bezala beste zaharrago batetik ez datozenean– aditzen (batez ere multzo-aditzen) gramatikalizaziotik sortu dira usu munduko hainbat hizkuntzatan. Hori litzateke euskaraz datiboarekin gertatu dena, ISko *-i* (eta aditz sintagmako *i-*) marka **nin*-etik ('eman'-etik) baitatuz, munduan barrena GIVE aditzeko hainbat kiderekin gertatu bezala.

Lakarra Andrinuaren teoriak *-(h)e* datiboaren desinentzia arkaikoa delako iritzia- rekin talka egiten du, baina elementu hori genitiboaren morfema delako aieruarekin bateragarria da. Laburbilduz, Arratzuko diakronistak **nin* → **ni* → *-i* bilakabidea proposatzen du euskarazko gaurko datiboaren jatorria azaltzeko, baina **ni* → **hi* → *-i* urratsa ez du aipatzen (*cf. her* → *he* → *-e*; *ibid.*, 127-128. or.).

Antzinaroko beste erreferentziarik ez dagoenez gero, merezi du Akitanian dokumentatzen den *Lohi*-ren nondik norakoari begi edukitzea. Lehenengo eta behin, gogora dezagun hainbat ikertzailek (Luchairek, 1879, 87. or.; Mitxelenak, 1977, 206. or.; *cf. Gorrotxategi*, 1984a, 234-235. or.) behialako izen propioetako *lohi*- euskarazko *lohi* hitzarekin alderatu duela (es 'lodo', 'sucio', 'cuerpo'). Hain zuzen, Mitxelenaren (1977, 108, 257-258. or.) hitzetan, *-D-* → *L-* aldaketa dela medio– *lohi* hitzak eta *do.i* (→ *doi*, *dui*) atzizkiak, menturaz, zerikusia izan dezakete. Lakarra Andrinuak (2018, 141. or.) beste urrats bat eman eta biak ala biak **don* 'PUT' aditz zaharretik

eratorriak direla ondorioztatzen du, hau da, **don-i* banatu behar dela eta, horrenbestez, *lohi*-ren sorburua **lon-i* datekeela. Hitz bitan, Arratzuko irakaslearen arabera, aspirazioaren sorburuan sudurkari bat dago.

Akitaniako (jende izenetako) *Lohi*- oinean –Lakarra Andrinuak dioen bezala– *-VnV-* → *-VhV-* izan dela onetsi eta *Lar(r)ahi* teonimoan dagoen *-hi* segida multzo berekoa izan daitekeela onartuz gero, orduan, jainko izenaren jatorrian **Larrani* dukegula erabil daiteke laneko hipotesi moduan.

Premisa horietatik abiatuta, behinolako irudimenezko **Larrani* formak, teoriko-ki, bi bilakaera dituke, → *Larrahi* → *Larrai* eta → *Larrahi* → *Larrai* → *Larrain*, Salaberrik (2000, 125. or. *et passim*; 2012, 325–328. or.; 2015a, 414. or.) frogatzen duen moduan, latinetiko *-ani* (genitiboaren) hondarkia duten antrotoponimoetan bederen, *-ani* → *-āñĩ* → *-āĩ* → *-āĩ* → *-ain* mudantza segida izan baita. Ondorioz, maila teorikoan bederik, zilegi da *Larrahi* teonimoa *larrain* izen generikoarekin (eta *Larrain* toponimoarekin) lotuta dagokeela uste izatea, alegia, jainko izenaren balizko bilakabidea **Larrani* → *Larrahi* (/larrāñĩ/) → **Larrai* (/Larrāĩ/) → **Larrai* (/Larrāĩ/) → **Larrain* litzatekeela sinestea.

Toponimiari begiratuz gero, Nafarroan, *Lar(r)ahi*-ren mostrak ediren diren tokietatik ez oso urruti (15–20 km-ra), *Larrain* herri hustua dago (Adiosen): *ecclesia de Larrayn* (1159; Goñi, 1997, 256. or.), *Larrayn* (1254; CDSMR, 230. or.), *Garcia de Larrayn* (1341; Munita, 1984, 166. or.). Urrunago, bada bigarren *Larrain* bat, beste herri hustu bat, Urraulgoitin zehatz-mehatz: *Eneco abbas de Larrain* (1219; CDSMR, 143. or.), *Pero Gil de Larrayn* (1319; Munita, 1984, 152. or.). Euskal Herriaz kanpoko etsenplu ezagun bat aipatzearen, Bernuésen (Jakan) *Larraín* mendia (1311 m) dugu, azpiko aldean *San Alejandro de Larraín* ermita daukana: *Larrain* (*monte*; Madoz, 1845, 600. or.; *s.v. Artaso*).

Auzi bat baino gehiago argitu behar da, hortaz: Akitaniako antroponimoetako *Lohi*- elementuan dugun *-hi*- segidaren zinezko nolakotasuna, hark *Lar(r)ahi*-ren bigarren osagaiarekin zerikusirik ba ote duen eta, bide batez, Muruazabal Andion eta Errezuko teonimoak *larrain* generikoarekin / *Larrain* toponimoarekin loturarik ba ote duen, alegia, izen beraren garai ezberdinetako formak edo faciesak diren.

Bokal arteko balizko sudurkari baten hondakina litzatekeen *h*-a dela eta, Menterolak eta Hualdek oraindik orain plazaraturiko hipotesiari kontu egitea ez dago sobera, bi euskalari horien aierua baita «Euskara Zaharrean» (Antzinaroan eta Erdi Aro Goiztiarrean) /f/-rik eta /h/-rik ez zegoela, hau da, euskara modernoko /h/ */χ/ zaharrago baten oinordea dela, igurzkarri «(post)belar» batena zehazkiro (Menterola & Hualde, 2021, 421, 423, 425, 448. or.); /h/ zela uste zen Erdi Aroko «atzeko igurzkaria» (*back fricative*) egiazki «(post)belarra» zelakoan daude, beraz, eta euskara modernoko /h/ Erdi Aroko eta lehenagoko euskarako /χ/ baten ondorengoa.

Manterolarentzat eta Hualderentzat (2021, 427-428. or.), bokal arteko /-n-/ euskal hizkera guztietan dagoenez gero, zubereraz dokumentatu /h/ eta /h̃/-ren arteko aurkakotasuna beste euskalki batzuetan ere egon zitekeen une historikoren batean. Beren hitzetan, erromatar garaiko eta Erdi Aroko testuetan <h> grafemak ez luke /h/ adieraziko, bestelako atzeko igurzkari bat baizik, karrankariagoa (en *strident*), ziur aski, belarra, post-belarra edo ubularra zena (/χ/). Aitortzen dute, ordea, teoria hori ez dela erabilgarria /h̃/-rekin, soinu horrek beste etorki bat duelako: jatorrizko bokal arteko /-n-/ baten ahultze edo lenitioa. Bi autoreek ez dute adibiderik jartzen, ez dute zehazten *Lohi-*, *Lar(r)ahi* edota *Heraucorritsehe*-ren <h>-ak zer motatakoak diren.

Hemen lagungarria izan daiteke bokal artean sudurkaria duten izen zaharrei begiratzea. Horietako bat Akitanian lekukotzen den *Senius* (Sent Gaudenç [Saint-Gaudens], Barsous) antroponimoa da, oinarrizko –euskarazko (behinolako) *se(h)i*, *sei*, *segi*, *sein* (es ‘niño’) hitzen iturburutzat jotzen den– **seni* substantiboa bide duena (Mitxelena, 1954, 433. or. eta LP, 60. or.; *cf.* OIA, 265. or.). Akitaniako *Seni-* eta euskarazko (antzinako, alegiazko) **seni* ahaideak lirateke, hortaz. Hortik jarraituz gero, bokal arteko /n/ sudurkariaren ahultzea denbora bitarte luzean, une ezberdinetan, gertatu zatekeela uste izateko arrazoiak badaude, –aldaketa erromatartzea hasterako edota hastearekin batera agitu zatekeela iradokitzen dutenen ondoan (*Lohi-*)– Inperioaren garaian, artean, lenizioa burutu gabe zegoela erakusten duten onimoak badi-relako (*Seni*).

Puntu honetara ondo dator Ariztimuñok (2018, 21-23, 26-27. or.) artikulua batean *seni*-ren kontsonante sudurkariak eta, ustez, *lohi*-n galduaz esaten duenari errepertzea. Beretzat, hitz biak «atzizki» beraz horniturik daudela onartzen bada, antroponimiako *Seni* eta *Lohi*-ren arteko aldea esplikatzeko, arrazoizko argudio bakarra litzateke *-hi* erroaren parte zen ala ez kontuan hartzea. Estreinakoz izkiriari zituztenean, **sen-i* hitza eratorri gardena zatekeen artean (bizirik zirauen **sen* errotik), baina *lohi* –behalako **lon* (edo **don*) errotikakoa izanik– guztiz lexikalizaturik zegoeken. Hizkuntzalari tolosarrak deritzo **loni* → /lohi/, **seni* /sen-i/ → [señi] baino lehenago bihurtu zela unitate lexiko, hau da, lehenengoa idatziz dokumentatzen denean jada erro soil gisa lexikalizaturik zegoela eta bigarrenaren kasuan, berriz, eratorpenak garden zirauela eta [h̃]-a luzaroago /n/-aren aldaera alofonikoa izan zela. *Seni* bezalako hitzak ikusita, iruditzen zaio lehen *n* → h̃ kasuetan hasperen sudurkariaren fonologizazioa ez zela gertatu eta sor zitekeen sudurkaritasuna nahiko goiz galdu.

Ariztimuñok dioten gisan, auzia korapilatsua da, horratik. Mitxelenak (1977, 248-250. or.), adibidez, (kanon bisilabikoaz haratago) *Lohi*-n bokal arteko *n*-rik ez berreraikitzeke zio bat bazuen: kontsonante horrek –hasperena alde batera– bestelako arrastorik ez utzi izana. Hain zuzen, batzuetan, sudurkaria hitzaren aldaera dialektalen batean kodan berrezarri da, inguruko bokalak edo *b*-ak sudurkarituz eta, beste batzuetan, –hitz-elkarketako arauen ondorioz– bigarren elementuaren aitzinean gorde edo

berreskuratu da. Hala bada, *lohi* hitzak ezaugarri horietarik bat ere ez duenez eta aspirazioak konposatueta herikari eta igurzkarien modura jokatzen duenez gero (hots, ondoko kontsonantea ahoskabetuz, eta *n*-rik eratziki gabe), Mitxelena jatorrizko hasperenduntzat jo zuen.

Ariztimuñok (2018, 29. or.) ondorioztatzen du, itxura batean, **n* jatorriko aspirazioaren bilakaera bat baino gehiago izan dela euskaraz ($\{n \rightarrow h\}1$ eta $\{n \rightarrow \tilde{h}\}2$), garai ezberdinei edo, zehatzago, aldaketak erasandako hitzen unean uneko garapenari lotuak: atzizki fosilduak (*Lohi-*) eta bereizketa/espezializazio semantikoaren ondoriozko lausotze morfologikoak (*Seni* \rightarrow *Señi...*). Azken batean, delako *n*-a bokal artean (erro barnean) sentitzen zen ala ez, horren arabera fonologizatuko zen hasperena ala luzaroago iraungo *n*-ren alofono gisa. Beranduen fonologizaturikoek (*Seni*) sudurkarratasuna dute ezaugarri eta lehenengoetan, ordea, hasperena baino ez bide da gorde.

Gurera etorritik, jakinda *Lohi-* eta *Seni-*ren sasoi berean *Lar(r)ahi* dugula (eta ez **Larrani*), pentsa daiteke Muruzabal Andionen eta Errezun dokumentaturiko teonimoaren <h>-ak (*Lohi*-n bezala) jatorrizko edo antzinako aspirazioa adierazten duela eta, horrenbestez, ez duela beranduagoko *larrain* izen geografikoarekin/*Larrain* toponimoarekin zuzeneko zerikusirik.

Lar(r)ahi-k, ematekotan **Larrai* emango zukeen, beraz. Toponimiaren arloari erreparatzen bazaio, Euskal Herrian badira, itxura batean, *larrai(a)* elementua duten hainbat leku izen. Zizur Zendea, adibidez, *Larraia/Larraya* herrirka dugu: *García Acenariz de Larraia* (1110; DML, 321. or.), *monasterium de Larraya* ([1094-1104]; Goñi, 1997, 82. or.), *Larraya* (1119; Goñi, 1997, 136. or.). Mostra gehiago badira, baina, zoritxarrez, ez dira Iruñerrikoa bezain goiz lekukotzen, Olatzagutiko *Larrai* aurkintza (*Larrai*, 1992; NTEM, 9. libk., 76. or.), esaterako. Nafarroako herri ize-naren karietara, Irigoienek (1986, 218. or.) diosku **Larrai* forma *larrain*-en aldaera dela, alegia, (elkarketako *arran-* eta *artzan-* dituzten) *arrain/arra*, *artzain/artzai* eta abarretan ikusten den txandakatze bera genukeela. Bilboko irakaslearen irudiko, horrek *Larri-* (eta sartaldeko *larrin*) duten toponimoen jatorria argituko luke. Ez du zertan, euskal lexikoari begiratuz gero, *zelai*-k bezala, akaberan *-ai* duen termino sorta dagoelako (*bizkai*, es ‘colina, ladera’ [fr. *bizkar*]; *garai*, es ‘parte superior, parte alta’, ‘hórreo’; *ezkai*, es ‘loma, línea de montes’; *ikai*, es ‘subida, cuesta’; *belagi/belagai*, es ‘dehesa, pastizal’) eta haiek ez daukatelako sudurkariz amaituriko parekorik (***zelain*, ***bizkain*, ***ezkain...*). Kontrako beste argudioa da *Larraia*-ren bukaerako *-a* hori ez zela artikulua.

Lizarerrian bada *Larraitza* elkarrekikoa (Etxabarri-Ameskoabarreneko Amankomunak-Gollano-Abartzuza-Eraul): *Larrayça*, *Sancha de Larrayça* (XIII; Lacarra de Miguel, 1930, 248. or.). Txulapainen, berebat, *Larraitz* kontzejua dugu: *García Larrayoz* (1282; Lacarra de Miguel & Martín Duque, 1986, 99. or.), *García Larrayozco* (1282; Lacarra de Miguel & Martín Duque, 1986, 100. or.). Honetara Salaberrik

(2011b, 58. or.) dio *Arana – Arano, Elia – Elio*-ren antzeko **Larraio – Larraia* bikotea ikus genezakeela, hots, balizko **Larraio*-ri *-tz* atzizkia gehituko zitzaiola, baina ez du bere esanahia antzematen.

Larraia toponimo nagusian beste leku izen batzuetan bide dugun *larrai* bera dagoela ez da jakite ziurra, are *Lar(r)ahi* jainko izenarekin lotura duela, baina ez dago oztopo gaindiezinik, konparazio batera, *Larraitza*-ren lehenengo zatiak eta teonimoaren oinarriak nolabaiteko zerikusia izan dezaketela sinesteko.

Honaino ikusitako guztiak aditzera emango luke aspaldian pentsatzen ari naizena: Muruzabal Andion eta Errezuko laginetan zahar samarra datekeen *-hi* osagaia (lexema?) daukagula, Akitaniako antroponimoetako *Lohi*-n dugun elementu bera, menturaz.

-Hi -he-ren galtzearen alomorfo zaharra denik ez dirudi, bokala irekitzeko aparteko arrazoirik ez baita sumatzen. *-Hi -he*-ren aldaera berria denik ere ez du ematen, besteak beste, Muruzabal Andiongo aldarea Euskal Herriaren edirendako zaharretakoa delako. Argi dago behin baino gehiagotan forma berriak antzinakoetatik eraiki daitezkeela, baina alderantziz egitea askoz ere zailagoa da. Nolanahi dela, esan komuna da, sarritan, irregulartasun historikoa (*-(h)i?*) historiaurreko erregulartasunaren aztarna edo hondakina besterik ez dela. Nago, hemen, Mitxelena (LP, 40. or.) hitzok argigarriak izan daitezkeela:

La comparación y la reconstrucción interna son ambas comparativas en cuanto dependen de la identificación de morfemas emparentados: en virtud del postulado de tolerancia, se admite que están emparentados todos aquellos que pueden ser retrotraídos a un prototipo común, del cual se deducen las variantes según ciertas reglas de transformación. Pero éstas no han sido arbitradas *ad hoc*, para salvar una dificultad concreta, sino que, por el mero hecho de aplicarlas a un caso, han de ser aplicables a la totalidad de los casos análogos. Funcionan o no funcionan, son aceptables o no, según puedan resistir a la prueba de su generalización o sucumban ante ella.

Hitz bi honezkero behin baino gehiagotan ahotan hartu dudana Iruixoko *Larahe*-ren *-(h)e*-z. Muruzabal Andion eta Errezuko *Lar(r)ahi*-ren *-(h)i*-rekin zuzenean lotuta dagoenik ez dut uste, esan nahi dut haren behialako forma denik, hain gutxi bilakera edo oinordea. Lehenago aipatu moduan (ikus 5.4.§), elementu hori euskal datiboaren morfema zaharra delako ustekizunak baditu zenbait zailtasun eta, hondarkia izatekotan, genitiboaren desinentzia ere izan daiteke, agian, gradu superlatibo markatzeko ezarritakoa, baina hori irudipena besterik ez da, ez baitago aldeko frogak edo argudio sendorik. Hain zuzen, hipotesi horrek oinarrian adjektibo egotea eskatzen du eta hemen, *Herauscorritsehe*-n ez bezala, horrelakorik badagoela suposatuzko aparteko arrazoirik ez da ('basa-').

Bukatzeko, agerian ipini nahi dut *Lar(r)ahi/Larahe*-n Mos herriko (Audeko) *Larasoni*-n den oinarri bera (*Larra-*) bereiz daitezkeelako hipotesiarekin bat natorrela (*cf.*

Larrasoña top., Naf. Gar.). Osagai horrek, *stricto sensu*, *larre*-k egun euskaraz duen adiera bera ('abereak bazkatzen diren belardia', 'basa-') zuen ezin dugu igarri, ordea. Hala balitz, ez nuke erabat baztertuko Akitaniakoa eta Nafarroakoa Silvano erromatarraren pareko numenak izatea.

6.7. *Losa-* (Lerate), [*L]osa-?* (Zirauki), *Losa-* (Burumendi), *Loxa-* (Argiñaritz [Girgillao]), *Losa-* (Anitz [Zirauki])


Mitxelena (1961b, 199-200. or.) nabarmentzen duen gisan, *Losa-/Loxa*-k ezin konta ahala esplikazio izan ditzake, guztiak baliagarri bezain baliogabeak.

Teonimo honek Argiñaritzen *-x*-rekin idatziriko *Loxa* lagina bazuenez gero, txistukaria afrikatutzat hartu izan da. Esate baterako, (egun galdutako) mostra horretan oinarrituz (eta jakinik, latinean ez bezala, *x* letraren pean ez dela /ks/ konsonante multzoa) Mitxelena (1961b, 199-200. or.) euskarazko *lotsa*-rekin lotu zuen.


Alabaina, *Errensa-* badela aintzat hartzen bada, hots, *-neutralizazioaren* ondorioz Larragako jainko izenean (sudurkari ostean) azpian soinu igurzkaria bide duen <s> (eta ez <ts> edo <ss>) grafia dagoela kontu egiten bada, ez da erabat segurua *Losa*-n letra berak hobikari afrikatua adierazten ote duen. Gainera, hor daude *Herauscorritsehe*, *Itsacurinne* nahiz *Sela(i)tse* (eta *Helasse?*), txistukari bortitzak emateko *-ts-* (eta *-ss-?*) hobesten zela iradokitzen dutenak. Guztiarekin ere, <x> soinu afrikatua idazteko baliaturiko zeinua dateke.



15. irudia: Lerateko aldarearen xehetasuna.



16. irudia: Ziraukiko aldarearen xehetasuna.



17. irudia: Burumendiko aldarearen xehetasuna.



18. irudia: Anizko aldarearen xehetasuna.

Beste alde batetik, badira *Losa-/Loxa-* izaki gorena jauresten zen tokiaren (edo tokien) izenarekin lotuta egon daitekeela deritzoten autoreak, baina, hasteko, teoriarik, ez da ezinezkoa alderantziz izatea, balizko toponimoak sorburua gurtzan izatea, leku izenaren jatorriak jainkoaren eraspenarekin zerikusia izatea, alegia (ikus 4.2.§).

Xehetasunetan sartuz gero, Burgosen, Arabarekin mugan, elkarren ondoan dauden bi udalerritan, hurrenez hurren Junta de Villalba de Losan eta Valle de Losan (Lausa Haranean), *Lausa* ([773] [872]; BGD, 356 zk. [109. or.]) eta *Losa* ([934]; BGD, 0 zk. [3. or.]) formak dokumentatzen dira Erdi Aroan (cfr. *Corquera de Losa*, 1137; BGD, 559 zk. [183. or.]). Ildo beretik, Ención jatorri bereko *Losa* lekukotzen da (998; BGD, 372 zk. [113. binp.] eta 1088; BGD, 271 zk. [81. or.]), egun Llosa. Miranda de Ebro-Belorado artean, azkenik, *Vinea Lhosa* aurkintza zegoen 1025ean, Donemiliaga Kukulako *Becerro Galicano* delakoan leitu daitekeenez (BGD, 324 zk. [95. or.]). Ikerbide bat izan daiteke suposatzea Burgosko *Losa* eta *Llosa*, biak, *Lausa*-tik sortu direla, *Llodio Laudio*-tik jalgi den gisan (ikus Salaberri, 2015, 251. or.). Uste izan daiteke, apika, guztiek latineko *clausa* ('itxia') terminoan bide dutela jatorria. Bide batez, diodan *Losana de Pirón* herrixka dagoela Torreiglesiasen (Segovian): «*nostra aldea in Losana*» (1103; BGD, 485. zk. [155. binp.]).

Euskal Herrian *Loza/Lotza* izeneko bi herri (kontzeju) daude, bata Berriobeitin (Antsoain Zendea), Urizaharrean bestea. Biak ala biak XI. gizaldian lekukotzen dira

lehenbizikoz. Rejan *Loza* idatzi zuten Urizaharreko bizilekuaren berri emateko, eta ez **Lozaha*, hau da, *Hascarzaha*, *Hillarrazaha* edo *Otazaha*-k ez bezala –eta *Larraz*-ren eran– 1025ean *Loza*-k ez du *-ha* akaberan. Nafarroako aleari bagagozkio, haren estreinako mostra geroxeagokoa da: *Lope Fortuniones de Loza* (1094, DML, 204. or.), *Orti Ortiz de Loça* (1109; Goñi, 1997, 126. or.); *Eneco de Lotza*, *Garcia de Lotza* ([1167–1172]*; DML, 428. or.).

Patxi Salaberrik bi *Loza/Lotza*-k iruzkintzen ditu, bai Nafarroakoa, bai Arabakoa. Berriobeitikoaz Uxueko irakasleak (2010, 409–410. or.) dio *lohi*-ren (‘lokatza’-ren) eratorria dela, *-tza* atzizki lokatibo-ugaritasunezkoaz osaturikoa eta *Lodosa* (← es *lodo*), *Loizu* (← *lohi* [‘lohia, lokatza’] + lokatibo-ugaritasunezko *-zu* atzizkia), *Loiti* (← *lohi* + *-ti*) eta *Loia*-ren (← *lohi* + *-a* artikulua) gutxi gorabeherako balioa duena, hau da, 1596ko *Refranes y Sentencias*-en dugun *loitza*-rena. Aitortzen du idatzizko testigantzetan balizko *-i-* jatorrizkoa ez agertzea dela proposamen hori onartzeko oztopo nagusia, baina Nafarroako *Idoate* (← *idoi* es ‘balsa’, eta *ate* es ‘puerta, portillo’), *Idozabal* (elkarketako lehen osagaiaren bukaerako *-i* galdu duenaren) eta *Ibaeta*-ren (← *ibai* es «río» + *-eta*) antzeko kasua izan daitekeelakoan da. Euskaltzain nafarrak agerian ipintzen du *Lotza* toki urtsua dela; are gehiago, lehen askoz urtsuagoa izan da.


Urizaharraoaren kariaz, Nafarroako herri izenaz esandakoa berretsi ondoren, Salaberrik (2015, 260. or.) idazten du etimoaren aldetik beste aukera (urrunago) bat izan daitekeela pentsatzea –*Lotza*, *Loça* formak XII–XIII. mendeetan dokumentatzen direnez gero– *Lotza* toponimoan konposizio eta eratorpen **lot* aldaera dagoela (cfr. Arabako *Betolatza*, < *behi*). Ildo horretan, oroitarazten du Mitxelenairen iritzirako (1977, 108. or.) euskarazko *lotu* aditza *lohi*-tik eratorria dela.

Goiko gutzia ikusita, teonimoak eta Arabako eta Nafarroako toponimoek zerikusirik ez dutela iriztea da zuhurrena. Hala berean, irudi du ez gaudela *-osa* daukan leku izen baten aurrean, hau da, *Tolosa*-ren gisako toponimoetan den berrekailuaren aitzinean. Orobat, ez du ematen *Losa-/Loxa-* teonimoan *-tza* atzizkia dagoenik, hala balitz antzinatean **Losaha*/**Loxaha* espero baikenuke (ikus 4.3.§). Neure iritzia estalirik gabe agertu behar badut, *Losa/Loxa* bikoiztasuna badela ikusirik, ez dut uste sorburutako *lotsa* onartzeko eragozpen handirik dagoenik, bereziki jakinda–eta *lotsa* ‘beldurra’ izan dela Nafarroa Garaian eta Iparraldean barna (ikus OEH; cfr. *Timor* jainko erromatarra).

6.8. *Selaitse*, *Selatse*, *S(ela[i]tse)?* (Barbarin)


Sempronius Betunus-ek *Selaitse*-ri opatu aran teonimoaren lehenbiziko *E* hizkiaren goiko arrastoa ez da ikusten ia eta ez da nabarmena (ezkerreko aldetik) ez ohiko luzapena duela. Autoreren baten iritzian, alegiazko marka horrek ‘te’ lokarria dagoela erakutsiko luke, baina ezin bazter daiteke urratua izatea, alegia, *E* arrunta egotea.

Garbi dagoena da bigarren *T*-aren goitik beherako marra luzatu egiten dela gaineko aldetik, 'it' (edo 'ti') lotunea dagoelako seinale (ikus 18. eta 19. irudiak). Ondorioz, *Selaitse* dateke egiantz handiena duen transkribapena.



18. eta 19. irudiak: *Barbaringo* (*Sempronius Betunus-ek opaturiko*) *aldarearen xehetasunak*.


I GERMANVS-enari begiraturaz gero, egia da aurreneko *E*-aren gaineko aldetik lerro mehe bat ikusten dela, baina badira horrelako gehiago ondoan eta *aldarearen* alde bereko beste toki batzuetan; harriaren berezko zimurrak dirateke. Horrez landara, ez da akabailako *T* txikiarena bezain nabaria eta, garrantzitsuena, balizko lehenbiziko *T* horretan ez da goitik beherako marrarik antzematen (*T* txikian bai) (ikus 20. irudia). *Selatse* dukegu, hortaz.



20. irudia: *Barbaringo* (*I GERMANUS-ek eskainitako*) *aldarearen xehetasuna*.

Asclepius Paternus-ek egindakoari dagokionez (ikus 21. irudia), <S> letraren pean *Sela(i)tse* dugula proposatzeko beste bi laginetan jainko izen bakarra egotea, *aldarea* toki berean edirendakoa izatea eta (botoa haren santutegian egin bazen) *numenaren* izen osoa idaztea beharrezkoa ez izatea erabili dira argudiotzat. Daitekeena da, oso, baina ez du zertan.

Etimoaz gauza gutxi esan daiteke, hasteko, ale bana duten bi forma daudelako, *Selaitse* eta *Selatse* (cfr. *Larraitza/larraz[a,e]*). Nolanahi den, ez dut uste *Barbarinen* *Akitaniako* *-ass-* bera dugunik (Gorrotxategi, 1984a, 368. or.; 2020, 22. or.; ikus 6.2.§), besteak beste, eta batez ere, Pirinioez haraindiko alderdi hartan ez delako balizko **-aiss-* aldaera dokumentatzen.



21. irudia: *Barbaringo (Asclepius Paternus-ek eginarazitako) aldarearen xehetasuna.*

Ezin bazter daiteke erabat –Gorrotxategik proposatu bezala– txistukaria oinaren berezko zatia izatea eta eraketa *Sela(i)ts-e* izatea, baina, modu berean, Barbaringo teonimoa *Herauscorritsehe*-rekin aldera daiteke (ikus 6.3.§), hau da, pentsa daiteke osaketa *Sela-tse* dela (*Sela-itse* < *sela* + (*h*)*i* + *tse*?; Joakin Gorrotxategiren ahozko adierazpena) eta desinentziarik ez duela, nominatiboan dagoela. Beste azalbidea *-ts* (edo *-tz*) + *tse* daudela kontu egitea da (Patxi Salaberriren ahozko adierazpena). Bada laugarren aukera bat: azken bokala –Mitxelenak iradoki moduan– latineko *-ae* morfemaren hondakina izatea (←**Selats* + *-[a]e*, **Sela-tsa* + *-[a]e*; cf. Muruzabal Andiongo *votu[m]*). Horrela balitz, *Errensa*-rekin erkatu beharko litzateke.

-Ae diptongoaren laburtzapena (→ *-e*) ez da aparteko zerbait. San Pedro Manriquen (Soriano), adibidez, «D(is) M(anibus) / Veliae Procul/e hic sepulta est / annoru(m) XXX cu/ra parentiu(m)» inskripzioa duen hilarria idoro zen (HE, 24760) eta Tardobispon (Zamoran) «D(is) M(anibus) / Apis(a)e / Albuçi / f(iliae) an(norum) LV» idazkuna duen beste bat (HE, 30383). Orobat, Saeliceseko (Segobrigako) galdutako aldare batean «Leiosse / C(---) Bessuca pro filio / v(otum) l(ibens) r(eddidit) m(erito)» epigrafea zegoen antza (HE 8917). Urrutirago joanez gero, Herreran (Sevillan) «D(is) M(anibus) s(acrum) / L(- - -ae) Fructos(a)e / pia in suis / annoru(m) XXV / h(ic) s(ita) e(st) s(it) t(ibi) t(erra) (...)» epitafioa (xafa) irakur daiteke (HE, 3220) eta Terenan (Evoran) «End(ovellico) sacr(um) / pro Vern/aclam / Treb(iae?) Mus(a)e / ser(vam) Q(uintus) L(ici)nius? Ca/tullus / a(nimo) l(ibens) v(otum) (...)» grabatuta duen promesa bat (HE, 22113).

Lot gakizkion, bukatzeko, teonimoaren muinari. Ikusi dugu lehen (1.2.§) jainko izen iberiarren laginak urri direla, oso. Salbuespenetariko bat Murtzian bi libertok *Salaeco*-ri opaturiko aldarea da: «[.] M(arcus) Roscies M(arci) l(iberti) / Salaeco dede-ru(nt) (HE, 27132; Hesperia, Onom. 5886). Moncunillen eta Velazaren (2016, 26. or.) ustekizuna da balizko **šalai-ko** egiturak, batzuetan behintzat, teonimoak eratze-ko prozedura antroponimoetan antzematen denaren antzekoa zela pentsatzea ahalbidetzen duela, jainko izenaren bi elementuak jende izenen osagaitako ere agertzen baitira (cf. Velaza, 2019, 169-170. or.).

Erreferentzia horrek, ordea, zailtasun nabarmenak ditu gurean baliagarri izateko. Batetik, ez dago argi hitz hasierako txistukaria zer sailtako soinua den, haren artikulazio puntua zein zen, ez Barbaringo jainko izenean bakarrik, iberierazkoan ere bai. Bestetik, lehenbiziko bokalak ez datoz bat (*-e-* vs. *-a-*). Beraz, dauzkagun datuekin, Nafarroako teonimoa *Salaeco*/**šalaiko**-ren lehen zatiarekin lotzea arriskutsuegia iruditzen zait, ez baitago horretarako nahikoa euskarri.

6.9. *Urde* (Muzki)

Inskripzioa ondo kontserbatu da eta ez dago hura leitzeko eragozpenik. Atharrazteko, Iruixoko eta Ziraukiko (Anizko) aldareen epigrafeetako hurrenkerak dakarzkite gogora, baita, esate baterako, Montcirèr-ko *Erge*-ri egindako promesa askorena ere, teonimoa eskaintzailearen aurretik baita, eta hori ez delako ohiko ordena gurean.



22. irudia: Muzkiko aldarearen xehetasuna.

Jainko izenari bagagozkio, 6.3.§n esan dudanez, Gorrotxategi eta Lakarra Andrinua (1996, 120-122. or.) *urde* (es ‘cerdo, -a’) beste animalia izen batzuetan, *ordots*-en (es ‘verraco’) adibidez, bakartu ahalko litzatekeen *ord-* erroarekin lotuta dagokeelakoan dira.

Beste lan batean, Lakarrak Andrinuak (2018, 194-195. or.) irizten du *urde* -bere egitura horretan- ezin dela aitzineuskara zaharrekoa izan. Latineko *turpis*-ekin estekatze ahalegina egin izan den arren, ildo horren arazo formalak larriegiak iruditzen zaizkio eta, bestalde, ohartarazten du ez dela *urdan*- aldaera ahaztu behar. Toponimian sarritan lekukotzen den *urdan*- horri buruz, ikus, adibidez, Salaberri & Zaldua (2019, 33-34. or.).

Muzkiko teonimoan, daitekeena den bezala, euskarazko *urde* badugu (*cf.* *Urdiain*, Naf. Gar., top.), hondarkirik ez duela ondoriozta daiteke. Horrela balitz, alde horretatik, apika, Uxueko *Lacubegi*-rekin erka ahalko litzateke, besteak beste.

Amaitzeko, nabarmen dezadan La Custodian (Vianan) edirendako tesera zeltiberiarretako batek *urde* kuntza duela eta, hala berean, ez da ahantzi behar betoientzat, konparaziora, basurdea hiletekin loturiko animalia zela (ikus 6.3.§).



7. Ondorio orokor (xume) batzuk

En estas circunstancias, ¿es posible la descripción de una lengua cuyos únicos restos conservados consistan en un corpus limitado de nombres propios? En cuanto que muchos de ellos están basados en nombres comunes del vocabulario y todos ellos, aun los foráneos o los que han perdido su relación con el léxico común, cumplen unas reglas generales de comportamiento acordes con la estructura de la lengua de los hablantes, en esa medida los nombres propios permiten la descripción de algunos rasgos concretos de las lenguas a las que pertenecen.

J. Gorrotxategi (1984a, 66. or.).

7.1. Euskal ondareko jainko-jainkosen izenen inskripzioak dituzten aldareen banaketa eta ezaugarri nagusiak

Bederatzi teonimoren aztarnak dauzkaten hamazazpi inskripzio idoro dira gaurdaino Euskal Herrian. Araban eta Zuberotan lagin bana daude eta gainerako guztiak Nafarroa Garaian. Oihenartek aipatzen du (1638an) estreinakoz idazkun horietako bat eta egun arte azkena zena (hamabosgarrena) 2012an plazaratu zuen Velazak. Gehienak herri erakundeen zaintzapean daude, herritarrek gordetzen dituzten bost izan ezik. Bat, Argiñarizkoa, galduta dago; Xabierko gazteluan ezabatzen da haren arrastoa (1946an). Zorionez, 2021ean bi berri azaldu dira. Ia guztiak bertatik bertara ikusi ahal izan ditut; kasu batean izan ezik, inork ez dit oztoporik jarri horretarako.

Hauek dira hamazazpi epigrafeetan irakur daitezkeen izenak (beren horretan, desinentzia eta guzti), ondoan, parentesi artean, bakoitza edirendako herriarekin eta argitara emandako urtearekin: ERRENSAE (Larraga, 1989), HELASSE (Miñao, 1970), HERAVSCORRITSEHE (Atharratze-Sorolüze, 1638), ITSACVRRINNE (Izkue, 1960), LACVBEGI (Uxue, 1929), LARAHE (Irujo, 1996), LARAHÍ (Errezu, 2022), LARRAHI (Muruzabal Andion, 1940), LOSAE (Lerate, 1946), [L]OSAE? (Zirauki, 1979), LOSAE (Borumendi, 1981), LOXAE (Argiñaritz [Girgillao], 1943; desagertua), LOSAE (Anitz [Zirauki], 2022), SELAITSE (Barbarin, 1911), SELATSE (Barbarin, 1911), S(ELA[I]TSE?) (Barbarin, 1946), VRDE (Muzki, 2012).

Banaketa ez da homogenea, gehienak eremu txiki samarrean kausitu baitira. Miñaoko eta Atharratze-Sorolüzeko laginak alde batera utziz gero, gainetiko guztiak

Nafarroa Garaian daude, asko Arga ibaiaren arroan. Nabarduretan sartuz gero, mostren erdia baino gehiago (hamar) Iruxo eta Larraga artean aurkitu da, 25 km-ko lerro edo zerrenda antzeko batean eta haietatik bost Salado ibaiaren haranean dira, 6 bat km-ko aldeak dituen hiruki baten barruan. Beste bat (Izkuekoa) handik 10 bat km-ra (Arakil ibaiaren ondoan) agertu zen, Arga ibaiaren arroan hura ere. Multzo horretatik (sartaldierantz) 20 bat km-ra (Egaren haranean) Barbaringo hiru erakuskariak daude eta 30 bat km-ra (sortaldierantz) Uxuekoa (han *Aragoi* ugaldea da muga, Galipentzun *Urandia* deitzen zutena). Bizkaian, Gipuzkoan, Lapurdin eta Nafarroa Beherean ez da aurkitu alerik, hortaz, eta Nafarroan Iruñetik iparraldera ere ez.

Euskal jainko izenak dituzten aren kokapena latinezko numenak dauzkatenekin alderatuz gero, gauza batek baino gehiagok pizten du arreta. Batetik, Arga ibaiaren arroan, euskal mostren erdia baino gehiago (hamar) idoro den Iruxo eta Larraga arteko 25 km-ko lerroan, latinezko teonimo bakarra kausitu da (Jupiter, Muzkin). Haatik, Erriberri eta Esa artean, jainko erromatarren zortzi lagin diren eremuan, ustez euskal enborrekoa den ale bakarra topatu da (Uxuekoa). Salbuespena, nolabait esan, Barbarin-Arellano gunea da, bi sailetako sortatxoak baitaude. Bistan da, beraz, Nafarroan euskal jatorkiko testigantza gehienak ez direla latinezko inskripzio kopuru handiena dagoen tokietakoak.

Asko erromatar garaiko hirietatik, egoitzetatik edo landetxeetatik hurbil samar azaldu dira, *Veleia* (Iruña Oka), *Pompaelo* (Iruñea), *Andelo* (Muruzabal Andion), Errezumendi (Errezu), *Cumonium* (Los Arcos), Arellano, Santakriz (Eslaba) nahiz *Iluro*-tik (Oloroetik) aski gertu (cfr. Abascal Palazón, 2015, 43-44. or.).

Gesalatz-Deierrietan, gaurdaino erromatar garaiko bizileku handirik aurkitu ez den alderdian, hainbeste epigrafe zergatik azaleratu den ez dago argi. Jainko izenen banaketaz kestone, adierazgarria da *Andelo* hirian Gesalatz-Deierriin naroa den emakumezko *Losa/Loxa*-ren aztarrenik ez egotea (ikus 1.5.§).

Aldare gehienak hareharrizkoak dira, baina badira kareharrizkoak (*Helasse, Larahi, [L]osae, Urde*), baita marmolezko bat ere (*Herauscorritsehe*). Tamainari erreparatuz gero, alde handi samarra dago batetik bestera, txikienak 25 bat cm-ko garaiera baitu eta, handienak, berriz, 163 cm-koa. Bost multzo bereiz daitezke neurrien aldetik (cfr. Zenbaiten artean, 2008, 19. or.): > 160 cm (1), 107-87 cm (4), 70-51 cm (5), 46-36 cm (4) eta 25-29 cm (3). Badira hiru aldareño edo arula, horrenbestez.

Damurik, ez naiz gauza izan arak lantzeko erabili harrien nondik norakoa zehazteko, azterbide horretatik informazio esanguratsua eskura daitekeen arren. Beste norbaitek egin beharko du lan hori. Oraingoz ezin jakin, bada, non zizelkatu zituzten, *officina* direlakoak (lantegiak) non ziren. Aipatzekoa da inguru berean (Gesalatz-Deierri-Ziraukin), bata bestetik gertu, hiru aldareño edo arula agertu izana. Daitekeena da santutegiren batzuetan egindakoak izatea, baina baita herriz herri zebilzkeen harginek landuak izatea ere. *Selaitse*-ri eskainitakoaren tamaina ikusita, ondoriozta daiteke,

menturaz, bazela nonbait jainko hura gurtzen zen lekua; ez dirudi etxerako aldea denik. Letrei begi edukita ez du ematen tailer berean edo esku berak grabaturiko inskripziorik dagoenik.

Tankera askotakoak daude. Bada pulviniak, *focusa* eta frontoitxoak dituen ale bat (*S[ela(i)tse]?*), pulviniak eta *focusa* dauzkaten bi (*Itsacurrinne*, *Urde*), *focusa* bakarrik duten lau (*Helasse*, *Larahi*, *Losa*- [Anitz], *Selatse*) eta pulviniak besterik ez dituen beste bat (*Lacubegi*). *Focus* delakoa da, hortaz, gurtzarekin zerikusia duen elementu ugariena, aldareen herenak baitu jainkoari opariak uzteko egindako zulo biribila; pulviniak eta, batez ere, frontoitxoak ez dira hain narroak.

Bi arek, *Herauscorritsehe*-renak eta *Lacubegi*-renak, apaingarriak dauzkate alboetan, alegia, kultuarekin lotutako irudiak, pitxarra eta platera nahiz zezen (edo behi) buru bi, hurrenez hurren. Zortzi alek ez dute jaurespenaren alorreko inolako elementu osagarriarik. Kuntzaren aldetik, Ziraukiko elizan dagoena da berezietako bat, goiko eta beheko moldurak handi samarrak baitira (Anizkoan bezalatsu).

Gehienak K.o. I-II. gizaldietakotzat jotzen dira. Ikertzaile guztiak ez datoz bat, baina, salbuespenak salbuespen, batzuen iritzietatik besteentara dauden ezberdintasunak ez dira larriak. Labur-zurrean esanda, idazkun asko gure aroaren hasmentakoak direla uste da, lehen gizaldietakoak. Nolanahi dela, ez dago hemen egia uko egiterik: ia guztiak beren testuinguru arkeologikoetatik kanpo edirendakoak dira eta, ondorioz, datak balizkoak edo ustezkoak, bestela esanda, ez dute beren ingurumarian (aztarnategietan) kausituriko objektuen datazioen zehaztasuna (eta segurantzia).

7.2. Erromatarren garaian Euskal Herrian gurtzen ziratekeen numenak

Erromatartzea hasi zenean sartaldeko Pirinioen eremuan bazen bertako panteoi bat, baina nekez asma genezake haren osaera eta egituraketa nolakoa zen. Akitaniako zenbait testigantza argitan, konparazio batera, naturako elementu batzuk jauresten zituztela sinets daiteke eta, berebat, ematen du bazirela santutegi izaerako mendiak.

Erromaren eragina erlijioaren arloan gizartearen beste atal batzuetan (ekonomian, kulturaren...) baino arinagoa edo azalekoagoa izan zela sinesteko arrazoirik ez dago. Bertako eta Mediterraneo aldetik iritsitako debozioak eta zeremoniak, ordea, ez bide ziren toki guztietan berehalakoan nahasi. Gehiago dena, Euskal Herrian ez da tokiko eta atzerriko jainkoak elkarren ondoan dituen inskripziorik topatu gaur arte. Edozein moduz, kausitu diren aldareek garbi egiaztatzen dute hemen bizi ziren gizon-emakumeek erromanizazioarekin batera heldutako sinesmenak eta adoratzeko era (kultua) bereganatu zituztela. Horren lekuko dira, adibidez, Araban eta Nafarroan edirendako Jupiterren, ninfen eta *Sol*-en arak, Araban eta Bizkaian kausituriko *Tutela*-renak (*cf. Tutera* top.) nahiz euskal jatorkiko izenak dauzkaten izaki gorenei opaturiko aldareetan dauden osagaiak (*focusa*...) (ikus 7.1.§).

Irudiak zizelkatuta dituzten botozko arak, euskal esparruan ez ezen, urriak dira ondoko herrialdeetan. Hain justu, bahetu dugun multzoan *Lacubegi*-renak eta *Herauscorritsehe*-renak bakarrik dituzte animalien edota objektuen marrazkiak. Bi zezen (edo behi) buruak eta plater-pitxerrak ez daude aurrealdean, alboetan baizik, erritu-instrumentuak grabatu ohi diren tokian, hau da, kokapen horrek zezena (edo behia), adibidez, sakrifikatutako animalia zela iradokiko luke. Bestetik, uste izatekoa da bazirela zenbait jainko-jainkosaren ohoretan eraikitako tenpluak, izan bertakoak, izan kanpokoak, Atharratzeko lurretan *Herauscorritsehe*-ri jasotakoa kasu.

Euskal ondareko jainko-jainkosen izenak inskribatuta dauzkaten aldareño batzuek erromatartzearen aurreko izakien berri eman dezaketelako hipotesiak badu zentzua, baina zaila dirudi epigrafeek denbora joanetako dibinitate haiek ziren-zirenean islatzea, gutxiago edo gehiago, nahasketa baten espresioak diratekeelako seguruenara: erabili ditugun teonimoek erromanizazioaren sasoiko debozioei egiten diete erreferentzia, garai hartakoei, nahiz eta zenbait kasutan iragan garaietan gurtzen zirenen ondorengoak izan.

Hiru eratako gizakiaz gaineko izakiak daudeke: lehendik adoratzen zirenak (izan bertakoak, izan kanpokoak), erromatartzearen eraginez sortuak edo loraturikoak (hibridoak) eta greziar-erromatarrak. Epigrafian sorburu eta aldi askotako numenen izenak daudeke, beraz, eta, ondorioz, euskal deizioa edukitzeak ez du esan nahi jainko-jainkosa horiek kanpoko ukitua ez dutenik edo, besterik gabe, atzerritik heldutakoak (itzulpenak) ez direnik. Numen bat indigenatzat hartzeko tasun gisa izena bakarrik aintzat hartzea arriskutsua da, euskal kutsuko onimoa izateak ez duelako esan nahi, ezinbestean, hura sustrai berekoa denik. Gainera, badaude jatorria maileguan duten osagaiak dauzkaten teonimoak, Uxueko *Lacubegi*-k adibidez. Eralkitako inskripzioetako idazkunek, egiazki, bertako jainko-jainkosak (eta ez zeltiberiarrak, galiarrak, iberiarrak edo erromatarrak) zenbateraino azaleratzen dituzten ezin da jakin, besteak beste –tokikoek kanpoko hizkuntzetakoak izan ditzaketen bezala– atzerriko jainkoek lekuko izenak har ditzaketelako; ez litzateke harritzekoa baten bat euskal hizkuntzan aditzera emandako zelta nahiz greziar-erromatar enborreko jainko-jainkosa izatea, hots, itzulpen hutsa.

Jainkoak bi sailetakoak ziren (gutxienez), baina aldareak eginarazi zituzten jarraitzaileen fedea gauzatzeko era (erlijio sistema), nagusiki, erromatarra. Multzo osoaren hierarkia ezezaguna da, zoritxarrez.

Euskal Herrian diren (bi alorretako) ara guztien artean dagoen euskal jainko izen «ugaritasunak» atentzia ematen du, jatorri horretako bederatzi eta latinezko beste hainbeste teonimo baititugu (Jupiter, ninfak, lareak, *Matrae*, Marte, *Tutela*, *Sol (Invictus)*, *Mater Magna* eta Merkurio); indoeuroparrak (nolabait esan) hiru dira (*Tullonio*, *Baelibio* eta *Peremusta*). Bertakoak, joriak izateaz gainera, hein batean, «bereziak» dira, *Larrahí/Larrahí/Larrahé* alde batera utziz gero (*Lar[r]a-*), jainko izen akitaniarren arrastorik ez dagoelako, berdin-berdinik edo oso antzekorik ez behintzat.

Losa/Loxa-k (4-5), *Sela(i)tse*-k (3) eta *Lar(r)ahi*, *Larahe*-k (3) lagin kopuru aipagarria dute. Aurreneko bienak eremu txikian edota herri berean aurkitu dira eta, hortaz, ez litzateke harritzekoa santutegiren bat egotea edota tokiko jainerak izatea. *Lar(r)ahi*, *Larahe*-k esparru luzeagoa harrapatzen du, errainu zabalagoa duela irudi du (gfr. Rodriguez & Sablayrolles, 2008, 31. or.); kasu horretan ere ez da ezinezkoa non-bait santutegiren bat egotea.

Antzinaroko izaki gorenen izenek ez dute euskal mitologian iraun, gorde diren kontakizunetan ez dira epigrafian lekukoturiko teonimoak ageri eta alderantziz ere ez, hau da, erromatar garaiko promesetan ez dago, konparaziora, *behigorri* edo *ortzi*-ren arrastorik. Gehiago dena: bi alorretako edo garaietako euskal deizioek, Antzinarokoek eta mitologian ikusten direnek, ez dute antz handirik (*Herauscorritsehe* \approx *behigorri*, *zezenigorri*...?).

7.3. Fededunak eta botoak

Solasgai dugun aldare azaoa euskal eremuan edo haren mugan idoro da, –gutxienez– Erdi Aro arte (XII–XIII. mendeak arte) euskara mintzatzen zen alderdian edo haren ondoan. Hari beretik, Euskal Herriko Antzinaroko antroponimiari eta gaurdaino iraun duen orduko toponimiari begiratuz gero, ez dago behaztopa larririk eskaintzaileek (eta harginek) euskaraz bazekitela onartzeko, baina, egon, euskal osagaiko izena daukan boto egile bakarra dago, *Valerius/a Badan Abisunsonis*.

Hizkuntzaren sailekoa baino gehiago, onomastikaren arloko gertaera batez ari gara, euskal hitzunak egon behar baitzuten, baina kultura ospetsuena Erromakoa zenez gero, ez da harritzekoa jende askok latinezko izenen aldeko hautua egitea, are epigrafian aztarna utzi duten gizataldeetako herritarrek. Horretan, aldea dago Akitaniarekin. Bestalde, aretako antroponimoetan ez da antzematen kanpoko izen baten moldaketa (euskal ahoskera) frogatzen duen grafiarik (ezaugarri fonetikorik), *Urchatetell*- edota *Ordunets*-en den bezalakorik, alegia.

Sinestunen artean (latinetikoa ez den) elementu (cognomen) indoeuroparra daukan gizaseme bakarra dago, Barbaringo aldareetako bat eginarazi zuen *Sempronius Betumus*. Datu esanguratsua da, esan komuna delako Nafarroako sartaldean (Lizarrerrian batik bat), euskal teonimoak dokumentatu diren lurraldean, onomastika pertsonala Iberiar penintsulako (sustrai zeltako) mendebaldeko eremukoaren sail berekoa dela. Badira kontuan hartu beharreko ñabardurak, horratik. Preseski, euskal jainko izenak kausitu diren Nafarroako barrutian –jatorri indoeuroparreko (eta euskal sustraiko) izen gutxi batzuk badiren arren– izen erromatarrak gailentzen dira argi eta garbi epigrafian. Ildo berean, Lizarrerrian, oro har, ez dira jatorri indoeuroparreko jende izenak nagusitzen: multzo horretako antroponimoek Arabako mugan dauden herri batzuetan baizik ez dute hainbateko edo munta garrantzitsua (Larragoa [ikus 6.6.§], Gastiain, Aguilar Kodes eta Marañonen).

Euskal Herriko biztanleek erromatar erako sistema onomastikoa bereganatu zutean bertako izendapen moldeen ezaugarriak gorde eta barneratu zituzten behin baino gehiagotan; esan nahi dut latinezko deizioetan tokiko tasun batzuk atxiki direla. Bada, esaterako, *duo nomina* + *filiazioa* egitura duen ale bat, euskal ondareko osagaia bide duen Izkueko *Val(erius/a) Badan Abisunsonis*, hain zuzen. Xehetasunak xehetasun, (*praenomena*) + *nomena* + *cognomena* + (*filiazioa*) hurrenkera nagusitzen da jende izenetan.

Hizkuntza batek historiaurreaz ematen duen informazioa linguistikoa da funtsean, mintzaira horren historiaurreari dagokio, hari egiten dio erreferentzia, eta ez hitz egin zuen herriaren historiaurreari (edo historiari) (LP, 18. or.), baina ez da egia txikiagoa antroponimoek, adibidez, lengoaiaren arloko datuak eskuratzearaz gainera, izendatzen zituzten gizakiak bizi ziren gizartearen berri ematen dutela. Gurean, ikerturiko aldaire sortan, Anizko eta Errezuko laginak alde batera utziz gero, hamazortzi fededun zenbat daitezke, haietatik sei emaztekiak. *Tria nomina* bakarra dago; *duo nomina* egitura da naroena, gizaki askeei zegokiena hori ere. Izendapen hori dutenen artean, jopu jatorriko sei pertsona (liberto) dituzkegu (behin baino gehiagotan, greziar sustraiako deizioak daukate).

Euskal Herriko epigrafian –Akitaniakoan ez bezala– ez dira bi multzoetako izenak nahasten, antroponimo gehienak latinetikoa direlako eta teonimoak, berriz, euskal arlokoak (alderantziz ez). Batzuetan, nomen bera duten (familia berekoak diratekeen) gizakiek bi arloetako jainkoei promes egiten diete, Argiñarizko *Lucretius Proculus*-ek (*Loxa*) eta Muruzabal Andiongo *Lucretius Martialis Lucreti filius*-ek (Apolori) nola. Badira cognomen bera duten jendeek euskal jainkoei jaiera zietelako testigantzak, Barbaringo *Paternus (Sela[i]tse)* eta Lerateko *Paterna*-k (*Losa*) nahiz Muruzabal Andion (*Larrah*) eta Ziraukiko *Martialis*-tarrek (*[L]osa*) oparituriko aldareek egiaztatzen duten gisan.

Idazkun gehienek, zehazkiro zortzik, eraketa bera dute: *eskaintzailea(k)* + *teonimoa* + *eskaintza formula* (*v s l m*, *v l s...*). *Lacubegi*-rena da talde horretako bestea, formula-ria *ex voto* izan arren (eta ez, *v s l m*). Badira *eskaintzailea* + *teonimoa* osaketa duten beste bi inskripzio (*Helasse*-rena eta *Larrah*-rena). Bi laginetan, Muruzabal Andiongoan eta Izkuekoan, eskaintza osoa (*votu retulit*) edo haren zati bat (*posuit ex votu*) jarraiki-learn eta jainko izenaren artean dago.

Izaki gorenaren izena lau aldaretan baizik ez da lehen tokian, sinestunaren aurretik (*Heraucorritsehe*, *Larrah*, *Losa*- [Errezu], *Urde*). Horietako batean teonimoak, aldamenean, osatzen edo zehazten duen zati generikoa du (*deus* [‘jainkoa’]). Bide batez, diodan, itxura batean, Euskal Herrian *deus* Akitanian baino gutxiago baliatzen dela.

Euskal jainko izenak dituzten epigrafeen egitura latinezkoak dauzkatenekin erkatuz gero, aldea nabaritzen da, bigarren sailean teonimoa lehenbiziko lekuan dutenak nagusitzen direlako (hamabost), hau da, izaki gorenaren deizioa bigarren tokian daukatenak urriago direlako (bederatzi).

Konparaketa Akitaniako jainko izen indigenen aldareetako inskripzioekin egiten bada, diferentzia are esanguratsuagoa da, alderdi hartan askoz ere gutxiago direlako sinestunaren izena teonimoaren aitzinetik duten idazkunak (ikus 5.6.§; *cf.* Zenbaiten artean, 2008, 27, 42. or.); lagin asko dituzten numenen izenei (*Artahe/Artehe, Erge, Er[r]iape/Er[r]iapo, Lahe, Leheren-i...*) begiratzea besterik ez dago. *Larraso-* da salbuespen aipagarrienetakoa (eta bakarretakoa).

Fededuna aurreneko tokian egotea, neurri batean behintzat, Euskal Herriko azaoareen ezaugarritzat (bereizgarritzat) har daiteke, hortaz. Ebroz haraindiko lurraldeetako (Burgosko, Errioxako, Soriako eta Zaragozako) epigrafiari erreparatuz gero, lehen begiratuan, ez da antzematen euskal teonimoak dauzkaten idazkunen hurrenkeraren apartekotasuna lausotzen edo ibitzen duen zenbatekorik edo hainbatekorik, ez jainko izen indigenei egindako agintzen artean, ezta dibinitate greziar-erromatarrei opaturikoen sailean ere.

7.4. Toponimia eta teonimia

Teonimoek eta toponimoek zuzeneko eta zeharkako harremanak dituzkete. Konparaziora, gaur arte iraun duten leku izen batzuk jainkoen izenen oinordeak dirateke, gurtzatik sortuak, baina, hala berean, izaki gorenek jauresten ziren tokiaren deizioa izan dezakete. Zerikusia bitarikoa izan daiteke, beraz, jainko izenaren sorburua toponimo bat izan daitekeen bezalaxe, leku izen bihurturiko teonimoak egon daitezkeelako. Diodanaren adibide, badira jatorria numen zeltetan duketen toponimoak Euskal Herrian, *Toloño* eta *Deba*, esaterako. Gizakiaz gaindiko izakiak oinarritako dituzten toki izenez ari garelarik, Erdi Aroko dokumentazioan goiz samar irakur daitezkeen batzuk badaude (Lamiturri, Ortzantzurieta?). Honenbestez, teonimiaren ikerketan toponimia aintzat hartzeko arrazoirik ez da falta.

-*S(s)a* akabaila dateke lotura horren etsenplu bat. Izan ere, antza denez, Nafarroan segida hori daukan Antzinaroko toponimoa dagoke (*[I]turissa?*; *cf.* Sauseko *Eturissensis*, gen.), azaletik begiratuta, *-tza* atzizkiaren eitea duena eta *Errensa-* teonimoaren bukaerarekin aldera daitekeena. Alabaina, Mitxelenak eta Salaberrik diotena aintzat hartuz gero, hau da, *-tza* berrekailua **-tzaha* zaharrago batetik datorkeela onesten bada, zaila dirudi *-s(s)a* duten izendapenak, izan toponimoak, izan teonimoak, *-tza* dutenekin zuzenean lotuta egotea, haiekin estekatu ahal izateko Larragakoaren balizko formak, adibidez, **Errensaha-* izan beharko bailuke eta, bistan den bezala, ez da hori gertatzen.

Orobat, Erdi Aroko Euskal Herriko eta ondoko lurraldeetako idatzizko iturrietan badira goiz dokumentatutako *-s(s)a* duten toki izenak. Andosilla-San Adrianen, Ebro ibaiaren ondoan eta Calahorratik oso gertu (Larragatik 25 bat km-ra), *Resa/Arresa* (933/1036) herri hustua dugu, Burgosen, Encima Angulo-Las Fuentes artean

(Arabarekin mugan), bada, hala berean, *Resa* lekua (*Ressa*, 864), baita *Arresa* herria Huescan ere, *Arrensa* (992) eta *Arresa* (1036) dokumentatua hura.

Oso zaila da jakitea *-s(s)a* horren etorkia zein ote den. Leku-ugaritasunezko *-(t)za-*ekin ez du zerikusirik antza, ez baitut *-(t)zaha* zaharrago batetik datorrela seinalatzen duen daturik kausitu. Euskal eremuan estreinako agerraldiak, apika, erromatarren garaikoak dirateke (*[I]turissa?*) eta, ondorioz, daitekeena da solasgai ditugun aldareen garaian osagai onomastiko gisa erabiltzea. Hortik abiatuta, eta jakinda badi-rela toponimoekin esteka daitezkeen jainko izenak, baita sorburua teonimoetan duten leku izenak ere, ez zait guztiz ezinezkoa iruditzen *Errensa*-k berrekailu hori izatea, baina ez du horrela zertan izan, lotura aieru hutsa izan baitaiteke.

7.5. Antzinateko euskal hizkuntzaren tasun batzuk teonimiaren arauaz

7.5.1. Grafiak eta soinuak

Oro har, ez da oztopo gaindiezinik epigrafeetako teonimoen grafiak interpreta-
tzeko. Beste gauza bat da harrian grabaturiko zeinuen pean egiazki zer soinu dauden
jakitea, edozein idazketa sistema, zeinahi garaitakoa dela ere, ahoskeraren ispilu egiaz-
ko eta beti batekoa izatetik urrun egon daitekeelako (*cf.* LP, 16. or.).

Hamazazpi inskripzioetako bederatzi jainko izenetan bost bokalak erabiltzen dira;
hitz hasieran (e, i, u) gutxitan (3/9) eta akabailan asko aldiz (9/9). Hain zuzen, teo-
nimo guztiak bokalez amaitzen dira, gehienak *-e*-ekin. Latinezko *-ae* hondarkia
dutenak alde batera utziz gero, bi diptongori dagozkiekeen grafiak ikusten dira, <ai>
(*Selaitse*) eta <au> (*Herauscorritshe*), baina elkarren ondoan dauden silaba banatako
bokalak izan daitezke.

Testigantza bat baino gehiago dutenen artean ez da aldaketa asko sumatzen boka-
len alorrean. *Selatse/Selaitse*-n <a>/<ai> aldizkapena dukegu. *Lar(r)ahi/Larahe*-n kasuan
ez da gauza segurua <i>/<e> txandaketa dagoela, bietan zinez elementu bera dugula.

Kontsonante saila dela eta, lehenik eta behin, agerian ipini nahi dut, espero zite-
keen bezala, ez dagoela herskaririk hitz hasieran. da lekukotzen den ezpainkari
bakarra, bokal artean lekukotu ere (*Lacubegi*). Bada <d> horzkaria duen lagina; hitz
barruan da, dardarkari ostean zehazkiro (*Urde*). Ez dago <t> edo <th>-ren aztarrenik,
horratik.

Belarrak bi zeinurekin izkiriatura daude, <c>-ekin eta <g>-ekin. Batean <c>
txistukari ondoan dago (*Herauscorritshe*) eta beste bietan bokal ondoren (*Itsacurinne*,
Lacubegi). Ez da grafia bikoizturik.

Ozenei dagozkienetan, sudurkari ezpainkariaren arrastorik ez da. Hobikaria hitz
barruan baizik ez da agertzen, bi idazkerarekin, bakunarekin eta geminatuarekin.

Lehenbizikoa silaba bukaeran dago (*Errensa*), baina ez da garbi antzematen bigarrengoan digrama zeri zor zaiokeen, bi silabaren elkargunea (*Itsacurrin-ne*) edota sudurkariz bukatutako hitz-oina izateari (*Itsacurrinn-e*).

Itxarotekoa zen bezala, hitz hastapenean ez dago dardarkaririk. Zentzu horretan, *Errensa*-n bokal protesia egon delako hipotesia ezin da baztertu. Hitz amaieran ere ez da dokumentatzen. Hitz barruan bi zeinuak dauzkagu, bakuna (*Larahe*) eta anizkuna (*Errensa-*, *Itsacurrinne*). Bada bi kontsonanteak (<r> eta <rr>) dituen bat (*Herauscorritsehe*), baita bi eratara izkiriatuta dagoen beste bat ere (*Larahi*, *Larrahi*). Albokariak usu baliatzen dira, hala hasieran (*Lacubegi*, *Larahe*, *Larahi*, *Larrahi*, *Losa-*), nola barruan (*Helasse*, *Sela[i]tse*). Geminatuaren lekukotasunik ez da alor honetan, fededunenean ez bezala. Xehetasunetan sartuz gero, Miñaon dokumentaturiko *Hellice* cognomena ez da euskal sus-traikoa, baina, harrigarriro, -jatorriz *l* bakarra izan arren— digramarekin idatzia dago.

Txistukariak lau modutara emanda daude: <s>, <x>, <ts> eta <ss>-rekin. Hitz hastapenean <s> baizik ez dugu (*Sela[i]tse*), baina hitz barnean lau grafiak erabiltzen dira (*Losa-*, *Loxa-*, *Itsacurrinne*, *Herauscorritsehe*, *Helasse*). Batzuetan bi zeinu irakurtzen dira teonimo berean, bestelako soinuak zirelako seinale (*Herauscorritsehe*, *Sela[it]se*). Susmoa da <ts>-k eta <ss>-k kontsonante (afrikatu [bortitz]) bera adierazten dutela (*Sela[i]tse*, *Helasse*), are ikusirik, apika, segida eta kokapen (atzizki) berean direla. Sudurkari ostean <s> daukagu (*Errensae*), ez -ts- edo -ss-. Bada bi formarekin, bi letrarekin (<s> eta <x>-rekin) grabaturiko ale bat (*Losa- vs. Loxa-*). <S> (4) / <x> (1) aldizkapenaren arrazoia ez dago garbi. Zenbait autorek <x> grafian soinu afrikatua ikusi dute eta Lizarrerriko teonimoak *lotsa* hitzarekin zerikusia izan dezakeela iradoki.

Hasperenaren idazkera datekeen <h> hitz hasieran eta barruan leitzen da (*Helasse*, *Herauscorritsehe*, *Larahe*, *Larahi*, *Larrahi*). Barnean dagoenean bokal artean da beti eta ez du ematen silabak bereizteko (hiatoari eusteko) bitartekoa denik. Kontsonante ostean (-nh-, -lh-, -rh-) ez da dokumentatzen (cf. Lergako *Narhunges-* eta *Abisunhar-*). Bada birritan duen teonimo bat: *Herauscorritsehe*; ohart bedi bigarren <h>-a seigarren silaban dagoela. *H* beste soinuekin txandakatzen delako adibide garbirik ez dago.

Salaberrirentzat garbi dago hasperena bazela, Erdi Aroan ere ongi lekukotzen dena, ohikoa den bezala gero [y] eman duena: *Larrahona* > *Larragoa/Larraona*. Nafarroako toponimoaren azentuaz dio *Larráhona* behar zuela *Larragua* -hola izkiriatua- ateratzeko; honek menturaz esan nahi zukeen *Larráhe* zela jainkoaren izena (Patxi Salaberriren ahozko adierazpena).

hitz hasieran	hitz barruan	hitz amaieran
L, H, S	b, d, g, c, h, s, n, r, l	
	ts, ss, x ² , nn, rr	

1. eskema: Euskal Herriko jainko-jainkosen izenak idazteko erabilitako grafiak (1).

Bi kontsonante multzo mota daude, *ozena* + *edozein kontsonante* (-*ns*-, -*rd*-; *Erren-sae*, *Urde*) eta *txistukaria* + *herskari ahoskabea* (-*sc*-; *Herauscorritsehe*). *Muta cum liquida* segidarik ez dago, ezta hiru kontsonanteko talderik ere.

Esan bezala, gauza bat da teonimoak emateko hautatu hizkiak sailkatzea eta beste haiek ordezkatzeko dituzten soinuak nolakotasuna antzematea. Egiteko horretan, jakina, lehenengo zailtasuna, larria eta erabakigarria, laginaren zenbateko murrizta da, atera daitekeen edozein ondorio engainagarria izan daitekeelako, irudipen hutsa. Hori horrela izanagatik, Akitaniako lekukotasunetan eta barne eraikuntzan oinarri hartuz, gaurdaino, oro har, antzinateko euskal mintzairari dagokionean finkatu diren ezauzgarriak gurean betetzen diren egiaztatzen ahalegindu gintezke.

Martinetz (1950) eta Mitxelenaz (1951) geroztik onartzen den hipotesiaren arabera, erromatarren garaian trabariak bortitzak (*fortis*) edo bigunak (*lenis*) izan zitezkeen (eskuarki latinezko ahoskabe eta ahostunekin parekatzen zirenak). Bortitzen energia latinezko ahoskabe arruntena baino handiagoa zenez gero, askotan geminatuen bitartez izkiriatura daude (-*tto*, -*tten*, -*cco*). Orobat, beste silabetakoak baino indar gehiago zuten zenez gero, normala zen (berez bigunak ziren) hitz hasierako silaba azentudunetako trabariak nahiz atzizki azentudunen hastapenekoak apur bat gogortzea eta -latinezko ahoskabeak idazteko baliatzen ziren- *C* edo *P* letren bitartez ematea (*Cison*-).

Gurean *Herauscorritsehe* eta *Itsacurrine* teonimoak ditugu, baina Atharratzeko mostiran *c* txistukari ostean dagoenez eta Izkuekoan benetan zer dugun ez dakigunez gero, ezin da igarri Akitanian belarren arloan antzematen den txandakatzeko beraz ari garen (-*gori*-/*-cor[r]i*); *cfr.* *Baigoriso*, *Baigorixo vs. Baico[r]ixio*, *Buaicorixe*.

Fortes trabariak (izatez ahoskabeak zirenak) silaba azentudunetan jasotzen zuten energiarengatik usu hasperendun bihurtzen ziren eta, batzuetan, sumatu, ezaugarri hori sumatzen da grafian, -*thar* atzizkian konparazio batera (*cfr.* Gorrotxategi 2018e, 265. or.). Eralki dugun azaoan ez da tasun horren balizko adibiderik.

Mitxelenarentzat (1957b, 124-125. or.), geminatuen bilakabideak orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela frogatzen du, ahostun izan arren, digramarekin izkiriaturikoak *fortis* ebakitzen baitzituzten. Bide beretik, Gorrotxategiren (2018e, 268. or.) arauaz -sudurkari bakarra /n/ izanik- Akitanian ikusten den letra bakunaren eta bikoitzaren arteko banaketak *fortis/lenis* antzeko oposizioaren berri ematen du. Gurean *Itsacurrinne* dateke ebakera horren mostra bakarra (*cfr.* *Errensa*).

Bortitza/biguna aurkakotasuna gainerantzeko ozenetan (/l/, /r/) ere bazen, antza; haatik, albokariaren sailean grafia geminatuaren testigantzarik ez da gurean (*cfr.* OIA, 376. or.), sinestunen arloan ez bezala (*Hellice*). Pentsa daiteke <l> hizkia albokari bigunari dagokiola bokal artean dagoenean (*Selafitse*). Egungo *zelai*-rekin lotu nahi bada, ez da hori ustekari ona. Halere, esan beharrekoa da Akitaniako corpusean ez dela <l>/<ll> kontrakotasuna dokumentatzen eta, gainera, fortisak, batzuetan, letra bakarrarekin izkiriartzen direla (*cfr.* *Larahi*; akit. *Eriape*).

Atentzioa ematen du *Larrahi/Larahi*-n (eta *Larahe*-n) den txandaketak, apika, Akitaniako *Eriape, Eriapo vs. Erriape, Erriapo* bikoteetan dukegun bera delako. Grafia mudantza horrek intentsitatean funtsaturiko kontrakotasunaren berri emango luke, eta ez kantitatean, alegia, ez bide ziren bestelako bi soinu. Nago dardarkari bakarrarekin grabatuta izatea (*Larahi, Larahe*) latin herrikoiaeren eraginari bakarrik ez zaiokeela zor.

Txistukariei erreparatuz gero, azkenik, uste izatekoa da <ts> eta <ss> zeinuak (*Herauscorritsehe, Sela[ij]tse, Helasse*) kontsonante (bortitz) berari dagozkiokoeela, are jakinda segida (berrekailu?) berean daudekeela. Bestalde, sudurkari ostean <s> daukagu (*Errensa-*), eta ez <ts> edo <ss>, menturaz, igurzkiariaren (bigunaren) aldeko neutralizazioa egiten zelako adierazgarri. Ez dirudi halabeharra denik, Izkueko alda-rearen eskaintzailearen izenean ikur bera baitago lekune berean, alegia, *Abisunso*- leitu daitekeelako (*cf.* Soriako *Onso* eta *Onse*).

Eskuraturiko datuen arabera antzemandako balizko soinuaren ezaugarriak azpiko koadroan laburbil daitezke (*cf.* Lakarra Andrinua, 2018, 85. or.):

	Hitz has., konts. ostean	Bokal artean
Fonema bort.	c	c, ts, ss, x?, rr, nn
Fonema big.	L, H, S d	b, g, h, s, r, l

bort.: bortitza. **big.:** biguna. **has.:** hasieran. **konts.:** kontsonantea

5. koadroa: *Euskal Herriko jainko-jainkosen izenak idazteko erabilitako grafiak (2).*

7.5.2. Izenen eraketa

Teonimo gehienek izen eratorriak dirudite, erro edo oinarri bati berrekailu bat ezarriz sorturikoak, baina, izan, badira bakunak edota elkartuak diratekeenak. Zatiezin itxura duen bat Muzkiko *Urde* da eta konposatu eitea daukan bat, berriz, Uxueko *Lacubegi*; ezin bazter daiteke erabat *Lar(r)ahi* ere izen elkartua izatea, *-hi*, hondarkia edota atzizkia beharrez, lexema izatea (*cf.* Akitaniako *Lohi-*). *Larra-* oinarriaz (jainkoaz?) ari garelarik, oroit bedi zenbait autorek uste duela antzinateko euskal hizkuntzan, artean, elkarketan eta eratorketan ez zirela agitzen euskaraz arruntak diren lehen osagaiaren aldaketak (*gizon* → *giza-*, *eme* → *ema-*). Orobat, *Herauscorritsehe*-ren lehenengo zatiak konposatu kuntza du (*izena* + *izenondoa*), baita, agian, *Itsacurrinne*-renak ere, azken honen eraketa askozaz ere ilunagoa izan arren.

Oinarri batzuei (izan bakunak, izan elkartuak) *-sa* (*Errensa*) eta *-tse/-s)se?* (*Herauscorritse-he, Sela[ij]tse, Helasse?*) berrekailuak gehitu zaizkieke, hau da, izen eratorriak dirateke. Miñaoko teonimoaren egitura *Hela-* + *-sse* edo *Helas-se* ez balitz, orduan, apika, Gorrotxategik Akitanian bakartu *-ass-* genuke (*Hel-ass-e*). Latinetiko atzizkia duen teonimorik ez da, antza.

Esanak esan, honako elementu onomastikoak bereiz daitezke: *-begi* (*Lacubegi*), *-corri-* (*Herauscorritsehe*), *Erren-* (*Errensae*), *Heraus-* (*Herauscorritsehe*), *Lacu-* (*Lacubegi*), *Lar(r)a-* (*Larahe/Larahi/Larahi*), *Urde;* *-hi?* Gehienak, hondarrekoa izan ezik, Erdi Arotik aurrera ere dokumentatzen dira. *Hela-*, *Itsa-* eta *Sela(i)-* (< *sela* + (*h*)*i?*) segidak, egiazki, erroak direla ez da jakite ziurra, ezin baita egiaztatu haien berezko edo zinezko forma hori dela (*Hel-?*, *Helas-?*; *Its-?*, *Sel-?*).

Hitz bi Izkueko aldareko *Valerius Badan Abisunsonis* jende izenaz. Patronimoaren oinarriak (*Abisun-*) Lergako *Abisunhar-*en dagoen bera dirudi. *Abis-un* banatuz gero, bigarren zatia hilarri berean irakurtzen den *Narhunges-*en dugun *-hun-* dela sinets daiteke (*cfr.* Vathcrabèra *Harontarris*, gen.). Bigarren elementua (*-so-*) Oiartzungo es-tela ezaguneko *Belteso-*n daukagun berrekailu bera dateke. *Badan* cognomenak, damurik, ez du pareko ezagunik (*cfr.* Akitaniako *Acan*).

7.5.3. Morfologia

Aldareetan egiten diren promesen hartzaileak diren aldetik, zehar osagarriaren funtzio sintaktikoa betetzeagatik, printzipioz, epigrafeetako teonimoek datiboaren kasu marka izatea litzateke arrazoizkoena. Aletu dugun sortan badira, hain justu, latinezko hondarkia duten bi etsenplu (ERRENSAE eta LOSAE/LOXAE). Beste laginetan ez dago, horratik, Erromako hizkuntzako deklinabidearen arrasto garbirik. Gehiago dena: beste guztiek (LACVBEGI alde batera utziz gero) *-e* dute amaieran eta gehienetan ez dakigu elementu horren nondik norakoa zein den; ez da argi ikusten *Helasse*, *Itsacurrinne* eta *Sela(i)tse-*ren bukaerako bokal erdikoak nahiz *Herauscorritsehe* eta *Larrahe-*ren akabailako *-he* segidak zer diren, gramatika eginkizunik baduten, ezta beti etorki bera daukaten ere.

Hasteko, ez da ezinezkoa adibideren batean *-e* datiboko *-ae* desinentziaren hondarkia izatea. Bigarrenik, batzuetan, azkeneko bokala oinarriaren (bakunaren, elkartuaren edo eratorriaren) zatia izan daiteke eta, ondorioz, teonimo horiek deklinatu gabe dauden formak dirateke. Bada beste aukera bat, Luchaireren ondotik, ikertzaile batzuek zenbait teonimotan (euskal ondareko) datiboko *-(h)e* hondarkia dagoela proposatu baitute, jainko izen horien bukaeran *-bai* bokal ondoren (*h* hizkiarekin horniturik), bai txistukari ostean-, arruntean, latinaren eskutik azal ezin den bokal erdikoak baitakusate.

Izan ere, hizkuntzen arteko nahasketak ohikoak ziren Antzinatean, Lusitaniako epigrafeetan ikus daitekeen bezala. Oroit bedi Viseuko inskripzioan jainkoen espresioa lusitanieraz dagoela, latinezkoekin zerikusirik ez duten datiboaren hondarki indigenak dituztela teonimoek.

Datiboarena ez da, zernahi gisaz, teonimoen bukaerako *-(h)e* horiek zer diren esplikatzeko bide bakarra, ezin txarrets daitekeelako erabat etsenpluren batean *-(h)e-k*, jatorriz, genitiboaren morfemarekin zerikusia edukitzea, agian, superlatiboko gradua- ren espresioarekin, besteak beste, euskal eremuan *-gainetiko* tokietan bezala– latinez–

ko jainkoak asko aldiz maila goreneko epitetoekin ageri direlako (*Optimo maximo*, *Invicto...*) eta ondoko beste hizkuntza batzuetan ere badirelako adjektibo gisa superlatiboak hautatu direlako lekukotasunak (*Belisama*).

Atharratzeko *Herauscorritsehe*-n (eta Iruko *Larahe*-n?) dugun *-he* genitiboaren desinentzia datekeelako hipotesia onetsiz gero, suposa daiteke, era berean, Muruzabal Andiongo *Larahi*-n eta Errezuko *Larahi*-n den *-hi*, agian, datiboaren hondarkia izan daitekeela. Akaberako *-hi* horren agerraldi bakarrak Nafarroakoak dira, horratik, eta, gainera, hor daude aieru horren alde mintzo ez diren (oinarrian *lohi* bide duten) Akitaniako antroponimoak.

Harira itzuliz, badira *-(h)e*, aldi oro, zehar osagarriaren funtzio sintaktikoa adierazteko behialako morfema delako hipotesia zalantzan jartzeko argudioak, baita *-e* duten teonimo batzuk deklinatu gabe daudela suposatzeke arrazoiak ere.

Iruko teonimoaren inskripzioa egin zutenek, adibidez, (*-h-a* zizelkatu gabe) **Larae* idatz zezaketen (*cf.* *Errensae...*) eta *Larra-* oinari (*-he* erantsi ordez) *-e* hizkia (bakarrik) gehituz teonimoa datiboko forma bihurtu. Esan gabe doa, ekonomikoagoa ez ezik, irtenbide hori latinaren ikuspegitik zuzenagoa eta gardenagoa zatekeela.

Amaieran *-tse* edo *-(s)se* dutenen (*Sela[i]tse*-ren, *Helasse*-ren) kasuan ezin bazter daiteke *-x(s)o/-so*-ren pareko atzizki femeninoa egotea eta, apika, *-e* bokala genero mozioa izatea. Ikerbide horren alde hitz egiten du Soriako iparraldeko *Ae(milius) Onso*, *Pontia Onse* eta *Antestia Onse* antroponimo hirukoteak, cognomina horien argitan pentsa baitaiteke *-o* eta *-e* bokalek generoa bereizten dutela. Hitz bitan, Akitanian eta Sorian, *-xso/-xo/-so* ez ezik, (hala zegokionean latinez hirugarrenetik [*-n-i*] deklinatzen zen) *-xe/-se* berrekailua bazelako zantzua dagoenez gero, ez nuke guztiz baztertuko *Sela(i)tse* eta *Helasse* teonimoetan (eta *Herauscorritsehe*-n) atzizki hori bera izatea eta biak (Barbaringo eta Miñaokoa) nominatiboan egotea.

